

Pello Artetxe
“Urdaneta”

Nere bizitzaren gurdia

Argitalpena: Antonio Zavala

Auspoa Liburutegia

305

ARTETXE, Pello

Nere bizitzaren gurdia / Pello Artetxe "Urdaneta" ; argitalpena, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2007.

443 or. : argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 305)

Barruan du : Pello Artetxeren bertsoak. – Aurkibidea

LG SS 1375-2007. – ISBN 978-84-7907-575-0

I. Artetxe, Pello. I. Zavala, Antonio, ed. lit. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III. Título. IV. Serie.

929 Artetxe, Pello

821.361-1"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-575-0

Legezko Gordailua: S.S. 1375/2007

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Pello Artetxe
“Urdaneta”

Nere bizitzaren gurdia

Argitalpena: Antonio Zavala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2007

Itzaurrea

Pello Artetxe *Urdaneta* adiskidearen liburu oni itzaurre edo sarrera labur bat egin bearrez, lerro batzuk idaztera noa, bidezkoa danez. Baiña bildur naiz ez ote dan alperrikako lana izango. Idazlan au, izan ere, dana edo geiena beintzat, autobiografia baita. Egilleak bere bizitza kontatzen digu, eta bai garbi eta dotore asko kontatu ere, bear diran argibide eta xee-tasun guziak emanez. Ezer berririk ezin, beraz, guk erantsi.

Baiña orrialde aukeratu eta kopiatzerakoan nere barruan sortu diran burutapen eta sentimentu batzuk kanporatu nezazke, gutxienez ere.

Pello Artetxe Zulaika Aiako Urdaneta auzoan jaio zan, 1924-ko abenduaren 12-an, Indagarate-berri baserrian. Eta baillararen izena erabili du berak, beti edo geienetan, bere idazlanak siñatzeko.

Baillara ori mendi-bizkar batean dago, Aiako partean mugari dagokionez. Baiña bidez-eta Zarauztik gertuago eta ero-soago. Ango Indamenditik beera ederki ikusten da erri dotore eta geroz aundiago au, urre-koloreko bere ondartza bikaiñarekin; atzean, berriz, itxaso urdiña eta zabala, berak eta zeruak alkar jo arte luzatzen dana. Eskubi-ezker, berriz, mendi-lerro aundiak. Alde batera, Izarraitz tantai eta lerdana, Agerreburu, Irimo, Pagotxeta, Izazpi, Santa Engraziko muiñoa eta ermita, Aralar aundia, Ernio eta abar. Beste aldera, berriz, Talaimendi, Igeldo, Jaizkibel, Aiako Arria... A zer nolako gozamena, eguraldiak batere laguntzen duenean beintzat! Ikuskizun lilluragarri ori bere begien mendean zuela azi eta bizi izan zan gure Pello Artetxe bere aurtzaro eta gazte denboran.

Mendi-mendian jaioa degu, beraz; eta zer ikusi asko du orrek orrialde auetan agertzen dan euskerarekin. Leenengo argi eta garbi ikusten dana zera da, izan ere: Artetxek, amaren bularrarekin batera, erderarekin oso gutxi kutsatutako izkuntza bereganatu zuala.

Ortikan dator, batez ere, bere idazkeraren aberastasuna eta dotorezia. Euskera jatorra eta oparoa, benetan, Pello Artetxerena. Irakurtzerakoan atsegin ematen duan itz-etorri gozoa eta baiña. Nolaerebait laburtzeko, klasiko baten aurrean gaudela ere ausartuko nintzake esaten, eta erri-izkeraren eredu batekin topo egin degula ere bai.

Ortaz gaiñera, orrialde auetan gizon baten izkera eskeintzen zaigu, noski; baiña bai jende mordo aundi batena ere. Irakurtzen ari geran lerro auen atzeko aldean, oraindik ere orrela mintzo dan eta gizaldietan zear orrela mintzatu dan erri oso baten izketa modua entzuten degu. Eta ori, tamalez, geroz eta gutxiago gertatzen da gaur eguneko idazkietan.

Berdin esan genezake liburu ontan erabiltzen dan gaiarekin ere. Gizaki edo pertsona baten berri emateko osatua da. Baiña aldi berean, eta bearbada egillea ortaz oartu gabe, erri batena ere eskeintzen zaigu, Urdaneta eta bere jaiotetxearen berri ematen digunean, batez ere. Euskal jendea betidanik eta oraintsu arte zer izan dan eta zer-nolako bizimodua egin duan, alegia. Zera esan nai degu: liburu onek etnologiatik ere asko duala.

Baiña Pello Artetxeren euskerarengatik badegu beste zer-bait esan bearra. Bera etzan etxean ikasitakoarekin bakarrik gelditu. Argi eta garbi ezagun du irakurle saiatua izan dala. Bide ortatik bere euskera leenaz gain asko landu, jantzi eta aberastu duala. Are geiago: naiz eta mendi-baserri batean jaioa izan, erderaz ere askotxo irakurri duala batere dudarik ez du, bide ortatik munduaren ikuspegia zabalduz eta aberastuz.

Basarri zanak sarritan esan eta idatzi oi zuan, bera eskola gutxi zapaldua zala; baiña betidanik irakurle amorratua izan zala, bai euskeraz eta bai erderaz ere, eta zeukan kultura ortik bereganatu zuala, saiatuaren saiatur. Berdin esan genezake, nik uste, Artetxegatik ere. Biek ere berezkoa izan nunbait ere liburuenganako zaletasuna.

Artetxeren autobiografia liburu onen leenengo zatia da, eta orrialderik geiena berak betetzen duana; baiña bi zatitan banatzen da. Bata aurtzaroa eta gazte denbora; Urdanetako bere jaiotetxean bizi izan zan garaikoa alegia, Afrikan soldaduska bete zuan aldia ere berekin duala. Eta bigarren, Lasartekoa, bere bizitzaren zatirik geiena egin duan erria.

Lasartera joan eta Mitxelin izeneko lantegi ezagunean lan egiten du. Eta bolaratan, garai artan oi zanez, egunero amar-amabi ordu sartuz lan egin ere. Baiña astirik eta kemenik badiu, ala ere, beste eginkizun batean buru-belarri murgildu eta saiatzeko. Zer ote degu bera? Gure izkuntza zaarraren aldeko burruka.

Bai; iñoiz ere etsitzen ez duten burrukalari oietakoa izan da Artetxe adiskidea, naiz eta berez pakezale osoa degun. Aspaldiko bertsolari batek, Juan Jose Sarasola *Lexok*, oker ez bango, onela dio bertso batean: “pake-gizonak gerretan”. Arraza ortakoxea izan da gure Pello ere. Beti ere euskeraren alde zer egin ditekene begira; andik edo emendik nundik lagundu dezaioken alegia; eta, ikusitakoan, antxe bere biotza eta bizkarra jarri, eta aal duan indarrez bultzatu, garai batean base-rietan gurdiaekin egin oi zan bezelaxe.

Ortik ikastolak zutik eraiki eta legepean jartzeko aalegiñak; Arabako Larreako komentu zaarrean jai egunetan egin-dako lanak, bera oporretako etxe biurtu arte; Lasarteri erri-mailla eman arteko aalegiñak; euskal aldizkarietara bialtzen zituan bertso idatziak eta prosazko ainbat idazlan: *Goiz-Argi*,

Príncipe de Viana, La Voz de España, El Diario Vasco, Agur, Lasarte-Oria eta abarretan argitaratzeko, besteak beste.

Bertsozaletasun aundia ere izan du Pellok betidanik. Ori dala-ta, an-emengo ainbat eta ainbat bertso-jaialditan aurkezpenak egin eta gaiak jartzen sarri ikusten genduan garai batean. Bere zeregin kuttun eta maiteenetako bat orixe zuala esan dezakegu: bertso-jaialdietan antolatzaillak eta zuzendari izatea, beren saioak luzimentuz janzten bertsolariei lagunduz. Bertso-laritzaren alor ori biotzean izan du beti Pellok, ezbairik gabe.

Bestalde, jubilatuen etxeko ospakizunak antolatzen urteetan izan dituan buruaustek ere kontatzekoak lirake, aitatu besterik egingo ez baditugu ere. Eta beti ere nekea zer zan jakin gabe eta ordain saririk batere eskatu gabe.

Eskuarteetan dezun liburu onen bigarren partean Artetxek idatzi eta moldatutako bertso-saillak osatzen dute. Maitasunez eta begirune aundiz moldatutako bertso-saillak dira, ain xuxen. Gaiak, batzuetan bere buruari dagozkionak dira. Beste askotan, berriz, mundu zabalean gertatutako gora-beerak. Bere iritzia argi eta garbi eta gizalege jatorrez agertzen du beti, geiegikeriak alde batera baztertuz, iñor mindu eta iraindu gabe.

Orrez gaiñera, bertsogintza dotorea du. Errez eta dotore tolestua, nola neurrietan ala errima eta euskal bertsoen molde jatorretan ere. Anka-luze eta anka-motz gutxi aurkituko diozu. Eta, izkuntzari dagokionez, txukuna oso, berezko itz-jario ederrekoa eta Urdaneta aldeko edozein mendi-iturriko ura bezin garbia.

Ezagun du, bestalde, kanta-paperetatik-eta leengo bertso zaarrak arretaz irakurri eta ausnartu dituala eta aietaz bere burua jantzi duala. Baiña bere garaiko bertsolarien ikutu eta kutsu nabarmena ere badu.

Esate baterako, Basarriren bertso-moldea sustraitik ezagutzen du. Eta bai Xalbadarren bertsogintzaren edertasuna ere,

gure iritzirako beintzat. Aiek biak maisu onak ziran, eta biengandik asko ikasi du, noski.

Artetxek, beraz, bai prosaz eta bai bertso idatzietan ere, mailla ederra erakusten digu. Bidezkoa zan, beraz, beraren autobiografia eta bertsoak bildu eta argitara ematea. Pozaren pozez bete degu zeregin orixe gure Auspoa sail ontan.

Tamalez, berak aldizkarietan banatutako ainbat eta ainbat artikulu ez dira liburu ontan sartuko, lekuaren faltaz eziñezkoa danez. Baiña irakurleak jakin beza Artetxek badituala beste idazlan asko ere. Beraren emaitza eta uzta emen eskeintzen deguna baiño askoz ugariagoa dala.

Baiña liburu benetan mardula danez, ez nuke aurkezpenetan geiago luzatzerik nai. Askoz obe du irakuleak Pello Artetxe *Urdaneta*-ren bertso eta idatzietan buru-biotz murgiltzea, arretaz irakurri eta patxadan gozatuz.

A. Z.

Nere bizitza



Pello Artetxe Zulaika "Urdaneta"

Nere bidea

Nere bizitzako une eta gertakizunik garrantzitsuenak bada ere zueri agertzeko asmoa dut, naiz eta garrantzi aundirik daukan gauzarik ez dutan arkitzen. Emen dijoaz diranak diran bezala; obeto esanda, nere ustez diran bezala beintzat.

Zerbait nintzan arte ez nuen artu ezer egiteko erabirik; eta orain, ezer ez naizen garaian, ortarako zaletasuna sortu zait; eta barkatuko al didate irakurleak. Ez dut gauza aundirik egin mundu ontan aipamena merezi duenik, neure onerako beintzat; eta gizartearen onerako, berriz, ez da ain erreza. Alegin galantarekin asiagatik ikusi izan ditut azkar zapuzten, traba trabaren gaiñean arkitu dutelako. Ez baida ekintzarik danentzat aldi berean ongi etortzen danik.

Orregatik dira ain gauza murrizak eta illunak gizonak gizartearen alde egiñiko lanak. Gaitza da esaten zer gertatzen dan; baiña ala da eta saiatuko naiz zerbait argitzen, naiko bildur naizen arren alegiñak egiñagatik illun geldituko ote dan gauza.

Gizartearen onerako bakarrik lanak egiten ari danak uste ez duen arren, gero baiño gero sinistuago nago norberari ere tokatzen zaiola zerbait beti, eta iñoiz asko gaiñera, bere biotza ukitzen dion gauza, eta orixe dala esango nuke bere ekin-tzan iraun arazten diona. Gaiñerakoan, etsi araziko lioke, setatienari ere, jendearen kritika edo jardunak. Baiña barkatu orain artekoa eta goazen asitako arira.

Ni jaio nintzan 1924 urteko abenduaren 12-an, Aiako Urdaneta baillaran dagoen Indagarate-berri deritzan baserrian, eta urrengo egunez bataiatu Urdanetan bertan. Parrokia baizan, eta

da oraindik ere. Zortzi senidetatik zarrena nintzan. Bat, gazteena, umea zala il zan, eta beste zazpi iritxi giñan eldutasunera. Orain bakandu bagera ere, talde polita da ori baserri koskor baterako. Zazpi aietatik bost il ziran eta iru bakarrik bizi gera orain. Zortzi anai-arreba giñanak, bi arreba eta ni gera bizirik gaudenak. Jaunak eman dezaiela betiko atsedena ildakoei.

Aita, Jose Antonio Artetxe Illarramendi, ni jaiotako etxe berekoa zan; eta ama, berriz, Felisa Zulaika Arruti, Aiako Altzola baillarako Azti-bekoa zeritzan baserrikoa. Orain erre eta desegiña dago, baiña nere sendia ezkerro beste bat ezagutu nuen an.

Aitaren aldeko aitona ere, aitona Martin, bertako semea zan. Gizon pizkor askoa, gaiñera. Bere eskumuturra ainbat lodiko aritzarekin egin baietz biurra esan izan zuen. Nere biak ainbeste lodi ia bazuen bakoitza; baiña indar arrigarriak zituen gizona zan, bere kolore gorriekin. Nik ezagutu nuenerako, etzuen alkoldun gauzarik edaten. Biotzetik zerbait sentitzen zuen eta edari alkolduna eta gatza alde batera utzia zegoen. Bere buruari gogor egiteko borondatea zuena. Gizon txalogarri oietakoa. Etzuen gauza guztietan asmatuko, baiña aintzat artzekoa zan aren izaera.

Aitaren ama, berriz, Zarauzkoa zan, Soasu baserrikoa, ta nik zazpi urte nituela il zan, biotzekoak jota.

Amaren aita altzolatarra zan, Azti-bekoa; ta bere brusa beltzarekin bederatzi t'erdietako kanpaiak jo ta laister an izango zan jai goizean, egualdi ona bazan pelotalekuko petri-lean eserita eta gizonezkoen zimitorioan beste batenbatekin berriketan, amarretako meza nagusirako. Urteta baillarako Paskualsoro baserrian bizitzen zan; baiña ez dut uste San Sebastian egunez bestetan izango zanik bein ere ango mezetan.

Nere amaren ama Izuelakoa izan bear zuen, eta arro sentitzen zan, gaiñera, Pastor Izuelaren arrazakoa izatearekin. Bai-

ña etzitzaion gogozko bere semerik bertsolari izaterik. Zer nai duzu? Orrelaxe izaten dira gauzak, eta ateratzen diran bezela artu bear.

Gure umetako aziera oso arrunta izan zan. Besteen antzekoa, alde guztietara begiratuta ere. Zazpi urte nituela il zan amona, eta neretzat zigor aundia izan zan ura. Andik aurrera anai edo arreba gazteagoren bat izaten zan zaindu bearra edo olakoren bat. Leen amonak egiten zuena, norbaitek egin bear izaten zuen. Askotan zarrenari egokitzen zaio amari eskua luzatu bearra, eta neri ere ala egokitu zitzaidan askotan.

Eskolako urteak etziran luzeak izan. Anai arteko gerraren erruz urte pare bat, bai, laburtu zitzaizkidan. Nik amabi urte nituen baiño leen itxi zan gure eskola. Apaizaren babesekoa zan; titulurik gabeko maixu edo maixtrak zebiltzan, eta euskeraz irakasten zan. Zer geiago bear zuten itxitzeko? Errepublikak errespetatu zuen; baiña «*¡Viva Cristo Rey!*» oiuka zebiltzanak, ez.

Zer egingo genduen guk, batez ere negu partean, eskolatik gelditu ta egun osoan etxean kolpe zorririk jo gabe? Zaude lasai, zerbait asmatuko dute eta. Baserrian ez da palta izaten lanik, ez aundientzat eta ez txikientzat; eta guretzat ere, egunean zortzi orduren bearrrik bazan, edo-ta geiago nai izanda ere, zerbait arkituko zuten.

Gau-eskolan ibiltzen ziran garai artan, soldadu joan aurreko urte pare batean-edo, orrela zerbait idazten trebetzearren. Nik matematiketarako nuen gogo izugarria, eta maixuak esan zion aitari ea zergatik etzidan uzten neguan gau-eskolara joaten; eta, etxe inguruan zanez, utzi egin zidan eta ni pozik joan. Urte batzuetan antxe ibilli nintzan. Ez gutxi argitu ere, batez ere matematika gaietan. Nere bizitzan izan dut orren bearra ere, eta eskerrak nere gurasoei eta don Jose Roteta zarnari. Goian beude.

Umea nintzaneko kontuak gogoan eukitzen oso buru azkarrak izan det, eta oraindik ere oroitzen naiz Primo de Rivera-ren garaiko kontuetaz. Errepublikaren etorrerakoetaz ere bai. Zazpi urte nituen baiño leen errepublika jarria zan gure artean. Baiña umea izan batetik, eta baserrian bizi bestetik, ez baserriko jendea besteak baiño leloagoa zalako, baiña eguneroko gorra-beerak gutxiago erabiltzen ziralako kalean baiño, esan ditek urrutiago bizi giñala mundutik, kaleko jendea baiño.

Garai artan bazan lege bat, muturrean eztena zeraman akuillurik eramaterik etzegoena; eta idi edo beiak jotzea, berri, txarra zala esaten zuten. Baiña miñik eman ezean bada-kizu zer pauso duten idiak. Berak nai duten eran ibilli bear, nai bazan eta ez bazan. Orregatik asmatu zuten alako katxarroa akuilluaren puntarako.

Konillaren (*embudo*) muturra bezelako katxarro bat egin; meeneko aldetik egur mutur bat jarri puntan ezten batekin, nai zanean txapel baten tankeran eta nai zanean kentzen zitzaiola, eta kendutakoa patrikan gordetzen zala, eta ola ibiltzen eza-gutu nituen nik, erderaz esaten dan bezela, «*ley puesta, trampa puesta*» egiñez.

A!, eta akuillu ordeaz erabiltzen zan ojalatazko tresna orri “kitapona” (*quita y pon*) esaten zitzaion.

Eliz-mutil ere oso gazterik asi nintzan, aldarean alde batetik bestera liburua aldatzeko gauzatu ordurako. Elizatik gertuko nintzan batetik eta *introitoak* latinez ikasiak neuzkan bestetik, gazterik *debutatu* nuen “mutiko biurrien” sail ortan. Biurriak izateko ospea dute monagilloek, eta ez dut uste gaiñera gezurra danik. Neronek aitortzen dut millaka deabrukeri egiña naizela.

Baiña, egia esan arren, iñork sinistu ez ditena auxe da: meza santua emateko ardotik ez nuela probatu, santasekula ere, nolakoa izaten zan. Ez daukat damurik gaiñera. Bein probatu

izan banu, ziur asko gustatuko zitzaidan eta arrapatuko ninduten. Baiña ainbeste urtean ibilli arren ez dut ortan beintzat pekaturik. Arritzekoa? Nai badu, bai, baiña egia.

Eskerrak osaba Antoniori. Arek bildur geiago ematen zidan apaizak baiño. Sakristaua zan eta serio aparta, gaiñera. Biurrikeriak egin nai baziran, arengandik aparte egin. Bestela, aren begiratuak sartzen zuen errespetoa. Ori, iñori kaskarreko bat ematen ikusi ez nuelarik. Iñoiz berak “nekauen rre-juras” esatean, begiak argi ibilli!

Ortik aurrerako gora-berak ondoren datozen orrietan jartzen ditut. Goazen neri dagozkidan arazoak aipatzera, neurri aundi batean.

1948-gn urtean ezkondu nintzan. Aizarnazabalgo alaba dan Joxepa Lazkano Tolosarekin, eta bost seme eta bi alaba izan eta danak azi edo kozkortu ditugu, Jaunari eskerrak. Amairu billoba ere bai, sasoirik onenekoak batzuek eta besteak oraindik gaztetxoak. Baiña gazteentxoena ere praka zuriak jantzirik erriz erri pelotan jokatzen asiak daude, beintzat, eta aurrera.

A, ori bai! Sendi osoaren artean azkazal bat ainbeste ere ez dugula falta, Jaunari eskerrak. Orixe da daukagun grazirik bereziarena eta neure arrotasun bakarra: osasuntsu azi edo kozkortu dirala zazpirak.

Benetan gauza berezia da nork bere jaioterriari edo jaiotako tokiari diogun atxikimena. Nik aitortzen dut nerea eta, noan tokira noala, beti emango dut jaiotako tokiaren aditzera. Naiz gauza aundia ez izan, beti gogoan izango dut nik Urdaneta. Izan ere, ain berezia dala iruditzen zait. Ez du iñoren berdiñik; ez iñungo antzik eta ez ezer. Bera bakarrik da alakoa eta kito!

Gero, egia esan bear bada, aldegin bearra etorri zitzaidan arte, antxe izan bear nuela uste nuen, zarrena nintzanez eta oiturari jarraituz. Beti arakoxe jarrera ta joera izan nituen, danak uztera beartu arte; eta orduan ere alegiñak eutsitzen eginda ir-

ten nintzan. Baiña irten nintzan betirako eta zer egingo da? Alaxe zeuden gauzak eta alaxe artu bear!

Etxetik irten eta ninjoanean, Soatxuko Langa esaten zaion tokitik igaro nintzanean, atzera begiratu nuen zori gaitzean eta negarrari eman nion, egia esateko. Neu baiño zori txarragokorik etzan izango nere ustez iñor ere mundu zabalean. Andik aurreraxeago dagoan Zulotako Zuloa deritzaion tokian, egin nuen naiko negarra, eta orduan joan nintzan bidean aurrera. Ni ikusi nindutenak esango zuten: «Ezta urkamendira balijoa ere ortaraiño jota». Baiña alaxe nengoen ni, eta eskerrak artu nuenari artu nuen ase aldia. Geroztik ere triste aldi galantak baditut izanak, baiña alakorik ez.

Gerra ondoreneko kontuak ziran oiek. Danak baserrian bear orduan. Gose urteak ziran, izan ere. Urte aietan kalean langillea goseak zebillen geienbat, eta ez da arritzeko gauza arako irrika eukitzea, naiz tradizioz ez ala izan. Urte aietan etzan ezer normalik, eta anormalidadean dana barkatu bearra dago mundu ontan.

Etzuen urte askoan iraun orduko joerak. Ondoren iritxi zan beste alderakoa, eta orain ez du iñork baserrira ezkondu nai. Alde ederra dago gure garaiko gatazkatik. Danak arrapazka baserrian bear zuten garaian baiño lasaiago ibilli ditezke baserriko maiorazkoak.

Zenbait urtetan joan nintzan, kalean lan egin da gero, baserrira egunero lanera. Baita Michelin-en asi ta gero ere. Orioko Aizperro baserrira joaten nintzan, eguraldi itxurazkoa zan guztian.

Goizeko erreleboa baldin bazan, etzan lotarako asti geiegirik gelditzen. Baiña urrengo bazkalondoan egingo zuela siesta bikaiña eta, orrekin norbere burua engañaturik, aurrera. Baiña gutxien uste zenduen garaian eta tokian arrapatzen ziñun bearrak. Orrek ez du barkatzen eta orregatik izaten dira

orrenbeste ezbear lanean eta bidean, nola alde baterakoan eta ala besterakoan ere.

Zeïnen gauza garrantzitsua dan, zortzi orduan lan egiñaz eta bere jorñaltxoaz, bera eta bere familia aurrera ateratzea! Gaur ez daki askok. Jaunari eskerrak ezagutzera iritxi giñan; baiña ordu asko ta asko egin eta gero.

Orain aspirazioak dauzka jendeak; baiña ordukoak etziran gauza aundiak. Gosea kentzea eta bear-bearreko eziera norbere umeei eman nai izateak ez dauka lujoarekin ezeren zer ikusirik. Ori lortzen alegin guztiak egitera beartua dagoela uste dut gizadia oso-osorik; eta, ala egin arren, gosea pasatzera beartua zegoen gizadiaren zati aundi bat.

Ori baiño gutxiago ez dago eskatzerik. Ortik ezin diteke ezer kendu. Gizona gizon danak obligazioa dauka bere andrea ta bere umeei gosea kentzen alegintzeko. Oroitzen naiz nola esaten zuen gure konpañian egon zan sarjento batek. Abizenaz ez naiz oroitzen, baiña Ponciano zuen bere izena; ori ziur oroitzen naiz. «*Dio noh dio un etómago y lo tenemoh que yená, cada uno como puede*» esaten zuen, eta arrazoirik etzuenik ezin esan.

Izozteak piñuak igartu zituenean utzi nion nik baserrira joateari. Orduan naiko lana bazegoen zerrategietan eta poliki ordaintzen zuten. Michelin bakarrik izatetik alde izugarria zegoen orrekin, nik bezela famili aundia zeukanarentzat, danak bear izaten diralako.

Aurre artan orduko duro bat irabazten zan, ori asko jota. Ori gertatu zanetik, sei, zazpi, zortzi pezetaraiño ordaintzen zuten. Orrekin osatzen zan gosea kentzeko ainbeste.

Orion bizitzen nintzan ni orduan; eta, arratsaldetik lanera joan bear nuenean, iru ordu besterik ez neukan sartzerik zerran. Neure gogozkoena nuen erreleboa bestearrekin trukatu, eta bi txanda gaez eta bat egunez egiñez ibilli giñan bolara

batean; eta bi sorbalda gaiñak, ederki urratu ta gero, arakaiztuta eduki nituen. Bakarrrik nintzanean, ezkerreko sorbaldan eramaten nuen. Baiña tabloi aundi samarrak baziran, bi lagun artean eraman bear.

Beste laguna, Bentako Luix San Sebastian, bizi da oraindik eta gogoan edukiko du ziur asko. Berak eskubian eramaten zuen karga; eta, bion artean eraman bear genduenean, ni eskubira obeto moldatzen nintzala ura ezkerretera baiño, eta eskubian eramaten genduen bion artean eraman bear zana; eta orixe zan bi sorbaldak lenbizi urratu eta gero arakaiztuta edukitzeko arrazoia. Etzan besterik.

Illunabarretan beste tratu bat ere egiten genduen zerrako nagusiekin: lanari uzteko orduan, kastillora eramateko zeuden tabloiengatik onenbesteko bat emango zigutela eta ordu beteko edo orduterdiko jornaia jartzen ziguten, iñoiz bi ordukoa ere bai; eta antxe amabi orduterditik aurrera beste saioa, ango tabloi mordoa *eliminatu* arte jo ta autsi. Eskerrak sasoi ona gendukanari. Bestela, zeñek iraun artan?

Ortan izaten zan arrapazka, alik eta danak kendu arte zerrategi aurretik. Orri deitzen zitzaion *eliminatzea*. Ori zan egin bear zana ere. Gu arratsaldetik giñanean, alde ederreko atari alde arkituko zuten zerrariak ere, zerratik tabloia ateratzeko.

Sorbalda buruetatik odola boteaz irabazitako ogia izaten zan. Baiña pozik izaten giñan, an irabazten zan txanponarekin. Azkenengo *sprint* arekin jantzi aundia ematen genion ango jorنالtxoari, eta berrizko pozez gelditzen giñan, egia esateko. Ez ostua zalako an ateratzen zana; baiña aurrez kontatu gabea izaten zan eta orrek poztasun berezia du. Ez pentsa txorakeria danik egun luzearen bukaeran txanpon batzuk arkitzea.

Ez uste izan gu bakarrrik giñanik era ortan jokatzen genduenak. Ortarako egokiera ta almena zuen guztiak era berdinsuan jokatzen zuen garai artan. Ez da normala, baiña ortara

beartuak geunden eta ortara jotzen genduen egokiera genduen bakoitzean. Nik aitortzen dut nerea, eta beste askok ere alatsu ibilli bear izaten zuten.

Eskerrak gazterik oituak giñanari lanean. Ainbeste egin bearra egokitu zaigu geure egunetan. Lo egiteko ainbat asti izan ezkeru, ez dit bildurrik eman lan egiteak. Ortan bai, egia esan, nik baiño iraupen geiago zutenak asko ezagutu ditut. Baiña bestela lanak ez nau bildurtu. Izan dut orren bearra nere bizitzan, aurrera egingo banuen.

Etzan berriketa garai artan kalean bizimodua ateratzea. Zortzi orduan eta amarrean egindako lanarekin etzan iristen gosea kentzeko ainbat jatera; eta nai zan guztian etzegoen ainbeste ordu sartzerik. Etzan orduan bromarik. Guk, baserriko semeak giñanok, alde ortatik baliteke obeto moldatuak izatea.

Baiña ez uste berriketa danik kalean eguna sartu eta baserriira joanez igaro astea, eta babarrun mordoxka bat nolabait ondo ezkutatuta ematen zizutena artuz, astea joan eta astea etorri ibiltzea, igandea noiz etorriko zai naiko loa egiteko. “Lepoa mea ta indarra gutxi” izateko berebiziko ibillera.

Ala ibilli ta aurrerako aundirik egiten etzan arren, jan egiten zan. Egiten ez bazan, berriz, ez lan eta ez jan egon bear izaten zan. Gu ez izan, berriz, era ortara oituak, batekoz bestera baizik; eta an edo emen lanik bazan, eta orixe izaten zan batean edo bestean, etzitzaigun beste erremediorik gelditzen: lan egin bear, jo ta autsi.

Tristeia da gauza auek danak aitortu bearra; baiña egiari berea zor zaion ezkeru, bijoaz beren bidean.

Ainbeste urtean ainbeste odol xurgatu zioten langillediari. Billuzten asiko bagiña, danak azalduko lirake izan ziran bezela. Baiña gure orgullo madarikatuak galerazten digu gauzak izan ziran bezela aitortzen. Batzuek batera eta besteak bestera kontatuz, egia ez dan guztia jakiten duzu, baiña egorik ez bein ere.

Nere ametsen kabia

Nork esan bear zidan neri larogei urtetara eldu ta gero ere zurekin amets egin bear nuela? Baiña alaxe da eta ezin ukatu ola danik. Nai ez dala ere, aruntz joaten baida jaiotako tokira burua. Ori, gaiñera, ogei ta sei urterekin aldegin nuelarik.

Ez besterik ez bezelako tokia dalako. Baiña biotzak agintzen duenez gauza auetan, bere araei jarraitu bear guk bizi geran arte. Ni orregatik orren errez erortzen naiz bere sareetan. Barkatu, irakurle: baiña ain bat egiña sentitzen naiz berarekin, neure izenorde bezela ere orixe erabiltzea erabaki nuen; eta berriz egin bear banu ere, bera artuko nuke batere zalan-tzarik gabe.

Antxe izan ziran gure jolasak; antxe gure jokoak; antxe izan giñun lenengo porrotak, galtzen ikastea ere irabaztea bezain bearrezko baida; baita gure norgeiagokarako griña ere. Ori ala da. Nai ta nai ez aitortu bearra dago guk gazte-gaztetatik ikusi genduela etxean edo auzoan apustulariren bat. Ezagutu bear izan giñun, besterik ez bazan, neguan baso-mutillak etxean ziran garaian, aizkol-apustuak eta arri-jasotzeak. Baita igandero bezelatsu izan oi ziran pelota partidu aiek ere. Danak apurka-apurka sortzen joaten dira norbanako jokabideak. Uste ez arren, ala da ori.

Orduko gure jolasak eta jokoak oso xelebreak ziran. Esate baterako, “txapeta”. Zer dan txapeta? Orma batengandik lau edo bost metrora marra bat egin eta marra aren atzetik, txanda-txandaka, jokoan sartzen ziran guztiak ormara txanpona jaurti. Zeiñek urreago ipini eta nor noren urrena dan gogotan artu ondoren, aurrera egiten zuenak txanpon guztiak bildu eta, eupa!, buruz gora bota eta aurpegiz ateratzen ziranak be-

retzat; eta gaiñerakoak urrena gelditu zanak ere berdin, eta ortan saillean jokatzeko ziran, azkeneko txanpona aurpegiz gora atera arte.

Berriz ere txanpona bota eta lengo legean jarrai aurrera. Tiraldi bakoitzeko “txakur txikia” jokatzeko genduen; bost xentimo. Denbora pasatzeko oso polita izaten da. Gu, beintzat, amaika saio egiñak gera, alkar arrapatzen ibiltzen giñanetik asi eta amalau bat urte arte. Gure aurrekoak pelotan txanda ematen frontoian asi ziran arte, olakoxe gauzetan pasa bear denbora.

Pelotan txanda ematen asi arte esan dut eta alaxe da. Pelotan ere txandaka ibiltzen baizan. Bi edo iru partidu batera jokatzeko ziran. Bakoitzak bi tanto egiten zituenean, kanpora; eta urrena sartzen ziranak beste bi egin eta berdin aiek ere.

Gerra aurrean batez ere, jende asko joan izan zan Urdanetako pelotalekura. Etzan gauza izugarria, baiña erderaz bada esaera bat: «*más vale caer en gracia que ser gracioso*», eta orregatik izango zan.

Begira nolakoa zan: bi baserriren ormak egiten zituzten bi orma nagusien lanak, aurreko orma edo *frontis* eta ezker orma, eta errebotearen bearrik etzan, atzea libre zeukalako.

Bi baseri aietako batek, *frontis* egiten zuenak, ain zuzen, etzuen leio bat bakarrik frontoi aldera, eta orri eskerrak pelotan jokatu al izaten zan. Gaztelu da beraren izena. Bestea, berriz, Serotegi, ezker orma egiten zuena. Onek bai, bazituen leioak eta sare bereziak; kanpo aldetik jarriak zeuzkan, eta orrela jokatzeko pelotan. Orain aldamenen berria egiña dago.

Ala ere, jendea barra-barra joaten zan aruntz pelotan jokatzera. Bai Altxolatik, bai Urtetatik eta bai Aizarnatik ere etortzen ziran, eta bertan ere bazeuden pelotari politikak: Landa anaiak, Otamendi eta abar. Noiznai armatzen ziran an bi edo

iru partidu. Jo ta autsi an ariko ziran alkar menderatu eziñik, izerdiz patsetan, batek jo ta besteak erantzun, tanto bat galdu baiño lepoa autsi naiago zutela, esaera zan bezela.

Olaxe izaten dira kasoak, eta Otamendi au iru anaitan zarrrena zan, eta beste bi anaiak pelota bat nola jotzen zan ere etzekitenak. Joxe Manuel zarrenak, berriz, traillukadak bezelako pelotakadak jotzen zituen. Alako gizona ere zan, eta indar arrigarriak zituena. Bestela ez ain egokia, baiña an, pelotaleku artan, ari irabazten etzan samurra. Sakea bildurgarria ateratzen zuen; eta, lautik laura sakatzekotan, etzan atsegin izaten. Aurreko pareta ere, etxe-pareta alegia, ez arri landua bezain bizia, eta ematen zionak ateratzen zuen, baiña eman egin bear. Emango bada, berriz, euki egin bear.

Landa anaiak ere berdin. Bost anai ziran, eta aietatik zarrrena ez dakit ikusi ere egin nuen pelota jotzen. Bigarrena ere oso gutxitan. Baiña irugarrena, Periko deitzen ziotena baiño pelotari txukun eta dotoreagorik izaten erreza ez dan oietakoa. Laugarrena, Martin, batere balio etzuen. Etzan ibilli ere egiten, noiz edo noiz txokoetan edo olakoren batean izan ezik. Dantzan bai; Urdanetan zan dantzaririk ederrentxoena bera izango zan. Eta, azkenik, Agustin, *Luxia* deitzen zitzaiona, oso pelotari txukuna ta egokia, naiz bere anai Periko bezain beso-librea ez izan. Ez dira asko, izan ere, egiten alakoak, eta etziruditen astean beingo pelotariak ziranik aipaturiko iru auek: Joxe Manuel, Periko eta Agustin Luxia.

Aizanartikan etortzen zan bat pelotari eder askoa. Ibarrekoa izan bear zuen. Eliseo deitzen zioten. Ez dakit izena izango zuen ala izengoitia, baiña orrela esaten zioten bere lagunak. Nik ere orrekin ezagutu nuen, eta gustoa zan ari begira egotea.

Beste bat altzolatarra zan, begira egoteko beintzat ikusgarria: “Lanberri Besomotza”. Gero Azpeitin tabernarekin bizi izan zan. Ezker besoa ukalondoa baiño zerbait goraxea-

gotik moztua zuen. Atzelari jokutzen zuen. Gezurra badirudi ere, ezker pareta jotzear zeuden pelotak eskubiurritz (derrebe-sez) ateratzen zituen aballa ederrean. Aurre samarrean arrapatzen zituenak eskubira zabaldu ere bai. Baziran geiago ere garai artan eskubiurritz poliki jotzen zutenak; baiña arek ematen zion bezelako garrotea ematen zionik nik ez dut ezagutu, ta ez dakit izango zan, baiña nik ez dut ikusi. Eta asko oberik izaten etzan errez. Mutil aundia zan. Mutil koskorretan bere beso ezkerria galdua. Pelotazalea bezain bizi amorratua. Argi arekin!

Urtetatik ere etortzen ziran poliki jokutzen zutenak, *Biurri* esaten zieten batzuek. Orain erremontean dabillen Eizagirre orren aitona, eta anai bat edo bi izango zirala uste dut. Jai arratsalde izaten zan geienetan zer ikusia Urdanetan.

Oiturak lege biurtzen dirala esaten dute eta ez da gezurra izango. Guk ikusi genduen beste oitura bat auxe zan, banakako partiduetan batez ere; bat atzetik ibilli eta gero tanto bakar-rrera jartzen zanean, “batekin seira” edo orrelako zerbait luzatzea. Baiña ortarako azken tantoa egiten zuenak izaten zuen eskubidea. Besteak etzeukan ortarako eskubiderik.

Zer esan nai du “batekin seira” dalako orrek? Partidua azkenetan dagoenean eta atzetik ibillita arrapatu duenean, batek luzerako itxaropen ohea eukitzen du eta orregatik aprobetxatzen du berriro asteko oitura ori. Baiña berriro asi ez utsetik; batekin asten da len aurretik dijoana: bat eta utsa.

Gogoan daukat oraindik: udarako eguraldi bero batez ekin zioten biak, Otamendi eta P. Landa, eskuz esku jokutzen. Asieratik aidean joan zan Landa, baiña emeretzi eta emezortzi urreratu zitzaion bestea. Bai orduan batekin seira luzatu ere azkar asko. Berriz ere aurrera eta berriz arrapatu ta luzatu. Urrengoan besteak berdin egingo zuen. Jo ta autsi biak izerdi patsetan. Arratsalde guztia alkar menderatu eziñik pasa zuten.

Azkenean illundu. Geiago ezin zitekela esan zien epaile bezela aukeratua zeukatenak. Eta, alkarri bostekoa eman ondoren, bertan bera utzi zuten partidua bukatu gabe.

Gogoan izan bi auek zirala Urdanetako onentxoena. Landa gazteak urrean jarraitzen zien arren, jendearen iritziz bi auek ziran onenak. Arratsalde artan aiek artu zuten tratua, aiek, alper-alperrik!

Urdanetak bazuen zati bat Beko-erreka deitzen zitzaiona. Erretzabal, Errotatxiki eta Goiko-ola, len bi bizitzakoa izana, nik batean ezagutu nuen, eta emengoak ziran Landa anaiak. Beraz, “errekatarrak” ziran izatez. Otamendi ori, berriz, ni jaio nintzan baserriaren aldamenekoa: Indagarate-zarra baserrikoa.

Beko-errekak bazuen beste baserri bat, Jauregi edo Palazio deitzen zana. Urez beste aldetik oso gertu zeuden Errotatxiki eta biak: Altzolaras errekek artzen zuenaz gaiñera, etxe batetik bestera, ogei metro? Naiko lan.

Au Aizarnakoa zan erriz, eta elizaz ere bai. Baiña angoak beti Urdanetan ezagutu nituen iganderoko mezetan, bai arratsaldeko bezperetan eta danean. Obligazioko gauzak bakarrik egiten zituzten Aizarnan: bataioa, illetak eta kito. Gaiñerakoan, angoak ere urdanetar ziran. Bidez etzeukaten alderik; bearbada Aizarnara urreago zuten. Baiña auzo urrekorik etzeukaten errian, eta etxeakoak bezela Urdanetakoak. Zerbaitegatik, beintzat, ala ibiltzen ziran beti, gure gazte garaian.

Etxe onen istoria, asko zabaldu ez bazan ere. Euskal Errian oso ezaguna zan garai batean. Basarrik bere idazlanen izenburuzat “Nere Bordatxotik” erabiltzen baizuen, eta ikurtzat, berriz, aren irudia. Amaika sukalde txokotan sartua izango zan Bidasoaz bi aldeetatik. Iparraldean ere oso ezaguna baizan garai batean gure Basarri aundia (g. b.). Ari bezela beste “nehori” etzitzaiola ulertzen esaten zuen Xanpun bertsolaria zanak.

Ori, atxerik gabe idazten zuelarik. Aundietan aundiena ziñan, Basarri, apalegia izatea beste aitzakirik etzenduena.

Olaxe ziran, bada, gure gazte garaian Urdanetako kontuak eta goraberak. Jainkoari esker, an izan genduen euskeraren sustraiak ezagutzeko aukera; eta geroztik gabiltzan tokian nun-nai ezagutzera emateko adorea ere bai.

Eskerrak D. Jose Roteta apaiz jaunari. Aren ardurapeko ikastolan ibilli baigiñan, eta gero gau-eskolan ere bai. Liburuak ere ark emanak izan nituen nik lenengoak; eta, jakiña, euskerazkoak izaten ziran aren eskutik zetozenak: *Garoa*, *Kresala*, *Argi Donea*, *Argiaren Egutegia*. Urtean bein plaza-ratzen zan au, eta oso liburu koxkor polita, gaiñera. Poz-pozik irakurri izan nuen nik, eta milloika esker, D. Jose, eta goian bezazu atsedeen.

Pelotarien kontuekin asi ta ez dakit noraiño joan naizen, eta barkatuko al didazu, irakurle. Baiña auk ere esan bearrak zeuden noizbait, eta orra esan.

Orain zure txanda dator, Joxe Manuel. Barkatu len atzera utzia. Zer esango dut nik Otamendi onengatik? Ez naiz ego-kiena gizon artaz itzegiteko. Baiña nere ustez –mundu apur bat ezagututa esaten dut– nere begien aurrean jarri dan gizon indartsuenetako bat zala esaten ausartzen naiz. Badakit aundia esatea dala, baiña berdin zait. Ala dan ustean esaten dut. Baiña, tamalez, marka arrigarririk etzuen utzi idatzita, eta ezin demostratu eta nik ikusia esaten dut: Zarautzen dema jokutzen ari zala Maiagako idi zurdiñakin, laprast eginda batek belau-nez bea jo zuen, eta bat-batean idien buruko lazotik eldu eta, rrau!, tira gora eta zutitu zuen lurretik. Ura zan txalo zaparra-da jaso zuena. Orren antzekoak asko zituen, baiña...

Gaiñerakoan oso gizon atsegiña zan. Apustu konturik entzun ere egin nai etzuen. Etxeko edo auzoko idiekin deman bai, batez ere sariketak ziranean, asko ibilli oi zan. Baiña oiek iñork ez ditu idazten. Goian bego Joxe Manuel gizarajoa.

Pastor Izuela bertsolariaren arrazakoa artu zuen emaztea, eta or datoz orain Luis, semea, Asier, Arabako txapelduna, eta Andoni billobak, bat Gasteizen eta bestea Lasarten bertsolariak.

Urdanetako ezaugarri bat aukeratu bear banu, zalantzarik gabe Joxe Manuel Otamendi bera izango litzake.

Ni soldaduskatik lenbiziko aldiz etorrita etxean nintzala il zan, gazterik oraindik. Min bizia sortu zitzaion nunbait, eta orrek ez du barkatzen, bein azaldu ezker. (g. b.)

Landa anaiak, len esan dugun bezela, Beko-Errekakoak ziran. Altzolaras zan erreka ori. Baserriak Goiko-ola zuen izena, naiz Urdanetan Olalde geiagotan esaten zan. Len, garai batean, ola edo *ferrería* oietakoa izana zan, eta ola bikaiña gaiñera. Ala izango zan, naiko ura baizuen batetik eta ikatza egiteko baso izugarriak bestetik. Gero, burnia egindakoan, eramateko ere ez oso urruti Zumaia. Nik ezagutu nuenerako, eta lentxeagotik ere bai noski, etzegoen orma zarrak eta bi errota besterik; arto-errota eta gari-errota.

Zergatik Goiko-ola izena? Ba, andik beraxeago oso gertu zegoelako beste errota, eta len ola izandako ezaugarri berdiñekin gaiñera, eta oni Beko-ola edo Bekola deitzen zitzaion.

Angoxeak, Goiko-olakoak, ziran Landa anaiak, bi pelotari bikaiñak izango lirakenak, zenbaitek bezelako erreztasunak izan bazituzten. Bein eskolatik gelditu ziran ezker jai egunetan bestetan pelotarik ikutu gabe ala jokatzen zutenean, seguru pelotariak zirala beren izatez. Il ziran aiek ere eta goian beude.

Bazuen beste berezitasun bat ere Urdanetak: iru etxe, Zestoakoak ziranak erriz, Urdanetako parrokira biltzen ziran. Errira oso urruti egiten zitzaie, bein asi nunbait eta gero ala segitzen zuten. Orain batekoak desegin samarrak daude, baiña besteak oraindik jarraitzen dute. Arbea-bekoa eta Goikoa, bi bizitzako etxea zan, eta bestea Indo, bakarrekoa, auek ziran iru etxe oiek. Orregatik esaten zuten Urdaneta *internazionala*

ere bazala, eta danekin ogei ta bi etxeren artean osatzen zuten ballara eta parrokia.

Ortaz gaiñera, boletan izaten zan beste ikuskizuna. Bola-tokia ere jende multzo polita biltzen zuena zan. Bertako jende-ari bestela iruditu arren, etzan ain egokia: sei brillakoa; eta noizean bein txukundu bat ematen zitzaion auzolanean.

Nun-nai bazan an txondarra egositako tokia. Txondar-zuloa deitzen zan an; zenbait tokitan txondar-plaza ere bai. Andik ekarri gurdikada bat edo beste iruri. Txondarra estaltzen ibiltzen zan lurra eta ikatz autsa naasian izaten zan iruria. Ari zirala jartzen zuten itxuraz eta aurrera. Antxe txanpon batzuk jokatuz denbora pasatzen zan eta kontentu. «Iruan par lau baietz!» eta «lau ezetz!». Eta gure antzeko bolari kaskarra bazan tiratzen zuena, «Esku illera ezetz eta baietz!» ere izaten ziran trabesak.

Izetako Martxiel Zarra eta Inazio Maiya ziran, bi mutilzar trabesean jo ta autsi aritzen ziranak. Auek biak ametsetan ere ortan ariko ziran. An beintzat etzuten denborarik galtzen. Ez orixe! Iñork sosik jokatzen bazuen, oietakoren batekin izango zan. Biak Nikolas Zendoiaren osabak izango ziran. Obeto esanda, gurasoenak. Martxiel, aitarena, eta Inazio, amarena, ni oso oker ez banago beintzat.

Giro ortantxe aziak gera gu, azi edo kozkortu beintzat, mendiko giroan. Jolas eta ibilleraz gaiñerako biziera ere; ez ikazkintzan, ez artzai bezela. Garai artan Urdanetan baserria zan bizibide nagusia. eta gure aurrekoak irteera bakarra baso-lanera zuten, geienetan beintzat, soldadu garaia pasatzean. «Txanpon batzuk egin arte» esan oi zan, eta batzuek egiten zizutzen eta beste batzuek ez.

Gerra ondorenak asko aldatu zituen gauzak: len basorako bezela, taillerren batera edo beste lantokiren batera. An bertako basoak bukatzera zijoazenez, jendeak ere aldatu egin zuen bere jokaera.

Lenagoko garaietan izana da gauza ori: «Gure aurrekoak au esaten zuten eta ala egin bear da». Oitura egin eta oitura lege biurtu. Baiña gerra zibillak aldaketa asko ekarri zigun, eta ondoren etorri zan mundialak geiago. Orain, berriz, ez dago gure lurraldea ezagutzeko moduan: taberna an eta taberna emen, eta oraindik ere berriak egiten ari dira. Liburu au argia ikusterako, gure jaiotetxean ere irikia izango dute nekazal-turismorako etxe oietakoa. Ori, lendik ere iru jatetxe an bertan badirala; eta bi pausora an dago Izeta, aundiena eta ederrena. Danetan jendea ibilliko da gaiñera. Izan ere, Urdaneta, naiz-ta ain aldatuta egon, betiko Urdaneta da eta utzi ari pakean!

1932-tik asi ta 1936 tartekoa konta dezaket ziurtzat. Lenagotik gutxiago noski, baiña nere burua ez noa jakintsutzat jartzera, orduz len erabakiak emanaz. Baiña neroni eliz mutil nintzan ezkeroztik gerra asi zan artekoa bai, zalantzarik gabe esan dezaket eta orixe kontatuko dizutet. Orrela egi egingo dugu beste esaera zar bat. «Norbera dan tokian Jaungoikoa» askotan esan oi zuten, eta zerbaitengatik izango zan.

Urtean lenbiziko errogatiba Gurutze Santu egunez egiten zan elorri gurutzeak bedeinkatzeko. Etxe bakoitzekoak gurutze sorta bat eramaten zuten. Gero, gurutze bat etxean gelditu eta besteak erabiltzen ziran soro edo baratzetan bana ipintzeko. Gero, Igokunde aurreko iru egunetan toki banatara egiten zan errogatiba; eta gero, azkenik, Bernabe Donearen egunez Indamendiko gurutzera. Ekaiñaren amaikagarren egunean izaten da egun ori. Andik ia baillara guztiko soroak ikusten zirala egiten da bedeinkapena. Gauza zoragarria izaten zan benetan.

Oietaz gaiñera, legorte aundia baldin bazijoan, euria eskatzeko eta eguraldi txarrak aurrera; eta, artoak ereiteko garaia gaiñean zanean, eguraldi ona eskatzeko ere egiten ziran errogatibak.

Norbait gaixo zanean ere, joan izan giñan elizakoak ematera. Eguraldi txar askoakin ere bai iñoiz, apaiza Jaunarekin eta eliz mutillak bat farolarekin eta beste zintzarriarekin, iñor agertzen bazan *tilin-tilin* joaz. Baserritarrak lanean ari baziran ere, eskuan zutena utziz belauneko jarriko ziran azkar asko. Garai aietan Jaun Sakramentatuari errespeto aundia zitzaion.

Etxean sartuta ere bai zeremoni galanta. Ondo daudenak gaixotzeko ez dakit ohea ez ote zan izango ura, gaixo dagoe-na sendatzeko baiño. Ni azkeneko izan nintzan tokian, amonaxo batengana joan giñan eta benetan gogorra egin zitzaidan gaixoak eraman bear izan zuen unea. Eztulka ito bearrean zegoen, ezin zion jarraitu apaizak jartzen zion galdera saillari eta pixka bat txuspertzen zanean berriro asi. Uste nuen, guk zeremoni arekin baiño, zeremoniak amonarekin lenago bukatu bear zuela.



Indagarate-berri, Pello Artetxeren jaiotexea,
gaur egunean.

Erromeriak

Urdanetako erromeriak jai bikoteak ziranean egin oi ziran. Esate baterako, Pazkoetan bigarren eguna ere jai egin oi zan, eta erromeria ere bai.

San Isidrotan, nekazarien eguna zalako egiten zan. Gero, udaran, lana egin bear izaten zan gogotik eta San Martin egunera arte etzan erromeririk izaten, eta orduan bai. Iru egunekoak izan oi ziran. Bertako Zaindaria zanez, al zanik aundikien ospatu nai izaten ziran.

Iruharren egunean, oillasko biltzea egiten zan. Etxez etxe oillasko biltzen ibilli oi giñan. Neskatzarrik baldin bazegoen, dantzara deitu. Toki batzuetan andrea ere bai. Eta etxeko nagusia apaltzera gonbidatu. Arratsaldean erromeria eta gauean oillasko jana baillarako mutillak, etxe bakoitzeko nagusiekin batean.

Urrengo egunean aje galantarekin lanera; eta igandean, tartean ez bazan egokitzen beintzat, errepetizioa egiten zan. Zergatik ez igandean, tartean egokitzen zanean? Ori galdetu lezake zenbaitek eta ara emen erantzuna: juxtu astebetera Altzolako jaiak asten ziralako; eta batekoak asi ezkeru, bestekoak bukatu egin bear. Batetik, bietarako jende multzo aundiegirik ere etziteken izan; eta, bestetik, bata bestearenganako errespetoz uzten zitzaion lekua, itxurazkoa zan eta, berago agertuko dutan bezela.

Laurgain –guk Laurkin esaten genion eta berak ere bai–, Urdaneta ta Altzola iru baillarak Aiako lurretan zeuden, baiña irurak beren parrokiak eta irurak beren illerriekin. Independiente bezela ziran arren, bazuten alako loturatxo bat. Begira:

naiz erriko festa egunetako meza nagusietan, naiz illeta elizkizunetan, iru apaiz bear ziranean, iru baillaretakoak alkarrengana biltzen ziran, eta orrela iru apaizeko meza aundia ospatzen zuten, beste iñoren bearrik gabe.

Beraz, etzan egokia erriko festak, alkarganatzeko izan bearrean, liskarra sortzeko izatea, eta orregatik etzan izaten errepetiziorik, aurreneko iru egunetatik bat igandea egokitzen zanean. Eta azkenekoak Eguberrietan izaten ziran eta orrela amaitzen zan urtea.

Ori bai: urtean itzuli bat egin izan genduen Ernioko gurutza. Goizean goizetik joan eta illunabar edo gauean itzuli izan giñan. Abuztuaren ogei ta bederatzian izaten dan San Joan Txikitik irailaren ogei ta bederatzian izaten dan San Migel aurreko igandera bitartean egiten ziran erromeri oiek.

Ernioko au badakit askok eta askok badakiela ango berri. Baiña, badaezbada ere, zertzelada batzuk ematen saiatuko naiz, geiegi sartu gabe, asko aldatuta egon ditezkelako ango gauzak. Ez bainaiz aspalditxoan izan an, erromeri igandez beintzat.

Gu gazteak giñanean, eta oso gazteak izateari utzi ezkerore bai, bi baserri ziran Andazarretatik gora: Iturriotz eta Muats. Oiek bietan esan liteke asten zala erromeria. Baiña andik gora laister, Zelatun. Au dala esango nuke ango ikuskizunaren erdigunea. An biltzen da erri askotatik dijoan jendea: Zumaia, Zarautz, Aia, Orio, Asteasu, Zizurkil, Billabona, Aduna... Errezil aldetik sartzen dira, berriz, bertakoz gaiñera, Bidani, Goiatz, Azpeiti, Azkoiti, Zestua, Aizarnazabal eta beste ainbat tokitakoak.

Barkatu bezaidate Larraul, Alkiza, eta beste une onetan oroitzen ez bainaiz nundik daukaten sarrera egokiena. Bai baidira Tolosa aldetik sartzen diranak; adibidez, Ernialde, Albiztur...

Zelatungo ordekan ikuskizun polita izan oi zan zenbait aldiz. Ainbeste soiñujole biltzen ziran bertan, txabolen batean edo geiagotan ere bai askotan. Bertsolariak ere jardun oi ziran. Olako tokietan beti ibilli oi diran oietako xebebreren bat ere etzan palta izaten. Polita zan benetan Zelatun. Bere ardi bordatxo bakar batzuk besterik naiz izan ez, ainbeste tokitako jendea biltzen zanez, *internacional* biurtzen zala zirudien.

Andik gora asten da igoera; negu ta udara, eguraldi on eta txar, iñoiz lokatzik ezagutu ez duen bidea. Arri-bidea baida dana.

Erdi bidea baiño goragotik asten dira errosario (kalbario) esaleak. Ala asi oi ziran len. Orain naiko lan len bezela multzo aundiak inguratzen. Baiña esan dut lenago ere ez dakidala aspalditxoko berririk, eta barkatu.

Gorago igota, gurutzeak asten dira, eta aiekin batean uztaiak ere bai, nai duenak aietan pasa. Uztai auek, aundiak eta txikiak, danetarikoak izaten dira. Andik igaro ezkerok ez dala gerriko miñik izaten geiago ta jardun izan giñan, al genduen txikienetik igaro nairik, naiz-ta aldizka susto koskor batzuk eraman, antxe nor baiño nor uztai estuagoan pasa.

Komeri polita ikusita nago ni, uztai oietan pasatzerakoan, bein batez. Gu iritxi giñan garaian ez ta bai ari ziran gazte talde bat. Alako batean, aietako bat, *rrau!*, sartzen asi zan uztai txiki au, eta kosta zitzaion bigarren besoa pasatzea. Geiegi gauza onerako. Esan zioten uzteko. Obe zuela askoz. Berearekin atera nai nunbait, ordea, eta aurrera jarraitu zuen. Dabutu zan ederki. Sartu zuen bigarren besoa nola-ala. Baiña or gelditu zaio ez gora ta ez bera. Mutillak kendu zituen galtzak. Baiña oraindik ere ezin pasa zan gure mutil ori.

Norbaiti oroitu zitzaion garai artan, emakumeak batik-bat, ain bearrezkoa zuten *brillantina* iñork bai ote zuen galdezka astea. Agertu zan *brillantina*, ta bazan bearra. Naiko lanak baziran alaz ta guztiz ere.

Ari zirala ari zirala, pasa zioten noizbait uztai ori. Baiña etzuen tratu ederra jaso mutil gizarajoak. Asieran setatsu baldin bazan, ederki damutzeko izan zuelakoan nago.

Andik gora gurutze asko daude. Beraz, ez da Ernio beste emengo mendien antzekoa, erabat ezberdiña baizik.

Lenengoa dala esaten dutena, gurutze zarra esaten zaiona, arrizkoa da. Tximistak puskatu zuela esaten zuten, eta ura ere burnizko uztaiekin konpondua zegoen. Nik ez dakit arria nola pitzatu lezaken tximistak; baiña ala esaten zuten eta zerbait tek pitzatu zuen beintzat.

Goazen orain, berriz, goitik bera Zelatun aldera, eta ikusiko dugu jende multzo polita. Soiñujole pilla bat ere bai, batzuek beren panderojolearekin eta besteak bakarrik, antxe berarekin joandako taldetxoarekin eta gaiñontzean inguratzen ziranekin. Batzuek jende geiago izaten zuten, besteak baiño, beren inguruan. Zein zer mailletako soiñujolea zan esan beari etzan an izaten. Berak erakusten zuten.

Ori ordeka gunean. Baiña jarri ingurura begira, ikusi nai bazan mendiaren egaletan jendea nola jartzen zan arkaitz tartetean. Dana jendez beteta, bakoitzak al zuena jaten. Zato ardoa danen artean eramana izaten zan, eta noizean bein batek besteari:

–Zato ori pasa zak!

–Or ziak! –besteak, aidean zatoa boteaz.

Ortan joaten zan gure gazte denborako Erniorako ibillaldia.

Goazen orain, berriz, Iturriotzera. Emen beste ikuskizuna egongo zan, noski; eta, gaiñera, guretzat etxera bidean zegoen. An ere ikusia naiz beste iñun ikusi ez dutena: gizon bat bestearen gaiñean, Iturriotztik Muatsera eta Muatstik Iturriotzera. soiñu bana joaz. Jo ta autsi ez dakit zenbat itzuli izango zituzten egiñak; baiña ikusteko zan baten sasoia ta mutikoaren soiñua jotzeko abillidadea.

Urrestilla alde ortakoak izan bear zuten, eta biak osaba-illobak zirala uste dut. “Urrestillako Auntxa” edo olako zerbait deitzen zitzairen, eta aiek biak ere bikote polita egiten zuten, ba, arraioak ez badu. Ibilli zuten jendea ugari inguruan arratsalde artan. Alako giroa ere zegoen, eta prozesio batean bezelaxe alajaiña, bai atzetik eta bai aurretik mutil eta neska irrintzi egiñez, batetik bestera antxe, jira ta bira.

Nere ustez, beste mendi erromerietatik guztiz ezberdiña zan Erniokoa. Ni iritxi naizen tokietan ez dut antzekorik topatu iñun ere. Ezta urre ematekorik ere. Batetik erlijio usaia: errosarioa esanez neska ta mutil saillak; uztaietan pasatzeko siniskeriak, gerritako miñik etzala izaten aietan pasa ezkerok; eta zintak ere an saltzen ziran kolore guztietakoak, oztadarra bezela edo geiago. Danetik osatzen zan an, beste iñun ikusten etzan gauzetik gaiñera, erlijio kutsukoa eta profanoa ere berdin.

Ez genduen nolanaiko poza euki izan, ortxe amasei, amazazpi urte inguru giñun garaian, San Juan Txikiak etortzeko, Erniora joateko. Urtean bein andik itzulitxo bat egin gabeko onik ez genduen izan oi inguru artako gaztediak. Urdaneta aldean, esperientzi aundi bat bezela euki izan zan. Ernio mendian egin izan zituztenak sinistu eziñik egon ondoren, nork bere begiekin ikustea izugarritzat eukitzen giñun gauza aiek.

Nere sorlekua

Aurrez aurre Indamendiko gurutzea; eskubitara, Pagoeta; ezkerretara, Izarraitz; eta beste aldera, Ernio. Antxe arkitzen da Urdaneta, bakar-bakarrik. Auzorik urrena Altzola dauka; baiña au ia usturik dago. Erririk urrena, Zarautz; baiña au ez da ikusten plazan bertatik. Andik berreun metro ingurura, bai. Nere jaiotetxetik zoragarri ikusten da, Allepuntatik Mollarri-
ra, itsasgain ederrarekin, orain Nekazal-Turismorako etxea jarri duten ortatik. Gozatu ederrak artu bearrean dago aruntz joaten dan jendea, andik begira. Ori dana eskerrak errepidea Zarautzik garaiz egin zanari. Bestela, onezkero ustua zan Urdaneta erdia baiño geiago, Altzola ustu zan bezela.

Gure baserri zarra erabat antzaldatua dago. Orain ez dirudi lengoa danik ere, aldamenetik begiratuta. Nik, beintzat, ez nuen ezagutuko, dagoen tokian ez balitz egon; eta beste edozeiñi beste orrenbeste gertatuko zitzaiokeela ere ziur nago gaiñera.

Garai batez esan izan baligute txango-zale udatiarrez beteta egon bear zuela gure etxea, ez dakit zer esango nion; baiña ziur asko nere ustez merezi zuen erantzuna ematen saiatuko nintzan. Ez uste ain txukuna izango zanik, eta orain arrapa zak atzeko anketik! *Hotel* bat dirudi, alajaiña. Atsedean tokia bai zoragarria benetan!

Nik, egia esateko, ikusi nuen arte ez nuen sinistu; baiña ikusi dutanean, sinistu egin bear. Bestela, txoroan ere pasa ta aurrera joatea izango litzake.

Egunen batez arkituz gero
atsedenan bearrean,
joan nai baduzu an dadukazu
guztiz toki ederrean...
Bertan euskeraz itzegin lasai
lengo oitura zarrean,
Indamendiren aurrez aurre ta
Zarauztik naiko urrean,
egun batzuek igarotzeko
ez dago toki txarrean.

Sagarmanetan ere ala jarria egon bear du, esaten dutenez, turismoko etxe oietakoa eta aurrera. New York ere olaxe asia izango zan: lendik ezer etzan tokian aurrena zerbait, eta gero beste zerbait, eta segi ortan, aundia azi arte.

Urdaneta erriz Aiara tokatzen dan arren, geure erria bezela artu izan dugu beti Zarautz. Erosoxeago da batetik, lanerako bezela, beste edozertarako ere. Ortxe beti izan oi zan bertako irtenbidea, nola esne, babarrun, barazki eta gaiñerakoak saltzeko, ala etxean bear ziran gauzak erosteko. Danerako beti ala izan dugu oitura; eta, bein errepidea egin zan ezkerro, alde aundiarekin gaiñera. Zerbaitetarako erriko agiriren bat bear danean izan ezik beintzat, dana Zarauztik izan da gure betiko joera. Ori bai: beti aitortu izan dugu aiarrak gerala, eta aurrera ere ala egingo dut nik beintzat, bizi naitzen arte, Orion esaten ziguten bezela, geureari eutsiak giñala adierazteko:

–Ondo aiarra aiz, bai, anima apartatuta ere.

Orain ez du iñork egiten, baiña arto lur sendoak ziran, eta belar leku onak. Busti urteari bildur geiago izan oi zitzaion legor urteari baiño, orain azken aldi ontan gauzak asko aldatu badira ere. Orain legorrak sarraski izugarriak egiten dituenik

ezin ukatu; baiña len askoz ere naiago izaten zan legor samar izatea, busti sarria baiño.

Garai batetik onera ainbeste aldatu dira gauzak. Egia esanda ere, bat gezurretan ari dala dirudi, iñork orduko kontuak esaten ari danean. Biziera ain dago aldatua. Len etxe bakoi-tzean famili galantak izaten ziran; eta, aiek elikatuko baziran, labore pilla galantak egin bear, eta etxe inguru guztiak soro ta zelai ederrez inguratuak zeuden. Gaur, berriz, beiak larrean dabilta, eta txekorrak ere bai toki askotan. Len baserririk bikaiñenak ziranak, orain utsik arkitzen dira, edo beste edozein baiño eskasago biurtuta daude; eta len baserri kaskarrak ziranak, orain utsik edo besteren batekin alkartuta eta abar. Nola edo ala, baiña aurrera segitzen dute.

Len ganaduen azpietarako ain bearrezkoa zan ongarria: garoa, orbela edo ote txikia. Gaur ez dira oiek ezertarako ere erabiltzen. Galdu zuten beren balioa. Surtarako egurra ere gauza sakratu askoa zan, baiña gaur ez dauka deusen baliorik. Len segan izaten zan lanik geiena eta gogorrena; baiña orain ez dut uste eskuetan artu ere egiten dutenik, bide bazterretako lar muturren batzuk mozteko izan ezik; eta ortarako ere geroz eta gutxiago.

Ezertan ere aldaketarik aundiena ortantxe dago egiña lanari buruz: segan. Len, nai bazan eta ez bazan, esateko, lanik geiena ematen zuen gauza zan. Ganaduei jana ta azpigarria inguratuko bazitzaien, segaz ebaki bear izaten zan. Arbia ta artaberde pixka bat izan ezik, dana. Orain ez dago sega artu bearrik. Segadorak egiten du aren lana; askoz azkarrago ta obeto egin ere.

Garai batean, segarako doai onak izateko pikatzen eta arraizten ere ondo jakin bearra zeukan baserritarrak. Noiznai ere bai, baiña batez ere mendi belarra ebaki bear zanean izaten ziran komeriak. Emen sega zorrotza eskatzen baizuen.

Bestela, sasoi bikaiña eta mutil ederra egonagatik, jai egoten zan. Askotan, belar zailla zegoen tokian, indarrak baiño askoz geiago balio izaten zuen sega zorrotzak; eta ortarako berezko artea ere zerbait bear izaten zan. Baiña batez ere gogoz artu bearreko lana zan.

Askok esan izan zuen, sega pikatzen ari zanari begira egonda, ori mekaniko ikastea baiño zaillagoa zala. Ingura baten gaiñean sega jarri, mailluarekin gaiñetik joaz-joaz segaren ortzari alako meetasuna atera, eta gero arraitzarekin eta pultsuan tamaiña artan zorrotzeko, bemolak bear ziran gero sega ala jartzeko. Dana pultsuan, bai pikatu eta bai arraitzeko ere.

Segalarien kontua ez da apustu batean bezela: sega zorrotzuta eman ez ebakitzen aritzea ta urreako ere. Mendian, pikatzea edo segari aoa meetzea, eta bai arraitzarekin zorrotzea ere, norbere kontu izaten ziran, eta an ikusten zan bakoitzaren abilezia zenbaterañoakoa zan. Ez dakit, egia esateko, joerarik onena erabiltzen zan ortan. Nik, ordea, baditut nere zalantzak: alderik onena ori ote zan edo ez. Baiña ala egin oi zan, besteak ere etziran tontoak eta segi besteak egiten zuten erara. Baiña zenbait mutilli arraitzuta eskura sega eman ez, ez ote ziztaion etekin geiago aterako?

Nik ez det esango besterik baiño ohea nintzanik. Zaletasuna nuen ainbestekoa ere ez dakit izango nintzan; baiña beste en artean or nunbait aritzen nintzan. Ikusten ziran mutil gazte bikaiñak zenbait menditan belarrik ebaki eziñik pena ematen zutela, eta alakoari etekin ohea aterako zion, zenbaitek aldamenetik sega zorrotzuz, bera bere kontura utzita baiño.

Iñork ez ditu bear bezela aintzat artzen lan oiek zuten zailtasuna ta meritua. Len ere ez merezi ainbeste. Orain, berriz, ezertarako balio ez dutenak. Apusturako txorakeriak balira bezela artuko dira, edo artzen dituzte dagoeneko, eta alperrik aritzea da.

Len garai batean ainbesteko talderik ez dagoen arren, umeak eskolara ere Zarautza joaten dira autobusean; eta sa-soikoak lanera, berriz, beren kotxeekin edo motoekin dijoaz. Beste bizimodu bat da, lengo izaeratik oso ezberdiña edozein aldetara ere, eta ala bearrean dago gaiñera. Aurrerapenak damentzat egiñak izaten dira, ta ez aundikientzat bakarrik, askotan ala izan badira ere. Orain luzera danentzat iristen dira, Jaunari eskerrak.

Abereentzat janaria bear dala? Belarra ebakitzeko makiñarekin ebaki, tratorea kargatu eta ekartzen dute, eta kito. Zertarako sega erabilli? Baztarrak garbitzeko ere, segarik onena baztar eta pendizei neguan auts pixka bat botatzea zala esaten zuen gure anai zanak (g. b.). Beiak bialdu eta gustora ta ederki garbitzen zituztela.

Neri oso ondo iruditzen zait orrelako aurrerapen guztiak billatzea, edo berak dakarzkiten alderdi onekin baliatzea. Ortan dago baserriaren garapena; ez gauzarik elementalenak bakarrik artu eta gaiñerakoei bertan bera uztea. Ori izango litza-ke gure ezaugarriarik txarren-txarrena: dana eginda eskuetara eman bear zaiotela gure baserritarrei. Baiña ez dago olako bildurrik.

Gaurko munduak bizibidea, biziera eta bizitzeko bearrezko diran tresneri guztiak aldatzera beartu ditu gure baserritarrak. Baiña aldatu eziñezko gauza da, ta izango da, abereen biziera. Aiek egunero jan bear dute orain len bezela, eta gero ere ala izango dala ez dago esan bearrik; eta agintariak beti zor izango diete baserritarrei garaian garaiko aurrerapenak erosteko aukerak ematea.

Beste arazo bat erabat aldatu dana auxe da: garraio kontu ori dago lengo antzik ez daukana ezertan ere. Len gurdia edo lera kargaturik erabiltzen zan edozer gauza, gaur tratorearekin darabilkite noranai. Abereentzat jana bezela, egiten dituzten

ondakiñak ere. Ur pixka batez lagundurik, aldamenean egiñak dauzkaten depositu oietara botatzen dituzte; eta gero, mangera baten eta motobonbaren bitartez, kamioi edo tratore zister-nadunen batera atera ta eramaten dituzte, eta belardietan zabaldu ta kito. Erosotasunak, jaunak; erosotasunak dira oiek. Iritxi egin dira eta ortxe daude.

Len soroak ziran sail galantak orain belardi daude. Uda-berriko lenen ebaki aldiko belarrak zuloan sartzen dituzte, ta bigarrenak ere bai, urtea normal badijoa beintzat ziur, legorte gogorren bat ezean alegia. Eta udazkenean bai, beiak larrean ibiltzen dira, garai batean ardiak bezela.

Gu ala oituak ez geran arren, neri poz galanta eman izan dit, berebiziko bei saillak larrean ikusirik dabilzala, aldiko zerrenda bat berria jarritz. Iñork zaindu bearrik ez dute izaten. Alanbretxo bat bateri kargatuarekin jarri ezkeru, arek berak zaintzen ditu ederki asko. Ikutu ezkeru min artzen baidute argi-indarrarekin, naiz au gaitz aundirik egiteko ainbestekoa izan ez. Abereak ez baidakite zenbat egin lezaioken; eta, bein ikuitzen dutenetik, atzera egiten dute, eta orra or nun dagoen berai ipintzen zaioten sailla errespetatze ori, xelebrea badirudi ere.

Beste gauza bat orixe da argitu bearrekoa: belarra ebaki ta zuloan sartu. Ori, gu baserrian aritzen giñan garaian, etzan ezaguna, ez-ta gutxiagorik ere. Baiña orain egin bearra daukate, biziko badira. Lenago egiten zan bezela belarra eguzkitan onduz ezin bizi ditezke oraingo bizieran. Zuloan sartu edo zimeldu eta, orrenbestez gaiñera, garai batean elur pelotak egiten ziran bezelako belar multzoak egin, eta plastikozko paperean bildu-bildu egin, eta kanpoan bertan pillatu.

Baiña nola egin? Oso errez. Makiñak daude ortarako, dana berak egiten dutenak: berak biltzen dute belarra, eta pelota egindakoa plastikozko paper ori erantsi, eta itzulika-itzulika

azkar batean egiten dituzte pelota mordoskak, ta baztar batean pillatu ta kito. Bear dan garaian joan eta artu, eta oso pozik jaten dute bei ta txekorrak. Ez du gureztat alain usai ona; baiña abereei gustatu egiten nunbait, gezurra dirudi baiña.

Irurogei ta bost bat zentimetro inguru zabalekoa izaten da bola ori, batzuetan beltza eta bestetan zuria. Nola tira-tira egiñez, baiña eten gabe, ematen dizkion bueltak, eta alkarri itsatsita bezela gelditzen diran plastikozko zinta oiek, etzaiote urik sartzen, negu osoan euritan egonagatik; eta orain jendeak ortara jotzen du geiena erosotasunagatik. Belarra ebakitzen ari dan garaian, lan asko eta presaka ibiltzen dira, eta zulora eraman eta an zanpatu ta jartzen baiño askoz lan gutxiago dauka bolak egin ta pillatzeak.

Neguan, berriz, asti geixeagorekin ibiltzen diranez, pillatik artu ta egunean bear dana eramateko ainbat tarte izaten dute. Orrekin ere beste aurrerapen bat geiago daukate. Orixe: makiña berezia bear dala; beste bat geiago.

Guk ezagututako gurdiak eta lerak ere museoan ikusi bear orain, iñun ikuste ezkeru. Beste gaiñerakoan ez dago ezer aien antzeko gauzarik ikusterik. Alde batera pena da ain errez galtzen ikusi bearra. Baiña gure begiei atsegiña ematea baiño garrantzitsuagoa da baserritarren atsedeen edo lanerako erreztasuna, eta orregatik onartzen dut museoetan ikusteko bide ori. Naiz emendik zertzelada batzuk eman, biderik egokiena orixe izango dala uste dut: museoan jartzea, jendeak ikusi ditzan, zer ziran lengo lanabesak.

Pertsonaiak

Orrua Zarra

Toki geienetan izaten diran bezela, Urdanetan ere baziran pertsonai xelebreak, batzuk ingurutik etorriak eta beste zenbaitetan bertakoak ere bai. Baiña beti antxe, bein baserri batean eta bein bestean, ibiltzen ziran, jira ta bira nola neguan eta ala udaran.

Orrua Zarra onek ere ala egiten zuen: batean asarretzen zanean, bestera; eta andik gutxira berriz ere lengo tokira. Ori bai: aldegiterrakoan, iñoiz geiago ez etortzekotan joaten ziran beti; baiña illabete asko baiño lenago ostera lengo tokian izango ziran. Aien biziera ere guztia bearrekoa zan. Geienak, edo danak, tutik etzekiten ez idazten eta ez irakurtzen ere, eta etxeko babesik etzuten izaten. Au dalako edo ori dalako, beren jaiotetxeetan atek itxiak zituzten; eta geienak ere alkolaren mendean aixe erortzen ziran, txanponik izan ezkeru beintzat.

Orrua langille ona zala esan izan zuten; baiña igandea etorri ezkeru gizonik ez. Ori jakiña. Astelenean ere izugarria ez, geienetan beintzat. Orrek beartzen zituen alderrai bezela ibiltzera, gizarte guztiaren ondakin bezela, eta alaxe ibiltzen ziran. Astean, lanean ari ziran garaian, besteen aldamenen ari bear izaten zuten; eta, lan-koskan ari danean, danak berdintsu egin bear izaten zuten jo ta ke.

Igande bakoitzeko duro bateko soldata izaten zuen Orrua Zarrak. Igandean artu ta igandean kastatu gaiñera. Urte mordoan ortan ezagutu nuen nik, eta aurretik ere martxa berdiñean zebilela esaten zuten, eta ala izango zan. Beti errukarri, neguaren bildur, batez ere oiñetako tajuzkorik ibiltzen etzue-

lako. Egoaizea bazan, elurra bazan, euri ta ateri, beti abarke-takin, eta askotan gaiñera zulatuak, beatz aundia kanpoan zue-la. Eta berdin gaiñerako erropakin ere, ondoren ikusiko dugu-nez, erdia tabakotarako ere or nunbait bearco zuen eta.

Negu ta udara beti erropa berdintsua erabili izan zuen. As-tean zear erropa geiena besteek emandakoa izan oi zuen; eta jaietan, berriz, nola-alako galtza sastarren batzuk eta alkando-ra eta bruxa urdiña gaiñetik; ori jakiña. Goiz meztara joan izan zan beti, ez dakit zergatik. Baiña, bein bear eta ere, ez dut uste ikusi nuanik meza nagusira joaten. Urtean bein, Pazkoaz-koa egiterakoan, jaunartzera, eta kito. Orrekin egiña zegoen dana, aren ustez beintzat, eta etzan oso gutxi gaiñera. Geiago artu etzuenarentzat, iganderoko meza eta urtean bein jaunar-tzea ez da gauza izugarria. Gaur egun gaztedia, eta oso gazte-ak ez diranak ere bai, ortan ikustearren, zer egin ote liteke? Orregatik, bearbada, izan zuen azkena izan zuen gizarajo arek.

Igande goiz batean, apaiza oso berandu zetorrela ta jendea naiko kezkatu rik zer gertatzen ote zitzaion ari zan garaian azaldu zan; eta, oi zuenetik aparte, erriari barkapena eskatu zion. Pagaluts zeritzaion baserrian baizegoen orduan gure Orrua Zarra, eta ari eriotzean laguntzen izan zala eta orrega-tik zetorrela berandu.

Gero, sermoiko garaia etorri zanean, esan zigun nola dei-tu zioten, berak eskatzen zuela ta. Bildur samarrik joan zala, baiña oso eriotza ona izan zuela. Bera egon izan zan tokieta-ko nagusiei ere deituz, danei barkatzeko eskatuz il zala esan zigun apaizak.

Esan dezagun Pagaluts baserri ori etzala Urdanetakoa, Ur-tetakoa baizik; baiña bertako bizilagunak beti Urdanetara jo oi zuten elizkizunetara, nola igande ta beste jai egunetako meza-tara ala elizkizun askotara, nola eskari eta errogabietara, ala erramu, elorri gurutze, kandelarioetako, naiz San Blasetako

bedeinkazioetara, Paskual-soroko eta beste zenbait baserri bezela. Esate baterako, Izeta bietakoak eta iru Aranburuetakoak.

Igandeetan meza nagusira etortzen ziran Gorritxo ta Aierdiko gizonak ere; eta, beste urdanetar batzuk geiago balira bezela, bertako aitonon artean arrantxoak egin eta eguerdirako etxera, berriketarako gogo galantarekin gaiñera.

Zer zan arrantxo ori? Ba, munduko gauzarik arruntena, esate baterako: ardo ta ogia. Etzan beste gauzarik ezer izaten; baiña ura ez kendu gero aiei, gauza aunditzat eukitzen zuten eta. Bearbada, bazkari gabe uztea naiagoko zuten batek baiña geiagok. Ez an jaten zuten ogi apurra ta ardo txurrutarentatik. Baiña aientzat ura billera garrantzitsua zan. Batek batekoa ta besteak beste, ango ta emengo kontu guztiak naasten zituzten, eta gizon *enteratuak* irteten ziran andik, beren ustetan beintzat, arraioak ez badu,

Gero, *frankotarrak* ogia kendu zutenean ere jarraitu zuten juntatzen. Ardo utsa ere motza gelditzen eta arrezkeroztik pikoak eta kakagesak –abillanak deitzen zieten– jaten zituzten. Baiña etzan lengoa. Aitona aiek azken egunera arte faltan botako zuten *Prankok* kendu zien arrantxoak.

Goazen arira, orain ere irtenda gabilta ta. Orrua Zarraren kontuekin asi ta tokitara joan gera. Baiña bagatoz berriz ere onen kontuetara. Liburu oso bat betetzeko ainbeste ateraldi xeble bategoke gizon onenak; baiña bakar batzuk besterik ez ditugu aipatuko. Aiek naikoa dirala uste dut gizon onen talantea nolakoa zan adierazteko, eta beste olako asko izan zezazkeala pentsa arazteko ere bai.

Bein batean, igande goiza zan ain zuzen, bazijoan sekulako abiadan gure atarian barrena. Aize aundia zebillen eta bizkarrean zeraman bruxa urdiñak egiten zizkion plisti-plastak arrigarriak ziran. Toreroak kapotearekin egiten dituzten *faro-ladak* txiki utziko zituzketen, ziur asko. Baiña berak etzien

kasorik egiten. Bizkarrean bruxari esku batekin eldu beso batetik eta aurrera. Egiten zizkion jolas arrigarriak bost ajola.

Igaro zan gure ataritik, iritxi zan Indagarate-zarreko atarira, oso gertuan baidaude errepidearen alde banatetik, eta ala esan zion ango mutil batek, Balbino zanak ain zuzen:

–Nora zoaz, Miel, olako abailan?

–Amaika t’erdiyak arte jun da jun! –esan da an joan zan abiada osoan.

Zer esan nai ote zuen arekin? Amaiak bost gutxi or nunbait ziran, eta Zarautza joateko berrogei minutu urrean eta aizearen eragiña bearko zituen arek, eta orixe izango zan abia da artan joateko arrazoia, zalantzarik gabe gaiñera.

Beste batean, gaztea nintzan oraindik, baiña gogoan daukat gertatua, atzo goizekoa balitz bezela. Bazetorren gure Orrua Zarautz aldetik. Eguerdia zan, oso bero egiten zuen eta egarri zan nunbait. Ala, Indagarate-zarreko ataritik igaro orduko, dei egin zion gure aitona zanari:

–Aizak, i, Martin! Sagardo ederrak eukiko dituk, ba, oañ e?

–Bai; ala esaten ditek... –esaten asi zan gure aitona, baiña moztu egin zion, oitura zuen bezela:

–Eukiko ituk berriz e, ematen ez baek. Eorrek ean ez ta besteri eman ez, zertako ituk?

Eta neri aitonak esan zidan:

–Ekarri akiok barrika zarrekotik botilla bat.

Ori esan eta joan zan nere aitonarengana, atariko aritzaren azpira.

Ni laister joan nintzan botilkada sagardoarekin eta basoa-rekin, eta ordurako ari ziran ango ta emengo kontuekin, aspaldian alkar ikusi gabeko bi lagun zar bezela. Baiña laister eldu zion botillari; eta, kortxoa kendu ordurako, muturrera eraman eta *klan-klan-klan* aotik kendu gabe ustuz zuen.

Au edaten ari zala, kiñu egin zidan aitonak bestea ekartze-ko. Joan nintzan berriz eta oraingoan bi botilla ekarri nizkion, eta aiek ere basoaren bearrik gabe ustu zituen. Ez lenengoa bezela trago batean, baiña iru edo lau tragotxo egiñez, azkar batean edan zituen iru botilla sagardo. Eta kontuan izan orduko sagardo botillak litrokoak izaten zirala. Gaurko lau bezela, beraz, eta ala zion azkenean:

–Egarri alu orrek itoko niñula uste niyan, baiña neonek ito diyat.

Ori esan eta eskua jasoz urrutira agur egiteko bezelako kiñu bat egin eta an joan zan, ez “baniak” eta ez “gero arte” ezer esan gabe, bere oitura zan bezela.

Danok izaten dugu zerbait entzun nai ez duguna, eta ori entzun nai ez bazenduen, mozkor-mozkor eginda zutik egon ezin zanean ere ez ari ezer txarrik esan. Bestela, entzun bear-ko zenduen nai ez duzuna. Nik ez dakit nundik eta nola jakin al izaten zituen alako gauzak. Baiña azkar esan, gaiñera: *dan-ba!* Berak lotsik ez daukanak ere berdin ematen dio besteri lotsa, eta miña ere bai. Ez du norberak eduki bearrik besteri emateko.

Igande gau batez izan bear zuen. Ango gizon arroxko batek, bere etxean sarritan eduki izan zuena gaiñera, mozkortuta zegoela ta zerbaiten burla egin dio nunbait, eta bai azkar erantzun ere bestek:

–Ixo, ixo, ez ta bai! Eure andriak euri esana, neonek entzuna neure belarriyakin: eure burua mantentzeko kapaz ez aizen txotxolo alu bat besterik ez aizela; eta egiya galanta esan ziyen gaiñera, zarri earra dek bea’re baiña!

Inguruan zeudenak naiko parre egiñak izan bear zuten ateraldi orrekin. Baiña orren antzekoak noiznai egiten zituen gure Orrua Zarrak. Len esan dutena: ez esan berari ezer txarrik, entzun nai ez bazenduen nai etzenduen zerbait.

Igande gau batean, amabiak jo aurretik aditzera eman eta puntu-puntu danak kanpora ateratzea nai izaten zuen ango tabernari bakarra zan gure osaba Antoniok, eta gau artan ere asmo orrekin asia izango zan noski, baiña egun artako duroa artean dana kastatu gabea euki nunbait Orruak eta ala esan omen zion:

–Kape bat ekarri zak, eta uraxe artu ta segituan jungo nauk.

–Lenago uken ortako garaia ta alde emendik!

–Zutik artu eta segituan jungo nauk, eta ekarri zak kape bat.

–Alde emendik, azkar gaiñera, nekauen errejuras!

Bildurta ta atera zanean ala esan zuela esaten zuten an ziranak:

–Ez nauk ba juango gaur ni etxera kapeik artu gabe!

Au esan eta bereala Zarautzako bidea artu omen zuen. Andik bi ordurako, berriz an omen zan deadarka:

–I, Antonio! Ik ez diak eman nai izan, baiña kapia artu diyat, bai! Earraskua artu ere, gaiñera! Izorrai, nai baik!

Bi ordu juxtuak omen ziran andik joan zala, eta bi ordu ortxe-ortxe bear zituen joan eta etorri egiteko. Zirudienez, ara joan aurretik eskatzen zuena egiña izango zuen: zut-zutik artu kafea ta martxa zuzenean etxera. Bi orduko ibillaldia kafe bat artzearren!

Aren beste esaerak auek ziran:

–Derrepente etxiai su eman iria balitz!

Edo:

–Ilko aiz, bai, iye (i ere) jaitik iru egun barru!

Orrekin bukatzen zituen ezbai guztiak, eta bera igande goizean il zan.

Getarin jaioa, ango izketari beti jarraitu zion, urte mordo galanta igaro arren. Beti izan zuen alakoxe *Ketaiya*-rentzat sentipen berezi bat, naiz etzan, nik ezagutu ezkeroz, bein ere

alde artan morroi ta orrela egon. Beti Urdaneta inguruan. Batean eta bestean sei illabete toki berean geienaz igaroko zituen; baiña urte mordo galanta antxe egin zuen lau edo bost etxetan. Beti geiago ankarik an ez sartzekotan irtengo zan, baiña bi urte geienez egingo zituen len egon zanetik berriz sartzera.

Gizon onen mundua ain zan laburra. Zarautzik Zumaiara tartean kabitzen zala esan ziteken, bere esaerai begiratzan asten bagera.

Bein batean, Zarautzen mozkortu ta biraoka ari zalako, ixilik egoteko esan omen zioten, bestela karabiñeroei deituko zietela-ta.

–Eskapada ederra egin zenduen, Miel. Orduan arrapatu baziñuzten karabineroak, zuk erderaz jakin ez eta aiek euskeraz ain gutxi, an izango ziran an komeriak!

Karabineroak eta goardizibillak danak berdin ziran arenzat, baiña karabiñeruak deitzen zien danei.

–Ni karabiñeruak arrapau? Bai, tok! Eonai ortan! Ura karabiñeroen billa juan izan balitz, nik segituan eingo niyan anka emendik; eta, aiek emen nere billa zebiltzan bitartian, ni Ketaiyan; eta, aiek Ketaira orduko, ni Zumaiyan. Eta igaiyan ere bazekiyat gaiña, urrutirago jun biar izanda're. *Andaketeren el morral!*

¡Que te den el morral! Ori askotan esaten zuen. Ez dakit zergatik, baiña esaera bazan, eta Orruak maiz erabiltzen zuen.

Itz oiekin esana gelditzen da gizon onen *unibersalismoak* zer zabalera zuen. Zumaiatik aurrera joan bear bazan, igeri jakin bear zan. Aren ustetan an bukatzen zan lurra, eta buelta ostera edo joan zedilla *igaiyan*. Artarako jakin egin bear, ordea, ta arek bazekien eta jakintsu sentitzen zan orregatik.

Gauza bat pentsatu izan dut nik eta ez dakit ziur egongo naizen. Baiña gizon arek ez ote zuen zerbait geixeago merezi,

morroi egoten zan tokietan eta negu beltzean espartziñak anka gorritan, eta askotan beatz aundia kanpora aterata ibilli gabe? Bruxa urdiñaren azpitik erabiltzeko, txaleko bat edo jertse sartarren bat edo olako gauzen bat ez ote zuen merezi? Ala igandean ematen zioten duro arekin ordaintzen al zuten dana?

Barkatu, baiña nik badauzkat neure zalantzak. Alako gizarajoak errukiturik artzen ote zituzten etxera, ala aien ezjakintasuna eta ajolagabekeria ikusita, aien izaera dollor eta mol-dakaitzaz baliatzen ote ziran.

Aren mundualdia ere olaxe joan zan. Gizarajoa jaio zan nunbait eta bizi egin bear il arte. Baiña errukarria zan aien izaera, eta etsigarria benetan, neurri osoan begiratu ezkerro. Baiña ez dut uste askotan pentsatzen zutenik. Etzirudien aien bizierak.

Eleuterio Txalaka

Au gixajo bat zan. Etzan, ez, mozkorra. Ez alperra eta ez ezer. Ez dakit nundarra zan jaiotzez; baiña, ni mutikoa nintzan garaian, batean eta bestean zerbait laguntzen eta olako moduan ibiltzen zan. Etzan, ez, eskalea eta ez bestelakoa, bietarakoa baizik. Umea balitz bezela, umerik etzegoen tokietan ibiltzen zan, itaurrean eta era ortako lanetan.

Baziran artean etxeak beiak larrean ibiltzen zituztenak, eta oietakoetan izaten zuen bere sarlekua. Antxe beiak zaindu eta olakoxe *txirriki-txarraka*, zerbaitetan beste lagunduz. Baiña etzuen berak bakarrik ezer askorik egiteko ainbat ezaguera.

Zarauzko Mixerikordian il zala uste dut. Nik angoekin zebillela ikusi nuen azkena eta an bukatua izango zan.

Lakai-urre

Au ere berdintsu ibiltzen zan etxe batetik bestera. Baiña au askoz apalagoa ta motelagoa zan. Etzan mozkortzen normale-

an eta gozozale purrukatua zan. Itz eten edo tartamutu izugarria zuen. Ziur esateko ez dakit, baiña Ernani aldekoa izan bear zuen. Altura aundirik etzuen, baiña gorputz sendoa kolore gorri-gorriekin. Elurra bazan ere, bein ere etzan otzarekin kekaka ibilliko. Beroarekin, bai, entzun izan zitzaion:

–Kixto, au beb-berua au!

Edo orrelakoren bat. Baiña otzarekin bein ere ez.

Au Orrua Zarra-ren beste aldea bezela zala esan liteke. Ardorik etzitzaion gustatzen, eta sagardoa ere gozoa zegoen arte bakarrik. Bere onera etortzen zanetik etzuen edaten. Sartoki jakiñak izaten zituen onek ere. Baiña toki bakoitzean etzuen bi illabete irauteko almenik, eta amabost egun baiño lenago ere bazekien alde egiten. Baiña ori bai: eguneroko izendatua zeukan jornala juxtu eman bear ari. Bestela, etzan giro izango. Kontatu ta kontatu an ariko zan, baiña etzuen be-realakoan aldegingo.

–Eem-men didiruba papalta da! Bai, papalta da emen.

–Zer esaten ari aiz, motell, propina ta danak eman dizkiat eta?

–Ez; eem-men papalta da didiruba.

–Tok, motell, tok. Geiegi duk, baiña artu zak.

Bein juxtu artzen zuenean, bai azkar aldegin ere bere parteltxoarekin. Urrena iristen zan tokian, berriz ere:

–Jejjjeup!

–Zer abil, Joxe?

–Mmomorroitokibilla –bein etetzen zuenean dana segidan zuen.

–Nun egon aiz len?

–Ejep... Zazzazzikuan.

Edo:

–Mmamarkezkuan.

Oietan izaten zan geienetan, gure etxean pasa aurretik.

–Asarretu egin al aiz edo zer pasa zaik?

–Ez, aazzzarretu ez; babaiña azzpertzamarture babbaita...

Beti ala esan izan zuen. Erten zuen tokikoakgatik gaizkirik eta asarretu zanik ere ez dakit entzun nion bein ere. Beti *aazzpertzamartu* zan kontu orrekin izaten zan. Ez Orrua Zarra bezela, geiago etzuela ankarik sartuko ta gaizki esaka bizian, laister berriz etorriko bazan ere. Donostiko ospitalean ikusi nuen azkena, beste lagun bat ikustera joanda. Tolosako Zar-etxean zegoela esan zidaten. Andik laister illa zan, Goian bego.

Kojo Xarra

An bertakorik kanpoan orrela zebillenik ez nuen iñor eza-gutu. An bertan bai, bazan ola-olatsu ibiltzen zan bat. *Trinkiña* edo *Kojo Xarra* esaten zitzaion. Anka bat belaunetik okerra zuen, eta anka-puntaren gaiñean ibiltzen zan. Sugegorria baiño ere txarragoa zan izatez. Baliteke bere elbarritasunak ematea ere alako aldarte txarra. Beti anka txar arekin lurra jo eziñik bezela ibilli bear izaten zuen, eta ibillera arekin txartztea ere ez da arritzekoa. Baiña berezkoa ere izango zuen arek “etxeko pasara egiteko ainbat”.

Pelotan ibiltzeko etzan gauza. Boletan zerbait bai. Brusa urdiñaren barrena gerrian sartu bola tiratzerakoan, eta an ibiltzen zan lardaskan. Anka-geldi tira bear eta orrekin izaten zuen naiko lana itxuraz moldatzen. Bolaratan asarretzen zan bere “anka txarrarekin”, eta orduan izaten ziran itxilluak arekin ondo konpontzen.

“Langatxoa” esaten zaio alanbrearekin itxitako tokitik jen-deak pasara aundia duen tokietan jartzen dan pasalekuari.

Alanbrerik ainbeste egurrezko maill jartzen zitzaizkion, eta aien gaiñera igo. Oitura geneukanok erreza genduen. Baiña mendian gutxi ibiltzen ziranak, gaiñera igotzean, salto egin bear izaten zuten. Armatu zuen polita San Joan Txiki goiz batez, edo urrengo igandez, bera bizi zan atariko langatxoan.

Zumaiatik joaten ziran garai artan Erniora egun oietan neska ta mutil, ijiji ta ajaja gazte saillak, eguna argitu baiñolen; eta, langa ori pasa ondoren, *Trinkiña* edo *Kojo Xarra* bizi zan etxea zegoen, eta bertatik iru bidetara artu ziteken. Askotan atea jo ta etxe ortan galdetzen zuten zein bidetatik joaten zan Erniora. Ba, *Trinkiña*, bera ezin ziteken joan eta besteak joatea ezin eraman.

Illunabar batez, atxurrarekin egin du berebiziko zuloa langatxoaren bere etxe aldetik, eta ikuillutik artu bei-korotz mordo aundi bat eta bota du egindako zuloan, eta ura ere bai aldameneko putzutik. Nastu-nastu egin eta sekulako *baltza* jarri du. Gero, belar izpi batzuk bota gaiñetik diximulatzeko, ta pentsatu dezakezu zer gertatu zan: langatxo gaiñetik salto egi-terakoan, “sast eta kaketan plast!” antxe egiten zuten benetan. Eta garai artan erabiltzen ziran espartzin edo alpargata zuriak txukunak ateratzen ziran!

Bere jaiotetxean ezagutu nuen nik, eta andik laister beste batera pasa zan. Gero beste batera eta, orrela ibilli ondoren, bere illobetara bildu eta an izan zan. Azkenean, berriz, Donostiako Zorroagako Zar-etxean, eta emen il zan. Goian bego.

Ipui eta kontakizunak

Mateo Txistu

An, gu mutikoak giñan garaian, illunabarretan, beko su zarraren inguruan, tertuli ederrak izaten ziran. Neguan eta batez ere eguraldi kaskarretan, aizea zebillenean eta orrelakoetan, suaren ondoan bilduta kontaktzen ziranak ez dira egun batetik bestera aztutzekoak, eta ez dira aztutzen gaiñera. Baiña gertatzen dana da aldatu egiten dirala kontatzerakoan, aotik aora dabillan gauzak geienetan egiten duen bezela.

Beste askoren artean bat auxe da: bein, ez dakit nun esaten zuten, bazan apaiz bat eiztari amorratua; eta igande goiz batez, meza ematerakoan, meza erdiko garaian ogia sagaritzen ari zala, zakurrak zaunkaz nabaitu omen zituen; eta berak, eiztaria zanez, ezagutu erbiaren atzetik zijoazen zakurren zaunkak zirala; eta utzi ari zan lana, lan sakratua, bertan bera, eta bere alba, zinguloa, kasulla, estola eta danekin, zakurren atzetik joan zan. Ez dakit eskopeta artu zuen edo nun zeukan –ori etzuten esaten–, ala artean geziak erabiltzen zituzten. Dana dala, geroztik ez omen da etxera itzuli.

Egundoko aize zalapartak eta txistu otsekin, laiño multzo bat balitz bezela ibiltzen zala esaten zuten, eta orren aldeleak gogor kontaktzen zuten, mundu ontako gauzarik normalena balitz bezela:

–Baietz, ba, baietz! Neuk entzun nituen garbi-garbi erbiaren atzetik dabiltzan zakur zaunkak, eta eiztarien txistuak ere bai. Garbi asko gaiñera! Zer uste dezute zuek: erbi ondoren dijoazen zakurren zaunkak eta aiei egin izan zaizkien txistuak ez ditudala ezagutzen?

Jainkoaren zigor gogorra zan ura, aien ustez, eta kitto!

Zer nai duzu? Batzuek baziran tartean gauza auek errotik sinistuta bizi ziranak, eta il ere ziur asko egiak ziralakoan ilko ziran. Ez dut uste oriatik kondenatuko ziranik. Aiek etzuten ezer txar bearrez esaten. Sagara orduko unearen seriotasuna adierazteko mixiolariren batek esango zuen –au nere iritzia da, eta ez besterik ezer–, eta geroztik, batengandik besteagana zerbait aldatuz, baiña gauza aundirik ez, jira ta buelta ortxe ibilli. Neguko gau luzeen laburgarri, telebistarik etzan garaian zerbait bear izaten baizan; eta ipuiak ere geiago irauten zuten garai artan, eguneroko berriak nun-naïtik datozkigun ontan baiño.

Orra gure Mateo Txistu nola ibiltzen zan zenbaiten uste-tan: *sekulorum sekuletan* erbiaren atzetik, zakurrak aurrean zituela, gelditu gabe, berebiziko abaïllan eta laiño multzo batek estaltzen zuela. Beraz, nabaitu bai, baiña ez da ikusten. Gauez nabaitzen zala esaten zuten. Zer diozu, irakurle? Dana dala, sutondoan kontatzeko polita zan, ume koskorrentzat batez ere. Buruko illeak tente-tente egiñik egon izan giñan entzuten, eta bai gauari bildurra artu ere!

Tipulas-en Pazkoazkoa

Bai omen zan eskean ibiltzen zan bat, ez oso elemento zuzenaren ospekoa, eta galdetu omen zioten:

–Pazkoazkoa egin al zenduen, *Tipulas*?

Eta onen erantzuna:

–Bai, ta derrigor gaiñera.

Ori esan eta erakutsi oi omen zuen txartela.

Garai artan, gauerako ostatua edo gaua igarotzeko legorpea ematen zioten tokian, Pazkoazkoa egindako txartela eskatzen zitzaïen; eta gizarajoak, ez noski beti-beti oso gustora, baiña egin egin bear, gauean legorperik izango bazuten.

Gaur asko ta askok ez du jakingo zer dan “Pazkoazko txartela”. Toki askotan galdetzen zuten gauza zan ori, ta bere ixtoria ere aipatzea merezi duela uste dut.

Garizumaren buruan aitortu ta jaunartzera beartuak geunden danok, kristau guztiok, zazpi urte bete ezkerok; eta jaunartzera joan aurretik “txarteletara” joan bear izaten zan. Erreto-rearengana kristau ikasbide edo dotrinako azterketa egitera ia larogei urteko gizonak ere an joan bear izaten zuten “dotriña esatera”. Jaunartzerakoan, berriz, an egoten giñan gu, elizmutillak, bandejatxoan artu txartelak eta bai botatzen zuenari bestea emateko zai. Baiña kontu gero, bat bota gabe, bestea artzen utzi iñori! Ordena zorrotza izan oi zuen “txartel zai” jartzen zan monagilloak. Eta au ez da ipuia. Ni neroni ere egona naiz, elizmutil nintzala, bandejatxoarekin. Txartela irikita bota bear izaten zuten, urte artakoa zala erakusteko, bestea artu aurretik.

Ura ere bazan, ba, legea, Edo oitura legea balitz bezela biuruta. Baiña jantsenismoaren ondorenak indar aundia izan zuten emen, eta ez urte gutxian gaiñera. Ez dakit norentzat izan ziteken okerrena: apaizentzat ala kristau soillentzat. Orain uste dugun bezela Jesukristoren legea maitasunean oiñarritzen bada, lanak izan bearra zeukaten orduko apaizak eta mixiolariak zeruko atean sartzen. Baiña gugatik gurutzean be-soak zabaldu zituenak, aietako askok baiño erruki geiago izango al zuen. Bestela ez dakit nola ibilli bearko zuketen zenbaitek. Baiña nik neurearekin izango ditut naiko lanak, eta nagon ixilik besterenagatik.

Bizi egin nai

Erri koxkorren batean gertatua izan bear du, esaten zute-nez, eta orrela kontatu izan zuten beintzat. Erriz erri izan oi ziran bezela, bi praille eraman omen zituzten, errian jende gaiz-

toa zegoela eta pixka bat bildurtzen ote ziran edo; eta erri osoa joaten omen zan elizara sermoietara.

Amonatxo bat ere joaten omen zan besteen artean aurrenetik. Baiña astearen erdi aldera gaixotu egin zan eta deitu zioten apaizari: amonak aitortu egin nai zuela eta ea aita prailletako bat bialtzen zuen aien baserrira.

Joan omen zan praillea baserri ortara, ta amona an omen zegoen gaixoa erdi illean. Aitortu zuen amonatxoa eta konsolatu ere bai al zuenik egokiena: Goiko Jauna norbaiten berrean zala eta orregatik deituko ziola; suerte aundia izan zuela berari deitzearekin, eta zuzen-zuzenean joango zala zerura gaiñera, berak ematen zion bedeinkapenarekin. Orrela mintzatu zitzaion aita praille ori; baiña, bakarrik zegoela uste izan zuenean, begira nola mintzatu zan amona gaixoa:

–Jauna, norbait bear badezu, zertarako nauzu ni, ezertarako ez naiz gauza ta? Norbait eraman bear badezu, or dauzkazu aukeran aita Erramun eta aita Bixente –bi mixiolarien izenak–. Oiek bien lana batek ederki beteko luke emen, eta or alde ederreko laguntza izango zenduke, oiek daukaten sasoia ta indarrarekin.

Ez dakigu otoitz oiek Jaunak entzungo zizkion; baiña gauza bat gelditu zan garbi: amona arek artean etzeukala beste mundura joateko gogorik; oraindik ere emen naiago zuela, aruntza joan baiño.

Gau-argiak

Au ere amaika aldiz entzun izan genduen, baiña usterik gutxienean gerta zitekela. Berari aurre egin bearra eta ezetzik ezin esan gaiñera. Izena duten gauza guztiak dutela beren izana; eta ez dakit nungo aitonari belarrondoko bat eman omen ziotela kontu ori gezurra zala esaten zuelako, eta belarri inguru ortan bere bizitza guztirako marka utzi ziotela esaten zuten.

Gau-argiak bi ibiltzen zirala beti, eta aldatu egiten zirala gaiñera bat-batean, eta aiek zapaldu gabe igaro bear zala in-gurutik; bestela, an itsatsita gelditzen zala, eta urrengo aldatu aldian beraiekin eramaten zutela, ta olakoxe kontuak.

“Tutarras”

Ez dakit beste tokitan esaera badanik; baiña an, Urdanetan, askotan esan izan zan, zerbait eskuetan zeraman gauzaren bat arkitu eziñik zebillenean. Esate baterako, bat josten ari zanean, jostorratza edo titarea galtzen bazitzaion, ala esango zuen:

–Nere jostorratza ere Tutarras-ek eramana izango dek oraingo ontan, emen ez dek agiri ta.

Olakoetan ala esaten zuten nere amonak eta nere amak ere bai. Gauzarik arruntena balitz bezela esan ere beste zenbait olako, batez ere eskale eta alamoduz zebiltzanak eta orrelako-enak: “Amezketak”, “Agustin Txalaka”, “Txapao”, “Zorri agurea” eta abar.

Galdu ziran illunabarretako tertuli aiek, galdu ziran esaera zar asko, baiña oraindik an gelditzen da Urdaneta, nere sorleku maitea, eta iraun dezala gaiñera luzaroan. Ez dezala iñork esan bearrik izan: «Or bazan Urdaneta zeritzaion auzo bat», baizik-eta iñork galdetuko balu: «Nungoa aiz?». «Ni Urdanetakoa» erantzun dezala, mundua mundu dan arte guztian.

Pastor Izuela

Bizi zan arte ez dakit nola ikusia edo zer izana zan; baiña, il eta gero beintzat, aipamena ugari bazuen Urdanetan. An illa izan bear zuen, izan ere, eta Amezketakako Pernando bezain aipatua zan, gutxi gora-bera.

Bertsoak jartzen ere ona izana izan bear zuen. Bederatziko zarrean, beintzat, ark jarritakoa juzgatzen dut nik bertsorik

onentxoentzat. Ala esan oi zuen nere aitona zanak ere. Azariari jarritakoetan dagoen lenbizikoa, ain zuzen.

Mutil gaztea zala, erromerira bidean ere, ala kontatzen zuten, puntua jarri eta danei aide batean erantzuten omen zien Izuela orrek. Bein, tartean marmarrean ari omen zan bat, eta orduan Izuelak jartzeko nai zuen puntua, eta ara zer jarri zion:

Andregai billa niak
gaurko biajian...

Izuelak:

I baiño oberik badik
bere parajian.
Zertan ibilliko aiz
alperrik nekian?
Ez dik aginduko ta
utzi iok pakian.

Artean ere kontentu ez ta beste puntu au jarri omen zion:

Bista ona ta ezin
ikusirik alkar...

Izuelak:

Izketarako bidea
arrazoiak dakar;
zuk dauzkatzu bi begi,
ni naiz begi bakar,
orra zuri erantzun
oni bezin azkar.

Len aipatu duten azari lapurrari jarritako bertsoa era ontan kantatu oi zuten:

Azari litxarrero
malapartatua,
aspaldian ez diak
gutxi ostua.
Arkume eta ollo
ire karretua,
nere aziendaren
atarramentua.
Tranpan paratua
nedukan zepua,
naiz izan gaiztua,
i an geratua;
orain badiat zorrak
nork pagatua.

Artzai ezjakin batentzat gaizki moldatutako bertsoa danik ez esan neri. Nik ez dut arkitu, nere ustez, ori bezain bertso osoagorik, amaika irakurria naiz baiño. Kostako da, gaiñera, ohea asmatzen.

“Orain badiat zorrak nork pagatua” esaldiarekin zer esan nai ote zuen? Zalantzarik gabe ere, azari-eskean ibilli oi ziran orduan eta geroxeago ere, eta ark ori esan naiko zuela begien bistan dago. Arek ordainduko bazizkion, etzeukan beste biderik iñungo aldetik, baiña artatik bai.

“Naiz izan gaiztua i an geratua”... Gaiztoa bazan ere, an gelditu bear izan zuela, jarri zion zepuan, garbi adierazten zuen. “Geratu” itz ori asko erabiltzen zan Altzolan, eta Urda-netan ere aldizka. “Azienda”, berriz, zeukan abere sailla ardiak eta olloak eukiko zituen; eta aberea, berriz, zaldi edo

mandoa esan naiko zuen; eta ia ondatu ziola “arkume eta oillo ire karretua” orrekin. Itz oiek kontutan izanik, oso utsune gutxi edo batere gabeko bertsoa da ori

A! “Litxarrero” itz orrek besteren gauzak artzeko zale-tasuna adierazten duela zer esanik ez: eta “malapartatua” itzak literalki zer esan nai ote du? Ba, zerbait gauza txar edo gaiztoa esan nai duela bakarrik dakit. Bein baiño geia-gotan entzuna naiz. Baiña bein ere ez det garbiro jakin zer esan nai zuen. «Ume malapartatu auek!» eta orrelakoak maiz esaten zizkiguten, batez ere ni bezelako “txintxoak” giñanoi.

Dana dala, bertso ederragoa asmatzen ez da oso erreza.

Nik beti *Izuela* entzun izan nien, baiña bere jatorrizko baserri orren izena *Izurola* edo *Izur-ola* izan bear du. Garai batean burnia egiten zan ola oietakoa izana. Nere amaren ama ere an jaioa izan bear zuen. Beraz, arraza ortakoak gera; baiña onezkero oso *ajatu*a da, eta neretzat zaletasuna beste ezer asko ez da izan.

Sorgiñak

Sorgin kontuak, berriz, bazekizkiten Zugarramurdin gertatuak ere, naiz bera nun zegoen ez jakin. An gertatutako gauzak egiak balira bezela kontatu izan zituzten, eta sinistu ere bai askok. Pentsa: gure aitona zanak ere ala esan izan zuen: berak etzuela esaten baziranik, baiña ez-eta etziranik ere. Bere aurrekoei beti entzun ziela izena zuten gauza guztiak izan zitezkeela, eta pakean uzteko. Berak ezin zezakela esan baziranik; iñoiz etzituela ikusi ta nabaritu ere ez; baiña etziranik ain gutxi, izena bazutelako. Ta ez uste gauzak nolana esaten zitu-
enik, ondo neurtuta baizik.

Zugarramurdi aipatu dugu, eta ango ipui bat guri kontatu izan zigutena auxe da. Sorgiñak beren akelarrea... Ez ote da

aker-larrea gero? Nik baditut nere zalantzatxoak; baiña guri akelarrea esan oi ziguten, eta nik ere ala erabiliko dut.

Sorgin berrien aukeratzeko eguna omen zan eta egin omen zituzten berebiziko festak. Iritxi dira azken aldera, esan dutan sorgin berri oiek aukeratzeko edo izendatzeko garaira, eta bai al dakizute zer egin bear zuten lenengo, aurrera igaro al izateko? Begira: sorgin danen buru egiten zuena atzeraka jarri, gal tzak bera jetxita, eta sorgingai berriak saillean joaten omen ziran; ari ipurdian muxu eman eta aurrera. Baiña bat izan an tartean asmo onez etzijoana, eta onek abarka-eztena eraman gordeta eta, sorginburuagana iristean, *zast!* egin zion ipurdian sorgin zarrari, eta onek egin zuen marrua entzun omen zan in-guruko errietatik ere; eta egin zuen saltoarekin, berriz, koba zuloaren goia jo ta arnas gabe erori omen zan lurrera.

Koba barruan sekulako ixkanbilla sortu omen zan; eta, noiz-bait kordea etortzean, ala esan omen zion sorgin zarrak berriari:

–Ai, sorgin berri, sorgin berri! Ik bizarrak zorrotzak dituk!

Beste bat onela esaten zuten: andre bat bein sukaldean goruetan ari zala, tximinitik bera katu itxuran etorri zitzaiola sorgiña, eta arentzat ez dakit zenbat mataza (ari-pelota) egiteko esan ziola. Oso bildurturik, bere senarrari kontatu omen zion gero, eta onek ala erantzun zion:

–Gaur ni geldituko naiz goruetan, eta zu joan oera lasai.

Ala egin omen zuten. Gauean an ari omen zan gizona goruetan, edo itxurak egiten, eta tximiniko zuloan bera eldu zaio katu bat.

–Zer: bixarrarekin eta goruetan? –esan omen zion katu orrek arriturik, eta gizonak erantzun zion:

–Baita i, berriz, katua izan eta berriketan!

Eta aldamenean zeukan laia sartu omen zion. Laiak bada-kizute bi anka izaten dituela, eta bi sastada egiñez jo ta bertan

akabatu omen zuen katua. Eta artu ta aldameneko sasira bota omen zuen.

Urrengo goizean joan da begiratzera, eta antxe arkitu zuen auzoko atsoa ilda larru gorritan, bi laia-anken zuloetatik odola zeriola.

Zuk bai al zenekien, sorgiñari daiñu egingo bazaio, bi sateko edo bi kolpe batean eman bear izaten zaizkiola? Ba, orain badakizu nola ziran gauzak, adiskide.

Beste kontaera bat bazan. Mutil kankallu batek ikusi omen zuen atso sorgin bat sorginkerirako ukendu batekin bere gorputza igurtzi, an koxka batean utzi, «Sasi guztien gaiñetik eta laiño guztien azpitik» esan eta, *rau!*, tximiniko zuloan gora ziztu bizian irteten. Eta mutillak, berak ere egin bear zuela, eta igurtzi omen zuen bere gorputza ukenduz, eta bai esan ere bere ustez besteak esan zituen itzak. Baiña...

Ortarako ere kankailluegia izan eta atzekoz aurrera ez ditu, ba, esan itzak? «Sasi guztien gaiñetik eta laiño guztien azpitik» ez, baiña «sasi guztien azpitik eta laiño guztien gaiñetik» esan zuen kirten arek; eta gero or ibillia izan bear zuen muturrak urraturik sasien azpitik zebillenean eta urrengo bolaran zeruko izarretaraiño igo bearrean. Berriz probatzeko go-goak ederki kendurik itzulia izan bear zuen. Beingoarekin asean zan kaiku ura, gogotsua izan arren.

Olakoxe jardunaldiak izaten ziran gure sukalde baztarretan, soiñean generamazkien zarpak –erropei deitzen genien zarpak– erdi bustian edo ola kanpotik etorritakoan eta, aiek legortu bitartean, beko suaren inguruan bilduta geundela.

Azokak eta periak

Biak esan nai berdiñeko itzak izan arren, guretzat ezberdiñak ziran azokak eta periak. *Azoka* deitzen zitzaienak emakumeen periak ziran. Urdanetan deitzen zitzaien bezela, *atso-periak*.

Auetan saltzen ziran mota guztietako egaztiak: oillo, oilasko, aate, akubi, arkume... Baita ere gaztain, intxaur, sagar, udare, aran, gerezi eta gaiñerako igali edo frutuak. Tomate, piper, aza, azalore, leka, tipula, baratzuri eta eskarolak, beste ainbeste motatako barazkiak tarteko zirala. Arrautzak, babarrun beltza, gorria, pinttarra edo txuria, eta beste ainbeste gauza, garaian garaikoa. Saldu ta erosi egiteko leku berezia izaten zan eta da *azoka* deitzen zitzaion ori; eta emakumeak geienbat erabiltzen zituzten arazoak Euskal Errian. Ez da, beraz, arritzeko gauza *emakume-periak* eta orrela deitzea. Baiña ez naiz peri kontuan aditua eta barkatu akatsen batzuk sartu baditut.

Gipuzkoan osperik aundienekoak Ordizi, Tolosa eta Azpeitikoak izango dira. Baiña Urdanetako etxekoandreentzat Zarauzkoak zuen zer ikusirik aundiena, erosoena zeukatelako. Ori bai: salneurriak eta olako gauza izendatzeko garaian, beti kontuan artu oi zituzten bai Tolosa, bai Ordizi eta bai Azpeitikoak ere.

Periak, berriz, beste gauza bat izaten dira beren jatorrian eta beren izaeran. Jatorriz litekena da biak batera asiak izatea. Oraindik ere zenbait tokitan badaukate alako zerbaiten itxura. Ordizin, adibidez, txekor gazteak eta nekazaritzako tresnak egun berean ikusi izan ditut saltzen. Baiña ez dakit beti ala egiten duten ala ez.

Ernanin bietakoa batean egiten zan, baiña era ezberdiñean oso. Emen bei eta txekorrak, eta idiak zer esanik ez, ikuilluetan eukitzen zituzten. Ikuillu auek, publikoak balira bezela, sarrera librea izaten zuten; eta, jakiña, tratulariak ere an egoten ziran. Jende asko ibiltzen zan bolara batean. Oso ezagunak ziran *Prailletarrak*, *Iñaxio Zinko*, *Enporru* eta abar.

Berebiziko bei saillak ekartzen zituzten. Lasartera trenean, eta gero batzuetan oiñez eta besteetan kamioian eramaten zituzten Ernanira. Lasarte-Txikierrdin geltokia zegoela gertatzen zan ori. Aspaldiko kontua, beraz. Baiña ori debekuren bategatik asia omen zan. Lenagotik plazan egiten zan.

Ortaz gaiñera, igali edo fruta klase guztietatik, eta landare eta beste gaiñerako ale gauzak berdin. Baserrietako lanerako tresnak eta oillo, oillasko, akuri eta orrelakoekin egiten dan azoka ori ere egun eta ordu berean. Esateko, erri guztia artzen zuen Ernaniko periak ostegun arratsaldeetan.

Sagar landare ta olako gauza ere asko izaten zan. Orain ez dakit ala jarraitzen duen edo ez. Ez bainaiz aspaldian izan, eta norberak ez dakien gauza besteri erakutsi nairik ezin asiko gera.

Tolosan larunbat goizean egiten da azoka, eta astelenetan arratsaldetik, berriz, peria. Azpeitin astearteetan goizetik azoka astero; ta, oso oker ez banago, illaren irugarren azteazketan peria. Zarautzen, berriz, larunbatero goizean zegoen azoka, eta illean bein peria, larunbat arratsaldean, illaren bigarrenan gaiñera. Ordizikoa, beti asteazken goizean.

Periak deitzen zaien auetan, idi, bei, ardi ta orrelakoak saltzen ziran. Txerriak ere bai. Baserritik gurdian eraman izan ziran. Gurdia bereziki ortarako preparatuta jartzen zuten, naiz txerrikumeak izan, naiz txerri gizenak izan. Kurkajari gaiñetik ezarri iru arku ta alanbre sarearekin egindako tresna bat, eta an egon bear izaten zuten atera arte.

Tratulariak ere an izaten ziran beren txerrikumeekin. Plazan jartzen zituzten berekin kamioian erabiltzen zituzten esiak, eta zortzi-amar txerrikumeko taldetxoak eginda. Plazan itxura ohea artzen baidute burni errejatxoekin egindako itxuratxoetan, eta iñora iges egiteko bildurrik ez, gaiñera.

Gero, Elgoibarkoak ere ospe aundia zuten. Bergarakoak eta Irungoak zer esanik ez. Beste geiago ere bai, noski. Baiña Urdanetako kontuekin ari naizenez, ango jendeak joerarik aundienak oietan zeuzkan. Etzan izango etxeko goraberek eramaten zituen gizonik, anken gaiñean jartzen bazan, Zarauzko perira joan-etorritxo bat egingo etzuenik, gariak ebaikitzen edo olakoren bat etzanean, beintzat. Alakoa zanean ere, zenbaitekin kontu! Aitzakiren bat billatzeko kapaz ziranak ere izaten ziran tarteka. Ori bai: peri zale purrukatu oiekin kontuz ibilli bear izaten zan, eta alako ospea izaten zuten geienetan.



Ajuria-enean: Pello Artetxe, Ardanza lehendakaria eta
J. Arregi kultura sailburuarekin

Gurdiak eta lerak

Goaxeago aipatu dut zertzelada batzuk ematea ez litzake-la geiegi izango, eta ortara noa orain. Eraman pixka bat artzen badezu, irakurle, zerbait argituko dut; eta, lendik dakizuna baze-za, berriz, barkatuko didazu unetxo au. Gurdiak eta lerak nolakoak eta zer ziran aipamen berezi bat egitera noa.

Gurdiak gauza arruntagoak ziran lerak baiño, eta berak nola ziran aipatuko dut lenbizi. Etziran izaten gure mendi gurdiak errepide ondoko zaldi gurdiak edo esku gurdiak bezelakoak. Lokatzetan ibilliko bazan, bearrezkoa zan kurpil itxiak izatea. Zurezkoak, jira guztian burnizko uztai bat eramaten zuten, egurra ez gastatzearren. Baita ardatza ere zurezkoa izaten zuten, eta bi kurpil eta ardatzak osatzen zuten gurdia.

Aien gaiñean jartzen zanari, berriz, *kurtetxea* zeritzaion; eta andik gora eramaten zituen ol aiei, *kurtolak*. Ardatza ta kurtetxearen tartean *kojinete* bezela egiten zutenei, *astoak*. Ardatzarekin lotzeko jartzen zitzaizkion egur zati aiei, *orratzeak*; eta aiek kurtetxearekin bat egiteko, zurezko ziriekkin ondo ajustatu oi zituzten. Ondo alare!

Gure aita zana baiño arotzian gutxiago aritzen zanik etzan izango beste gauzetan. Baiña gurdia orratzetan jartzen ere gutxi-ramango zion. Izetako Martxiel zarrak edo olakoren batek, izatekotan ere. Baiña kontuz! Nik ez dakit nola moldatzen zan, baiña txukun jarriko zuen arek gurdia orratzetan. Bai ziriak ere dotore asko egiñak.

Lera guztiz ezberdiña izaten zan. Au bi olen gaiñean arras-taka ibiltzen zan; eta betik gorako garraiorako oso nekoso-za-lako, etzan erabilli ere egiten. Al zanik gutxiena, beintzat.

Goitik berako asko, gurdia ren aldean ona zalako, naiz belar, garoa edo egurra menditik errepidera eraxteko ondo zetorren gauza izaten zan lera. Zama aundia jarriagatik, kurpillen gaiñean baiño obeto eusten zioten lerari, arrastaka zijoalako.

Gure lerak guztiz ezberdiñak ziran or Alaska alde ortan eta Ipar-poloan eta oietan zakurrak tiraka jarrita erabiltzen dituzten edo zituzten trineo oiekin. Ez baidakit oraindik jarraitzen duten ala ez. Egituran itxura badute biak; edo, obeto esateko, erabilleran. Baiña plantxaren gaiñean ibiltzen dira, eta ezberdintasunak ez dira txikiagoak izaten. Trineoak elurretan korrika ibiltzeko izaten diran bezela, lerak menditik bera zama aundiak eratxi bear diranerako erabiltzen dira.

Goitik berako karraioan, bai; alde aundia izaten zuten gurdiagandik. Esate baterako, belarretan ibiltzen ziran lerak oso luzeak izaten ziran eta, bide zuzen samarra baldin bazuten, zama izugarriak erabiltzen zituzten. Berdin garoa ta orrelakoak ere, ta bai egurra ere. Surtarako egurra batik-bat, asko jetxi oi zan Laurkin basoetatik. Pagadi izugarriak baiziran, eta Zarausko okindegietara eramaten zuen Erreiztako Lorentzo zarrak *gurdi-bolantearekin*. Eta nork esan bear zigun guri, okindegietan egurrik bear etzan garaiak ezagutu bear giñuzela, naiz-ta egurra alderatzeko egokierak asko aldatu diran? Alanbrea errezago etortzen dala ez dago zalantzarik.

Beste *karretero* ospetsu bat Olai-saletxeko Bernardo Zarra zan. Aiatik Zarautza *gurdi-bolantearekin* ibiltzen zan au ere. Baiña beti beiekin. Ez nuen bein ere ikusi idiekin. Erreizta beti idiekin eta Olai-saletxe beiekin.

Eta zer dugu *gurdi-bolantea*? Saiatuko naiz itz gutxitan esaten. Atzeko bi kurpillak oso garaiak edo altuak zituen. Aurrekoak, berriz, erdia, gutxi gora-bera; eta, berebillarenak bezela, norabidea aldatzen zaienak gaiñera. Errepidean ibiltzeko bakarrik izaten ziran. Ezin zitezken mendibidean erabilli. Oso

astunak baiziran, eta zabalak ere bai, gurdiarenak baiño askoz zabalagoak.

Auek ere, leraren antzean, karga goitik bera edo ordekan erabiltzeko izan bear zuten. Bestela, neke izugarria dute. Utsik erabiltzeko ere, Zarautzik Aiara jasotzea ere geiago kostatzen zala esaten zuten, karga-karga eginda Aiatik Zarautza eramatea baiño.

Leraren ipui bat Zarautzen kontatzen zuten polita. Ez dirudien gauza baterako zala oso ona, alegia. Zarautzen bazan gizon bat “Arozena bizar aundia” deitzen zitzaiona. Ibiltzeko edo biajatzeko tresnarik onena bat zala eta bestea zala ari omen ziran, eta alako batean onela esan zion batek besteari:

–Ori Arozena bizar aundiak jakingo dik iñork baiño obeto.

–Aizak eta alaxe duk. Berari galdetuko zioagu.

Orrenbestez, arek esaten zuenera biak ados zirala eta galdetu omen diote:

–Adi beza, jauna: eztabaida daukagu ibiltzeko tresnarik onena trena dala eta kotxea dala, eta berorren iritzia jakin nai genduke, geiegi molestatzea ez bada.

Orra bestearen erantzuna:

–Ez bat eta ez bestea! Biajatzeko tresnarik onena lera da, idi zarrak eta itzai zarrarekin.

–Lera? Ez litzake bereala iritxiko orratik, urrutira joan bear badu!

–Garaiz irten! Ortara elduko da, bi ol oien gaiñean!

Bi ol oiek eskalleraren bi alde bezela ziran: ogei ta bost bat zentimetro alturan, lau-bost inguru lodi, eta luzean nai ainbat; eta azpian burni-txapazko plantxa bana eramaten zuten, egurra ez kastatzearren. Ol oiei *lera-albokoak* zeritzaie, eta oiekin eskaillera egiten zuten. Zortzi-amar bat zentimetro zabal eta bi t’erdi inguru lodikoak izaten ziran, eta *parak* zeritzaie-

nak. *Lera-albokoak* zulatuz ondo ajustaturik sartzen zitzaizkion, metro erdi eskaseko tartearekin edo orrela. Atze-aurreetan, berriz, gaiñetik josten zitzaizkion bi ol, amarna zentimetro ingurukoak, eta auei *paxak* esaten zitzaien, ez dakit zergatik baiña. Nik ala esaten ikasi nuen, an ala esaten zitzaielako.

Gero, atzean eta aurrean izaten zituen bi egur, *ezpatalekuak* esaten zitzaienak. Atze-aurreetako bina *parari* josita –tornilloz josita nai bazan edo zulatuta–, erdi-erdian txukun jarri; eta gero, tokatzen zaion *paxarekin* gaiñetik tornilloz lotu, *ezpatarentzat* zuloa egin eta listo, belarrez edo egurrez kargatzeko.

Orrelaxe ziran gure baserrietako gurdiak eta lerak. Gaurtik alde ederrekoak! Ala usteko dute askok, baiña gaur mar txan dabiltzan lan-tresnak ikusiz ez da ezagutzen atzoko tresneria, ez lanerako eta ez beste gauzetarako erabiltzen zana.

Jantziak, adibidez, zertan daukate zer ikusia gaurko baserriarren jantziak eta guk ezagutu giñunak? Ezer askotan ez; eta ez litzake gaizki etorriko beste gauzetarako balio ez luken gelatxo bat edo olakoren batean, *maniki* oietakoei erantsita, len ibiltzen ziran bezelatsuko jantziak erakusgarri ipintzea. Esate baterako, abarkak, aien sokakin galtza-barrenak lotuta; brusa. txapela eta olakoak gizonen; eta emakumezkoei ere berdin, gona ta txanbra, buruko paiñueloa txukun jantzita. Mutillak galtzak eta alkandora, txaleko eta alpargatekin –guk eza gutu egin giñun, baiña erabiltzera ez giñan iritxi–. Neskak ere bai, erabiltzen ziran jantziekin. Mutikoak, berriz, belaunak juxtu estaltzeraiñoko galtzekin eta abar.

Nekazal-turismoko etxe guztietan bear luke museoa –zerbait esateagatik– edo olako zerbait. Lengo nekazaritzako tresnak eta alako mundu txiki bat eukitzera beartu bear lituzkete, ortarako laguntza emanez, jakiña, zer turismo klase egiten du-

ten jakin dezaten. Bertakoak badira, beren jatorria nundik eta nola datorren jakitea bearrezkoa baida, emen aitonen baten abarkak atearen atzean arkitzen ez dituenak, mororen baten babutxak izango ditu baztarren batean eta. Gure jatorria ez da ain lotsagarria, eta ez daukagu zertan lotsaturik; eta erakusteko, berriz, nor egokiagorik, erakusten dituen gauzekin irabazitako ogia jan dutenak baiño?

Emengoak ez badira, berriz, ez daukate zer gaizki arturik. Alderantziz: dabiltzan tokiko berri jakitea edozeiñi zaio gozoko, eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ere ez lukete dirua ezertan obeto txautuko. Ziur nago ortan.

Gauza ederra izango litzake oietako etxe bakoitzean lengo izaeraren aztarrenak emango balituzkete. Egoki etorriko lirake gure erri au ezagutzeko; eta maitatzeko ez dago ezagutzea bezelakorik, batez ere gauza ona danean, eta gureak ez du zer ezkutaturik. Beraz, ezagutzera eman bear da al dan lenena, gero berandu izan ez dedin. Zer derizkiozu, irakurle?

Jarraipidea izango lukela iduritzen zait, bein ortan asi ezkerro. Asi artekoa zaillena izango ote litzaken ustetan nago ni. Gurdi bat, lera bat, laia pare bat, are, bostortz, sega, eskuare eta olako batzuk gutxiengo bezela jarri, eta geiago nai duenak jarri ditzala nai dituen guztiak, jorrai koxkorretatik asi ta nai duen tokiraiño.

Atzerritik etortzen diran turistak ez dago dudarik pozik ikusiko lituzketela gauza oiek. Bein batek kontatu ezkerro, beste geiago ere zaletasun orrekin etorri litezkela zalantzarik txikienik ez daukat. Ain dira gauza arruntak eta xebreak gure zenbait lanabes eta tresna. Oraingoak ikusiz, ez dago kide-tasunik arkitzerik ere.

Eta zer esan jantziei buruz? Beste orrenbeste, gutxi gorabera. Ez geiago eta ez gutxiago: eta orregatik izan litezke interesgarriak. Ez gaiñera kanpotik datozenentzat bakarrik: ber-

takoak ere askotan eta askotan ikusi gabeak izango dira emendik gutxira, eta gauza oiek oraindik jaso ditezke. Telebistaren bitartez ere jaso bear lirakela uste dut, erabat galdu baiño len.

«Baiña zeiniek eta nola jaso, ordea?» esango du norbaitek. Nere iritzirako, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza edo Turismo saillekoak eta Foru Aldundietakoak, Euskal Telebistaren bitartez. Bestela, alperrik da. Gero berandu izan ditekete, eta garai dan arte saiatu bear du.

Nere ustez, oraindik tokiak izango dira danetik arkitu ditezkenak, guztiak bildurik daudenak. Baiña jendeak ez badu arretarik jartzen, laister bukatuko dira, eta orduantxe bai akabo gure lanabes eta orrelako tresnen atzetik ibiltzea eta erakustaldiak egin nai izatea.

Orrekin urrats garrantzizko bat emango litzaioke. Oraindik asko ez dala zer izan giñan eta orain zer geran jakin araziko genioke munduari, eta ez uste utsaren urrengo gauza danik. Konturatuko bagiña zer lan dan, askoz errezago izango litzake aurrera eramaten. Ortan ez daukat zalantzarik txikienik ere.

Norbait asiko ote da? Zorionekoa aurrena asten dana. Baita ere ari jarraitzen diotenak ere zorionekoak izan bitez. Baiña asi dedilla batenbat lenbailen. Bestela, berandu izan baiditekete, garaia joandakoan.

Orain guk sorgin kontuak artzen ditugun bezela artuko dituzte atzera joan eta gero. Egirik borobillena izanda ere, zerekin demostraturik ez bada, gezurtizat artuak izan ditezke, eta penagarria da urte batzuegatik ortan gelditu bearra.

Urdanetako abizenak

Urdanetan ezagutu nituen familietako jatorria euskaldun garbia zan, bertakoen abizenak adierazten dutenez. Kontatuko dizkizutet, ni jaio nintzan tokitik gertueneko baserritik asi ta itzuli osoa emanez neu jaio nintzanera, nola ziran etxe bakoitzeko abizenak.

Indagarate Zarrean:	Otamendi
Txatxarron:	Lizaso
Sagarmanetan	Iruretagoiena
Pagadi Zarrean	Mendizabal
Pagadi Berrin	Illarramendi
Otsarretan	Uranga
Saberrin	Landa
Maiaga Goikoan	Aristi
Maiaga Bekoan	Zendoia
Erretzabalen	Etxabe
Errota Txikin	Larburu
Goiko Olan	Landa
Indon	Zumeta
Arbea Goikoan	Zulaika
Arbea Bekoan	Elustondo
Agiñeta Zarrean	Guridi
Agiñeta Bekoan	Urrestilla
Agiñeta Berrin	Artetxe
Markeskoan	Lizaso
Zailkoan	Aranberri
Gaztelun	Berasategi
Serotegin	Zumeta
Indagarate Berrin	Artetxe

Oiek ziran Urdanetako baillara edo auzoa osatzen zuten baserriak. Iru baziran, Arbea biak eta Indoa, erriz Zestuara zeudenak. Baiña orduko billera nagusia egiten zan tokia eliza zanez, bertakotzat artzen ziran eta orain ere ala jarraituko dutela uste dut.

Beste etxe sailtxo bat bazan: Izeta biak –iru ziran, baiña nik bitan ezagutu nuen familia eta orain bakarra dago– eta beste iru Aranburu. Oiek elizaz Zarautza zeuden eta daude, naiz beste gauza guztietan Urdaneta izan beren txokoa. Ala jarraitzen dute oraindik ere. Baiña gaztedia batez ere Urdanetako “mutill-ardoan” sartzen ziran, eta elizarekiko arremanak ere, bizirik zeuden artekoak danak, Urdanetan egin izan zituzten. Asi iganderoko mezetatik eta beste gaiñerako bedeinkazioak, errogatibak eta gauza guztietan, an izaten ziran.

Orduan gauzak asko mugatzen zituena izaten zan mutill-ardoa. Zer zan au? Begira: erriko festetarako baillara bakoitzean mutillak osatzen zuten alkarte bat, eta danen artean, baikoitzak onenbesteko bat boteaz, ardoa ekartzen zan gero partitzeko; eta ortan zein etxe sartzen ziran, araiño mugatzen zan baillara, eta sei baserri oiek ortan ere batera zetozen, naiz elizaz Zarautza egon.

Elizaz Zarautza zeuden, baiña norbait elizakoak artzeko beartzen bazan, beti edo geienetan Urdanetatik eraman izan zitzaizkion, askoz gertuago zegoelako noski batetik, eta besetik antxe oituak zeudelako ere bai beren gora-berak Urdanetan egiten.

Ikustekoa izaten zan udaberrian, Pazkoazko garaian, nola juntatzen ziran gizon eta emakume zarrak, bestelakoan elizara joaten etziranak ere. Anka ankari erantsitzeko gauza baldin bazan, etziran geldituko elizara joan gabe.

Etzan nunbait oiturarik etxera Jauna eramateko, elizakoak izan ezean. Eta Pazkoazkoa egin gabe gelditu? Ez orixe,

urrengo egunean ilko baziran ere, alazankoa! Eta orrela joaten ziran danak.

Nere ustez, Maiagako Madalen izango zan baillarako zarena. Ez dakit zenbat urte izango zituen, baiña larogei ta amarretik aurrera asko il zanerako, eta ia azkenak arte elizara joaten zan jai geienetan. Onen alaba ere, nik ezagutu nuenerako, zarra zan; Martina. Etzan eguraldi ederra onek elizakoak artu zituenean ere. Ni monagillo nintzala zan eta origatik daukat gogoan nola izan giñan Serotegiko Joxemari ta biok apaizari laguntzen, bi lengusuok, eta orain il berria da au ere. (g. b.)

Amaika ibilli alkarrekin badiagu egiña, bateko elizakoak, besteko su berria banatzen. Jesusen piztuerakoan egin oi zan, larunbat santu goizean. Suaren bedeinkapena egin, funtzio luze askoa gaiñera, eta ondoren etxez etxe banatzen genduen sua. Urdanetako elizpeko ta inguruko baserrietan ere nai izaten zuten, eta guk pozik eraman. Txanpona ematen baizuten, eta nola ez eraman? Bai pozik.

Santa Ageda bezperan ere urte mordo galanta igaro genian alkarrekin ibilliz, eta iñoiz ez geniken izan bost xentimoko baten ainbesteko okerrik izan, eta baduk zerbait, bi mutil koskor diru tartean ibilli eta orrenbeste urteren buruan ondo konpontzea. Ori, gaiñera, biok diruzale purrukatuak giñalarik. Agur, Joxemari, egun aundira arte!

Urdanetan ez naiz oroitzen ainbesteraifñoko zarrrik bazanik. Aspalditxoan elizara joan gabe eziñean zebiltzanak, bai. Baiña benetan zarrak eta aspaldian elizara joaten etziranak. Egun batez Altzolan ikusi nituen, mutil koskorra nintzala: iru aitona bildu ziran eta ia irureun urte zituztenak.

Ori nola liteken galde lezake batek: urdanetar peto-pettoa izanik, Altzolan zer gertatzen zan ikusi? Egia, nik oso gutxi esan nezake. Neronek ikusia beiñik-bein. Baiña badu orrek bere erantzuna, bereala ikusiko dugunez.

Altzolako eta Urdanetako apaizak bata-bestearen utsunek bete bear izaten zituzten. Eliztarrak ere, alkarri txanda egiñez, bietako mezetara joan bear izaten zuten danak, eta ni ere joaten nintzan Altzolarara mezetara, inguruko beste askorekin batean. Garai artan meza gauza sakratua zan, eta urrean ezin zanean urrutian, baiña nunbait entzun egin bear izaten zan, eta orixe zan ni an izateko arrazoia.

Esan dutan bezela, iru aitona oso zarrak: Etxeberri baserrikoa zan bat. Ez dakit ziur esateko, baiña larogei ta emezortzi urte egiñak uste dut zituela. Gero aren sendia Irun alde ortara joan zan. Semeak Zipriano zuen izena ta Agirresarobe zuten abizena. Bestea, Telleri baserrikoa. Onek ere larogei ta amasei edo olakoren bat. Eta irugarren egiten zuenak ere, larogei ta amabitik pasea, ia amairu-edo zituela esan zuten.

Izango zuten zer kontatua, aspaldian izan ez eta irurak an bildu ziranean. Ni artean gaztea nintzan eta enaiz ezer gogorutzen. Alkarri egin zioten agurra ta beste gauza asko nola ikusi nituen bai, eta urteak ere bai, besteak esan zutelako; baiña gaiñerakoan ezer gutxi.

Irugarren au Arrieta baserrikoa izan bear zuen; eta meritua zuten aiek ere urte oietara iritxi eta oraindik mendi bidean ibiltzeko. Eta apustu egingo nuke egun artan ere baraurik joan zirala. Orduan ez baizan oraingo konturik. Bezperan gauerditik Jauna artu arte baraurik egon bear izaten zan, eta amaiak izango ziran, oker aundi gabe, aiek meza nagusia bukatu ta zerbait artu zutenerako. Ez da gutxiagotarako ere, eta apaizak sermoian ere esan zuen nola zeuden an egun artan iru gizon oso zarrak, eta olaxe zoriondu zituen irurak.

Gazte sasoia

Nere mutil koskorretatik asi eta soldadu joateko aurrera arteko denbora oso arrunta joan zitzaidan. Beste guztien antzekoa izateaz gaiñera, oso gutxi nabarmendu nintzan. Segan oso poliki egiten nuen; eta jai arratsaldean, gazte batzuk alkargana bildurik, batean etxeko saillean, bestean bestearenen, saio batzuk egiñez ibilli izan giñan. Orrela zan gure deportea. Badakizu: tokian tokiko joerak, eta gurean olaxe izaten ziran. Illunabarrean aldizka bertso batzuk kantatu, batzuetan zarrak eta bestetan berriak ere bai, zar-berrituak ez oso gutxitan, eta antxe, “txoroa buruan eta ibilli munduan”, esaten ziguten bezela.

Pelotan oso pozik ibiltzen nintzan, baiña akats aundi bat banuen, egia esateko: ezkerra oso txarra. Gantxoia jotzen nuen oso poliki, baiña gaiñerakoan oso txarra nintzala ezagutzen dut. Asko ibilli ezker jarriko nintzakeala esaten zuten, baiña amaika urtetik laister eskolatik gelditurik iñork ezer erakutsi ez, eta zer ikasiko genduen? Beste aldera, berriz, nola jotzen nuen beso-kakoan ezker gantxoia?

Dana dala, amabost-amasei urte arte ibiltzen nintzan igandeetan alegiña; baiña amasei urte nituenerako utzi samartu nion, eta andik laister dana. Batetik, neure burua asko bear-tzen nuen; eta, bestetik, segarako oso ondatuta gelditzen nintzan, eta erabat utzi eta pakea!

Ez da berriketa, ez, Urdaneta dan bezelako auzo koxkor batean gazteentzat beste jolasik ez, esate baterako, eta pelotari erabat uztea. Baiña ni bezela beti lurrean zilipurdika ibiltzen zan batentzat alde ederra bai, utzi ezker; eta ez astele-nerako bakarrik. Esate baterako, aste guztirako ere bai. Alde

batean edo bestean, nunbaiten kolperen bat izaten zan beti; bestela, urratu ala arrastada edo zauriren bat, eta alde ederreko gorputza edukitzen zenduen ibiltzen ez baziñan. Ori egia zan. Beraz, lenengo aldiz egin nion uko nere buruari, eta be-tirako gaiñera. Kosta zitzaidan, baiña utzi nuen eta pakea.

Laister asi zan segan poliki egiten nuen soiñua zabaltzen. Orrek ere arrokeri apur bat ematen zidan, eta antxe. Alde ba-tetik supritzen nuena bestetik ilusioak tapatzen zidan, eta au-rrera. Baserriko mutillarentzat ospe aundia baizan segalari onaren fama, eta orrekin poztuta jarraitu nuen aurrera. Baiña ez ain errez aztuta. Amaika aldiz egon nintzan negarrari eutsi eziñik, beste lagunak pelotan eta ni begira.

Arraiokeria zan uraxe ere. Ainbesterañoko zaletasuna izan eta neure buruari neurrik artzen jakin ez. Beti lurrean zilipurdika ibilli bearrak ekartzen dituen lanak, ez geiago ta ez gutxiago. Beste geienak ibiltzen ziran bezela ibiltzen jakin izan banu, ez neukan alako bildurrik. Baiña alako joera tras-tea izan eta nerekin alperrik zan eta kitto.

Urte bat edo bian ezertan ere nabarmendu gabe ibilli on-doren, etorri zan aipatu dutan segarako eta bertsoetarako za-letasuna ugaltze ori. Banuen lagun bat, Iñaxio Motza deitzen geniona. Bertsoak poliki moldatzen zituen, eta bere anaia ere bertsolaria zan; eta, biok geienetan beintzat alkarrekin ibiltzen giñanez, nere aurreneko laguna ura izan nuen bertsotan. Are-kin maiz aritzen nintzan. Berdintsuak izango giñan; beti ondo konpontzen giñan, beintzat. Gure etxetik bost minutura zego-en Pagadi baserrikoa zan, eta pelotan etzan ibiltzen, batere moldatzen etzana zalako.

Ni baiño urtebete zarragoa zan. Alkarrekin ibiltzea etzan arritzekoa. Auzorik urrenetakoa zan batetik, eta iru-lau bat ur-teren aldekoak alkarren artean arreman onak izatea etzan ba-tere arritzekoa an. Eskola batean ibiltzen giñan; eta lagunartea

egiteko, berriz, bere garaian etortzen ziran bereizketak. Ba-koitzak berak aukeratzen zituen bere erako lagunak.

Iñaxio au oso mutil ona zan. Paketsua ta atsegiña beti. Zaurautzen bizi izan zan, eta azken aldera gorreri aundi samarra ere bazeukala eta trenak jo ta aldamenara bota zuela, eta aspaldi izan zuen bere eriotza. Goian bego Iñaxio gizarajoa!

Zitalkeririk ez uken iñoiz,
ain intzan mutil noblea,
ez ukan errez arkitutzea
i baiño lagun obea.
Pake zalea eta alaia,
gaita onenan jabea;
aur txiki batek izaten duen
ainbat txarkeri gabea,
nere ustetan betetzen uken
emen Jaunaren legea.

Lagun maitea nuen beste bat ere: Agustin Zulaika, nere lengusua. Beti ta nun-nai alkarrekin ibiltzen giñan. Biok urte berekoak gera; eta, eskolatik asita, alkarrekin edo alkarren inguruan izan zan gure ibillera, soldadu joan artekoa, eta aruntz joateko banatu giñala esan diteke betiko. Orain aspaldi ontan Ernanin bizi da. Gero ere urte pilla galantean jarraitu genion lagunak izaten. Baiña orain, gero ta urrutiago bageunde bezela, gero ta gutxiago alkartzen gera. Orain urrutizkiñez geienbat mintzatzen gera. Lurra zeukagu tiraka, Agustin. Orrek, bereganatu arte, etziguk pakean utziko gaiñera. Bereak gaituk eta beragana joan bear.

Ai, lagun maite biotzekoa,
lengo kontuak azturik

etorri zaiguk egon bearra
etxe txokoan sarturik.
Oroitzen al aiz gazte denboran
noiznai biok alkaturik?
Berriketaldi galantak egin,
ezin bukatu konturik;
orain ementxe gatxeudek zartu
eta erabat txarturik.

Beste gauza bat: oraindik ez dakit zergatik, baiña beti arreman onak izan nituen inguruko zar jendearekin. Ala esaten zuten ango aitona geienak, beti zerbaiten asmoren batekin lotua nembillelako:

–Kaska zuri ori ez duk beintzat geldirik egoteko jaioa.

Buruko illea gaztetan ori argia nuen, izan ere, eta orregatik esaten zidatan *Kaska-zuria*. Baiña beti ondo ikusi izan nindutela uste dut. Nik ere ala ikusten nituen aiek. Esate baterako: Sagarmenetako Praixku zarrarekin, Otsarretako Antonio Mari zarrarekin. Berdin Zail-txikia, Maiagako Joxemari zarrarekin, Inazio Zarrarekin, Martxiel Izeta zarrarekin eta gaiñerakoekin danekin. Nere aitona Martiñekin, berriz, mundu osoan beste iñorekin ez bezela. Ura bai maitea izan nuela bizi zan arte guztian, eta oraindik ere ez dut aztu. Egunik utsegin gabe oroitzen dut, ordainduko ez diotan zorra diot eta.

Bertsotan poliki egiten genduela jarri giñan Iñaxio Motza eta biok batera. Gu ibiltzen giñan tokietako bi gazteren bildurrik ez genduen izaten. Atera ere askorik ez, eta antxe bertan bertakoekin ibiltzen giñan geienbat, eta an inguruko auzoetako gaztediarekin.

Iñaxio au soldadu joan zanetik edozeiñekin aritzen nintzan, asko ez baiña. Nornairekin or nunbait aritzeko ainbeste-ko tankeran jarri nintzan, eta egokitzen zanarekin, lasai asko.

An inguruan ikazkintzan zebillen napar bat ere askotan etorri izan zan Urdanetara. *Sarraillas* deitzen ziotela uste dut, eta gizon bikaiña zan. Oso atsegiña, gaiñera. Nik baiño ogei bat urte geiago izango zituen eta Lesaka ingurukoa zalakoan nago. Arekin ere kantatu izan nuen. An izaten zan patxara ederrean. Abotsa ere bikaiña zuen, gaiñera, eta arekin gustora aritzen nintzan. Alde ederra zenbait zipotzekin ari edo alako-arekin ari.

Zarauzko *Benino Ezkerra*-rekin ere bai. Baita *Martin Sasi*-rekin ere. Au Santa Ageda eskean ezagutu nuen, eta koplari ona zala uste dut. Ospea ala zuen, gaiñera. Baiña aotik aora asko jetxitzen zan ustea daukat. Ziur ez nago, baiña uste ortan naiz ni beintzat. Onen anai batekin ere aritu izan nintzan. Egokitzen zanarekin, alegia.

Egia esateko, etzan nere gurasoen gogozkoa ni bertsoan aritzea. Ez orixe. Aurren aldetik saiatu ziran ixildu arazten, baiña ez luzarorako. Nik berriz ere pixkana-pixkana kantatu egiten nuen. Ala ere ez nuen iñoiz ere iñungo leiaketa eta orrelakoetara joaterik pentsatu. Garai artan etziran asko, izan ere, egiten; eta, nik *aitajaunik* ez nuenez, ortan bukatu zan dana. Etorri bezela joan zitzaidan nere zaletasuna. Soldadu izan ondoren eta azken aldera an nengoen arte ere amorru aundirik ez. Itzaltzen asia ordurako, eta ala obe. Bestela ere naiko lana izan nuen zenbait urtetan, eta orrekin geiegi izan ziteken.

Oiek eta orrelakoak izan ziran nere gaztetako kantu lagunak. Mailla aundikorik ez; danak apalekoak, neroni nintzan bezelaxe. “Lagunarteko bertsolariak” esaten zaioten oietakoak, ain zuzen, eta ni ere ez nintzan ortikan aurrera pasa.

Garai artan ere nere burua etzegoen geldirik. Banerabilkien neure artean zerbait egin naia, eta lortu ere egin nuen zerbait. Baiña kontu oiek gerorako utziko ditugu, eta orain

asi gaitezen lenagotik gertatuen berri ematen lasai, dago-
kien bezela. Gauzak bere garaian, eta orri jarraitzen alegin-
du gaitezen, len ere naikoa aldendurik gabiltzanez. Askoz
egokiago noski orrela. Naikoa aurrera joan gera lengo ortan
ere, bat dala eta bestea dala. Bitartean asitako lana noiz bu-
katu jakin ez.



Josefa eta Pello, ezkontza egunean

Bertsoak idazten

Astirik izan ezkeru bein ere utzi ez diotena bertsoak pape-rean jartzea da. Artan bai pozik aritzen nintzala. Lenbiziko bertsoa idatzi nuen eguna gogoan daukat. Aian erromeria zan. Igokunde eguna zala uste dut. Bertso-paperak saltzen ari zan gizon bat. Obeto esateko, andre-gizonak ziran. Batek dema-arri gaiñera igo eta kantatu, andreak saldu eta kobratu egiten zuten, jendea eltxoa bezela jiran zutela. Izan ere, bertso politak ziran. Erreteriko Juan Kruz Zafirainen “Ai gure antziñako zenbait gizon abil / munduan balebil” esanez asten diran oiek ziran, ain zuzen. Jornal ederra aterako zutela uste dut arratsalde artan. Aspaldian agertu gabe egon eta orduan azaldu ziran nunbait, eta jendeak arrapazka erosten zizkien.

Askotan gertatzen zan: bertsoak saltzen zituztenak geient-suenak abots ederra izaten zuten; eta, bertso ederrak ustez erosi arren, gero etxean kantatzen astean izaten ziran kontuak. Baiña orain aotan darabilzkgun auek beti ere onak ziran, naiz saltzailleak kantatu ala gure antzeko abots kaxkarra duenak kantatuak izan. Juan Kruz Zafirainen bertso auek beti onak, doiñua asmatzen zuenarentzat beintzat. Oso xebreak ziran. Egunari zegozkion aldakuntzak maxiatzen zituen, gordin samar baiña umore onean, eta egoki gaiñera. Zarrak eta gazteak, danekin sartzen zan eta danentzat bazuen zerbait esan be-
arra. Egoki esan ere, gaiñera. Begira bestela:

Tren ta tranbe bidiak
ikusteko zeuden,
zaleturik geunden;
izan ere alako

jornalak al zeuden?
Iru edo lau pezeta
irabazi arren,
biziyoz bete gera,
zorrak berriz gaillen;
askotan gastatzen da
kobratu baiño len.

“Iru edo lau pezeta irabazi arren”... Konturatzen al zerate tren eta tranbiekin alako azi aldia egin ondoren, nola gelditu ziran jornalak oraindik? Aren aurretik, berriz, nola ote zeuden? Arrigarriak ezagutzea gertatu zaigu, pentsatzen jarrita ere!

Au guk ez genduen ezagutu. Lentxeagoko kontua da, baiña ez asko; eta begira nora joanak gauden orain, eta danak bear dira. Baiña “askotan gastatzen da kobratu baiño len” esaldi ori bein ere baiño biziago dagoela esango nuke orain.

Batetik orrenbeste gauza epean edo plazotan erosten da, eta bestetik jendea orrenbeste gauzaren jabe egiten da. Begira bestela oraingo etxeak nola dauden. Langilledia, esateko dana, norbere etxeetan bizitzen da, eta lanean asteko etziran amalau urte nai ordurako iristen, alazankoa; eta gaur emezortzirekin ere konta-alak asten dira, eta ogei ta bi eta ogei ta lau urterekin edo andik gora gaiñera asko.

Eta oporrak? Oporrak ere orain ez dago emen bertan egiterik. Gu bezelako erdi elbarri batzuk besterik ez da gelditzen. Len lanik ez egitea zan oporra, ta orain, berriz, urrutira joan bear da, oporretan izan dala esateko.

Jendeak bizitzen ikasi egin duela dirudi, baiña aurretik lana egin bear izan dugu galanki ortara iristeko; eta, ala ere, suertea izan dugunean, or nunbait. Gure aurrekoak etzuten olakorik izan.

Nik ezagutzen nituen lenagotik etxean bertsopaper oieta-koak. Baiña denbora luzean bertso-saltzaillea azaldu gabe egon nunbait eta, ori orrela izanik, jendea erosi ta erosi ari zan papera. Nik ez al nuen erosi bear galdetu zidan batek. Len ba-neuzkala esan nion alakoak; eta, nai bazuen, kantatuko niz-kiola.

–Kanta itzak aurrenetik azkenera –esan zidan.

Ala, kantatu nizkion danak. Jakiñaren gaiñean zegoen ura nik bertso zar asko nekizkiela, eta nik batere malezi gabe esan bazidan bezela artu nion, eta kantatu ere bai. Baiña urrengo egin zidan ateraldiarekin oroitu nintzan zer zebillen. Ni baiño zarragoa zan urte pare bat gutxienez, eta bertsotan aritzen zan zerbait. Gero bere ortan gelditu zan ura ere.

–Bat geiago bear ziken emen: neskarrena; eta ea nola osatzen duken.

Nik ari ez nion kasorik egin bear, tentatzeagatik esan zue-lako. Baiña olakoetan bear dan laurdenean ere ez bainuen pa-zientzirik, bereala saltatu nintzaion esanez:

–Emendik ordubetera galdetzen baduk, izango duk eran-tzuna.

Bertsopaper bat erosi nuen, lapitz bat lortu –artean etzan boligraforik– eta bertan istante batean idatzi nuen onoko auxe kantapaperaren atzean. Eta bestea, artu ta irakurri zuenean, to-lestaturik gordetzen asi zan, baiña nik ez nion utzi:

–Ori nerea duk, aizak –esan eta kendu nion eskutik, eta soldadu joan arte gorde nuen, Baiñan arrezkeroz beste asko bezela ezkutatu zan, eta ez dut aztarrenik. Onela zan:

Oraingo neska zarrak
dauzken fantesiak
ikaragarriak!

Antzemanikan gaude
oien maleziak.
Zimurrak autsez bete,
pintatu aurpegiak,
illiak ere berdin
dauzkenak zuriak,
iñuzente daudenen
engaiñagarriak.

Bertso au lenbizikoa zan, baiña orrelakoak gerra ondoren artan edozer gauzogatik esan ezin ziran, edo esaten ausartu ezin. Beti izaten ziran xelebrequeriak, eta nik alakoak pozik jarri izan nituen bat edo bi, eta luzaro baiño len dozenerdi bate-raiño ere bai. Oraindik argirik ikusi gabe daude, baiña baliteke oraindik ikustea.

Bertsoak jartzeko geien gustatu zaidan zenbakia sei bertsokoa da. Jarri izan ditut amabikoak, amarrekoak eta zortzi-koak; baiña amarreko, naiz txikian eta naiz aundian, “patsa orbel” biurtu liteke gairik geienetan beintzat, eta gaiñerako guztiak betegarritzat jotzen ditut. Barkatu: “geienetan” esan dut eta ez “danetan”. Or nunbait ibilliko nintzala uste dut gaiñera ortan. Begira P. M. Otañok nola uzten zituen gaiak sei bertsorekin.

Naiz *Limosnatxo bat, Alaba, suia eta billobak* eta *Onbu lastana* amarreko aundian, eta naiz *Lagundurikan denoi* amarreko txikian, or daude lekuko, nai dituenak ikusi.

Toki guztietan ere garai artan bertsopapera ugari ibiltzen zan; baiña gure etxean, ain zuzen, beste arrazoi bat ere bazan. Espainiako gerra inguruan –aurretik, zebilela eta atzetik– an ibiltzen zan aitonatxo bat, erdi eskale, erdi saltzaille. *Joanillo* esaten zioten batzuek, eta *Napar Txikia* edo *Joan Xar* besteak. Pronostikoak eta milla eratako ez-gauzak saltzen ibiltzen zan. Berez naparra izan bear zuen.

Euskera ere oso xelebrea egiten zuen, baiña ori bai: beti, al zuen moduan, euskeraz itzegiten zuen. An zebillenean gure sapaian ostatu izaten zuenez, beti uzten zituen paperen baztuk; eta nik, alako gogoia izanik, eskatu ere egin izan nion etxean ez neukana edo billatzen ez nuena *Napar Txikiari*. Baldin bazeukan eman eta bestela erantzun jakiña izaten zuen:

–Urrengo ekarriko bai nik.

Ekarri ere askotan egiten zituen ola eskatutakoak, eta askotan aztu ere bai. Ala ibiltzen zan gure *Joan Xar*, guk esaten genion bezela. Etxekoa zan, bai. Orregatik ezagutzen nituen nik orrenbeste bertso zar batik-bat.

Baiña, bestela ere, gure aitonak bertso zarrak erruz zekizkien. Neguko illunabarretan gozatu ederrik artu izan genduen, ango eta emengo bertsoak entzunez. Orain iñori entzun ere egiten etzaizkion kopla oso doiñu apaiñekoak ere ez oso gutxi. Naiago nuke zenbaiten abilidadea baldin baneuka, solfeoa jarrita emendik adierazteko. Ez dut uste gaizki etorri litezenik gaurko bertsolari bat baiño geiagorentzat. Baiña ez dakit ortan ezer.

Beste gauza bat ere gure *Napar Txikiari* buruz. Pipa-artzaille purrukatua zan, eta gerra ondorenean tabakorik ezin billatu; eta billatzen zana, urrearen prezioan, beste ainbeste gauza bezela. *Estraperloan* baizegoen, eta gizarajoak etzekien zer egin zigarrotxo batengatik; obeto esateko, pipa bete tabakorengatik.

Azken aldera, Izetako Martxiel zarrak egiten zuen, nun dabillen arrastoa uzteko moduko usaia botatzen zuen tabako oietakoa, eta artatik ematen zion, andik igarotzen zan egunean, eta mundu zabalean etzegoen “*el viejo Marcial*” baiño gizon oberik eta alakorik ere. *Jumm!*, ez arengatik ezer txarrik esan. Bestela, laister egingo zan jabe gure *Joan Xar*.

Gerra ondorenean eta gerra bildurrez bizi giñan garaiko kontuak ari gera kontatzen. Espaiñiakoaren ondorena eta bi-

garren mundiala atarian geneukan garaikoak, alegia; eta bien tarteko gosetea ere kontatzekoa da.

Orduko kontuak aipatzerik ez dakit mereziko ote duten. Baiña or dijoaz, diranak diran bezela, gazteak jakin dezaten nolako mundualdia utsegin zuten belaunaldi baten edo birengatik, eta oartu ditezen zer bizimodu jasan genduen aien aurrekoak. Eta ez naiz ni txarrenak pasea. Nik taloa eta esnea jaten nuen, errotak ixten etzituztenean. Eta errotak itxitze ori ere zergatik izaten ote zan? Nik badauzkat nere sorpetxak.

Arrigarria da bein batean eta bein bestean errotak itxi arazte ori, jakiñik gu jende multzo aundi bat geundela ogiaren erraziorik ez geneukanak, garia edo artoa ereiten genduelako. Eta gaiñetik errotak itxi? Ez ote zan gero ori gosea pasa arazteagatik? Neretzat bai. Zer izan ziteken besterik egoera artan erritarrak eukitzeko?

Garai artan gertatuak ez dira sinistu ere egitekoak ikusi edo bizi gabe. Ogia gutxi eta txarra bazan ere, ematen zioten garirik egiten etzuenari; kaleko jendeari, alegia. Baiña base-rritarrak ez geunden zerrenda ortan, eta ala ere errotak itxi, alajaiña! Ez ote zekiten nola gelditzen giñan janaria sortu bear genduenok?

Eta beste gauza bat: tokian-tokian beti egon izan zan errotaren bat irikita, eta nai zituenak egiteaz gaiñera nai zuan ainbesteko laka kendu. Etziran tontoak eta etziran aberastu errotariak. Nola ulertzen da gauza ori? Orion bazan esaera bat onekin ondo etorri zitekena; baiña gogorregia da nolanai irakurtzeko eta bego ixillean.

Bitartean, guk an ibilli bear al genduen bezela. Jainkoak nai zuen tokira joan gauez errotara, eta sarritan iriñik gabe etxera, urrengo egunean joateko. Eta asto utsarekin joan eta ekartzen bazan, ondo. Baiña egunero jan bear andik edo emendik, nai bazan eta ez bazan. Orrek ematen zizkigun lanak!

Beste sistema bat ere bazan etxez etxe jarri zana. Toki batzuetan lengo denda zarretan ezagutu giñun kafe-erota zar aietakoak; beste batzuetan, makina koxkor alu batzuk, eta aiekin pixkanan-pixkanan eio bear izaten zan garia. Lan nekosoia eta urria benetan; baiña “txoria gari tartean goseak iltzea” okerragoa zan eta aurrera egiten genduen guk danengatik, eta orri eskerrak atera giñan bizirik.

Txoro-esana dirudi orain, “orri eskerrak atera giñan bizirik” eta orrelakoak bat-batean esanda. Baiña jarri begira nolako atarialdea gelditzen zan etxean. Zenbait urtetan, babarrun-urte kaskarra edo olako zerbait izan zala, eta zalako *kupoa* eramateko posibilitadea baiño aundiagoa jartzen zizuten. Au da, urtean familian bear zana eskas zala gelditzen zan etxean. Orduan izaten ziran komeriak. Jarritako kupoa eramane gin bear, nai bazan eta ez bazan, eta etzan labur jogan oi.

Alakoan, “artoa dan tokian goserik ez” esaera bazan; baiña artoa ez da jaten egosi ta beste gabe. Iriña egin bear izaten da jango bada, eta errotak ixte orrekin gauza iñork pentsatzen duen baiño oker latzagoa ekartzen zuen baserrietara.

Eskerrak baba beltza gari tartean ereiten zanari etxerako eta kalean geneuzkan sendiko norbaiti emateko ere. Arekin moldatzen ziran azken aldera gauzak. Esaera dan bezela, legea egin zuenak egin zuen tranpa.

Eta gu baserrian bizi giñalarik ori. Kalean ematen zutena jan eta baserri zarren batetik ez bazuten ezer sortzen, orduantxe bai errukarri gaixo aiek. Baiña geienak zerbait sortzen zuten andik edo emendik, goseak ez iltzeko ainbeste, nola edo ala, baiña penagarri ibillita asko ta asko.

Noren erruz? Orain bizirik dagoen askorenik ez noski. Baiña egongo dira, bai, bakarren bat edo beste oraindikan ere bizirik errua izan zutenak. Orain bearbada damututa ere bai

bat baiño geiago. Baiña danak ez dut uste damaturik daudenik, dañu gutxiegi egiña izan ezik beintzat.

Aiek ere pasatzea egokitu zitzaigun, eta betirako paseak izan ditezela. Ez diot opa iñori ere orduko ibilleren antzekorik. Sasoirik onenera urreratu ta gosea nola kendu asmatu eziñik ibilli bearra gauza tristea da benetan; eta orixe zan orduko ametsa: nundik gosea kenduko zan. Gaiñerakoak txorakeriak ziran, izan ere. Orduan etzan *mitxelinik* gerri aldean, eta ez zilborrik ere ateratzen aurrera. Baiña askoz ohea etzan izaten jateko bear zanetik errira eraman bearra, batez ere babarruna. Arek bai ematen zuela pena eta naigabea. Arek eta errotak itxitzeak, beste gauza guztien gaiñetik.

Barkatu astakeriak esan ditudala iruditzen bazaizute. Baiña jarri zaitezte kontuan zer ondoren dakarren alako babarrun mordoia errira eraman eta etxerako ainbeste etzala gelditzen baziñan. Eta artoa edo gariarekin iriña egin nai eta errotarik zabalik ezin arkitu. Biziera ortara beartzen zinduzteneri nolako kariñoa artuko zenieke zuk orain, zerana zerala?

Zakurrak arrikadari bezelakoa, ziur asko, Urdanetan esaten zanez, oker aundirik gabe. Ez ori nai zendukelako istintoaren eragiñez, baizik eta eziñak pentsatu arazten zizkizun alako gauzak. Nik aitortzen dut nereaa. Gure etxetik Errota-barrera zeritzanera ia bi orduko bidean joan eta iriñik gabe etorri nintzan artan, tximistaren almenak artu al izan banitu, ez dakit inguruan *titererik* bizirik geldituko zanik. Ura zan naigabea eta ura zan tristura. Baiña ezer egiterik ez. Nori kargu artu?

Mundu au txikia dala esaten dute, eta bai izan ere alde or-tatik begiratuta. Nork esan bear zigun guri, ala genbiltzan garaian, gaurko egoera ezagutu bear genduela?

Orain ogia gauzarik arruntena artzen du jendeak, eta batikbat gazteak. Baiña egoera artan bizi izan giñanak uste dut gei-

xeago begiratu bear geniokela ogiari; eta, oraindik ere toki askotan gosea daukaten ezkerro, ondotxoaz geiago gaiñera.

Gaur ez du iñork sinisten eta alperrik da ontan luzaro aritzea. Utzi dezaiegun, beraz, orduko kontuei eta goazen arira, ohea izango dugu askoz-eta gaiñera. Orduko gauzak azteko obeak dira, zalantzarik gabe.



Madrillen, batzarre batean

Aprikara soldadu

Soldadu joateko garaia etorri zanean, Marrokorako atera nintzan. Ura zan, ura, arrera etxean egin zidatena! Nere aita zana an ibillia baizan ango gerra garaian, eta ez ain ondo, berak esaten zuenez. Eta, ni arako atera nintzanean, mundua gaiñera erori izan balitzaio bezelaxe gelditu zan gizarajoa. Neri ere etzidan adorerik batere geitu. Neure suertea ateratzen ikusi nueneko topea an neukan, eta gero etxean alako giroa. Etziran laburrak izan joatera arteko egunak, ez arraiotan! «An etziok, motell, kristaurik iru urtean bizitzerik» entzunez, ezin nuen jasan geiago. Iru urte, gerra ondorengo soldadutza zan eta.

Etzidan txar-bearrez egiten; baiña ain zegoen eroria. Zer daiñu egiten zidan etzan konturatzen, eta neureak baiño min aundiagoa zemaidan aren egoerak. Aita bat ain etsia eta lur joa ikusita naigabetzen ez dana ez dakit zer izango dan, baiña oso ajolagabea bear du ez goibeltzeko.

Al nituen guztiak egiten nituen pozik nengoen itxurak, alegia; baiña bakarrik nengoen garaian etziran ordu alaiak izaten. Pasa egin bear, ordea, nai ta nai ez. Etzegoen beste ezer egiterik eta aurrera al zanik egokiena, tristurak tristura, munduak aurrera jarraitu bearra zeukan eta.

Latza da gero, animoa bear dan garaian, etsipena ematen duten itzak entzun bearra. Itzetik ortzera, gaiñera. Etzizkidan asmo txarrez esaten, baiña min gogorra zemaidaten itz oiek, ondo bearrez esanak ziran arren, eta egunean bi edo iru aldiz gutxienez. Olakoxe egunak igarotzea egokitu zitzaidan neri.

Es Kerrak ni baiño urtebete zarragoa zan lagun bat permi-soarekin etorri zan, Tetuango artillerian zegoena, eta arek as-

ko animatu nindun. Etxean ere izan zan eta nere aitari esan zizkion berebizikoak: gerra zebillen garaiko kontuekin ari zala; ori orain ogei ta bost urteko kontua edo lenagokoa zala, eta konturatu zedilla emen nola arraio geunden gerra garaian, eta etzirala ogei ta bost urte oraindik, eta orrelakoak.

Orrelako jardunaldiekin zerbait kalmatzen zan gure aita zana, baiña berriro ere berean erortzen zan gizarajoa: bateko, paludismoarekin nola gaizkitzen ziran; besteko, kolitis arrapatu ezkeru etzala kasik iñor bizirik ateratzen... Danak ola esaten zituen asmorik onenarekin, baiña ezin zezaidaken min geiago eman kutxilloz zastaka asita ere. Odolik atera gabe min eman ditekenez, neri ematen zidaten, beintzat.

Indo baserriko Antonio Zumeta zan Aprikan soldadu zegoen ori. Urtebeteren buruan mutil bikaiña etorri zan. Bazirudien orrekin gure aita zerbait txuspertu zala. Baiña denbora gutxiko. Berriz ere laister zan lengo bidean.

Regulares zeritzan grupora joateko atera nintzala jakitean, beste erori aldia izan zuen gizarajoak. Lenago ere baziran, baiña gerra ondorena arte etzuten eramaten soldadu zijoanik *regulares* oietara. Boluntarioak eta moroak joaten ziran, merzenario bezela. Gerra ezkerozko aldaketa zan kintoak parte izatea erakunde ortan. Baiña aitari ez buruan sartzen.

Eskerrak aitona askoz gogorrago eta gizonago agertzen zanari. Ain maitea ninduen arren, askoz bikaiñago jokutzen zuen, esanez:

–Emen or nunbait ibiltzen duk besteak dabiltzan tokian, eta an ere ibilliko duk. Egon adi lasai, etzeak galeretara eta.

Eskerrik asko, aitona. Beste bat geiago zor diot orrekin. Zenbat ote? Jainkoak bakarrik jakin.

Izan ere, garai batean, moroak eta beren gogoz zijoaztenak bakarrik zeudenean, etzan izango giro ango instruzio ta diziplinarekin. Ala esaten zuten ango jendeak: etzala atsegin iza-

ten, instruzio asko, martxa luzeak eta abar. An ematen zuten eguneko pezeta ura ondo irabazia zala. Beste soldaduak egunean bi erreal irabazten zuten, eta guk pezeta.

Orregatik kantatzen zuten arro asko an zeuden boluntarioak (*chusqueros*) onoko kanta au:

*Por la derecha los tercios,
por la izquierda regulares,
y el centro va protegido
por los "pipis" de dos reales.*

Gauzak olaxe izaten dira ta, instruzioak ikasten genbiltzan garaian, zer esan nai zuen garbi ikasi ez genduen arte, desfilatzekeo itxurak egiten ibiltzen giñan, pausoa eramaten ikasteko.

Jantzia ere oso apaiña izaten genduen, paseorakoa beintzat. Baiña orrek ere izaten ditu bere kontuak. Zenbat-eta apaiña goa, orduan-eta geiago begiratu bear izaten zaio koartelek kalera ateratzerakoan. Bestela, utsarengatik etzuten irtetzen uzten.

Moroak an ibiltzen ziran egunez. Baiña gauez etxera joaten ziran goardirik etzutenean, eta guk geure koarteleko lanak egin bear. Gaiñerako soldaduekin ez genduen alde aundirik izan. Ezer izate ezkerero ere gure alde egongo zan. Guk goardirik ez genduen egiten. Ori moroak egiten zuten. Guk instruzio apur bat geixeago baliteke egitea. Gurea nola zan *fuera de choque* oietakoa, beti ere ondo preparatua egoten zan.

Baiña gogo galanta baneukan ere, etzan atsegiña izan gure Aprika alderako bidaia. Izan ere, alako tokian sartuta eraman egin ginduzten. Ardiak, txerriak, txekorrak edo beiak erabiltzeko bagoi zarretan an joan giñan, geienetan gauez. Egun asko geldi egon bear izan genduen, beste trenei paso emateko. Arritzekoa ez danez, bost egun bear izan giñun Donostiatik Algeciras bitartean; eta, ondoren, emengo *transeun-*

tes deitzen zioten koartel zikin batean gaua ta egun geientsuena igaro. Zulo artatik irten genduenean pozik, zerri-tokia baiño zikiñagoa zan eta.

Nere aita zana alako moduko tokietan ibillia izango zan nonbait, eta barkatzen dizut, aita, zure etsipena. Olakoetan ibilli baziñan, etzeneukan arrazoi faltarik, eta barkatu, arren! Amaika aldiz oroitu nintzan zure esanekin:

–An etziok, motell, iru urtean eta orrelako denboraldietan, iñolako moduz ere, emen oitutako kristaurik bizitzerik.

Baiña oraindik Aprikara iritxi gabe geunden, eta ainbesterañoko zikin usaia eta nazkagarrikeria... Egia ote zan aitak esaten zuena? Ez; etzan posible. Baiña itxura obeak ziran, bistan zegoenak adierazten zuenez.

Ango egun luzeetan alkarren inguruan ordu ugari –berriketan ere ez oso gutxi– igaro ondoren, banatu giñan bakoitza bere aldera. Ez dut antxe bezain gogotsuago kantatu, esan dutan bezela, bidelagun eta zoko zikin artan gure tristurak alkarrekin banatu giñunak agurtzerakoan baiño. Nola ez barrengo tristurari toki eman bizirik dagoenak?

Bat eta biri baiño geiagori malkoak atera arazi nizkien, alazankoa! Ez dakit beste iñork erantzun naiko zidan, baiña ixillik ez nuen denbora askorik pasa ere egiten. Azken puntua pentsatu ordurako asiaz neroni bakarrik aritu nintzan, merezi zituen ospe ta aintzak ematen an egon giñan tokiari, eta agurrik bero ta maitekorrena ango jende guztiari.

Eskerrak ulertzen etzutenari an zebiltzan militarrek, Bestela lio ederrean sartuko nintzan an jaulki nituenekin. Baiña ez daukat damurik esandakoengatik. Gu bezelaxe beste geiago ere egongo ziran an eta edozer gaitz arrapatzeko ere bazan ango kaka-usaia ta zikinkeriekin.

Andik irten nuen baiño tristeago ez nuen irten iñundik egun artara arte, eta geroztik berriz beste arrazoi batzuengatik

estuasun larriagoak izan zitezkenak. Baiña latza zan une ura ere, latzik baldin bada. Iru urte aren antzeko tokietan igaro be-ar bagiñun, ederrari begira geunden alazankoa!

Agurtu giñun bide-lagunak,
egin genduen irtera,
eriotzera zigortutako
kondenatuen antzera.
Europatikan atera eta
Afrika aldean bera,
ez da biaje gozoa izan
baiña iritxiak gera,
bi urte t'erdin an ibiltzeko
moro zarrakin batera.

Agurtu ondoren, eraman ginduzten Algeciras-ko kai ospetsura. An artu itxasontzia eta Tánger-era. An illea moztu ziguten. An joan ziran nere ille kizkur oriak. Arrantxoa eman ere bai, eta lotarako jarri ziguten tokira bai, baiña an etzegoen lorik egiterik, aurreko gauekoa zan bezain zikin eta narratsa etzan arren. Manta bana eman ziguten. Ormigo gaiñean arkin konpondu bearra geneukan. Baiña gure gorputzak treneko bagoi zar aietan *triki-traka* gentozela ain zeuden minberatuak, ezin iñola ere loak artu; eta, azkenean, zerbait-zerbait maleta gaiñean jarrita eta abar egin genduen bakar batzuek, eta beste askok batere ez. Geiena egin zuenak ere bi ordu egin ote zituen? Naiko lan.

Gau ura ere igaro genduen lo askorik egin gabe, baiña bezperan ainbesteko zikin-usai ta gora-larririk gabe. An aritu giñan txokolatea jan eta ardo zuria edanez berriketan. Gaua geiena artan joan zitzaigun, alik eta eguna argitu zuen arte.

Urrengo egunean eraman ginduzten andikan, Tánger-dik Fez-erako trenbidea asten dan geltokira; eta andik, Larache-n

barrena, an goaz eguzki bero askoarekin Alkazarkibir-era. Eguerdi aldera iritxi giñan bertaraiño, zutik ere lo egiten genduela. Alako eguzkia ere zegoen eta ez gendukan bultzakada aundiaren bearrik lurrera erortzeko. Zer zan ango beroa? *Sartén de Marruecos* deitzen zioten Alkazarkibir erriari eta etzan gezur aundia izango. Itxurak ala ziran beintzat.

Beroaz aparte, oso zirrara ona egin zigun an lenbizi ikusi genduenak. Koartelak oso ederrak ziran; guk pentsatu ere egiten genduen baiño obeak. Espaiñiako gerra bukatu ezkeroztik egiñak izan bear zuten. Berri-berriak ziran, ormigoizko terraza ta guzti. Alde ederra an egiten zuen beroarekin.

Laister izan genduen probatzeko denbora zenbateraiño-ko aldea zegoen kanpotik barrura. Esanak etzuen balio geure gorputzean jasan bear genduen atariko beroa eta terrazapeko preskura.

An ere lenbizi lana eragin ziguten: terrazara igo eta koltxonetak lastoz bete arazi zizkiguten. Gero arrantxoia eta ondoren jantzi berriak eman zizkiguten. Gure poza naiko lo egiteko, baiña etzegoen orretarako baimenik. Gauera arte lorik egiterik ez eta an utzi ginduzten linboan sartuta baiño okerrago. *Zonbiak* bezela kalean erdi lotan paseoan arratsaldea igaro ondoren, gaua iritxi zan noizbait eta lo egin ere bai aspal-diko partez lasai.

Urrengo eguna gauza aundirik egin gabe igaro genduen. Instrutoreak zein izango giñun jakin arazi ziguten. Zeiñek zer galoi eramaten zituen eta orren antzeko gauza batzuk ikasi ta olakoak egiten joan zitzaigun eguna, eta bat bota genduela pentsatzen asi giñan, gero kontatzeari utzi bear izan bagenion ere.

Gauza xebreak gertatzen dira ta guri ere gertatu zitzaigun. Kalera irten giñanean, etzitzaigun esateko ezer oroitzen aurreko egunean ikusitakorik. Ez erria nolakoa zanik eta ez nundik nora joaten zanik eta ezer ere. Izan ere, nola oroituko

giñan, ba, erdi lotan amesti edo *sonámbulo* batzuk bezela ibilli giñan eta?

Bigarren egunetik asi giñan instruzioak ikasten eta abar. Gure eguneroko lanak zer izango ziran gutxi gora-bera jabetu giñan eta, bein ori egin ezkeru, or nunbait ibilli giñan. Goserik ez genduen pasatzen. Zer egingo zan? Gauza askotan oituta ez geunden bezela ibilli bear, baiña pasa bearra zegoela buruan sartua geneukan, eta aurrera egin bear, naiz moro artean ibilli. Sasoi ederra beintzat eta berak ere etzuen gutxi balio.

Garbantzuak eta arroza naasian egosita bein ere jan gabea nintzan aruntz joan arte, baiña laister ikasi nuen jaten eta ez dira ain txarrak gelditzen. Jainkoak daki zenbat jan genduen. Egunero-egunero jartzen ziguten; eta, egunean bitan ez bazan gaiñera, ondo.

Algeciras-en igaro genduen gaua ta eguna ondo etorri ziran alde batera ango gauzetara oitzeko; eta, egia esan bear bada, etzan toki ederra eta gutxiago gustagarria Alkazarkibir, gu egon giñan erria. Baiña, okerragoa izango zan ustea egiña neukanez, askoz ere errezagoa egin zitzaidan bertara oitzea, bestela egingo zitzaidan baiño.

Joan berri artan, egia esateko, gogor samarrak egiten ziran instruzioak, eta naiko lanak erabilli giñuzela esan bear. An erabiltzen ziran itzak zer esan nai zuten –edozer itzek zer egin bear zan adierazten zuen– ikasi artekoa izan zan zaillena. Andik aurrera bereala jarri giñan an egin bear ziran lanak bildurrik ematen etzigutela, eta ez da ori bezelakorik. Bildurrik eman ezean, ango lanak etziran ezer, lan bezela.

Orretzek ondatzen zuen mutil asko: bildurrak. Beste gaiñerakoan, ango lana errez egitekoa da zaillena ere. Baiña bildurrarengatik egiten dira gaizki zenbait mobimentu. Tentsioan jartzen baldin bada bat, ez du ulertzen edo oker ulertzen

du; eta oker ulertzen dana, berriz, zuzen egiten gaitza da oso, kasik eziñezkoa.

Beste gauza bat teorika zan euskaldun jendeak bildurra ziona. Latza gaiñera bildurra. Baiña an erabiltzen ziran itzak ikasten ziran bigarren egunerako. Ala ere, len esan dutena: zer galdetuko ote duten tentsio ortan zaudela, ondo ulertu ez eta ezin ondo erantzun gaizki ulertua.

Ori zan euskaldun askoren gaitza. Ori soldadu joateari edukitzen zitzaion bildurra, batik-bat baserritarrak zioten izu-laborria. Etzan gutxiagotarako. Gu geuk ere naikoa, eta gerra arteraiño beintzat erderaz itzik etzekitenak zenbat joaten ziran eta nola ibilli bear izaten zuten?

Alkazarkibir toki itxusia eta beroa bai, baiña guretzat etzan ain txarra izan. Garai artan Marrokon zegoenik gauzarik txarrena *paludismo* deitzen zitzaiona, eta andik etortzen zala esaten zuten *fiebre amarilla* izenekoa. Orrek gaizki erabiltzen zuen jende asko. Baiña gu emendik joan giñan euskaldunak ondo ibilli giñan ortan beintzat.

Ardo beltza oso txarra egoten zan eta zuria edan bear izaten genduen. Or nunbait etortzen zan, bapo edaten genduen eta oraindik emen gaude. *Fiebre amarilla* kolorea oritzen zuelako esaten zan, eta orren aurka botikarik onena urik ez edatea zala zioten. Nola bero egiten zuen, zerbait bear eta, jakiña, ardo zuria edaten genduen. Baiña etzan ori bakarrik. Bestela ere, gaitz orrek nekez jotzen giñun gu. Ez dakit zergatik, baiña ala gertatzen zan.

Kolorea oritze ori, berriz, ematen zituzten pastillengatik izango zan. Ori zan ango botika: pastilla txiki batzuk. *Sulfato de quinina* edo orrelako zerbait izan bear zuten. Guri ere artu arazten zizkiguten noizean bein prebentzio modura; baiña paludismoa arrapatzen zuenak egunero, eta egunean iru gutxienez artu bearra zeukan. Orregatik oritzen ziran bein ori arra-

patzen zutenak, eta artzen jarraitu bear gaiñera, gero ere be-
rriz ez erortzeko. Egunero pastilla artzen.

Gezurra dirudi, baiña andaluzak askoz geiago arrapatzen
zuten paludismoa euskaldunak baiño. Ez dut esaten arrokeriz,
alaxe gertatzen zala ikusi genduelako baizik. Ala egia ote zan
urik ez edatea ona zala esaten zan kontu ori? Izan ziteken zer-
bait. Gure aita zanak esaten zuenarekin oroitzen naiz:

–Urik etzak beintzat edan. Ik edango dukan ainbat ardo
edateko ainbat diru sortuko diagu nola edo ala, eta saiatu adi
urik ez edaten.

Gu geunden tokian, regularretan alegia, etzeuden euskal-
dun bakar batzuk besterik; eta aiek, deportean ibilli ondoren,
ez dakit nondik etorriak ziran, baiña Melilla-tik uste dut, eta
sei illabeteko permisoa agindu omen zieten, baiña batere
etzietela eman esaten zuten. Beste zerbait izan ziteken eta ez
dut ezer esan nai, aietakoren bat bizi bada ere. Bakarrik, erre
samarrak zeudela, zearo erreak ez esatearren.

Artillerian bazegoen beste euskaldun multzo bat, andoain-
dar, lezotar, errezildar eta abarrekin. Baita naparrak ere. Bat,
Jose Ramon Perurena, Iñaki arrijasotzaillearen aita, mutil ase
askoa gaiñera. Bertsotan ere poliki egiten zuen, eta biok alka-
rrekin askotan ari izan giñan. Baiña gu baiño urte bat zarrago
ziran; eta, gaiñera, emen Espaiñian zeukaten beren errejimen-
tua. An destakatuta bezela zeuden. Guk nai baiño lenago eto-
rri ziran onuntza eta agur gure artilleroak eta nere bertsolari
laguna. Ez giñun berealakoan aztu. Izan ere, ain ziran jatorrak
bertakoen aldean. Guri beintzat ala iruditzen zitzaizkigun, eta
izan ere bai, an ikusitakoari begiratu ezkeru. Urteak joan eta
gero ere, iñoiz alkar ikusi izan dugu eta beti ezaguera ona izan
dugu artillerikoekin. Besteekin ez. Ikusi ez eta ikusteko gogo
aundirik ere ez. Ala gertatu zan eta zer egingo da? Datozen
bezela artu bear izaten dira gauzak, eta aurrera.

Lengo batean jakin nuen Perurena onen il-berria. Goian bego.

Gorputz tentea, kolore gorri,
ura zan mutil bikaiña!
Indarra berriz berekin zuen
zezen kozkor batek aiña.
Ardo beltzikan saltzen zutenak
toki gutxi zeuden baiña,
guk alkarrena bildutakoan
geienen toki berdiña:
Santanderinan dendaxka edo
Tio Lupi-ren kabaiña.

Beste bat Errezilkoa an zegoen eta oso mutil majoa zan. Etzuen aterako ixkanbilla aundirik iñorekin, eta Jose Ramon Zabala zeritzaion. Gurekin oso lagun egin zan bereala. Nere laguna ere errezildarra izanik ez da arritzekoa alde batera, aiek auzotarrak eta nik, berriz, Joanito Astigarraga anai bat bezela nuen eta biok beti alkarrekin ibiltzen giñan eta. Artean auzoak bakarrik ziran; baiña gero aizpa banarekin ezkondu ere egin ziran, ain zuzen.

Lezokoa bestea oso mutil jatorra baita ere. Ni izandu nintzan bere etxean, permisoarekin etorri nintzan batean, arrebarentzat erlojua eman zidan eta. Gaintxurizketako aldamenekoa zan eta oso ondo artu ninduten. Gurasoak illak zituen eta anai-arrebak zeuzkan etxean, eta arrebak ezer etzekiela eraman nion erlojua eta ixtimatu zidan gogotik.

Andik etorri ta gero ere ikusi izan nuen Lezoko mutil ori Donostian, eta beti lagun izan giñan. Baiña gazterik il zan gizarajoa ta goian bego.

Pena galanta artu genduen aiek aldegin zutenean, eta ez uste gutxiagotarako zanik alako lagunak alde egitea, etxetik

ain urruti egonik, aiek gure beteranoak ziranez oso ondo alkar artzen genduen eta.

Beste gertaera bat ere bagenduen guk aruntza joan berri artan gertatua. Garizuma izanik, pazkoazkoa eginda joan nintzan ni, eta ni bezela geienak. Baiña an ere egin bear zan, eta urrengo egunean joan bear zala esan ziguten, erri artan zegoen eliza katoliko bakarrera. Alperrik izan zan gu eginda joan giñala esatea, eta txartela erakustea ere bai. Azkenik, eta egia au ere, ez giñala iñoiz konpesatu euskeraz ezean. Baiña alperrik esatea zan. Danentzat bazeukaten zer erantzuna, eta etzeukatena asmatu egiten zuten eta aurrera. Praille bat baze-goela itzegiten zuena –euskeraz itzegiten entzuna esan bear zuketen– eta an eraman ginduzten besteen artean. Eliz aurreko patiora iritxi giñanean, auxe deitu ziguten:

–*A ver: los que no saben hablar que salgan de las filas.*

Etzegoen besteren bearrik. Laister irten nintzan ni ere, baiña ez nintzan aurrena. Nerekin batera erten zuen napar gazte batek: Juan Iroz Etxamendi bere izen-abizenak. Luzaidekoa zan eta bizi izan zan baiño ospetsuago egin zan il ondoren. Baiña utzi dezagun ori gerorako eta goazen arira.

Gure praille *euskalduna* zer izango eta gerra garaian Euskal Errian egona zala esan zigun, alazankoa! Baiña Espiritu Santuaren indarrak berekin zeuzkala uste zuen edo gezurretan ari zan. Nolanai konpesatuta ere ulertuko zigula esan baizigun asi aurretik izan genduen alkarrizketan, eta tutik etzekien euskeraz.

Ordu artatik nere iritzia, nere ikuspegia, obeto esanda, erabat aldatu zan eta arrunt markaturik gelditu nintzan. Nere mundua egun artara artekoa eta andik onuntzakoa euki nituen, urte askoan gaiñera, eta etzan gutxiagotarako, ondo pentsatzen jarri ezker. Ogei urteko mutillei esan egin bear zaie gero «itzegiten ez dakitenak irten ditezela». Ainbesteko mutil mordoia formatuta saillean geundela, danak parrez eta isekaz ari zirala, danen aurrean ain lotsagarri atera araztea ez nien

egun batean eta ez urte batean eta amarrean ere barkatu. Eta orain ere, gogoratze utsarekin. sutan jartzen naiz. Baiña aspaldi barkatu nien alu aiei. Etzekiten zer egiten zuten eta barkatu egin bear. Zer egingo zan?

Gauza penagarriagorik etzezaketen egin iñola ere. Larru gorritan jarri bagiñuzten, askoz ere min gutxiago emango zigutela uste dut. Mukitzu guztiak ere geuri begira parrez ari ziralara, atera egin bear zan gero itzegiten ez dakitenak bezela!

Len aipatu dutan luzaidear gaztea, berriz, eriotzako orduan izan zuen portaeragatik egin zan ospetsua. Kamioiarekin apea karraio zebilela, Frantziako Sauveterre deritzan erria oso aldapan kokatua egon bear du eta, kamioia kargaturik zijoala, bere arrastak eltzen etzietela konturatu arren ezin gelditu, eta an pasa omen zan oiuka, ezin zuela deadarrez; eta, bati eta beste-ari al zuen bezela ixkintxu egiñez, ziztu bizian pasa zuen erria. Baiña, andik atera orduko, ume batzuk an jostatzen; eta, aiek ez arrapatzearren, zeukan bide bakarra artu omen zuen: errepi-detik azpikaldera artu, terraplen izugarri batean bera erori eta ango pago bat jota bertan txirtxillatu omen zan. Ala irakurri zan egunkarietan eta ala esan ziguten an bertan ere.

Onek bere arrebarekin izaten zituen berebiziko kontuak: errian gertatzen ziran gora-bera guztiak eta gaiñerako kontuak. Baiña egun batean oso idazki laburra bialdu zion, pape-raren alde bat zurian utziz. Baita orduan Pantxok –ala deitzen zioten errian– zurian bialdu zion alde artatik idatzi ta itzuli zion bere arrebari eskutitza, eta bai urrengoan ederki bete ere, erri guztiko berriekin gaiñera.

An bertako dantzari-taldea oso ezaguna zan garai artan eta geroxeago ere bai, oraingo berririk ez daukat nik baiña. Bera an ibillia eta arreba an ibiltzen zana. Ortik zetorkion nunbait ainbeste kontu jakin naia bere arrebarengandik. Goian bego gure Pantxo gizarajoa!

Ai Pantxo lagun ona,
artu dut asmoa,
zure azken ordua
kontatutzekoa,
Sauveterre errian
gertatutakoa,
aurrak bizi zitezen
bertan iltzekoa,
ez ote da gogoan
edukitzekoa?

Gu *Compañía Mixta* zeritzaionean tokatu giñan eta orko instruzioa oso bestelakoa zan. Emen berriro instruzioak ikasi bear izan giñun. Emen sei kaiñoi koskor, beste sei ametralladora aundi erraldoi batzuk ere bai, *cañones anticarros* eta *ametralladoras antiaéreas* zeritzaienak. Neri azken auetan tokatu zitzaidan, eta antxe izandu nuen lenbiziko egokiera, eliz aurrean eta geroztik ere parre egin zigutenei *ezkutukoak* erakusteko, batere billustu gabe gaiñera.

An, bai, an nabarmendu nuen ez nintzala beste asko baiño eskasagoa. An “*¡posición de tiro!*” esatean, ametralladorak kurpillak eramaten zituen eta aiek kendu ta *trípode* esaten zaion iru adar baleuzka bezelako gauza bat ateratzen zitzaion. Aien gaiñean jarri bear izaten zan makina ori, eta azkar ibilli bearra zegoen. Artan etzidan iñork eramaten. Barkatu, baiña an etzidan iñork esan “*el que no sabe hacer*” eta olakorik. An bear zan ainbeste indar baneukan, eta jenio txarra, berriz, sobrean. Azkar demonio kurpillen gaiñean zeuden aiek kendu eta *trípode* edo iru ankekoaren gaiñean izaten ziran, batere lagun itxurazkorik gertatzen bazitzaidan.

Kaboak ateratzeko Akademiara joateko, berriz, alde bate-ra gogoia etortzen zitzaidan, eliz aurrekoa gezurtatzeko asmoarekin; eta beste aldera ez. Artan pasa zan denbora edo pasa

zala uste nuen, eta goiz batean kapitanak esan zidan seigarren makina ametralladoraren kargua artzeko, eta goiz guztian ez dakit zenbat aldiz montatu eta desmontatu arazi zigun. Eroitzeko ere bazan ura.

Nik ustez ango mobimentuak artuak neuzkan, eta beste gaiñerakoak ere bai noski; eta, ondo egiten bagiñun, zergatik bein eta berriz egin arazten zizkigun? Zergatik ari zan ez nekien; baiña izardia atera arazi zigun, arraioak ez badu, goiz artan; eta gero ta kezkatiago zergatik egin arazten ote zizkigun egun artan ainbeste aztarrika –neri baiño geiago egitea egokitu zitzaizen besteei–, baiña laixter jakin genduen.

Azkenean esan zidan eguerdian aren gelara igotzeko, ta ala egin nuen “kaka baiño bildurrago”, Urdanetan orrelakotan esan oi dan bezela. Igo nintzan agindu bezela. Zer izango ote zan eta kabo egiteko Akademiara joateko zergatik ez nintzan apuntatu galdetu zidan, eta nere erantzuna auxe izan zan:

–Pero, mi capitán, si soy de los que no saben hablar.

Bai-baizekien kontu ori ark ere, eta gozoa jarri zitzaidan orduantxe alajaiña! Aren purrustadak etzuen neurririk.

Nik etsi nuen kalabozoan bukatzen zala gure izketaldia; baiña, zurrunbilloaren ostean barealdia etortzen dala esaten dutenez, neretzat ere ala gertatu zan egun artan. Ez nintzan asarre, bukatu zan bezela bukatu zanean, eta ez dut uste gutxiagotarako zanik.

–¡Déjate de tonterías! –esan zidan, eta konpleju oiek baztarrean utzi eta urrengo astelenetik asten zirala klaseak, eta joateko. An esango zidatela zer liburu bear ziran, eta nundik erosi bear ziran ere bai; eta aren partetik joan nintzala esateko *teniente Gómez* jaunari. Baita egin ere nik zintzo asko, eta ala bukatu zan gure arteko alkarrizketa, eta ez kalabozoan, bildurra nuen bezela.

Bitartean nik pasa nituen bildurrak etziran badaezbadakok. Utsegiteren bat egiña izango nuela eta ez nintzan oroitzen zertan. Ura zan, ura, lantegia! Baiña, esan bezela, joan eta an ibilli giñan alik eta ikastaroa bukatu zan arte. Bukatu ondoren, *cabo primero*-tarako ere jarraitu egin nuen, eta iritxi nintzan bukatzera. Baiña ez nuen galoirik artu nai izan, lenagotik nere bizitza arrunt aldatu zalako. Gure kapitanak aldegin zuen konpañitik, eta berriak ez dut uste zekienik alkarrizketa aren berririk, eta artan gelditu zan.

Aruntz joan eta urtebete ingurura *furriel* egin ninduten –aurre artan kabo atera nintzan– eta andik aurrera ogi-gosea zer zan ez nuen ezagutu. Beti sobratzen zan augatik edo origatik; eta, ura neretzat izaten zalarik, beti izaten zan nik jan ainbeste ogi, naiz konpañiko soldadu kopurua baiño errazio geiago bein ere eskatu ez. Ala, bein edo bein bakarren bat geiago ateratzen bazan, urrengo egunean bertan, badaezbada ere, gutxiago eskatu eta apuntatu ere bai, tranpan erori baiño len. *Tragapanes* deitzen zioten furrielari, berak nai zuen bezela erabiltzen zuelako ogiaren gora-bera.

An moro zar bat nuen laguntzaille, Espaiñian gerran ibillia eta Euskal Errian naiko luzaro izandako kontuak esaten ziotuen. Emen zauritua zan eta euskeraz ere lardaskatzen zuen. Kabo egiña zegoen, baiña etzekien bere izena nola idazten zan. Bere firma, gure alfabetoan, alegia; eta, ortan ikasi ezkerro, bein-beiñeko sarjento edo *sargento provisional* oietakoen soldata jasoko zuen, *cabo mutilado* zalako, bazegoen olako lege bat eta.

Nik esan nion erakutsiko niola, ikasi nai bazuken; eta besteak ala esan zidan guztiz tristeturik:

–*Zi. Mí querer aprender, pero zer muy chibani y no poder.*

Chibani itzarekin zarra zala, alegia, esaten zidan. Baiña bein asi zan eta bai ikasi ere. *Kassem Ben Kassem* zan bere

izena, eta ez noski txukun-txukun, baiña edozeiñek ulertzeko eran idazten zuela jarri zan ari zala-ari zala, eta geroztik etzekien zer egin nigatik.

A, ori bai: bere izena bakarrik, e? Ez pentsa nik mirariak egiten nituenik. Irurogei urte inguruko moro zar bati ez uste ain erraza danik ortik aurrerako aundirik erakusten. Baiña arian-arian ikasi egin zuen gizarajo arek. Jakiña, illero-illero diru multzo aundia ateratzen zuen orrekin, eta “*por dinero baila el perro*” esaten dute eta zerbait izango da.

Nik nai bai, baiña iñoiz ez dut egin bestek egin ezin leza-ken gauzarik. Zenbaitek zailla dala eta utzitakoa bai; baiña asko dira mundu zabalean, eta gure artean ere ez oso gutxi, erraz egin litekena egin gabe utzi eta bestek egiten duena miraria balitz bezela artu oi dutenak. Baiña ez du iñork miraririk egiten mundu ontan. Alperrikako kontuak dira oiek.

Berak ere neri zerbait egin nai zidakela esan zidan, eta arabez itzegiten erakusteko esan nion. Ortan aritzen giñan biok jo ta autsi. Ikasi ere bai askok uste dezaken baiño geiago. Adibidez, kontatzen aurretxoraiño ikasi nuen, egia esan. Aurrenetik zailla iruditu zitzaidan. Baiña ari dan bezela zenbaki ba-koitzak bere amarrekora irixtean, zer-nolako jiroa artzen duen kontutan izanik, bere joan-ariak eramaten du aurrera.

Guaje, yuiz, tleta, arba, jamza, zta, zba, chimen, zohout, axara, guajtax, yuztax, tletax, arbatax, jamztax, ztax, zbatax, chimentax, zohutax, eixerin, eta orrela ogei ta amarrera arte. Aurrera, berriz, erakusten duen eran: *tletin, arbain, hamztin, ztain, zbain, chimenin, zouhtin...*

Lagun jator bat

Beste lagun bat ere banuen beste guztietatik berezia: Juan Maria Astigarraga Eizmendi. “Joanito Errezil” deitzen genion guk euskaldunok; baiña erdaldunen artean, batez ere bere konpainikoen artean, *Ostiko* izenez ezagunagoa zan, bere izen jatorrez baiño. Zergatik? Luze samarra da, baiña kontatuko dizuet neri kontatu zidaten bezela.

Sarritan joaten ziran soldaduak ango mendixka alu aietarra. Ez arbolarik, ez iturririk, ezer etzuten emengo mendien antzeko ezaugarririk. Baiña an aietxek zeuden, eta zeuden bezelakoekin moldatu bear, nai bazan eta ez bazan; eta egun artan ere ala joanak ziran nunbait Joanito eta konpainia. Mulo zarretan artu bakoitzak beren ametralladorak, eta txoroen tanke-rako gerra-itxura batzuk egin eta an zeuden nunbait arrantxo legearen zai.

Tarte artan bertan Joanito ori or dijoa zerbaitetara mandoen aldamenetik, eta geiegi urbildu da nunbait mandoagana. Une artan, *dale!*, bere oparia luzatu dio eta belaunean jo gaiñera. Orduan eskuan zeukan fusillari mutur-muturretik bi eskuekin eldurik, *danba!*, bizkarretik bera mandoari, eta *zapla* lurrera!

Orduan azaldu zan teniente Otxoa, naparra, Otxagabiakoa zan, eta ala esan zion Joanitori:

–Zer egin dik orrek iri, orrela jotzeko?

Euskeraz ere lardaskatzen zuen eta Joanitoren oso laguna zan, gaiñera.

–Ostiko! –erantzun zion onek, bi eskuak zagia bezela aunditzen ari zitzaion belanera eramanez.

Jende guztia parrez lertu bearrean orduan, *ostiko* orrek zer esan nai zuen jakin nairik; eta teniente Otxoa, berriz, pozik, gauza ori ortan pasatzen ari zanean. Bestela, zigor gogorra etorri bai-zeioken Joanitori. Ortan pasako ote zan? Laister ikusiko dugu.

Eskapada ederra egiña zan egun artan Joanito. Ez baizegoen mandorik jotzeko eskubiderik, eta gutxiago fusillarekin. Onek, berriz, biak egin zizkigun: mandoa jo eta fusillarekin gaiñera. Orra nola konplikatu zigun arazoa; baiña len esan dut, eta berriz esango dut, teniente Otxoa oso laguna zuela, eta izan zuen orren bearra. Lenbiziko parrak eta umore aldia pasa zanean, esan omen zion aldamenara bakarrik deituta;

–Bai al dakik zer egin dukan? Mandorik jotzeko etzegok eskubiderik, eta fusillarekin oraindik gutxiago!

–Nik ere orri ezer asko egin gabe eman dit ederra alu orrek –zearo bildurtuta.

–Ea; erakutsi zak anka ori.

Erakutsi omen zion eta aunditzen asia, ez oso itxura onekoa, gaiñera.

–Emendik aurrera nik esandakoa egingo duk. Kontu, gaiñera! Au etzegok ortan uzterik eta ospitalera joan bearke duk. Ulertzen?

–Egun ederrak ospitalera joateko oraintxe, bereala Gabonak dira ta.

–Ixo orain! Beste txoko illun artara joan bearke duk bestela, eta ura ez duk askoz ohea izango! Pentsatu al duk orren gaiñean ezer? Ba! Orain ez daukak beste aukerarik eta ixo, gaiñera!

Bereala agindu zion kornetari kamilleroei deitzeko, eta etorri aiek eta ospitalera eraman zuten. Min itxura aundiak egiteko esan zion Otxoak, eta bai zintzo asko egin ere besteak. Bildurra baizeukan kargu artzen asiko ote zitzaizkion, mandoari eman zion fusilkadagatik. Baiña bi edo iru egun os-

pitalean egin ondoren, botikiñera ekarri zuten eta antxe pasa zituen Gabon-Eguberriak, gaitza baiño sendagai geixego erabilliz. Teniente Otxoa naparraren aginduz egin ere. Eskerrek egun artan kanpitan Herrero joan etzanari martxara. Bestela, an izango ziran kontuak!

Orain badakizute nundik eta zergatik zetorkion *Ostiko* ize-nordekoa. Baiña etzion edozeiñek esaten belarri ertzera. Bestela, mandoa ankaz gora bota zuenak botako zituen beste zenbait ere. Argi ibilli!

Gogoan dut urte artako jai nagusiak nola igaro giñun. Botikin ori, nere konpaiñiaren bean ateak alkarren ondoan zituen, eta nere *cuarto del furriel* deitzen zitzaionaren ondoan; eta soldadoak egun aietan gauean *hasta las cero horas*, gauerdira arte alegia, ateratzea libre izaten zan koarteletik. Botikiñean zeudenak, berriz, etzeukaten irtetzerik. Nik, berriz, aurretik ere naiko ezagutzen nituen ango buru zebiltzanak; eta *santu ogijaleak* ziranez, eta ogia naikoa ibiltzen nuenez, etzan gauza zailla izan andik nere gelaraiño irteteko baimena lortzea, eta beste bi lagunekin oso ongi pasa giñun Gabon-Eguberriak, *Moriles* deritzaion ardo zuria edanez lasai asko, ori eta geiago ere merezi zuena zan eta.

Aren jenioa zer zan jakiteko beste ezaugarri bat ere kontatzen zuten bere konpaiñiko lagunak, eta bitxia auxe ere benetan. Lengoan mandoa bota bazuen jo ta ankaz gora, oraingoan bere lagun bat izan zan *mokoz-ipurdi* ibilli zana, esaten zutenez.

Illunabar batez koartelego zerbitzua oman zuen Joanito Astigarraga onek; eta, etorri zanean, ekiten dio zalapartan: kantinplora trukatu ziotela eta batenbatek bromaren bat gastatua izango ziola, eta orduan besteak erakusteko. Joanitok, berriz, bereala atzera eman omen zion esanez:

–Bai, mutil, bai. Auxe duk neri eman zidatena, eta arrezkero nerekin zebillek au.

Besteak, berriz, berea zala, eta onek ezetz; berari aurreneko eman ziotena zeukala ta begiratzeko. Erakutsi omen zion eta besteak uraxe zala bere kantinplora. Eztabai asi dira eta bestea ere sugegorria baiño zitalagoa izan, eta “lapurra” esan ez dio, ba, Joanitori, ez bat eta ez bi? Itza bukatu baiño len, eskuan zeukan kantinplorarekin, *zart!*, jotzen du ezpaitan eta lurrera mutilla. Bereala, konturatu zanean, barkatzeko eskatu omen zion; baiña bestea berean eta ala esaten dio Joanitori:

–Bixar goxin, etortzen dan bezain pronto, emangoutsat parte kapitanari. Ze osteok ik: ortan librauko aizala?

Aretxabaletakoa zan bera; eta, bukatu zuen ordurako, itzetik ortzera ala erantzun ziola esaten zuten:

–Emaiok, nai badek. Baiña or artu duken ori ez diok emango.

Batenbatek ikusia izan bear zuen norbait atxabaldar orren takillan edo arkatxoan zerbait zebillela, eta berari esana izan bear zuten aren berriketak zer ondoren ekarri zituen eta ekartzera zijoan; eta, ezer artu bazuen, obe zuela lenbailen azaltzea. Ala izan bear zuen agertua egitazko atxabaldarraren kantinplora eta bereala egin zituzten pakeak.

Lagun benetakoa uraxe nuen nik. Joanito Astigarraga, bat izatekotan. Aurreneko egunetik azkenekora arte egun bateko zaputzaldirik izan ez nuena, uraxe bakarrik izan nuen, bi urte ta erdi baiño geiagoan. Gizonak izaten dituenik gora-bera geienetan alkargana beartu giñan, eta beti alkar serbitu izan genduen, bai diru eta bai gaiñerako gauzekin. Beti ondo konpondu izan giñan. Kontuak garbi eta lagun zar, esaera dan bezela.

Donostian ezagutu genduen alkar; eta, ogei ta amaika illabete alkarrekin igaro ondoren, geroz ta lagun obeak izaten jarraitu genduela esan bear, egia esatekotan. Eta gezurrik ez dut esan nai, ez daukat esan bearrik eta.

Permisoarekin alkarrekin etortzen ez bagiñan, bata bestearen etxera joaten giñan. Geure bizimodua zerbait kontatuz etxeok asko poztutzen ziran, eta guri etzitzaigun ezer kostatzen. Alaxe ibiltzen giñan. Eta, gu biok alkarrekin etortzen giñanean, Azpeitin bilduko giñan asteartearen batean, aurretik izendatuta jartzen genduen egunen batean. Ango azoka ikusi ta berriketaldi bat egin ondoren, joateko eguna izendatu eta Tolosan alkargana biltzekotan gelditu izan giñan, eta etzegoen itza beteko etzan arriskurik.

Orain galdetu dezake batek:

–Nola ainbeste bidean etorri bear eta beti alkarrekin ez etortzea, ain lagunak izanda?

Ba, konpaiñi banatan egotea egokitu zitzaigun. An txandak eta gauzak nola gertatzen diran izaten da aldea, eta nai izan arren ezin beti alkarrekin etorri. Baiña alegiñak egin gabe ez giñan gelditzen.

Andoaiñen bizi zala alkate berria jarria zuten, eta onek kaileen izenak aldatzea erabaki, kale batena beintzat. Len “Sallearren etorbidea” zanari “Extremadura kalea” ez diote, ba, jarri Joan Mari au bizitzen zan kaleari?

Izan ere, alkate berriak nola ez ditu, ba, aldaketak egingo? Esaera bat bazan Urdanetan: maizter berri bat etortzen zanean ere zerbaiten aldaketak egin bear izaten dituela, besterik ez bada langa-albokoak goikoz bera jartzea izango baldin bada ere; eta alkateak geixeago egin bear eta bai egin ere.

Jende guztia marmarrean, baiña iñork ezer esateko konturik ez; eta ala esan omen zion onek alkateari, urrena ikusi zueñean. Izena zergatik aldatu zion galdetu dio eta alkateak erantzun: danak bizi bear genduela eta guztien gustoa egiterik etzegoela, ta ola bearko zuela.

Ala erantzun omen zion Joan Marik, bere erreizildar doiñu apaiñean:

–Zergatik etzenion zeu bizi zeran kaleari izen ori jarri, besteenari jartzeko orde? Bearbada danak ontzat artuko zizuten, eta gaiñera eredu emango zenduen –esanez, an utzia izan bear zuen alkatea aoa bete ortzekin.

Azken urteetan Andoaiñen bizitzen zan eta maiz ikusten genduen alkar, eta aretxen il-berriak baiño zirrara aundiagorik ez dakit iñork egin ote ditan, gaur arte beintzat. Goian bego! Laister or gaituk, Joanito. Egun aundira arte!

“Anai bixkiak” esan oi ziguten bioi beste euskaldunak, an ibilli giñan garaian. Gorpuzkeraz ere alkarren antzeko samarrak. Bata bestearen erropekin jarrita ere iñork etzigun antzik emango. Eta, beti alkarrekin izaten giñanez, etzan ain arritze-koa etzekienak ala uste izatea. Baiña an etziguten esaten etzekitelako, beti alkarrekin giñalako baizik.

Etxeko gora-bera guztiak ere kontatzen genizkion guk alkarri, karta artzen genduenean, zer zioten emendik: oso legor zegoela; elurra egiten zuela edo edozer gauza. Biok ere base-rrian aritzen giñanak, eta biok ere etxeko senide zarrenak, etxerako ustean geundenak, gero kukuak oker jo bazigun ere. Biok ere atarramentu berdiña eraman genduen, Nik lenbizi, arek geroxeago; baiña, dozenerdi bat urte gora-bera, biok kalera. Orduko martxa ala zegoen eta ala artu bearra zegoen, ez gogo ederretik baiña.

Ezpain-soiñua edo armonika joaz dantzan egiten izango ziran obeak, noski, baiña nere begien aurrean ez da jarri ura bezelakorik. Ez dut beintzat nik ikusi ala dantzatzen duenik.

Garai artan askok jotzen zuen ezpain-soiñua. Erri koskorretan edo txikietan gaiñerakoan aukera aundirik ere ez eta patrikatik atera ta jo zerbait: *fi-fu-fi-fu*; eta salto batzuk egin eta kaixo, mutil! Aukera gutxiagorekin bizi egiten zan orduan ere, eta orain ere bai.

Ala ere, gure aitonak esaten zuen armonika atera zanean gauza aunditzat artu zutela. Lenagotik lagunarteko billera ta ola-

koetan *trompa* eta ez dakit zer erabiltzen zituztela, eta ezpain-soiñu orrekin asko aurreratu zala gauza iruditzen omen zitzaien.

Naiz txistulariak –danbolinteroak deitzen zieten– eta naiz duntziñeroak ere baziran askoz lenagotik. Auzoko jai nagusietan eta olakoetan jotzeko izaten ziran oiek. Baiña gaiñerakoan al zuten bezela ibilli bear eta ortarako ziran egokiak armonikak, patrikan erabilli zitezken gauzak ziralako.

Ama Birjiña Sortzez Garbiaren egunean izaten dira infanteriko jaiak, eta berak etzuen nai, baiña urte batean izena eman zuten eibartar batek eta beste lagun batek. Zekienak zekien instrumentua jo eta zekienak zekien kanta kantatuz jaialdi bat antolatu zuten; eta an jo bear zuela armonika esan genionean, mutur-mintzak berotu etzizkigunean ere ez giñan asarre.

Katu Beltza deitzen genionarekin jo bear eta zergatik esan genionean, konforme gelditu zan, eta gu kontentu giñan. Ala egin zuten beren agerraldia: eibartarrak kantatu ta errezildarrak ezpain-soiñua jo.

Ortan ez genduen antzik: nik ez soiñua jotzen eta ez dantzatzen, arte berezirik ez. Dantzatzen, lardaskatzeko ainbeste; eta ezpain-soiñua, berriz, bertsoen doiñua artzeko *fi* ta *fu*, ta beste ezer askorik ez. Aita zana izan bear zuen poliki jotzen zue-na gaztea zanean, eta gero ere bai. Baiña nik ez nuen ikasi arek ainbeste, ezta urre emanik ere.

Olakoxea zan gure Joanito Errexil. Iñork etzion eramaten jenio bizia izaten. Baiña etzan ori bere ezaugarririk bereziena, biotz onekoa izatea baizik. Ori beste edozeiñek bezain ongi ezagutu zuenak esaten du.

Agur, Juan Mari biotzekoa,
ustera niak barrena,
lengo kontuak oroituztea
ortarako bearrena.

Amaika aldiz egonak gaituk
bildurikan alkarrena,
nola poz eta ala tristurak
alkarri kontatuz dena,
i izan intzan nere bizitzan
lagun onetan onena.

Ainbesteraíño leial izanik
munduan intzan artean,
orain zeruan egonduko aiz
seguru nere ustean.
Gu berriz emen jira ta buelta
esparru txiki batean;
nik basedukat itxaropena
beste mundura joatean
ire laguntza arkitutzeko
zeruetako atean.

Katu baltza

Bagenduen beste lagun bat oso berezia, ta bitxia ere bai, bere ateraldiak eta izaera xelebregatik. Eibartarra zan eta gerra garaian gurasoak il zitzaizkiona, eta geroztik gerrate guttian alderrai bezela ibillia, orduan asko ibilli ziran bezela. Gurasoak iltzean atzerriratu zituzten eta ia Europa osoa zearkatua izan bear zuten, bein batean eta bein bestean, berak esaten zuenez. Bi anai ta *lengusiña* omen ziran alkarrekin irten ziranak eta alkarrekin ibilliak.

Beren amak esan omen zien, il zorian zegoela, alkarri eusteko; ez alkarrengandik banatzeko; eta orregatik zigor gogorak jasotzen omen zituzten kolonietan. Zeuden tokietatik bota ere bai iñoiz; baiña ala ere eutsi ziotela esan izan zuen alkarri. Baiña larri *ibilitxa*, Lengusiña omen zuten oso neskatu *politxa*, eta ura artzeko noiznai izaten zituztela *konpradoriak*. Baiña besteak irurak edo iñor ez, eta or bukatzen omen zuten alkarritzeta.

Arentzat berdin zan arre edo iso esan. Alako ibillerak egiña zegoen eta etzitzaion ajolik ezergatik. Kalabozoan sartu, astebeterako edo birako paseorako eskubidea kendu, arentzat berdin zan. Instruzioak ikasi arte beti olaxe ibilli zan, eta bazirudien artarako jaioa zala, *carne de presidio* deitzen zaien oietakoa. Baiña gauzak aldatu ziran bein bizimodu normala egiten asi giñanean.

Katu Baltza izenordea ere bide xelebretik etorria zuen guztiz. Kantuan oso poliki moldatzen zan. *Cuarteto* deitzen zitzaien oietakoan ibillia izan bear zuen. Ala esaten zuen berak. Kantu bat bazuen era ontan asten zana:

*Si yo fuera katu baltza,
y por tu ventana sartu,
a ti te haría miau-miau,
y a tu hermana...*

Guk parre egiten genion. Baiña erdaldunei ere asko gustatzen zitzaien, eta bai besteak ederki esplotatu ere, alako imintzioak egin ere egiten zituen eta.

Konpaiñian zeudenean asi zitzaizkion eskatzen kantatu zezala kantatu ori, eta besteari bururatu zitzaion zumoa atera bear ziola. Bai atera ere. Begira:

–*Oye, vasco: ¿por qué no cantas aquella bonita canción?*

–*¿Qué canción quieres que te cante?*

–*Aquella que dice: si yo fuera katu balsa.*

–*A ver cuántas monedas echáis al suelo.*

Txanponak botatzen zizkioten lurrera, beren aurrean jarri ta berebiziko imintzioak egiñez kantatzen zien bere katu beltzaren kantua; eta lurreko txanponak bildu eta bere ortz zuriak erakutsiz parre egin eta kaixo, mutil! Elemento ona zan ura, urrengo egunean ardoa edateko moduan jartzen zanean.

Erdaldunak “*el de katu balsa*” deitzen zioten eta berak ere alako itxura zuen: beltxaran-beltxarana zan eta bere ezpain gaiñeko bixar tente aiekin ezin obeto zetorkion *Katu Beltza* izena, eta orrekin gelditu zan, an geunden denbora guztirako.

Bereala artu zuten ango *maestro armero* deitzen zaien oien laguntzaille bezela eta asi zan zintzoago ibiltzen. Armerian ere oso ondo ikusia zegoen; eta, lengo pillo-aurpegi ura aldatu gabe, besteen tankeran ibiltzen zan.

Ori bai: diru gabe zegoenean apusturen bat egiten bazuen, nola edo ala baiña irabazteko izango zan. Andik eta emendik ibilliko zan ardoa edateko txanpon batzuk ateratzearren. Ordu betean ere kantari aritzeko gertu egoten zan ura ardo apur bategatik. Orixe zan aren akatsa edo debillidatea, baiña ez

mozkortzeko. Noiz edo noiz zerbait txispatu izan zan; baiña ez dut ezagutu, ari bezela ardoa gustatzen zaion gizonik, arek baiño mozkor gutxiago arrapatzen zuenik.

Bolaretan amorrazio itzalak eman izan zizkidan neri ere. Gure konpafiaren aurretik pasa bear izaten zuen eguerdian, armerian lana egin eta bere taborrera; eta nik eguerdian izaten nuen egun guztiko lanetan garrantzitsuena: moroei urrengo egunerako lanak izendatu eta ogia banatu bear izaten nien. Ortan aritzen nintzan. Serio-demonio ari ere. Bestela, eun bat moro zar aiekin zeñek burutu?

Gure Katu Beltz ori andik igarotzean, beste norbait euskalduna arkitzen bazuen, asiko zitzaion neregatik asma-alak esaten, graziarekin ordea. Neri parre atera arazi gabeko onik etzuen izango, eta ez nuen nai izaten nik iñolako moduz. Pareta baiño serioago jarrita aritzen nintzan, formatuta zeuden garaian itzik iñork etzezan egin. Baiña arek orduan eta amorratuago. Katu Beltz puñetero arek parre atera arazi bear izaten zidan mundu guztitik.

Juan Maria Azkarraga zituen bere izen-abizenak –bigarren abizenaz enaiz oroitzen–. Baiña guretzat alperrik izan ziran. Bein Katu Beltza esaten asi giñanetik aurrera, beti Katu Beltz; eta berak ere onartzen zuen gaiñera, ta aurrera.

Armerian oso ondo ikusia zeukaten. Izan ere, beste iñon lanik egin gabea izan bear zuen. Bein gerra bukatzean asi ta soldadutzara deitu arte *Pistolas Star* deitzen zioten lantokian, eta gaiñera gauzez *eskuela armerixakuan*. Ala esan izan zuen berak, arro-arro jarrita:

–Maestro armeruak pe neugana etortzen ditzuk, ba, arren preguntatzera.

Bazan orduan armerian emengo jendea: oñatiar bat, bergatar bat eta donostiarra bestea. Gurekin joandakoetatik lau egon ziran batera, eta beste iñor askorik etziran egongo, bertako *maestro* aiek kendu ezkeru.

Kantatzen oso gusto polita zeukan –berak ere bazekien– eta amaika aldiz arratsalde politik igaro giñun berarekin eta bere kantuekin. Guretakoren bat permisoarekin etxean izaten bazan, gazta bat eraman bear izaten zuen lagunartean jateko, eta era ortan beste gauza askotan ere; eta olakoetan Katu Beltza beti gonbidatua izaten zan. Ori bai: etzuen ordaindu bearriki izaten. Bere *repertorio* oparotik kantatuko zituen zekizkien kantu politenak, eta betiko *kutre* oietakoak ere bai, *Si yo fuera katu baltza* utsik egin gabe zala.

Biurria zan, baiña iñori gaitzik egin gabe ibiltzen zan beti zebillen tokian, eta ezin esan nezake nik lagun txarra izan zanik. Santu-planta galantak egin arren, ezagutu ditut nik okeragoak, askoz gaiñera.

Andik etorri ta geroztik ere aldizka ikusten genduen alkar, eta betiko umorearekin jarraitzen zuen, oraindik *soltero* gaiñera, berak maiz esan edo kantatu izan zuen bezela.

Bere “Eibarko legia” –errepublika zan ori– noiz baiño noiz etorriko egoten zan, eta azkenean ere bere artan joana izango zan, bere errepublikaren antsi orrekin. Arkotxa jaunak esan zidanez, eguerdiko “errondan zurixak eraten” zebilela biotzekoak eman eta il zan. (G. b.)

Umore onak beti berekin
eta kantari trebea,
erderaz ondo kantatzen zuen
eta euskeraz obea.
Gusto polita izateaz gain
abots ederran jabea,
ura bai zala nere ustetan
pikaro gaitzik gabea.

Noizbait bukatu bear

Orrela igaro zan gure soldadu garaia. Etxetik urruti, baiña alare ere etxera maiz etortzen nintzan. Gaur emazte dutena neukan emaztegai eta tira egiten nunbait. Sei illabetetik bein ematen zuten illabeteko permisoa; eta emen kafea *estraperloan* zegoen, oso garesti gaiñera, eta an berriz libre. Kilo pare bat pasatzea lortzen bazan aduanan, beste tabako pixka batekin, biajea debalde ateratzen zenduen. Or egoten zan joko: aduanan zer suerte zendukazun. Baiña nik or suerte aundia izan nuen beti. Andik edo emendik, baiña beti pasatzen nuen. Gero guk, regularretan geundenak, txilaba ere erabiltzen genduen, eta aren azpian eta abar, beti arrasta egiten genduen al zan guztia.

Erlojuak ere ekartzen giñun. Emen baiño askoz merkeago zeuden an. Pentsatu gauzak nola ibilliko ziran Espaiñi ta inguru ontan: kanpotik ekartzen ziran gauza guztiak zeruko izarrak baiño goragoko balioa zeukaten eta zer zan antzeman ezin zitzaionak zeuden, Marrokon begien bistan zegoen arren. Beste nazioa izan eta erdi prezioan, asko geiagorik gabe beintzat, gauza oiek berak kalean libre saltzen ziran.

Ogi zuria ere nai zuenarentzat kalean libre saltzen zan. Baiña, egia esan, gutxik erosi al izaten zuen, bizi-mailla eskasa zegoelako bertan. Baiña gaiñerakoan etzegoen galerazita, emen zegoen bezela; eta guk askotan jan genduen uts-utsidekan ere. Ogi zuri erreberria ardoarekin ederki sartzen zan. Arriturik, gaiñera, kalean saltzen ikusita. Gu baiño zortzi-amar bat urte atzerago bizi zirala esaten genduen guk, ogi zuririk kalean etzala ikusten ortxe nunbait ziran eta. Gure lotsarako egia.

Noizbait bukatu bear eta inguratu giñan bukaerara. Baiña etzan laburra izan azkeneko illabetea. Ez nuen sinistu ere egingo orrenbesteko mella egin bear zidatenik azkeneko ogeitaka egun aiek. Illabete eskasa izan zan, penintsulakoak, Espaiñi barrengoak, lizentziatuta, gu Afrikakoak lizentziatzera igaro bear izan genduen. Ez dut gezurrik esaten, baiña instruzioak ikasi ta konpaiñian martxan asi giñanetik ordura arteko dana baiño luzeagoa egin zitzaidan neri azkeneko illabetea, gaur izango biar izango libre izango giñan eguna.

Zergatik euki ote ginduzten ainbeste denboran ala? Ez dakit; etziguten esan.

Soldadu izatea
Afrikan tokatu,
luzea ta gogorra,
ezin ukatu.
Bi urte t'erditikan
giñaden pasatu,
guk nai genduen baiño
geiago luzatu.
Oitutzen saiatu,
animoz bajatu,
zearo nazkatu,
azkenean txartu;
luzea bazan ere
orra bukatu.

Egoera larria

Arritzeko gauza ez danik ez esan neri gerra amaitu ta amar urtera olioa izan ditekela estraperlorako gairik nagusiena. Kamiona beteta ekarri andik onuntza eta emen litroko amar duroan saltzen. Gizonaren jornaleta etzan iristen eguneko amar durora, amar ordu lana eginda ere. Ala erabili egin bear da jendea ainbeste urtean!

Nik ez dakit zer esan, baiña arrigarria zan Espaiñiako arazoa. Edozer gauza izanda ere, emen etzegoen ezer, kanpotik ekarri bearrekoa bazan beintzat. Dalako estraperlo ori ez dakit nik zergatik izan ziteken. Errezelo txarra egitea izango da, baiña ez dut uste konpondu eziñezko gauza zanik, geiena beintzat. Estraperlo kontu ori moztu ziteken gauza izango zan. Erriak erosi zezaken salneurrietan jarri gauzak, zaindu bear bezela eta dana bukatu ziteken. Baiña komeni ote zan?

Gauza bat daukat ziur: orduko Espaiña gaur irugarren munduko erri atzeratuenak baiño okerrago zebillela. Batez ere zarrak, gaixoak, umeak, emakume aurdunak, aurra izan berriak eta gaiñontzekoentzat ere ez oso atsegiña. Oientzat beintzat bildurgarria orduko izaera. Aurpegi zorrotz eta begiratu larria ugari ikusten zan orduan kale bazterretan.

Guk baserrietan komenentzi asko ez genduen izango, baiña esnea bai, eta gauza ona zan bera ere garai artan. Zerbaitekin elikatu bearra zegoen eta esnea elikagai ontzat artzen zan orduan.

Igarotakoa aztu egiten da, baiña gose latzak jasan bear izan zituen emen garai artan jendeak. Etzan izaten zilborra aurreragi erten bildurrik. Tripa-larruak bizkar-ezurra jo bearrean

antxe, bizia ta eriotzarekin borrokan bezela, ibilli bear izan zuen amaika pertsona errukarrik. Ez naiz gezurretan ari zoritarrez. Orduan gorriak pasatako asko ta asko gaur oraindik bizirik dago, nai badute aitortu.

Urte aiek aztutzen ari dira, baiña zenbat aitona ta amona gaixo eta zenbat aur errukarri egon bear izan zuena goserik beltzenetakoa pasatzen; eta, zenbat emakume aurdunek bezela, aurra izan berriak jasan bear izan zuten mixeri latz ura, gerra amaitu eta ainbeste urtetan gaiñera. Nik ez dakit zer bururekin pentsatuta edo zer egiten zuten; baiña, norbaitek euren aurkako itzik esan ezkeru, seguru etzuela giro izango, zigorra jaso araziko zioten eta. Aztu, esan bai; baiña guri ezin aztu alako injustizirik gerra igaro ta ainbeste urtera. Beste gerra mundiala tartean izan eta, bertan neutral bezela igaro arren, gose bizian iltzen jendea. Ori ez da iñun kabitzen.

Or ez dago gerraren gordinkeria ta olako berriketarik; ez-eta gauzaren eskasia egotearen aitzakirik ere. Kamionak leporaiño kargatuta ekartzen zuten olioia, eta berdin beste gauza asko ta asko, naiz aldian bein bat edo beste bidean arrapatu. Etziran luzaroan kartzelan egoten, ez-eta andik ateratakoan etxegintzara ta orrelako lanetara joaten. Berriz ere ortara josten zuten geienak.

Orrelakoxea izan zan emen gerra ondorena. Ondoren luzea gaiñera. Gerra bukatutzat eman da andik amar urtera aterra nintzan ni baserritik, eta oraindik ere ikusten nago, guk geroago estraperloan erosi bear genduen olioia nola eramaten zuten, saskitxo baten neurrira eginda, zinkazko amar litroko ontzia denda jakin batera. Eta beste dendetakoak ere alako martingalak ibilliko zituzten, bakoitzak al zuen neurrian.

Baiña amar urte baiño geiago igarota ere, oraindik bizitza latza zan emen. Jornalari begiratu besterik ez dago gauza nola zegoen ikusteko. Lan asko, oso asko egin bear zuen gizo-

nak bera eta bere familia aurrera ateratzeko, eta ez orain bezela umeak unibertsidadera bialtzeko. Garai artan edozein etzan igarotzen F. P.-tik aurrera, eta gutxiagorekin askok gelditu bear izaten zuen.

Amabi urte betetzeko zai ere ez oso gutxi, nunbaitetik edo zerbaitetik txanpon batzuk ekartzen asten ote zan, edo uste ortan beintzat, danen bearra izaten zan orduan eta. Lasarten adibidez, Golfean.

Garai artan baserrietan izugarrizko arazoa suarekin zegoen, batez ere maizterrak, eta garai artan ala ziran geientsuenak. Etxeko asegurua eginda zeukaten arren, etzuten ordaintzen etxe-orubearenik *-inmueble-* ezer, eta nagusiak etzuten etxerik egin nai izaten, eta kale gorrian bezelatsu gelditzen ziran etxea erretzea gertatzen zitzaienak.

Begira Altzolan zer gertatu zan. Beste toki askotako tankeran, Jesus-amen esan ordurako zazpi baserri erre ziran, eta danak kalera aldegin bear izan zuten, nagusiak etxerik egiteko konturik etzeukalako. Gero besteak ere ustu ziran; baiña beste gauzarik da bere gogoz eta aurrez kontuak aterata joatea eta arrapaladan etxeko ainbeste tresna suak suntsitu eta aoa bete ortzekin kalera joatea.

Nik, kooperatiba bat bezela jarri, gauzak ondo erabakita, eta nolabait etxe-orubea berriz eraikitzeke modua egin bear zala nerabilkien buruan. Lenbizi, asteko egin genduen *derrama* bezela, ezbearra gertatzean danon artean osatzen zala ogei ta amar milla pezetako bat. Ordukoak, e? Ziur ez dakit, baiña olako zerbait jarri zan. Etzan, ordea, artan aurrera jarraitzeke asmoarekin egiña, baizik asiera nola egin bearra zegoen ikusteko alegin bat.

Orain utsa dirudite aipatzen diran dirutzak, aintzat artzeke ere ez diranak. Baiña baserririk aundi ta onena erretzen zitzaion maizterrak jasotzen zuena etzan inguratu ere egiten,

asegurorik onena euki arren; eta gero kalera joan bear izaten zuen, nagusiaren etxerik egiteko gogorik ezagatik.

Orrekin asi eta gero etxe-nagusiarekin itzegin, etxea berriro eraikitzen bazan norena izan bear zuen, nola geldituko litezken eta beste gauza asko itzegiñez, patxaraz eta legez gauzak egiñez kooperatiba on bat sortzea zan nere asmoa. Baiña etzidaten ezertarako ere astirik eman; egin baiño len alde egin bear izan nuen andik.

Joanak joan, pasa zala dirudi bolara txar ura ere, eta baserriak erretzeko arriskua ere pixka bat gutxitu dala dirudi. Ez dira beintzat orain entzuten len ainbeste baserri erretzen diranik. Orain erabat aldatu ere egiña dago baserriko izaera. Orain ez dira len garai batean bezela belar onduz betetzen ganbarak, belarra zuloan sartu edo bolak egiten diralako.

Orrekin gauzak asko aldatu ziran baserritarren onerako. Orain ere naiko ezbear sortzen dira, baiña ortan alde aundia egin zalakoan nago ni. Ez ori bakarrik: argi-ariak ere geroz ta obeak dira, eta orrekin beste alde galanta. Baiña alaz ta guztiz ere gertatu egiten da baserriak erretzea, mingarria bada ere.

Izena eta izana

Urdaneta nere izenordekoak ere badu alako istori apur bat, eta kontatuko dizutet. pazientzi pixka bat artzen badezute, zeñien modu xelebrean asitakoa dan; eta geroztik, entzun nai ez nuen gauza izan balitz ere, entzun beariko nuen nenbillen tokian, ziur asko. Baiña ez da olakorik izan. Nere denboran, nabillen tokian, askok esan dit eta beti gustora entzun izan dut. Neri nere jaiotako tokiaren izena beti atsegin izan zait.

Gogoan dut, ni mutil koxkorra nintzala oraindik, Zarautzen nola deitzen zidaten *Urdaneta*; eta, uraxe gogoraturik, lixkar antzeko gertakizun baten ondoren datorkit izengoiti edo izenordeko au. Neroni jaiotako toki politaren izena ere bada, beraz, eta orregatik izena eta izana biak biltzen dira itz ortan. Beraz, neretzat oore aundia da era ortan deitzea, eta onezkero ola beariko du.

Orretzaz gaiñera, badut beste arrazoi polit bat ere izenordeko au erabiltzera bultza ninduen. Ain zuzen, larunbat arratsaldea zan eta Donosti aldeko ikastoletako ordezkariak bildu giñan Donostian. Andik urrengo egunean Loiolan gendukan billerarako erabaki garrantzitsua artu bear genduen, eta ia gauza berdintsua esatera etorri giñan, eta andik aurrera pausorik ezin eman. Egin nai genduen araudiaren proposamena egiten ari giñan eta gauzak ondo zeaztu nai batak eta besteak.

Naikoa zakartzen zijoztela gauzak ikusirik, alakoetan beti oi nuen bezela, billera ura etzedin itxura zeukan bezela bukatu, esan nien artan jarraituz asarratzea besterik ez genduela egin bear eta ohea izango zala bertan uztea. Oean burukoarekin ondo pentsatu ondoren, bakoitzak bere proposamena era-

man zezala, eta urrengo egunean ordubete lenago bildu, aietatik bat aukeratu eta arekin aurrera egingo genduela.

Asmo ori danak ontzat artu zuten, eta urrengo egunean berebillean sartzean aurpegi illunak arkitu nituen, arritzekoa ez danez. Kotxe batean joaten giñan lautatik iru aurreko egunean eztabaidan gogor aritu ziranak bai ziran, eta an bakoitzak berea gogoan zeukaten arraio aiek. Baiña, arritzekoa bada ere, nik eraman nuen proposamenarekin ados zeuden. Geiago oraindik: aurreko gaueko ariari jarraituz, ordurarte jarraitu arren ez giñala artara elduko aitortzen zuten irurak; eta, ortan ari giñala, *Goiz-argi* aldizkarian idazteko eskaera egin zidan batek. Ango zuzendaria baizan aietako bat: Agustin Miner jauna, ain zuzen. (G. b.)

Aldizkarian idazteko kontu orrekin itzegiten ari giñala, ala esan zidan beste batek: idazteko ez neukala nik ona izan bearririk; ospea izateko, neraman abizenarekin naikoa nuela zurian beltza egitea.

Nik ori oso gaizki artu nuen eta ala erantzun nion:

–Aizak: oraindik kapaz nauk atxurra ta sega astintzeko ere, eta lenago joango nauk ortara, neurekin zer ikusirik ez duen abizenarekin literaturatik biziko nintzaken baiño.

Besteak orduan, algara lasai egiñez, txantxa bat izan zala ta ala ez jartzeko esan zidaten. Artan gelditu zan gauza eta ala obe. Gai garrantzitsuekin izandako liskarrak ain ongi zuzendu eta uskeri orregatik bekaiztea, orixe izango zala polita. Baiña ez uste ni txantxetan nenbillenik eta gutxiagorik ere. Erabat erreta jarri nintzan une artan.

Jose de Artetxe zegoen garai artan idazle ospetsua. Neri esan zidanak origatik esan zuen, eta nik artu ere bai. Onen ize-na oso aotan zebillen eta batek pentsa zezaken aren arrimoan plazaratu nintzala. Baiña nik ez neukan ezeren asmorik txikienik ere asi nintzan lanean jarraitzeko. Ala ere, ni orduan

bertsolariei gaiak jartzen-eta zerbait banenbillen, eta alako gertakizun xelebregin batzuk izaten ziran olako lekuetan, maiz gainera. Aietako batzuk tartean zirala lan politak ateratzen zitzaizkidanez, artantxe jarraitu nuen *Urdaneta* izenordea erabiliz, eta gero neure jatorrizko izenez, bietara. Baiña ez naiz inoiz txanpon bat ateratzen saiatu. Uste gutxien nuen aldetik eman zidan neri onura aldizkarietan idazteak. Geroago agertuko dut, ordea, ori nola izan zan.

Beraz, or izan zan nere lenengo *plaza*, eta beti izango dut berarentzat nere ezaguera, eta nere esker ona *Goiz-Argi* izeneko aldizkariarentzat, baita aldizkariarentzat ere.

Ni idazten asi ta bereala eratu zuen ikastaro labur edo *cur-sillo* bat *Goiz-Argi*-n bertakoentzat: bakoitzak bere saillean gaiak nola erabili bear giñun erakutsi zigun oso egoki Andoni Iturria zarauztarrak, bera Madrillen egona baizan *Escuela de Periodismo* dalakoan ikasten, eta periodista ere urte mordoska batean gainera, mutil gaztea zala.

Lenengo asiera ortxe izan zan *Goiz-Argi*-n, aipatu dedan gertakizunagatik, eta Bilbon sortu berria zan *Agur* aldizkarian. Baita *Príncipe de Viana*, *La Voz de España* eta *El Diario Vasco*-n ere. Azkeneko auen euskal orrian idazten nuen. Ondoren, Erreteriko *Oarso*-n urte pare batean eta Lasarteko guraso alkarteko boletinean. Azkenean, *Lasarte-Oria* deritzaion errebistan oraindik ere jarraitzen dut. Urtean bi ale izaten dira; aurten kaleratu da berrogei ta amargarren alea, baiña lau atereaz ere ibillia da bolara batean.

Azkeneko iru auetan, idazlanaren ondoren labur-labur *resumen* bat *La Voz de España* egunkaritik eskatu zidaten, alako laburpentxo bat oso komenigarria zala-ta. Ortik asi nintzan eta ala egiten dut oraindik ere, batez ere *Lasarte-Oria* aldizkarian. Ez derizkiot idazten duenarentzat batere gaizki danik komeni diran gauza danak jakitea; egiaren muiña agertzea,

alegia, nere kasoan gaztelera zakarrean bada ere, baiña guztiak ulertzeko eran.

Ipui bat ere euskeratu nuen, Erreteriko Puri Gutiérrez (g. b.) Michelingo periodista izanak idatzia. Izenburuaz ez naiz oroitzen, baiña umeentzako ipuia zan, eta Ipar-Poloa ta bere inguruko egazti ta animaliekin zer ikusia bazuela uste dut: *morsa*, *pingüino* ta abar.

Gipuzkoako Aldundiak urtero egiten zuen sariketa bat euskeraz baserriari buruz. Nik saiakera bat idatzi nuen, baserrietako lurrak nola erabiltzen ziran eta nola beren kabuz txandakatzen ziran artoa, arbia eta garia ereiñez, sororik alperrik euki gabe, eta batez ere baserrietako mutillak zer nolako irteera zuten eta abar, eta irugarren saria eman zidaten.

Geroztik ere beste saiakera batzuk idatzi nituen ondoren artan. Baiña andik laister utzi egin nion idazteari, era ortako gauzak beintzat, danetara ezin iritxi bainintzan, eta erdizka ibiltzea baiño ohea zala.

Gero, Lasarten egiten dan *Santa Anako parodia* dalako auzi-itxura bat ere egin nuen urte batean. Ernanin *iñesta* deitzen diote. Urtetik urtera beraka zijoala eta berritzea erabaki zuten, eta ortarako gidoi sariketa egin bear zutela. Sari bakarra jarri zuten eun milla pezetakoa. Baiña saria irabazten zuenak *parodia* ortarako pertsonaiak billatu bear zituen. Oiek ziran baldintzak udaletxeak jarritakoak. Neronek ere parte artzea pentsatu nuen, eta merezita edo merezi gabe, baiña neri eman zidaten sari ori, eta ala egin genduen al zanik egokiena.

Erderaz egiten zan, bearko gaiñera, baiña ortan tranpa koxkor bat erabillita. Bazan tartean lekuko bat, garrantzitsua gaiñera, erderaz etzekiena, eta orduan itzultzaillea bear. Ara nola sortu zan, uste dut lenengo aldiz, auzi-itxura orren barruan lenengo alkarrizketa euskeraz, iñor molestatzeko asmo-

rik gabe. Alaxe egin ere, eta oso poliki atera zan. Ez nuen eze-
ren meatxurik jaso ta poz-pozik gelditu nintzan, artan bukatu
zanean.

Santa Ana egunean Lasarten egiten dan auzi-itxura edo *pa-
rodia* orren antzekoa egin zuten Ernanin San Juandik urrengo
igandean *Sagardoaren iñesta*, eta an ausartagoak izan ziran.
An euskera utsean egin zan asi ta bukatu, eta arritzeko gauza:
gaizkille biak gizonezkoak ziran an, eta egin bearrekoak zituz-
ten itzak naiko juxtuan egin zituzten. Baiña gaizki esateko eta
biurrikeriak egiteko, bai, ortarako nai bezela moldatzen ziran.
Gaiñerakoan, ezer askorik etzuten esan bearrik, eta oso txukun
bete zuten ango egin bearra, nere ustez beintzat.

Gaiñerakoak ere oso ondo, epaileagandik asita. Danak on-
do egon ziran, bakoitza bere tokian. Baiña oraindik asko zeu-
kan obetu zitekena, eta ziur nago obetuko zutela. Gogoia ba-
zeukaten ortarako ta ori da gauzarik bearrena. Ori gabe ez
dago ezer.

Emen egin zana gustatu zitzaie la esanez azaldu zitzaizki-
dan gazte batzuk, eta sagardoaren jaialdia egiten zutela ta
emengoaren antzeko auzi-itxura bat ondo etorriko litzaio kela
egiten zitzaion jaialdiari, eta ea gidoi bat egingo nieken. Eman
zizkidaten sagardoari buruzko lege batzuk, obeto esan garai
batean izan zituenak, eta aieri buruz moldatu nuen gidioia. Gi-
doi arekin egin zuten berriz *iñesta* edo dalako ori, eta urrengo
urtean berriz egitekotan banatu giñan. Baiña urrengo urtean,
asi bear zan garaia baiño leen, ni elbarri gelditu nintzan eta ki-
to. Ortan gelditu ziran gure tratuak, ez urruti bizi geralako bai-
ña. Ez dut geroztikako berri ziorrik. Zerbait egin zutela bai;
ala esan zidan beintzat leenengo urtean an zan batek, Donos-
tian ikusita.

Ernaniko udaletxearen aurrez-aurre ospatu zan jaialdia, arra-
tsaldea aurrera zijoala, baiña illuntzera baiño leen. Plaza punta-

raino betea zan dana, mukuru eginda. Bukaeran, emen Oriako *Sorgin-dantza* egiten dan partez, beste dantza xeble bat egin zan. Ondoren, edo aldi berean, obeto esanda, surtan erre zituzten epaitu berri ziran gaizkilleen panpiñak, eta an bukatu zan gure *Sagardoaren Iñesta*. Pena daukat, asmoa zan bezela, urrengo urtean an ez izan bearra. Puntu askotan obetu ziteken eta artu nizkion puntu aiek, nun zer egin ziteken. Asmoa banuen zerbait egiteko, baiña etzan komeniko nunbait eta zer egingo da? Izan nuen tronbosiak ori baiño galera aundiagorik ekarri ez balit, or nunbait nengoke, nagoen baiño obeto, alajaiña.

Duenak duen maillan etsi bear izaten du, eta nik ez dut us-te iñoiz almenik izango nuenik goi-maillako antzerki bat egiteko. Baiña errietako iñesta edo *parodia* edo dana dalako oiek etzidaten bildurrik ematen neri garai artan.

Baiña etzan luzarorako izan bolara ura. Tentsioa beti goian ibiltzen nuen eta gero azkenean egin zidan berea arraio ark; *trombosis* dalakoak, alegia. Egalak moztu zizkidan eta kito nere ilusio danak edo geienak.

Gero, berriz, *Goiz-Argi* illerokoa, frantziskotarren aldizkaria, izatez baserritarrentzat ateratzen zan. Manu Oñatibia al-baitaria ibilli oi zan bere inguruan, batetik. Eta, bestetik, Aita Agirretxek egin izan zion *Atarikoa* uste dut deitzen zitzaiola. Garaian garaiko giroari ongi itsasiriko gaiak erabiltzen zituen, eta oso gogozko zitzaidan oiek irakurtzea. Uste dut *editorial* bezela zirala. Alako itxura zeramaten beintzat.

Aita Garate eta Agustin Miner bien artean eramaten zuten zuzendaritza. Baiña eragille nagusi bezela, orain il berria dan Joxe Murua azaltzen zan billeretan. Geroxeago sartu ziran beste zenbait: Aita Joxe Agustin Orbegozo, gero pasiotarren Aita Nagusia izango zana, ain zuzen; Jesus Gaztañaga apaiza eta abar. Aita Orbegozoren berririk ez dakit, baiña biziko da noski. Gaiñerakoak illak dira (g. b.).

Emen idazten nuela jarri zidaten beste lantegi polit bat neri. Jesus Gaztañagak esan zidan olandar baten eskutitza jaso zuela, berarekin kartak idatziko zituzkela esanez. Baiña berak ezin zezakela iñola, lan asko artua zeukala eta nik erantzun bearko niola. Leenbizikoari berak erantzungo ziola eta nere seiñak bialdu zizkiola. Baiña andik aurrera nere kontu uzten zuela eta abar.

Bolara dexentean idatzi genion alkarri euskeraz, eta poliki moldatzen zala jarri ere bai gure olandesa. Oñatibia anaien metodoa ere biali genion eta arekin aritzen omen zan etxean. Gero ez dakit zer egin zuen. Baiña esperientzi polita izan zan oso. Alkarri itzak trukatzuz idazten genion. Illean bein gutxi gora-beera, urte pare batean jarraitu genion idazteari.

Ondoren, Torontoko Unibertsidadean, galdu-gordean zeuden izkuntzak billatu ta aztertzen ari zan gizon bat urrena, berriz. Apunteak artzen ibiltzen zan, berak esaten zuenez; eta arekin ere saio batzuk egin giñun, leengo itz zarrak edo, obeto esateko, gauzen izen zarrak zirala-ta. Ni gauzez lanean nenbillen eta goizean, lanetik irten ondoren, lo apur bat egin-da joaten nintzan, eta an saiatzen giñan. Manetofonoa mar-txan jartzen zuen, eta gero arek esaten zuenari nik erantzun egin bear.

Gizon onen iritziz, euskera etzegoen il zorian oraindik. Au baiño mailla apalagora jetxita ibillitakoak esaten zuen orain igota zeudela. Jakiña, salbatzailleren bat bidean arkitu zuelako edo multzoren bat alkartu ziralako; baiña orain obeto zijozazela; eta, ikastolekin aurrera jarraitzen bagenduen, aurrera aterako zala. Etzigun poz makala ematen, erasopean geunden bolara zan orduan ere ta.

Geroago, Joxe Mari Gabiria aritu zan gero an lanean, eta illerokoa zana asteroko biurtu zan. Ez dakit zenbat mesede egiña izango zion, baiña andik luzaro baiño len il zan beintzat *Goiz-*

Argi ori, eta antxe asi nintzan prentsan idazten, il aurretik, jakiña, guztiz modu xelebrea gainera, or goragoan diodan bezela.

Tabernan izandako liskar-puntuu batengatik asitako lana zan, itz-lauz gainera, edozein gairi egokitzen zanari, obeto esanda. Ala jarraitu nion bolara batean, eta Aita Onaindia karmeldarrak esan zidan naiz itz-lauz eta naiz bertsoz baiño obeto gelditzen zirela beste era ontan egindakoak: aurrena idaz-laua eta gero bertsoak, bat, bi, iru edo lau. Nere animoak nola zeuden, aien arabera jokatzu egingo nuela kronika. Pentsatzen jarri nintzan eta arrazoi nuela iruditu zitzaidan, orduan zegoen euskal kronistari onenak ere ala egiten zuen eta.

Baiña ura Basarri aundia zan, eta nik zer egin bear nuen? Orta alegiñak egin leenengo eta gero gerokoak. Ala egin izan ditut nik artikuluak, baiña neroni gustorantxoena gelditu izan naizena, bi bertsoekin bukatuta ortxe nunbait da. Laukoa, berri, asko samar dala iruditzen zait.

Nik, zerbait aldatzeagatik, askotan erabili izan ditut sei bertso saillak, baiña gai bereziekin. *Lasarte-Oria* aldizkarian, esate baterako. Baiña or ere, lana erosoena egiteko era, norbera erosoena sentitzen dan ortantxe dago. Bertso pare bat gutxienez eta lau geienez; eta, geiago nai badira, gaia aldatu. Ez da alakorik, nere ustez beintzat.

Goiz-Argi-ri utzi gabe, urrengo idatzi nuena Bilboko *Agur* as-tekaria izan zan. Onak ere joanari berdintsua izan zuen. Josu Arenaza zan ango buru-itxuran agertzen zana. Ezin dezaket esan argitaratzen ziran saillak, eta ez nolaz asia zan. Eskatu egin zidaten eta nik bialdu egiten nituen lanak. Aiek oso txintxo argitaratzen zizkidaten nik bialdutakoak. Bertsoak ere bazirala uste dut, baiña orain ez dut bat bakarrik arkitzen, ez txarrik eta ez onik.

Bertsolari-eguna ospatzen zan Markiñan, Urrillaren 12-an, Pillareko Ama Birjiñaren egunean, eta uste dut an aipatu zala leenbizi bertsolarien izeneko orri bat bear zitekela Euskal

Errian. Aldizkari bat baiño geiago aipatu ziran an; baiña etziran ados jarri eta andik laister, ikastoletako ordezkariak bilduta geundela, Loiolan azaldu zan Hernandorena jauna: bakoi-tzak zeukan idazkera errespetatuko zala eta Iruñako *Príncipe de Viana* illeroko aldizkariaren barrenean, *Bertsolaria* izenarekin, argitaratuko zala. Artu zizkiguten an bertan izenak, eta guk Aita Onaindiari bialtzeko Zornotzara. Ortan gelditu giñan eta ala bialdu ere egin giñun, baiña toki ederrean!

Dana atxez beteta azaldu zan, artean nola baturik etzegoen. Egitazko baturik esan nai dut. Berebiziko anabasa an agertu zan. Nik orduan Aita Onaindiari idatzi nion –naiko gogor, tamalez aitortzen dut– eta onek gozo-gozo erantzun zidan bera etzala izan ortan eskua sartu zuena, eta barkatzeko., baiña arren ez uzteko idazteari esanez.

Andik laister idatzi zidan Díaz de Ulzurrun jaunak Iruñatik: bera izandu zala arduradun bezela lan ori egin zuena; baiña arek etzekiela ezer Loiolan artutako erabakien berririk: ari Hernandorenak esan ziola Aita Onaindiak bialtzen zizkionekin ea zerbait lortu ote zezaken; oso pozik gelditu zala artu zuen materialarekin, eta obeto bearrez sartu zizkiola atxe oiek, berdiñago agertzearren.

Dana dala, lau auetatik –Ulzurrun, A. Onaindia, Hernandorena eta ni–, bik beintzat gaizki jokatu genduen. Garbi aitortuko dut bat neroni izan nintzala. Noren errua zan jakiteko astirik gabe nere asarrea adierazi nion, ez oso legun gaiñera, Aita Onaindiari. Bestea Hernandorena, Loiolan artutako erabakia zakurraren ipurdira bota eta iñor engaiñatzen ibilli zalako. Nik aitortzen dut nerea.

Aita Onaindia agertzen da ezeren erru gabea eta, iñori errurik bota gabe, geroko pakea ekarri nairik lanean. Erru aundirik gabe azaltzen da, gutxienaz, Diaz de Ulzurrun jauna, izan zan okerraren jabe bera egiñez, eta etzala berriz alakorik gertatuko

ziurtasuna emanaz. Eta etzan gertatu ere egin. Aldizkaria itxi zan arte guztian jarraitu nion nik idazten, eta beti errespetatu zidaten idatzitakoa, idatzi bezela. Geroztik ez dut arremarik izan Ulzurrun jaun onekin, eta Hernandorenarekin gutxi.

Aita Onaindia, berriz, lagun aundia ta ona izan nuen, batez ere Elzo Azpiazuren lanak biltzen ibilli nintzan garaian. Argibide apur bat inñundik izan baldin banuen, au Aita Onaindia bera izan zan. Leenengo aztarranak berak eman zizkidan, eta azkenerako lan guztiak biltzera iritxi nintzan. Orain ortxe daude inñork argitaratu nai izan ezkeru. Baita bere ipui batetik artuta egindako antzerki labur bat ere, bertsoz alkarri berriak sarri bialtzen zizkioten neska-mutillekin tajutua eta bertso-eskoletan dabilzan gazteentzako aproposa izan ditekena, gaiñera, nere uste apalean.

Emen aotan erabili ditugun pertsonaietatik bi beintzat illak dira: Aita Onaindia eta Hernandorena (g. b.). Diaz de Ulzurrun jaunaren berririk ez dut izan¹, eta neroni oraindik bizi naizela uste dut... Oietxek izan ziran nere leenengo leioak idazten asi nintzanean, eta ondoren etorri ziran besteak: *La Voz de España*, *El Diario Vasco* eta abar.

Geroago, berriz, Erreteriko *Orereta*, *Lasarte-Oria* eta abar, eta oiek danak baiño garrantzi geiago daukana, ta askoz ta askoz gaiñera. *Michelin* lantokian izandu nituen azken urte bikaiñak eta bukaera zorionsua ere orri zor dizkiot. Oso gaitza izango baizan nere euskeraz idazteko almen apurratzaz inñor konturatzea, eta nere ainbeste urtean serbitu nuan *Michelin*-en naiko lanak neuzkan. Une artako benetako salbamena izan nuela aitortu bearrean nago, bestek esatea baiño ohea izango da noski ta.

Naikoa lanetan nenbillen garaian etorri zitzaizkidan *Jurado de Empresa* dalakoaren agiriak euskeratuko al nituen galdezka, eta etzidaten poz makala eman. Zalantzan egon gabe

1 Bera ere geroztik illa.

eman nien baiezkoa ta bereala asi nintzan itzulpenak egiten. Aurrenetik danen gustora, gaiñera. Baiña etzan oso luzarorako izan poz ura. Nik, oitura dutan bezela, gure euskera zarrean itzultzen nituen, eta *berrian* bear omen zituzten. Luis Mari Mujikaren iztegia artu ta aren arabera *bear* zituen atxeak ezarri nizekion. Neronek naiko *asesino* nabaitzen nuen neure burua leenbiziko aldiz; baiña kontzientziko zamarik ez nuen sentitzen eta kontentu orrekin.

Baiña etzuten etsi nere aurka zebiltzanak. Ezin eraman zuten ni goikoeak ontzat edukitzerik. Asi zitzaizkidan zuzendaritzatik zetozkidan paperak berandu ematen, eta gero ezin garaiz eraman itzulpenak. Leenbiziko kexua etortzen zanean botako niela arpegira pentsatuz nengoen garaian izan zan, ain zuzen, leenbiziko aldia ta azkenekoa, Jainkoari eskerrak; eta nik esan nion neri zuzenean bialtzea eskertuko niekela. Baiña geroago kontatuko ditugu gora-beera auek, eta goazen aurrera.

Andik aurrerakoan bildurrik gabe jarraitu nion prentsan idazteari, eta berdin lantokiko itzulpenak egiteari ere. Euskerazko klaseak ere eman nituen negu partean, eguna laburra eta gau luzea diran garaietan.

Egia esan, lantegi onek etzidan dirurik eman; baiña eza-guera bai leku askotan, eta ori neretzat garai artan garrantzi aundiko gauza izan zan. Orduantxe ziran gure denboran eza-gutu diran gora-beerarik aundienak. Gerra zibilla ezkeroztik ez da alakorik ezagutu, ez eta urremanik ere. Orduan etorri baiziran Francoren eriotza, nolabaiteko transformazioa eta ondorengo saltsa guztiak. Ortan danok geunden, berriz, era batera edo bestera saltsa orren barrenean. Danok gendukan zer ikusia egunero gertatzen zanarekin, eta etzitzaizkidan oar-kabea igaro gora-beera aiek guztiak.

Guk, egia esateko, ez genduen gauza aundirik egingo. Geure euskal kultura gaixo au ain galzorian ezagutu genduen

ainbeste urtetan. Ortxe izandu zan gure zeregiña, al zan neurrian, geure eguneroko lanaz. Ortxe egin nuen nik nere alegintxoak: ikastola sortzen lagundu, legepean jartzen, eta gero gure ikastolak beren udaleku propioak izan zitzaizen ere alegindu nintzan, eta urte batzuetan izatea lortu ere egin genduen. Baiña gure alegiña etzan naikoa izan. Urterik estuenak zeuden bitartean iraun genduen orren pozean aurrera. Dana ezin danean al dana lortuta ere utsa baiño geiago dala esan izan ziguten guri, eta egiña bale dala esango nuke nik ere, Orion esaten zan bezela.

Ortan joan da gure aldia. Euskera eta euskal kultura txusper aldian ezagutu genduen. Baiña ondorengo gerra zibillak eta frankismo zorigaiztokoak erabat ondoak jota utzia zeukaten, eta kosta egin zan, gaiñera, gora astea.

Eskerrak Elbira Zipitria eta aren antzeko batzuek erabat etsi etzutenari. Berriz lanean asteko garaian gaia jarria arkitu genduen. Ala ere, asko kosta zan; eta ura, besteak bezela, lo egon izan baldin balitz, zer izango ote zan emen?

Urte gogorrak izan ziran aiek euskerarentzat. Ortxe, 1966-76 inguru artan, eskolak egiten ari ziran erruz bolara artan. Urte askoan bat ere egin gabe egon eta gero *Educación General Básica* (E. G. B.) dalako Villar Palasí-ren *plan* orokorra, bazirudien gure ikastolei atera zezaioken etsairik gogorrena atera zitzaiola; ainbeste urtean eskolarik egin gabe egon ondoren, ikastolen aurka sortu zutela. Ura zan egin bearra ura!

Danei aurre egin bear izan genien bolara batean. Baiña andik laister izan zan aldaketa. Zentzu gabeko eskola egin bearrrak almen geiago izan zuen planifikazio jator bat egiteak baiño. Ortan ikastolak garaile atera ziran, beste eskola *nazionalak* esaten zitzaizen oietatik, eta ikastolak leku gabe eta nazionaletan soberan jarri ziran gauzak; eta, soka-tira apur baten ondoren, uztera etorri ziran alperrik gelditzen zitzaizkio-

tenak, eta bedeinkatua izan dedilla Jainkoa! Oraindik ortan jarraitzen dute, ta jarraituko ere, gaiñera, Eusko Jaurlaritzak or jarraitzen duen bitartean.

Ordu onean iritxi ziran ere Eusko Jaurlaritza eta bere Eziketako Kontseilaritza, besteei utsik gelditutako eskolak ikas-tolentzat uzteko besterik ez bada ere. Baiña ori gertatuko bazan, aurretik zerbait gertatzen ari zan itxura. Besteak baiño obeto lan egiten zuten ezaugarri oberik ezin arkitu iñola.

Zalantzarik txikienik ere ez daukat Euskal Errian izan dan ekintzarik aundienetako bat ikastolen sorrera izan dala. Orain ez dakit nik republikaren garaiko *Escuelas Rurales* zeritzaaien aiek zenbateraiñoko zer ikusia eduki zezaketen oraingo ikas-tolekin. Etziran izango elburu berdiñarekin sortuak; baiña nik badauzkat nere zalantzak jatorriz berdin samarrak ote ziran. Aiek gerora beste sareak irentsi zituen. Oraingoa batekoz bestera ari da gertatzen. Baiña ez al da gobernuaren aldaketa aundiagoa izan, guk pentsatzen duguna baiño? Zati aundi batean bai ori ere, nere ustez.

Beste atal batean zeazten ditut gaurko ikastolen gora-beera nagusienak. Lasarten gertatu ziranak gertatu ziran bezela, eta beste lekuetan ere antzera samar ibilliko ziran noski, toki batzuetan suerte geixeagorekin eta bestetan gutxiagorekin. Tokia arkitzeko kontuarekin esan nai nuke. Baiña danok naiko larri. Bakoitza bere tokian naikoa lanakin ibiltzen giñan garai artan.

Nork esan zezaken, orain berrogeitamar urte, euskerazko filolojia ikastera Gasteiza joan bearco zutela gure billobak? Ba, alaxen da. Eta beste gauza asko, iñork pentsatzen etzituena, orrela jarri dira, eta aurrera egin bearra dago emen, nai bada ta ez bada. Gauza bat badauka ona onek: ikasi nai duena edo al duenak, geure erkide koxkor ontatik irten gabe egin dezakela aukera, eta aukera gauza ederra da gauza guztietarako, eta zer esanik ez ikasteko baldin bada.

Gu sasoirik onenean giñala, oker aundi gabe, izan zan Gipuzkoan gobernadore zibil bat, ni oso oker ez banago Barón de Benasque zeritzaiona, probintzi osoa goseak amorratzen eduki arazi zuena. Baliteke goikoen ordenak alaxe izatea. Baiña Naparroan ogia nai aiñean zerabilkiten bitartean, emen zorrigaiztoko *estraperloa* ezarri; eta jende guztia lapurretan bezela ibiltzen zan, ixilka-mixilka doblea baiño geiago ordaindu ta gero. Noizean beinka arrapatzen zituzten, eta orduan egurra bizkarretik. Eta ori inguruko errietan; barren aldean ori ere ez.

Orain daukagun aukera ta ugaritasuna ikusi eta orduko mi-xeria ikusi, ezin diteke esan leku berean gaudenik ere. Ainfesteraiñokoa da aldea. Askok ez du sinistu ere egingo. Baiña nik eta beste askok, probatu genduen jendeak, esango du gauza batzuk bakarrik aipatzen ditudala. Aundiagoak ere baziran orduan gertatuak, eta ez noiz beinka. Eguna joan eta eguna etorri, ainbeste urtean zigor berdiña jasotzen jarraitu bear izan genduen. Baiña orain, Jaunari eskerrak, urte politak ezagutze-ko zoria izan degu.

Lasartera etorri ziran napar batzuk, bi koiñadu zirala uste dut, eta taberna jarri zuten, *Bar la Ceba* izenekoa ain zuzen; eta ondoren Añorgan ardotegi edo almazen bat. An saltzen zituzten Naparroatik ekarritako gauza asko. Nik neronek ere erosi izandu nituen babatxikia eta orrelako gauzak, eta arriturik zeuden emen zegoen gabezia ikaragarriarekin, eta geiago oraindik ainbesteraiño galerazita egotearekin. Etzan, izan ere, gutxiagotarako-ta.

Orregatik diot Barón de Benasque dalako arek goitikako ordenak izango zituela; baiña ondo bete zituela, arraioak ez baidu. Erriari gosea pasatu arazteko trikimailluak. Errialde batean zillegi zan gauza bestean arrunt debekatua jarri ta bere artan mantentzen eutsi, eta orrekin gosea ezarria. Len ez naiz esaten ausartu, baiña esan bearra dago: orain gerri-jira galantarekin gabiltzan arren, ederki sartuta ibilliak gera zilbor alde au.

Esan bearreko guztiak ez dut uste esanak daudenik, eta badijoa au ere: aspaldian dijoan martxan jarraitzen badu Euskal Errian jaiotza-tasak, luzaro baiño len egun beltzak ezagutu bearko ditugula uste dut; eta ez dut esaten esatearren, biotzetik baizik.

Guk ontaz aurrera gauza aundirik ezagutzea oso gaitz izango da. Baiña bizi danak ezagutuko du, laister gaiñera, kaiola utsa ugari. Len baserriekin gertatu dana, ta gertatu bear duena gaiñera: jenderik ez dagoelako ustutzen etxeak. Zer nai duzu gauza mingarriagorik?

Ortan ere errua gobernuari jaurtitzera noa gaiñera, bera dalako gauza au konpondu lezaken bakarra, gaiñerakoak konpontzen ari dan bezela. Barkatu, baiña ala da. Gaurko bizi-modu-nibel au daukagun tokiraiño jasotzen baiño gaitzagoa ez liteke izan agian oraindik. Baiña bide ori darama eta kontuz ortantxe, goraka goazelakoan, uste gabe koxkatik pasa ta gero egiten dan eroriak min gogorra egin lezake ta

Bikote asko dira gaur aur bat besterik gabe gelditzen diranak, ta ez oso gutxi batere gabe gelditzen diranak. Oso konta alak dira bitik gora dijoaztenak, eta atera kontuak nola joango diran gauzak alde ontatik. Naiz badirudien erriak onartzen duela, dakarren ondorena ez da berriketakoa izango.

Konta ditzagun ezkondu gabe gelditzen diranak, eta *suma y sigue*. Goazen aurrera ta orain danon aotan dabillan *travesti* edo *homosexual* jende orren ezkontzeko legea aurrera ateratzen bada, atarialde ederra ikusi bearrean gaude.

Senar-emazteak biak lanean dabiltzala, ikusia dago zailtasun aundiak dauzkala gaur, batez ere amak, umeak aurrera ateratzeko garaian. Nekezenera bederatzietarako lanera joan bear eta aurrak nori utzirik ez. Ezkondu ordurako *independiente* jarri bear izaten dute, eta gero atarramentu txarra sarritan ikusten zaiote andre gazte askori, bere aurra artu eta bere

amaren etxera, ura ere lanean ez bada. Naiko ibillera errukarria da ori ere, baiña badaude beste bide batzuk, ori baiño ego-kiagoak, jarri litezkenak.

Nik dei auxe egingo nioke Eusko Jaurlaritzari: lenbailen egin dezala plan jator bat, nola egin diteken ikusteko. Merezi duela uste dut. Bikote bakoitzak, diru aldetik galera aundirik gabe, iru-bat aur ekartzeko bidean jartzen ez badira gauzak, sakrifizio berezirik gabe, gizaldi onen erdira baiño len damutuko da erria, eta erruduna ez dut zalantzarik Eusko Jaurlaritzaz izango dala. Barkatu, Ibarretxe jauna, baiña nik ala esaten dizut ala uste dutalako. Eta, bestela, geroak esango du, ezer egiterik ez dagoenean.

Zer egin bear du Eusko Jaurlaritzak? Lenengo, planifikazio sakon eta jator bat zer egin eta zer kostako dan jakiteko; eta ondoren sindikatuekin tratatu, al danik galerarik gutxiena izan dedin langillediarentzat. Baiña galdu bear dana galtzeko gertu egon bear lukete sindikatuak ere. Nik sinismenik gutxiena aiekin daukat orain ere, lendik bildurtua nagoelako; eta ziur nago orain ere oztoporik txarrenak aiengandik izan baietz.

Erraztasun bat, beintzat, eman bearrekoa. Auxe da nere iriztirako: bigarren aurretik asita, amak berak illabete batzuk –ez dut esango zenbat– bear lituzkela jai, izandako aurrarekin zerbait gozatu dezan.

Gero, aurtzaindegiak, al bada, egokieran jartzea izango litzake, baiña aurreneko illabete batzuk amarekin pasata gero. Aurra izatean, lendik dauzkan illabeteak, bigarrengotik bikoiztu eta irugarrengotik irukoiztu edo olakoren bat? Gutxi gora-bera zerbait botatzearren jartzen dut au, baiña Jaurlaritzak egingo luken ikerketak adieraziko luke ori obeto.

Gauza bat nai nuke adierazi: desastre aundi baten atarian gaudenez, guztioi dagokigula ori nozitzea; eta, guztiok or-

daindu bearrekoa danez, zer egokiago izango litzake bakoi-tzari apur bana kentzea baiño? Ez sobran daukadalako; baiña neri tokatzen zaidana kentzea, bale.

Ziur nago danon oso *kanon* txikiarekin egingo litzakela onura izugarria; eta zer penagarria dan uskeri batekin normalizatu litekena era ortan joatea! Denbora aurrera dijoa, baiña iñork ezertarako ez du aipatzen. A, ori bai: txiste apaiñak egiteko erabilli ta algara lasai egin eta kito. Askorentzat edo geientzat orixen da arazoa.

Ekarriko du orrek ere bere geroa, eta garratza gaiñera. Baiña nekezegi izaten ez bada, ondo. Gaiñera, bada naiko lan. Ura joanda gero egiten dan presa, malkoz bete bear izaten omen du; eta bildur naiz alakoren bat ez ote duen gertatu bear gure artean, dijoan martxa nolakoa dan ikusita.

Lengoa geiegizkoa zan, baiña oraingo eskasi onek ere gauzak ez ditu bete tokian ipiñiko. Oraingo itxuraz, nai bada ta ez bada, neurriak artzera beartuko da gure erria, eta gurearen antzeko asko izango dira, noski, eta or izango dirala derizkiot kixkibiurrak.

Baiña ikerketa ori ez dedilla izan iñor iruzurtzekoa, baik-eta bikoteak bat edo bi aur izanda bezain bizimodu eroso eramateko bidea izan dezatela iru izanda, edozein aldetatik begiratuta ere. Eta aurtzaindegiak izan bear dute erri bakoi-tzean, al dan egokienak. Amak aurrak ara eramateko ere ordutegi toleratua izan bear luke goizean; eta gaez joan bearra duten emakumeak ere egon bear luke lantokian bertan-edo, geienak gaixotegietan edo orrela izaten dira eta.

Oiek danak egin al izateko, kontratu global bat bearrezkoa litzake, eta Jaurlaritzak egingo luken ikerketan eman bear luke ori nundik atera bear dan. Emakume ta gizonezko danen arteko dirutza bearke da; enpresariorena ere bai. Berrikuntza aundia izango litzakela derizkiot, eta danontzako onerakoa

gaiñera. Baiña, edozein aldetara ere, sindikatuekin ere kontaktu bearreko gauza dala derizkiot. Ziur nago etsairik txarrenak berak izango dirala, ez ala bear luketelako. Baiña olakoa da emengo sindikalismoa, ta gauden egunaren zai.

“Ez ala bear luketelako baiña” diot, eta alaxen da. Gaiñera, sindikatuak aspalditik konturatuak egon bear zuten, eta konturatuak daudela ez daukat zalantzarik. Baiña orixe baiño aurreragoko gauzarik badagoela usteko dute edo esango dute. Ori berai dijoakiena ez balitz bezela itzegingo dute, baiña ez da egia. Danori dagokigun gauza danez, berak ere berdin arrapatzen ditu arazoak, lentxeago edo geroxeago. Iñor ez gaude ortatik libre, ez-ta gutxiagorik ere.

Gero or dago eskola-garaia, eta or ere bear luke laguntza berezia, era batera edo bestera, baiña zerbait berezia beintzat, batez ere irugarren aurra sendiaren zigorra izan ez dedin iñungo aldetik. Baiña bide batez ez dedilla izan *erri-umea* alde on guztiakin, baizik irurentzat berdin izan ditezela alderdi onak eta txarrak. Ez dut uste baldarkeri izugarria izango litzakenik, orain gauzak gertatzen ari diran bezela ikusita, nai dan izenarekin, baiña zerbaiten geigarria ezartzea, oso egokia baizik, gutxienez irugarrenaren aurretik, bestela ez litzake iñor artaratuko ta. Gauza ekilibriatuagoa izan dedin, ez uste iñori irabaziak emategatik danik. Naiko lan izango da, ala ere, “etxe-ko pasadizoa egiteko ainbeste” aur ekartzen; eta zer gutxiago nai lezake erriaren etorkizunaz arduratzen dan gizarte batek, orain daramagun martxa ikusita?

Norberak atera bitza kontuak nola goazen eta nola bear luke norbere erriaren or nunbaiteko bearrak eta berdintasunari eutsitzeko, eta ikusiko du oso oker goazela. Zuzentzeko zerbaiten premian gerala ere bai, eta zer egin ori ezean?

Ez al derizkiozu ala, irakurle? Badakit utopiak diruditela eta iñork ez diola jaramonik egingo. Baiña, gauzak daraman

joan-ariari jarraituz, urte asko baiño len norbait jabetuko da –ez noski gure kontuetzaz oroituta, auek bereala aztuko bai-dira–, baiña gauza gaizki dijoala dagoeneko jende asko konturatzen da. Ala ere, soluzioa izan diteken bezelakorik ezer ez diot iñori entzun. Txantxak bai ugari, baiña aztuko zaizkigu ederki asko gaurko txantxak, *txinitoak* etxez etxe jartzen zaizkigunetik aurrera, edo jartzen zaizkienetik. Itxaron, itxaron apur bat oraindik, gero da biar eta. Ni zarregia naiz etorkizuneko gauza asko ezagutzeko, baiña iru bat urte badira idatzi nuela *Lasarte-Oria* aldizkarian gauza oni buruz, itz lauz len-bizi eta lau bertso gero. Naiko adierazgarriak dira, baiña illu-negiak noski jendea konturatzeko.

Gaur idazten ari naizenak ez du izango ulertu eziñik, baiña aitzakirik gabekoa ez da izango. “Gogozko bidean aldaparik ez” esaera dan bezela, “gogozko ez dan bidean dana alda-pa” esango nuke nik.

Ara lau bertso aietatik bat emen, *Limosnatxo bat* doiñuan kantatzeko:

Umeak gauza politak dira,
ez diot ezetzik orri,
baiñan azteko nekeagatik
iñork ez du nai ekarri.
Zer ondorenak datozen ortik
arren pentsatutzen jarri:
aitona eta amona ugari,
neska-mutikoa urri,
momenturako lasaitasuna,
gerorako negargarri.

Orra zer ondoren datorkigun bide ontatik jarraituta: negargarria. Orixe aundiaren esana datorkit burura orain:

Geroak esan beza
erri bat izan zan,
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan.

Orain izkuntza bakarrik ez da arrixkuan dagoena, baizik enda edo arraza bat ere bai, eta orretzek ematen dit naigaberik aundiena. Izkuntza len ere borrokatu berria dugu, eta oraindikan ere badira naiko kontuak emen. Baiña okerragoa izango litzake arrazarena eta kontuz ibilli. Laister mugitzen ez bagera, zulo aundi samarra egitea ere litekena da, eta asko moduzko zuloak egin ezkeru, umea aurrena ta ondoren zer nolako trailla etorriko litzaken ere ikusteko dago.

Ez nuke pentsatu ere nai emen zer edo nolako atarialdea izango litzaken, ia etxeoro txinitoak edo beste nun-naikoak izanda ere. Baiña gaur-gaurkotz erreztasunik aundienak andik daudela diote, eta aruntz begira dago jendea. Zer nai duzu?

Danetara gaizki datorren gaitzik ez omen da izaten, eta orduantxe etorriko dira tamaiñara gure sudurrak eta gure belarriak. Euskaldun sudur aundia, naiz belarri aundiak izateko orde, zer izango ote dira ordukoak?

Urte gutxi barru asi bearra daukate, nere ustez, politikariak ontan eskua sartzen, ez noski zeiniek zer egin bear duen esaten, baiña bai egin nai duenarentzat sari onak ezarriz. Lana egiten duenak nai izaten duen bezela, ondo ordaindu bearreko gauza dala derizkiot gaur familira aurrak ekartzea. Ezer baldin bada mundu ontan duintasuna merezi duenik, amatasuna jarriko nuke nik gauza guztien gaiñetik.

Ama, aoa bete-beteko itz ederra, mito biurtu ote zaigu, ba, gure erri maite ontan, aurrak azitzeko zailtasunengatik? Ala ebitatzeko erreztasunagatik ote?

Larri ibilli oraingo martxan. Baiña zentzuak bere tokia artuko al du ortara iritxi baiño len, eta gauzak beren tokian ezarriko al ditu, “erri bat izan zan” esatera iritxi baiño len. Baiña “gaitz aundiei sendagai aundiak” esaera bada eta emen ere olakoren bat izan bearko du, nere ustez.

Gauza negargarria ez danik ez esan, adibidez, erri koskor batean bertako mutil edo nesken erdia inguru azitzeko ekarritako aurrak dirala; eta, aurrera ere ortan jarraitu nai badute, zer anabasa izango litzaken. Zer maitasun eta zer demonio izan bear dute aiek, gauzaren motiboa jakiten dutenetik aurrera?

Pentsatzen jartze utsak ere otzikara ematen dit, eta ezin zait buruan sartu nola izan liteken gauza ori. Baiña ortara goaz oraingo itxuraz, laister gaiñera. Ala ere, asiera ez dut uste egun batetik bestera etorria danik. Lenbizi, erlijioaren krisia sortu zan; urrena, kristau-ikasbidea irakasteari uko eginda gero, jaiotze-tasa murriztu. Ori da joan-aria Euskadin eraman zuena, eta ikastolak etziran atzean gelditu gauza ortan.

Nik oraindik ere ezin dut sinetsi nola erori gindezken ortaraiño. Baiña ukatu ezin ditekena bide ori daramagula. Urte-tik urtera jaiotze-tasa geroz ta murriztagoa dijoan bitarte, zailantzarik gabe ortara garamatza.

Neri bildur latza demaidate kontu oiek. Ezin jasan dut erriaren lasaitasun au zertan bukatu bear ote duen, Baiña bete dedilla Jaunaren naia.

Ikusiko balitzaio irteeraren bat zerbaitetan... Baiña nik, beintzat, ain zailla ikusten dut, badirudi ondoa jo bear duela arazo orrek. Ori bai: lentxeago edo geroxeago eldu bearko zaio zezenari adarretatik, eta ez dut uste orain baiño samurragoa izango danik. Zenbat eta denbora geiago igarotzen duen, orduan eta zulo aundiagoa izango baidu arazoak, eta geroz ta zaillagoa konpontzeko.

Or gelditzen da, geroak erantzun dezan.

Bertsoak eta bertsolariak

Diktaduraren azken aldera berebiziko bolara izan zan politikaz itzegiteko. Naiz galerazita egon, orduan etzan bertso-saiorik politikaz zerbait itzegiten ez bazan. Baiña galga arzen jakiteak asko esan nai du, eta or izaten ziran komeriak. Galga artu ezkerro, lasai ibilli ziteken orduan ere.

Gai jartzen ibilli nintzan garaian, bein ere ez nintzan ausartu gai bat ematen lenagotik neronek alde bat baiño geiagotatik erantzun gabe. Etzitzaidan bidezkoa iruditzen norberak askatu ezin duen korapillorik besteri askatu zezan ematea. Ori jakiñaren gaiñean lotsagarrikeria egitera bultzatzea zala pentsatzen nuen, naiz ondo nekien arren nik baiño milla aldiz errezagot irten zezaketela egoera zailletik.

Askotan esan izan dut nik gai-jartzailleak ez duela egiten bertsolaria; baiña bai egiten ari dana desegin dezakela, plazan une txar bat pasa arazita. Ori ala dala ziur nago. Badaukat alako zerbait neuri gertatua ain zuzen, eta ez dut eman nai beste ezaugarririk gai ontaz. Berrogei ta amabost urte dira oraintxe (1948) eta gaur goizeko kontua balitz bezelaxe gogoratzen naiz oraindik; eta ori, plazan etzalarik izan.

Betiko nere ametsa izan da bertsolari gazteei, ala ain gazteak ez izanik ere bigarren maillako bezela ezagutzen diranei, sarrrera ematea bertsolarien saillean, ukatu ezin ditekenez gauza dala iruditzen zaidalako. Baiña urte batzuk izan ziran gure egunetan, batzuentzat oso onak eta beste zenbaitentzat ez ain onak, oso txarrak ez esateagatik. Jendea naiko gaizki oitua zegoen, bertsolariak egun guztian –eguna ta gaua ere ez oso gutxitan– kantuan pasa araziz, eta gizon auen borondate ona askoren gozamenerako erabilliz. Ori moztutzea bearrezkoa zan, eta ortan ados nago.

Oso ondo derizkiot orri neurriak artzea: egun guztirako izan bearrean, saio bakoitzerako kontratua izatea. Ondo iruditzen etzitzaidana zan, bertsolari batzuek goiz ta arratsalde trukurik, plazarik geienak berak egitea. Ez guztia bertsolarien erruagatik; erriaren itxumenagatik ere bai, beste ainbeste an baztarrean utziz. Orixe zan bertsolari gazteak edo ala deitzen zaioten oiek ateratzen alegintzeko indarra ematen zidana; eta ez daukat egiñaren damurik. Naiz ainbesteraiñoko popularra ez izan, arrazoi noblearen egindakoaz iñoiz ezin diteke gizonik damutu.

Batzuek besteak baiño zerbait geiago kobratzearekin ixiltzen naiz, eta bidezkoa derizkiot gaiñera. Baiña beste ori ez; ori ezin jasan nuen bein ere. Bertsolari batzuk bi ta iru erritan zear ibiltzea, barkatu baiña nik ez dut onartzen joera au. Bearbada etziteken bertsolarien errua izan; tarteko *listoren* batena agian. Baiña pasa zan, beintzat, eta ez dedilla etorri alakorik.

Zarauzko Lizardi sarian ainbeste aldiz eratzaille eta zuzendari izan bainintzan, bat etxera etorri zitzaidan laguntza bearrean zirala esanez; eta orrekin naikoa izan zan ni lanean aste-ko. Betiko nere akatsik nagusienetakoa izan da ezetz esaten ez jakitea; eta, aurretik jarriarik zeuden araei jarraituz, bost urtez uste dut eratu genduen, eta zer egingo da? Danak saio onak etzirala atera? Ori eziñezkoa da. Eskandalorik ez genduen beintzat jarri. Iñori kalte aundirik egin genionik ez dut uste.

Lizarditarrak, Zarauzko taldetxo batek, Jose Maria Agirre *Lizardi* olerkariaren omenez pentsatua izan bear zuten bertso-saio ori jartzea. Lenengo urtean enintzan izan, baiña bigarren urterako etorri ziran neregana. Alaxe asi nintzan, eta jarraitu nion bost urtean.

Orotara jota, ez nuen arrazoi txarrik jaso bertsolari gazte-engandik, eta ikusten zan gogoarekin zeudela kantatzeko. Baiña bazeuden etsita edo atera nai etzutenak ere. Orokorrean

zaletasuna bazegoela antzematen zan. Baiña irtera gutxi zegoela eta etsia asko zegoen.

Bertsolari bat urte batean izan zan eta bigarreneko esan nion. Gorakada apur bat egiña zuen tarte ortan eta, orrekin poztuta nunbait, begira zer esan zidan:

–Zer irabaziko dut nik Zarautza joanarekin, irabazita ere? Eta galdu, berriz, asko, aurrena atera ezean!

–Ondo zegok. Nik ezin diat, bada, ziurtatu irabaziko dukanik. Ori epai-maiak esan bear dik. Oraindik etzekiat nork osatuko duten, eta ez adi etorri. Orrela pentsatzen baduk, ohea duk askoz ere, eta moldatuko gaituk nolabait. Pentsakera ortako gizonik ez etortzea naiago diat askoz.

Alaxen da, izan ere. Zer arraio gero! Zer galdu lezake, bada, bertsolari batek, nun eta arrunt konsagratua ez dagoen, txapelketa batean bere kide inguruko lagunekin kantatu eta ez irabaztearekin?

–Ainbesteko zer galdua baldin badaukak, joan eta erakutsi zak. Bestela, egun ortan ezin dukela esan eta egiña zegok dana.

Bakoitzak bere iritzia du, eta zer egingo da? Baiña etzait jokabide egokia danik iruditzen bertsolari gazte batentzat. Gero ere zerbait izango du gaztetan orrela danak, eta denborak erakutsiko du bere izaeraren berri. Ori bezelakorik ez dago gauzak argitzeko.

Bertsolari-txapelketak jartzen ziran an eta emen. Baiña egun bateko kontua izaten da ori, eta gaitza da oso egun batetik bestera bertsolaria ateratzea ezerezetik. Noizean beingo jardunaldiak txuspertu lezaken bezela, bi urteren tartearekin kantatzeak ez dio ematen aurrera egiteko egokiera aundirik. Sagardotegiak itxiak zeuden, geienak beintzat, eta tabernetan etzegoen kantatzeko girorik. Lur jotzera zijoala zirudien bertsolaritza, eta orren aurka borrokatzea zan elburu bakarra ber-

tsoa maite genduenontzat. Era batean edo bestean, baiña kanta zezatela zeukaten abileziarekin; eta, leku guztietan bezela, batzuk aurrera joango ziran, eta besteak bidean gelditu ta aurrera.

Gauzak bere aitorpena bear duenez, esan dezagun etzegoela erriko jaietan bertsolaririk gabeko festarik. Nere ustez, erriak, orokorrean artuta, oraindik asko maite zituen bertsolariak. Baiña ortarako naikoa ziran sei bikote Euskal Erri guztirako. Oitura zan bezela, meza nagusi ondoreneko saioa egin, beste erri batera joan eta an arratsaldean beste saio bat egin, bi jornal kobratu eta etxera. Oso ondo zijoan, baiña geroak ere bizi bear du. Nola, ordea, era ortatik jarraipenik ez badator?

Igande-eguerdian saioa egin eta gero bazkaria. Bazkalondoan saio bat egitea gustatzen zan, askotan arratsaldeko saiora artekoa gaiñera. Erri koskorretan trikitalari, panderojole eta erriko bertsozale purrukatuenekin batean antxe jardun araztea izaten zuten beren atsegin guztia; ta askotan gero illunabarrean ere egitea nai izaten zuten tabernan. Bitartean etzitzaien ordaintzen. Esan ziteken bertsolariak berenak zituztela bein jouten ziranetik illunabarrera arte, eta urrengo egunera arte ere ez oso gutxitan; eta, garbi esateko, ori geiegi zan.

Garai batean beren kabuz ibiltzeko egokierarik etzuten, edo ez genduen izaten; eta orduan jakiña zan. Bertsolariak eramaterako bazekiten an zer zeukaten. Ostaturen batekoekin itzeginda edo abar, moldatzen ziran aien goraberak; eta gero, ibiltzeko kontu ori moldatu zutenean ere, berdin jarraitzen zuten tokirik geienetan.

Igandekoa esan dut nik, baiña igandean bezela erriko jai nagusietan ere; eta batean bikote bat eta bestean bestea ere ez oso gutxitan, oso nastua jarri zan bertsolari-kontu au.

Bi saio izaten ziran tokirik geienetan: meza nagusi ondorenean eta arratsaldean berriz. Iru ere bai noiz edo noiz. Jaiak

asteko bezperan ere toki askotan izaten ziran bertso-saioak festen asiera bezela. Asko aldatu dira oiturak urte gutxian. Gaur bertsolariak gauera arte ez dira jartzen, gure errian beintzat; eta beste askotan ez dut uste lengo erara dabiltzanik.

Lengoari jarraituz, ori guztia merezi du bertsolariak, baiña «Gaur gu, biar gu, eta etzi? Etzi or konpon!» Ori zetorren or-tatik eta ori ontzat ematen ez genduen batzuk izan giñan urte aietan, erdi *kijote* egiñez bertsolariak aurrera atera nairik an-emenka saiatu giñanak. Bagenekien artan gauza aundirik ez genduela egingo. Baiña suari eutsi beintzat, zer arraio!, eta geroak esan zezala gerokoa.

Kinka larrian zan garai artan bertsolaritza, ez bertsolaririk etzegoelako. Bazeuden bertsolariak, onak gaiñera, baiña geroari atea itxitze orrek ezin zezaken aurrera jarraitu. Bestela, berak itoko zuen bertsolaritza; eta ori gertatzea nai ez genduenok, ankaz gora ibilliko bagiñan ere, aurrera egiten saiatu giñan, an eta emen jo ta ke. Egin ere bai alegiñak.

Barkatu gordiñegi itzegin badut, baiña ez dut uste gezurrik esan dutanik, eta oraindik latzagoak ere gelditzen zaizkit. Auek nerekin gelditzen dira. Obe izango zan danak esatea, baiña egur geiegi batera boteaz ez da su ohea egiten.

Baziran geiago ere garaitsu artan ni Zarautzen bezelatsu ibilli ziranak. Bearbada laguntza geixeago izango zuten, ez dakit baiña. Aldameneko laguntza ugariegi ez, noski. Rufino Iraola Zaldibin; Azurmendi –izenaz ez naiz oroitzen–, eta gero Ramuntxo Aseginolaza ere bai Idiazabalen, naiko lanetan ibiltzen giñanak. Gabirin eta Añorgan, bietan nik ez dakit nola ibilliko ziran, baiña obeto itxuran azaldu oi ziran. Barkatu, nere iritzia bakarrik da; ez da besterik ezer.

Bi gauza zeuden garai artan asko lotzen ginduztenak Zarautzen: bat, ogeitamar urtetik berakoak izatea; eta bestea, bi urtetan bakarrik parte artu al izatea. Kondizio onak ziran oiek

bertsolari asko pasatzeko. Baiña saioak asko galtzen du bai batekin eta bai bestearekin. Bertsolaria egiñez joaten dan gauza da. Gora pixka bat dijoan garaian alako saritxo bat irabaztearekin poztu ere bai. Lenago esan bezela suari eutsi beintzat alegin bizian.

Aspaldiko laguna nuen bat, Bixente Segurola, beste batekin etorri zitzaidan. Zer araudi eta nola zeuzkaten jakin arazi zizkidaten, eta neri oso onak iruditu zitzaizkidan arauak. Ori bai; saioetatik irabazirik ateratzeko asmo gabe, *sin ánimo de lucro* esaten dan bezela ibiltzeko. Gaiñerakoan, etzan ikusten ain ona izan zitekenik. Baiña ala asia zegoela ta artan jarraitu genion, ni ibilli nintzan bitartean.

Erreterian ere egiten zuten bertsolari gazteentzat *Xenpelar Saria* saioa. Ez dakit zenbat urtera artekoak, baiña gazteak izaten ziran an, eta bereala bukatzen zitzaien plazioa. Antxe ikusi nituen urte batean Xabier Euzkitze, Paulo Joxe Aristorena eta beste batzuen artean Izarzelaia edo olako bat. Arrasatearra edo orkoa zan. Eta beste bat, Anatx edo olako izen bat zuena. Ateraldirik onenak berak egiten zituelakoan gelditu nintzan, irabaztuna Izarzelaia izan zala uste dut baiña.

Beste erakunde batekin edo geiagorekin alkaturik izan ziteken egokiagoa bakarka baiño. Erreteriarakoak jende artera azaltzeko egokiera eman eta besteak jarraiera. Baiña ortarako erakunde bat eskatzen du, eta nun zegoen? Nik banerabilkien alako zerbait buruan, baiña beste lan demonio bat sortu zitzaidan eta ori ortantxe gelditu zitzaidan.

Bestela, polita izan ziteken Erreterian bi irabazten zituen kanpora edo orrela jarri; eta bestela, berriz, ogeitalau-bost bat urte arte. Andik aurrera nai zuenak Zarautzen kanta zezala; eta, Zarautzen bezela, beste lekuetan. Baziteken era ortan ondo joatea; baiña emengoari bi urtetan baiño geiagotan kantatzeko eskubidearekin. Ori bai: bitan irabazitakoak etzezala

izan berriz kantatzerik. Baiña gaiñontzekoak geiago ere bai. Emen ere sei bat urtean edo baziteken ongi etortzea.

Egun batetik bestera nai izaten dira gauzak, baiña ez dira ain errezak, al dan txukunena ibilli arren. Batetik ogeitamar urte artekoak izan bear, eta bestetik bi urtetan besterik kantatzerik ez, denbora juxtuak zeuzkaten, gogoan izanik etzala artean bertso-eskolarik, eta etzirala bertsolariak galtza motxetan asten plazaratzen. Etxean oso giro ona zeukanak or nunbait. Baiña oiek etziran izan oi sarritan. Gure etxean bezela, beste alderakoa geiagotan. Lapurretan balebil bezela, ixilka ibilli bear, etxean jakiteko bildurrez. Gauza orren berri ikasiak gera, ondotxo gaiñera.

Dana dala, bertsolariak atera ziran: Luis Otamendi bi aldiz, Mendizabal bi aldiz, Peñagarikano eta abar ortik pasa ziran, beste askoren artean. Ogeitamar bertsolari gazte inguru pasa ziran, eta beste marka ere bai: gau batez txapelketa ortan parte artu zuten lau anaik. Bidaniko Etxeberri baserrikoak ziralara uste dut, eta ori ez da eguneroko ogia, gauza berezia baik. Eta or gelditzen da, norbaitek zapaldu arte.

Bertsolari jator itxurakoa, arrazoi zuzenetako gizona zan, nere ustez, anai oietan zarrena, beintzat. Eta bolara txarrean gertatu zalako, etzan goi-maillara igo, nere iritzi apalean. Bigarrenak ere batere lotsagarri egiten zuenik ez uste izan. Bere lanean serio aritzen zana zan ura ere. Baiña zarrenak oso ondo zuzentzen zuen bertsoa.

Txukun moldatzen zuten bederatzi puntukoa. Gaur bederatziko txikia ez dakit zergatik deitzen dioten. Iñork kantatzeko bear dan ezkutukorik eduki ez eta *txikia* deitzea ez derizkiot bidezko gauza danik. Baiña *magister dixit*, eta orrekin aski izango da ala deitzen jarraitzeko.

Esanak esan, barkatu aritik irtenda ibiltzea. Baiña ez dira asko izaten –ez dut danak esaten eziñagatik– gogozko

zaienik bederatzi puntuko zarra kantatzea, eta aiek *zapla!* kantatzen zuten lagunarte giroan. Oso txukun kantatu ere. Nik neronek ez nien bein ere gai bezela jarri kantatzeko, ez aieri eta ez besteri. Baiña entzun egin diet eta badakit kantatzen zutela.

Bertsolari gazteentzako txapelketa batean ezin diteke jarri gai bezela lan ori, asko pixatzen duelako. Alderantziz, txapelketa nagusian, berriz, jarri bearrekoa dala derizkiot. Txapeldun izan nai duenak burua gertu eduki bear du datorren gutzia artzeko. Lengo bertsolari *ezjakiñak* erantzun izan zioten gai orri, eta gaurkoak ez luteke gutxiago izan bear, geiago bai-zik, eskola geiago daukatelako. Baiña iñork ez du kantatu nai. *Txikia* deitu bai, baiña kantatu... *nanai!* Ala ere, kantatu arazi bear litzaiokete, txapelketa nagusiko finalean gutxienaz.

Zergatik ori? Ba, bederatziko zarra orain aspaldian iñor askok kantatzen ez duen arren, oso tradizionala zan garai batean, eta bertsolaririk osoena nor dan jakiteko erabaki bikaiña izango litzake orixe. Nik beti ala pentsatu izan dut eta orain ere ortan jarraitzen dut. Txapeldun izan nai duenak ezin lezaioke muzin egin neurri edo doiñu ezagunetako bati.

Anai gazteetako batek ere bertso bikaiñak kantatzen zituena, baiña *artaburu ale bakana* izango zan itxura eman nion. Gau batean ez da bertsolaririk ezagutzen, baiña ni uste ortan gelditu nintzan eta ez dut uste oso urruti ibilliko nintzanik.

Bestea gaztea zan eta lagun artean edo anai artean jardunda egongo zan. Baiña bere *lagun arteko biziotxoak* artuak zeuzkan arren, aiek kendu zitezken. Bestela, ondo zetorren eta itxura txarrik ez nion eman.

Baiña urrengo urterako bi anai zarrenak bi urte beteak zizutzen; eta, irugarrenak, berriz, zerbait ixtripu txarren bat egiña izan bear zuen, eta kito! Etziran geiago etorri gure Bidaniko Zelaia anaiak.

Mendizabal bi urtetan etorri ta bietan eraman zuen txapela. Peñak, berriz, bein etorri ta bertan eraman zuen. Lertxundik, bitan etorri ta batean eraman zuen. Lenbiziko urtean zeiniek eraman zuen ziur ez nagoenez, naiago dut zalantzan gelditu, anka sartzea baiño, Bestela ere naiko makal ibiltzen naiz eta ez dut beste kargaren bearrik. Guztira bost urtetan izan nintzan.

Bi alditan ere juxtu-juxtutik utsegiña zan garaipena Luis Otamendi. Geiagotan joaterik izan bazuen, arriskutsua zan garai artan; orixe bai. Baiña joaterik ez eta ortan gelditu zan. Inguru artan zan: Añorgan bertso-saioa entzutera joan eta alkarrekin geundela, etorri zitzaion Joxe Mari Aranalde: etortzekoa zan bat etzala etorri ta baten faltan zeudela, eta ea kantatuko ote zuen; besteak bezela izango zituela saria, bazkaria eta danak. Baiña nun utsunea beteko, berak irabazi zuen urte artako Orixe-saria. Baita bertsorik onenaren saria ere. Eta Orixe-saria irabazteko gai zanak, zergatik ez Lizardi-saria?

Elgoibarko *Ziarda* ere bai, bi urtetan izan zala uste dut. Lenengo urtean nik ez nuen parterik artu. Baiña uste dut Argiñarena ote zan irabazi zuena. Urrengo urtean ere an zan, baiña irabazi ote zuen ez naiz oroitzen.

Millan Telleria ere bitan izana zan. Baita Zeberio gaztea ere. Ataundar bat ere bai. Izenarekin ezin naiz oroitu, eta il zala entzundako errezeloa ere badaukat, baiña ez nago ziur. Munduate edo olako abizena zuen. Baziran geiago ere. Orioko Altunakoa ere bai, mutil gaztea, poliki bertсотan aritzen zana. Bi urtetan izan zala uste dut.

Euxebio Lasarte ere izan zan, bi urtetan uste dut, eta batean beintzat a zer nolako bertsoak kantatu zituen gaia emanda bakarka! Bi bertso ziran eta bat beintzat oso ona. Bertsorik onenaren saria irabazi zuen, gaiñera. Mutil uraxe gelditu zan bezela gelditzerik ez dut uste merezi zuenik. Baiña ala geldi-

tu zan eta zer egingo da? Pena ematen du gazteak alako bertsoak botatzera iritxi ta bertan bera gelditzeak. Alakoentzat izango da ona bertso-eskola: berez olako jatorria dakarten ezi-gaizto oientzat.

Orain badut oroigarri berezi bat Zarauzko Lizardi-saritik: 2004-garren urteko sari nagusia nere billoba Miren Artetxek irabazi du, ain zuzen, eta pozik nago. Nere ibillera triste aien saria berandu bada ere iritxi da, eta milla zorion, Miren! Ez nuen uste nere alegiñak olako saririk jaso zezaketenik, eta jarrai aurrera ere, oraindik beste asko ere erori litezke goi-mailla jo arte ta.

Mirentxu maite biotzekoa,
ori jakin nuenean,
biotza neukan pozez saltoka
geldi egon eziñean.
Zer gertatu zan urrutizkiñez
batek deitu zidanean,
ura zan poza artu nuena
neure barren-barrenean:
lenengo parrez eraso nion,
malkoak ondorenean!

Pasa zan bolara ura ere ta bertsolaritzak aurrera jarraitzen du. Gaur ez dago lengo konturik, ez orixe. Bertsolariak egin egiten dira orain, eta ez jaio. Ala bietakoak jarraitzen dute? Nik badauzkat nere zalantzak, galantak gaiñera, ori nola izango ote dan eta ez nere gazte denborako kontuei begiratuta. Orain gertatzen danari begiratzea aski dala uste dut, nork dakarren berezkoa eta nork ez ikusteko, agian bein ere baiño obeto gaiñera. Len garai batean zeuden baiño puntu zeatzagoak arkitzeko, zientziak eman lezazke bideak. Ni ortan nago, beintzat.

Len aipatu dutan zalantza auxen da neretzat: berezko kondiziorik ez duenik, oso gaitz izango da bertsolari ona ateratzea. Baiña tartean bertso ederrak bota arren arrastora sartzen ez diran oietakoak –eta ez dira gutxi izaten– *artaburu ale bakanak* len ez aruntz eta ez onuntz gelditzen ziranak, gerta litezke bertsolari jatorrak ateratzea. Ez dut esaten danak, baiña asko bai, oietakoak izan ditezke kontutan artzekoak.

Or gorago aipatu dut *artaburu ale bakana*, eta orrek esan nai du, irakurlea konturatuko zanez, tartean bikaiñak bota arren, oraindik uts asko dituela, ta aiek betetzen alegindu bearra daukala. Bertsolariaren erdia egiña daukala iruditzen zait neri, eta arekin beste erdia egitea ez ote da errezagoa izango, beste zenbait erdi ortara eramaten baiño?

Nik ala uste; eta zuk, irakurle? Larri ibilli zu ere antzema izatea onezkero, nik zer esan nai dutan. Bertso-saio bakoitzean, ez dut esan nai arrigarriak, baiña erdi-maillatik gorakok jaurtitzen dituen arek bai joan bear lukeala bertso-eskolara, tarteko utsuneak betetzen saiatzera: eta ziur gaude geiago aurreratuko lukeala ori egiten duenak, abots ederrean eta neurrian or nunbait ibilli arren itxurazko arrazoirik ematen ez duenarekin baiño.

Ortan dago, nere ustez, garrantzirik latzenetakoa, latzena ez bada ere: arrazoizko bertsoak botatzen. Ez ari ta ari ta eze-ren arrazoirik eman gabe luzaroan ari diran oietakoak. Olakok eskolara joanagatik ere alperrik da. Arian-arian zerbait jarriko da agian, baiña bein ere ezin ditezke iritxi, arrazoi tajuzkorik botatzen ez duen arte; eta ori naiko lan eskolan erakusten, geiegi izango litzakelako.

Abotsean eta neurrian etzuen askok berdinduko, baiña gaiñerakoan ezeren itxurarik etzuen Antonio Joxe Gaztain-dizabal deitzen zitzaiona izan bear zuen. Mutikoa nintzala, Urtetako Kortaburun ezagutu nuen aren anaia eta sendi osoa.

Beratzaz ez naiz gauza aundirik oroitzen; baiña aren bertsoak kontatzen zituzten eta, bearbada zerbait aldatuak egon ditezken arren, berdintsu kontatzen zituzten. Auzokoren batek andregaiia Zarautzen egin zuela edo entzun du zerbait, eta bai besteak txukun kantatu ere. Orbelaun, Landarbidetik gertu dagoen auzoa eta zelaitik errepidea utziz Zarautz aldera joateko bide laisterra artzeko toki egokia da. Bere ustez, danak ulertzeko moduko bertsoa izan bear zuken aren ustetan. Ea zuk zer ulertzen diozun abots ozen askoarekin kantatutako bertso oni:

Bejonezdakizula
señor Landarbide,
Zarautz alden neskatan
asiya omen aiz,
Orbelaungo zelaitik
an daukak trilluba,
eskarmentatuko aiz
alajangoikua.

“An daukak trilluba” orrekin, zalantzarik gabe, oin-urrats edo anka-arrastoak belardian egiten duten bidexigorra esan naiko zuen; eta, bere ustez, etzuen nolanaiko bertsoa bota izango. Ala esaten omen zuen gero:

–Bota ziot ederra, baiña ixil askorik egon bear izan dik. Bestela, entzun bearko zizkin galantak.

Zer nai duzu? Aren abilidadea ortaraiño irixten zan eta al-perrrikakoa zan ari geiago eskatzea.

Artzaia izana izan bear zuen, eta kontatzen zituzten aren ipuiak, zein baiño zein xelegoak. Bat era ontan esaten zuten gertatu zala: Aiatik Gaztaindezabal tartean bazegoen kilometro bat inguru edo olakoren bat, geiago ez bazan ere, erre-

pidetzen bi aldeetatik baso itxu-itxua zegoena. An ibiltzen nunbait txapel okerrak –goardiazibillak–, eta gazte-koadrillak pentsatu dute antxe arrika emen bear diotela, eta baita eman ere. Aldapa aundia da an eta, goitik tiratako arriak gaztain-ostotartean berebiziko zalaparta ateratzen dutenez, larri an, iñun babestokia billatu eziñik.

Antonio Jose ori Aian izanda etxera, igande-gaua izanik erdi mozkortuta, bere kontura bertsoan –txukunak izango ziran–. Arrika ari ziranak oartu ziranean Antonio Joxe zetorrela, utzi omen zioten arriak tiratzeari, eta bai goardiak ere azkar berarengana, beren amorrua arekin ase naian.

Asi zaizkio jotzeko kiñuak egiñez, bat galde eta bestea galde; baiña ezin ulertu alkar. Nola, ba? Txapel-okerrak tutik etzekiten euskeraz eta besteak ere ez erderaz. Ala esaten omen zien Antonio Joxek, besteak jotzeko kiñu egitean:

–Suspender kolpe, alajaungoikua!

Artan dabiltzala, kulatazoren bat eman diote nunbait, eta orduan deadar egin omen zuen Antonio Joxek:

–Auxilio!

Gordeta zeudenak, «egurra ematen ari zaizkiok» pentsatuta, eraso omen diote berriz arrika, eta bai txapel-okerrak ere azkar korrika Aia aldera; eta ala oiuegiten omen zien atzetik:

–Zoazte, bai, zoazte! Eta bialdu zuen atsoak gure gaztain-dira gaztaiñak biltzera! Nik egingo dit putreentzako zezeiña, alajangoikua!

An joan omen zan berriz ere bertsoak kantatuz bere kontura. Bai besteak ere arrika emateari utzi ta korrika, txapel-okerrak iritxi baiño len laister-bidetik errira irixteko, abaila ederrean gaiñera.

«Putreentzako zezeiña» ori ere ateraldi xelebrea dirudi; baiña iñor ulertu gabe gelditu ez dedin, esango dut: andreak

an arrapatzen bazituen, alegia, jo ta ilko zituela. Ori zan «putreentzako zezeiña» egite orren esan naia: saientzat janaria.

Jai-illunabar batez sartu ziran Zarauzko Iñurritza auzoan zan *Marta-enea* ostatuan, Eibarren aari-jokoren bat ikusten izan eta Mindiko mutilzarra eta biak. Eskatu omen zuten gazta ta ogi pixka bat edo zerbait ekartzeko. Trenak ere diru-mordoska eramán ziela eta kexuka; eta ango etxeakoandreak esan omen zien:

–Jarri zaitezte ortxe ta laister ekarriko dizuet nik zuei gazta baiño ohea, ta egon lasai.

Ala, joan omen zan Marta ori, eta naikoa aspertu ere bai ainbeste denboran zai egoten beste laguna eta biak. Baiña bein jarri ziran ezkeru, egon egin bear; eta, ala zeudela, etorri zaie noizbait etxekoandrea kazuelkada aundiarekin.

–Ara, mutillak! Onezkero gosetu ere egingo ziñaten eta jan lasai –esan eta joan omen zan Marta ori.

Udara izaki nunbait eta jende asko atariko platano azpian jaten, eta aietako talderen batek, eta bat baiño geiagok bearbada, utzitakoa izango zien eramana. Udazaleak, gaur turistak esaten zaien oietakoak, aiek utzitakoa ta abar osatutako kazuelkada jan dute; eta, dezente bete ziranean, bestea bildur noski, sekulakoa ordaindu bearke zutelakoan, eta ala esan omen zion Antonio Joxe Gaztaindizabal onek bere lagunari:

–I lasai egon, au nik moldatuko diat eta.

Urrena Marta azaldu zanean, Antonio Joxe zutik jarri ta era ontan kantatu omen zion:

Bapo jarri gaituzu,
etxeakoandre Marta,
parientiak gera
gutxi edo geio.

Ez daukazu ikusirik
gaur gure monerik,
galtza txuridun oieri
kobratu galanki.

Galtzatxuridunak udazale oiek ziran, oieri orrela deitzen zitzairen garai artan; eta beste gauzen artean esan nai zukeana izango zan aiek utzitakoa zala eta len ere kobratua zeukala aiek jan zutenaren balioa; edo, kobratu bear bazuen, aieri kobra zezaiela. Baiña ori nere iritzia da, nik pentsatzen dutena, eta ez dut uste egiagandik oso urruti ibilliko naizenik.

Entzun zutenak danak algaraz eta txaloka ari ziran bitartean, Mindiko mutilzarra ta biak tabernatik irten eta martxa; bertso izugarria bota zuelakoan joango zan gaiñera bere uestetan.

Barkatu aritik irten eta ibillia. Aiako Gaztaindizabal baserriko semea zan ori, mutilzarra, ta nik ezagutu nuenerako Kortaburun bizi zan sendi ura. Baiña etzuen izan bear buruz oso jantzia, irakurleak bertsoak irakurri ta oso errez antzemango zionez. Ala ere, neurrian begiratu ta ez dirudi gauza aundirik zeukanik, oitura txarra lege txar biurtuta baizik, eta zuzentzen gaitza, gaiñera, naiz bertso-eskolan ibilli.

Orregatik esaten nuen *artaburu alebakanak*. Arraloak deitzen zieten gure aitonak oieri, lorea goizegi kenduta izaten ziran; eta zuzentzen errezago izango ote diran olakoak, beste rimagatik ajolarik ez dioten oiek baiño.

Dana dala, len barai gateko eskuko beazetan bertsolaritza osoa gaur ez da ikusten. Eskuetako beazekin konta ala bertsolarirekin esan nai dut. Ala obe eta apur bat aldaturik ueste dut. Oraindik ere geiegi ez, nere uestez. *Itzetik-ortzera* saioan pozik ikusiko lirakela iruditzen zait *betikoak* ez diran danetik artuz, saioak geiago nastuta, danetarikoak. Nik ez dakit zer

darabilkiten gogoan. Ortan ere badituz nere zalantzak. Gazteak artu egiten dira eta ortik dijoa bertsolaritza bere bidera. Gaur eskoletan dago itxaropena jarria eta orri jarraitu bearra dago. Baiña eskolan pasa gabea izanda ere, gerta liteke bertsolari peto-pettoa irtetzea, eta alakoari ez arren muzin egin eta gutxiago baztertu, asko balio lezakelako.

Iritzi auek azaltzea barkatu bezaidate; barkatu, arren! Gaurko egunez bertsolaritza daramaten erakundekoekin ez dut ezeren aitzakirik emateko asmoz egiten; baiña ikusten dut ni bizi naizen tokitik gertu, kilometro gutxira, alako txulo koxkor bat, eta ez dit batere grazirik egiten ikusten dudanak, eta naiago nuke oker banego; baiña, *jojo!*, denbora izango du testigu, ziurrena bera da ta.



Urdanetako elizaren barrua, berritu ondoren

Gai jartzen

Bolara bat izan nuen gai jartzen asko ibilli nintzana, era xelebreaan asita, gaiñera. Orduan Lasarten jakiñekoa izaten zan San Pedro eguerdian, *Michelin* kirol-tokian, aizkolariak, arrijasotzailleak eta bertsolariak.

Baiña auen lanak zenbat eta nola egin bear ziran eta olakoak adierazten, Lasarten Ernaniko udalaren ordezkari edo orrela egiten zuena jarduten zan. Sekretarioa ere deitzen zitzaion, baiña etzan oso jakintsua arlo oietan eta or aritzen zan anka sartuz naikoa maiz, eta ala esan zidan Manuel Sagardia zanak:

–Ik orrek baiño errazago egingo ukek, ba, nai izan ezkerro.

–Nik ez dut uste egokiena naizenik lan oietarako –erantzun nion.

–Jee! Ori probatuta jakiten dek, zein dan egokia ta zein dan baldarra!

Ez nion kasorik egin. Aintzat artu ere ez. Baiña gero Federiko jaunak berak esan zidan nik egin bear omen nuela lan ori, eta emango zizkidala zein ziran jokatu bear zutenak eta zer lan zuten. Pozik eman ere, gaiñera. Bertsolariak zein izango ziran ere bai, eta nere kontu ori dana.

–Nik ez nion esan egingo nuenik, ori esan zidanari –erantzun nion.

–Ezta ezetzik ere, ez omen ioken esan, eta orrekin naikoa diagu –bizkarrean joaz eta parre egiñez erantzun zidan; eta, egia esan, nola bati ala besteari, Manueli eta Federiko jauneri (g. b.), ori ta orrenbeste baiño begirune geiago nienez, gauza ori ezin ukatu; eta alaxe egin nuen, lenbiziko aldiz egin nuen, Lasarteko plazan.

Aizkolariak ta arrijasotzailleak zein ziran ez dakit ziur esateko; baiña zein ziran bertsolariak bai: Etxeberria eta Mugartegi ziran, eta oso saio polita egin zuten, jendeak esan zidanez, eta neroni ere uste ortan gelditu nintzan. Baita bertsolariak ere, oso gustora gelditu ziran kontua esaten zuten, eta andik aurrera laister asi ziran deiak batetik eta bestetik.

Lasarteko plazan goiko sapaia artara igo ta asi ziran bertsolariak beren agurra egiten, eta alakoxe zirrara bat pasa zitzaidan une artan, eta pentsatu nuen: «Nun sartu aiz, Pello? Emen erri guztia guri begira zegok.» Baiña bereala pasa zitzaidan. Ala obe, gaiñera.

Geroztik toki askotan iritxi nintzan batean eta bestean, batzuetan abeslariekin txandaka, bestetan aizkolariak eta arrijasotzailleekin. Lasarten bertan eta Urnietan, auek bietan urte-mordoska dezentean. Baita Ernanin, Zubietan, San Estebanen, Zarautzen; emen ere urte batzuetan izan nintzan. Lizardi-sariaz gaiñera, Santa Marina jaialdia, Patxi Barnerok eratzen zuena, nik zuzendu nuen urte batzuetan; eta erriak eratutako jaialdia ere bai. Abeslari, dantzari ta nik al dakit zenbat gauza ziran an. Lengo musika-plaza zan toki ortan, bertsolariekin batera, ez dakit zeren omenaldia edo zer zan, baiña bazan zalaparta. Gero *La Perla*-n bazkaldu genduela gogoan daukat; zergatikakoa zan enaiz oroitzen.

Ori gauza xelebrea dirudien arren, egi utsa da. Berrogei urtetik berako kontuekin ari naiz, baiña begira nolako itzulia eman duen munduak ontan ere: garai artan gazteak etzituen asetzen bertsoak; eta adiñean elduxeagoak, berriz, bertso gabe etzegoen aientzat festarik, eta orregatik jartzen ziran, bietakoa egiteagatik. Abeslariak eta bertsolariak plazetan egiten ziranetan bezela, gaiñontzeko frontoi edo zineetan, edozein jaialdietan ere, bietatik izan bear zuten bolara artan.

Erri koskorretan, berriz, arrijasotzailleak eta aizkolariekin batean izaten ziran bertsolariak ere, geienetan beintzat; eta oso gogozkoa nuen nik era ortan montatutako jaialdia. Batez ere aizkolariak estu-estu ari diranean, zalaparta batzuk atereaz eta abar, jendea berotzeko oso jaialdi politak izaten dira olakoak.

Basarri omenaldia egin zitzaion batean ere, ni izan nintzan gai jartzen. Patxi Barbero izatekoa ta ari anka moztu ziotenean uste dut zala. Bazan bertsolari-pilla galanta. Oltzan kabitzen ere baziran an naiko lanak, eta bakoitzari etzizaion lan asko egitea egokitu. Erreserbako gai-mordoa banuen eramana ta eskerrak ari. Bestela, asmatu egin bearco ziran al zan bezela. Len ere urte batzuk lenago ala egin bear izan nuen an bertan.

Egun ortakoak gogoan dauzkat zenbait gertaera. Xalbador gaixorik zegoela eta etzan azaldu. Mattin txikiari esan nion berak egin bearco zituela iparraldekoen lanak, eta onek ere gaixorik egonberria zala esan zuen. Antxe, Zarautzen, asi zuela onuzkaldeko lana eta antxe finitu bear zuela, etzala geiago etorriko noski ta.

Esan eta izan: etzan geiago onuntz etorri, ainbeste aldiz izan genduen Mattin “pikaro, gaitzik gabea” norbaitek bertsoz esan zion bezela; eta Xalbador andik gutxira il zan. Goian bezate atsedean biak.

Mattin eta Xalbador, edo Xalbador eta Mattin, naiago baduzu, 1949-garren udaberriko arratsalde batez etorri ziran lenbiziko aldiz Zarautza. Egun artan txapelketa bat jokutzen zan, eta Astigarragako Elio izan zan garaile, Mujika, Lizaso eta Lasarte jarraian zirala. Auek irurak orduantxe soldadu zijoaztenak, gaztediaren lenengo arrakasta, nik esan bear banu.

Enaiz gogoratzen zein ziran txapelketa artan apuntatzeko baldintzak; baiña Basarri, Uztapide, Zepai eta Txapel izan zirala uste dut parte artu etzuten edo parterik artzerik izan etzutenak. Besterik ez dakit zan; baiña, izate ezkerero ere, Balentin

Enbeita edo olakoren bat izango zan, baiña barkatu ez oroi-tzea zeaztasun auetaz. Auek ziran orduko profesionalak bezela ibiltzen ziranak.

Nik uste nuen txapelketa ura Lasartek irabaziko zuela, ta ez, arraioa! Uste baiño obeto aritu zana Elio izan zan. Ondorengo iruretan etzan alde aundirik egon. Egia esateko, nik neronek puntuazioa oso-osorik artu nien eta irurak berdin samar eman zidaten. Andik atzerakoan, bai, aldea nabarmendu zan; baiña lau aurrenekoetan etzegoen alde aundirik.

Ni asko arritu nintzana, bitartean entzun ere egin ez nuen Teodoro Mujikarena izan zan. Bertso landua ateratzen zuen oso. Zenbaitek bezela bertso errez oietakoa ez, baiña bertsoa borobiltzeko zaletasun aundia zeukan. Ala ere bertan bera gelditu zan eta gauza garbirik ez dakit. Etzan geiago ezertara agertu. Noiz edo noiz bertso idatziak bai, baiña oso noizbeinka, irakurri dizkiot, eta ez gaiñera nolanaikoak, bertso bikaiñak baizik. Oroitzen naiz oraindik Adunako torrearari ere jarri zizkionak, «jostorrazt-tantai mutur luzea» deituz, gutxi gorabera. Azkeneko aldiz, oroitzen naizenez, Gipuzkoako jubilatuen alkarteak boletin bat atera zuen eta antxe bere bertso ederak irakurri nituen, erdi bazterturik zeuden paper batzuen artean. Geroztik, aita Zabalak Pedro Maria Otaño aundiaren liburuak egiterakoan Mujikarekin izan zituen arremanen berri ematen digu, eta gaiñera bere laguntza aipatzen du. Teodoro Mujikak badu liburu bat ere idatzia, *Errekaldeko intxaurraren itzala*, izenekoa prosa eta bertso bikaiñez tajutua, orain urte batzuk plazaratua. Or bukatzen da gizon onen kondaira; baiña bertsolaritzak zutabe garrantzitsu bat galdu zuelakoan nago. Augatik edo origatik, baiña an bazegoen nere ustez soiñurik atera zuen baiña zintzarri geiago; eta, plazara atera ez bazan, zerbaitengatik izango zan.

Egun artan, Xalbador eta Mattin etziran izan txapelketan, bestelako konbidatu bezela baizik, eta lenbiziko saioa biak al-

karrekin egin zuten. Artan askoz geiago gustatu zan Mattin. Bearbada, obeto ulertzen zitzaiolako izango zan. Baiña gero, bigarren aldiz asi ziranean gaiak emanda bakarka, oso ezberdin joan ziran gauzak. Nere iritzi apalean biak ondo. Teman Mattin artean obeto aritzen zan; baiña bakarka Xalbador geiango zan, ordurako ere.

Gaiak jartzeko, berriz, nik neronek, bat aukeratzeko nai nuena esan balidate, zalantzarik gabe, taldean izateko Mattin aukeratuko nuen. Zergatik? Ba, gai xeibre batean bertso antolajokoak atera zezaizkiokelako. Askotan, xeibrekeriak esaten zituela eta *ja-ja-ja* parre eginda konforme gelditzen zan jendea; baiña an bazegoen esan naia parre algara batena baiño geiago.

Bein batean, Lasarten geneukan jaialdia eta gai auxe jarri nien Lazkao-txiki eta bieri:

–Lazkao-txiki joan da andregaiaren etxera, gurasoak eza-gutzeko asmoz, eta or azaltzen da Mattin, neskaren aita. Ortik aurrerakoa zuen kontu. Ea nola konpontzen zeraten. Iruna bertso, nai duzuten doiñuan eta nai duzutena asita.

Lazkao-txiki asi zan. Bertso ederrak izan ziran; eta Lazkao-txikik, betiko *txiki* orrekin, era ontan bukatu zuen bertso bat: «kasta txikia aterako da, / orrek ematen dit pena».

Mattinen erantzuna ere etzan amutsa:

Biotzetikan batak bestea
ongi baduzute maite,
nai duzutenian esposatu,
nigatik libro zerate.

Une goxoak igarotzen lagundu ziguten emen ziran arte, eta goian bezate atsedeen. Biek ere orain aingeruekin ariko dira ziur asko bertsoan, eta ziri politikak izango dira aien ingu-

ruan. Gerta diteke, gaiñera, denboraren nozioa galdu ta saio luzeak igarotzea berekin, eta ala bedi!

Bestea, oso gustokoa nuena, Etxeberria izan zan. Beti ondo portatu izan zana nerekin. Bertso-saioa egiten esan nai nuke. Toki askotan ibilli giñan alkarrekin, eta beti ondo ateratzea egokitu zitzaigun; eta, auzo-lagun ona dan bezela, bertsolari laguna ere jatorra zalakoan nago.

Plazan zerbait arrarorik bai ote zan, berriz, Lizaso zarra zala esango nuke. Arek zerbait aopean esaten zuenean, argi ibilli. Zerbaiten usaia artua izango zuen, eta txorakeri gutxi andik aurrera, laister agertuko baizan zerbait andik edo emendik.

Zenbait erritan bertsolariak tartean zirala jarri oi zituzten. Saltsa aundia da, baiña neri geien-geiena gustatzen zitzaidan gauza orixe dala esan bear. Gauza polita da aizkolariak estu-estu dabiltzanean, bat aurretik dijoala uste eta besteak aurretik enborra botatzen duenean, alako ixtilu pixka bat atereaz jaialdia pil-pil jarriz, ondoren bertsolariei saio labur bat egin araztea. Gero arrijasotzailleekin beste ixtilu pixka bat atera, eta ondoren bertsolariak... Zer nai duzu une goxo bat igarotzeko gauza politagorik?

Era ortan egiten ziran saioak Lasarten, Zubietan, Urnietan eta beste zenbait tokitan, ni ibilli nintzan garaian, eta urte-mor-doan ibilli nintzan, Lasarten eta Urnietan batik-bat. Jaialdia oso dotore irten izan zitzaidan askotan. Bestelakoak ere izango ziran noski, jakiña. Baiña erri koskorretan ia erriko festetan ikusgarri nagusiena, edo nagusientxoena, orixe izaten zan; eta orri alako apainduri apur bat ematearekin, asko irabazten zuela derizkiot jaialdiak, geiegira pasatzen etzan bitartean.

Erririk geienetan, danetan ez bazan ere, egiten ziran bertsolariak, aizkolari ta arrijasotzailleekin batera geientxoentan, meza nagusi ondorenean. Arratsaldetik ere bai –Urnietan ala izaten ziran–, baiña gutxiago eguerdian baiño.

Oraindik ere Lasarten ala egiten diran arren, ez dakit nola dabiltzan gauzak, eta egon ditezke gaiñera toki bat baiño geiago onezkero gauzez egiten diranak ere, orain *gautxori* asko dago ta.

Gero, bertsozariez gaiñera, abeslariak eta dantzariekin ere bai –era ontara ikastolen aldeko jaialdietan geienbat– Galaurretan, Lasarten, Zarautzen eta abar. Urtean beingoa, jakiña, eta geiagotan ere ospatzen ziran. Gero, oietaz gaiñera, ikastolen propagandan ere zerbait esan bear izaten zan eta saltsa aundi samarra osatzen zan askotan. Baiña orduan ain modan zeuden Etxamendi ta Larralde ere bai; baiña nere ustez alde aundiz ezagunenak Pello ta Pantxoa izan ziran; eta gero *Urretxindorrak*, *Erlak* eta beste geiago ere bai. Baiña Iparraldeko bikote ori bezelakorik etzan gai-jartzaillearentzat. Jende guztia txaloka jartzen zuten aiek, beren izena aipatu ordurako. Barkatu bezaidate beste zenbait taldek, baiña nere oroimen kaxkar onek ez du geiagotarako ematen.

Olakoetan asmatu bearra dago zerbait, eta nik berai galde-tu inportarik bai al zien bi zatitan kantatzeko eta, ez bazitzaien, bi ekiñalditan kanta araziz. Azkenean, beren kantarik ezagunenetan, zerbait animatu araziz, jendea kantari jartzen zan eta eromena izaten zan aiekin.

Gau batez, Galarretako frontoi aundia lepo-ezurreraiño beteta zegoela, era ortan egin genduen. Azkeneko saio labur bat Pantxoa ta Pello biekin orduan ere, eta jende guztia zutik jarrita txaloka ari zan bitartean bukatu zan jaialdia. Aiek bazuten adorea garai artan jendea pozik jartzeko.

Bazan Iparraldeko bikote bat Etxamendi ta Larraldek osatzen zutena, eta bolara batean naiko arrakasta izan zuten. Bazirudien, gaiñera, geiagora zijoaztela. Baiña luzaro baiño len gelditu ziran, ez txarrak ziralako, baiña emengo giroa oztu ere bai Franco il zan ondorengo amnistiarekin eta abar, eta ortan

gelditu ziran. Auen abesti bat arrakasta geiena izan zuenak era ontan zuen asiera:

Otxagabia, Otxagabia.
Otxagabian zer dute...

Beste talde bat ere –laukotea zala uste dut–, ez naiz oroitzen zer izen zeramaten, baiña abesti baten izenaz oroitzen naiz, eta gutxi gora-bera olatsu asten zalakoan nago:

Iesukristo etor baledi
egun Eskual Herrirat,
horrenbeste iniustizi ikusita
ez ote lei Jainko dena
gizonki asalda?

Jendeari asko gustatzen zitzaiona zan. Baiña etziran luza-ro ibilli ere egin onera etorritz, eta etzuten aiek ere Pello ta Pantxoak bezelako arrakastarik izan; edo aiek bezain barrena etziran sartu, ez da erreza ere ta.

Dabilenari gertatzen zaizkio olakoak, eta bein batez ala esan zidan urtero izaten giñan erri bateko alkateak: erriko argi-etxe edo zentral oietako batean langillea bear zutela, eta bertsolariei adierazteko nola bere jorنالtxoaz gaiñera etxea libre zeukala an bertan, eta ez dakit zenbat auntz eta zenbat oillo eukitzeko tokia zeukan, an bertan aiek ere, eta nik al dakit zer ardalla atera zizkidan bere zentral ortako *enpliatuarekin*.

Zerbait egingo genduela esan nion, eta *sin falta* esateko gero ori guztia esanez, an gelditu zan gure alkate jauna.

Bertsolariengana joan nintzanean esaten asi nintzan, ba, zer esan zidan alkate jaunak; eta nik uste nuen bezela artu zu-

ten gauza auek ere –Uztapide ta Lasarte ziran–, eta bereala esan zidan Uztapidek:

–Lengoetan bezelako gaiak ekarri al dituk?

–Gutxi gora-bera bai; berdintsuak dira. Baiña nundik kendu edo nun jarri nago dudan. Egosgogor orrekin nola asmatuko ote dutan daukat orain zalantza. Gaiñerakoan ez da arazorik.

–Jarri itzak lengoak berak, eta beste ori erorrek esango dek ik ederki asko, patxaran lasai; eta, ezer esango balu berriz, nere aitzakia egin eta kito.

Ez dakit irakurlea konturatuko zan; baiña Uztapideren zuurtasuna garbi azaltzen da emen. Ni gairik gabe joana ote nintzan edo ez jakiteko oso era berezia erabili zuen oraintxen ere onek, nere ustez; ni gaiaz urri joana ote nenbillen edo zer gertatzen zan. Tiro batez bi txori iltzeko era egokia zerabilkien. Baiña ortan oker zegoen; etzegoen an gai faltarik, sobrea baizik.

Oltzaren gaiñera igotzeko garaia zan eta igo ta asi genduen jaialdia. An zegoen alkatea eta neri kiñuka asi zitzaidan. Esateko esan naiko zuen; eta, lasai egoteko kiñua egiñagatik, lasaitu bearrean an zebillen eroa bezela; eta, bertsolariak bukatu zutenean lenengo saioa, beste ezertan asterako esan nuen, ba, zentralaren arazo ori, eta ortan pasa zan dana.

Beste aldetik or dago Uztapideren gizatasuna. Gogoan izan bere azkenengo itza: «Ezer esango balu, berriz, nere aitzaki bota akiok eta kito». Ori ez du edozeiñek egiten eta eskerrik asko, Manuel. Egun aundirarte!

Aiek alako asko entzunda egon ere egingo ziran, eta alako patxaraz artu gauzak. Alde ederra dago gauzak orrela artu edo zerbait gogozko ez dan gauza entzun orduko zeru-lurrak bat egin nairik bezela asten diranetatik.

Disparateak bertsolariei
agintzen zaizkietenak,
betetzen gaitzak bezela berdin
bete ezin ditezkenak,
itzez esanda ere ederki
konpondu litezkienak,
alkatianak ez dira beti
agindurik zuzenenak.

Erri batetik bestera alde aundia badago ortan ere. Gauza utsa dala esango du zenbaitek; baiña egun artan, andik aldegin genduenean, lasaitu ederra artu nuen. Urrengo urterako, berriz, alkatea ta beste gaiñerakoak ere aldatuak ziran eta geiago ez dut ikusi.

Beste gau beltz bat Zarautzen izan genduen. Bertsolari gazte sail batekin joan nintzan jaialdi bat ematera. Iturri deitzen zioten bertsolari bat bazegoen elbarri gelditua, eta mundu guztitik Donostian bertsolariei, urtean bati, egiten zitzaien omenaldira eramatea nai zuten nunbait, eta txanda ortan sartzeko ezagutzera emateko asmoarekin, jaialdi bat ematerik bai ote zegoken galdetzera etorri zitzaidan lagun bat etxera; eta nik baietz esan nion: bertsolariak, eta ez nolanaikoak gaiñera, bildu zitezkeela; eta aientzat gaiak jartzea ta erriko baimenak, frontoiaren zuzenbideak eta gaiñerakoak egiteko eskabidea egin zidan urrena, eta danak egiteko prest jarri nintzaion.

Bizkaitarra zan Iturri ori. Muxikatikan goraxeago antxe dago bere baserria. Bizkaitarra zan nigana etorri zan gizona ere. Baiña bazeuzkala orrek berak, Iturrik alegia, Zarautzen lagunak edo parienteak edo nik al dakit zer, eta oltza eraman ta jarri eta orrelakoak egingo zituzketela. Ortan, eguna –gaua, obeto esan– izendatu genduen: Zarauzko peri-eguneko illunabarrean ospatzekotan gelditu giñan.

Gizon orrek bere gain artzen zituela takillako gora-berak esan zidan. Jendearen sarrerako kontrola ta ortarako bear zituena ere bai. Biok oso ondo konpondu giñan gauza guztiak eratzerakoan. Baiña ordua iritxi zanean, jende gutxi ainbeste aundiko tokian. *Frontón Cinema* zarrean giñan, millatik gora jarleku eta berreundik gorako aundirik etzan izan ordaindu zutenik. Itxura kaxkarra ematen zuen ainbeste leku utsik ikus-teak.

Ori baiño okerragoa zan, neretzat beintzat, bigarren ekiñaldirako gaiak danak kendu zizkidatela, uskeri batengatik. Orduan egiten ari ziran dalako autopista ori, eta bi edo iru gai orri buruz jarriak zeudelako. Besterik etzan ezer. Baserritar bati etxea arrapatzen ziola ta berria eraikitzeke dirurik etziotela ematen; besteari, berriz, egundoko baratza-saillak artzen zizkiola eta mendiko ote-larrearen prezioa besterik etziotela eman nai ta orren antzeko gauzak. Temarako politak izaten ziran. Batek, etziotela arrazoizko preziorik ordaintzen; besteak, berriz, balio zuen alako bi ematen ziola... Olaxe zegoen bolara artan; jaialdi guztietan jartzen ziran.

Garai artan, jaialdian erabilli bear ziran gaiak, Donostiako ez naiz oroitzen orain baiña zentro batera eraman bear izaten genduen kopia bat. Ez dakit ori andik pasatzen zan udaletxeetara edo an muturra sartu zuten bertatik; baiña bigarren ekiñaldirako neukan programa erabat kentzeko ordena artu nuen, frontoian sartu ta oltzara igotzera nijoala. Ordurarte iñoiz eta iñon gai bat bakarrik etzidaten kendu, eta orduan zerrenda osoa!

Gauza guztiak ez gaizki irtetzearren, bat ongi irten zan. Andik laister Donostian egin zan jaialdian, Iturri ori urrengo urtean omentzeko izendatu zuten. Ez dakit, ordea, gau artan ziran bertsolariei egun artarako bazkaritarako ta jaialdirako txartel bana bialdu zieten. Baiña ez dut uste ortan nekatuko ziranik. Merezi zuten ori ta oinbeste baiño geiago ere, baiña naiko lan iñorekin oroituak izaten.

Orrelaxe ziran orduko kontuak. Ortan jarraitu bear, go-
riak ikusita; baiña lortu zan eraman zan elburua.

Luzaro baiña len izan ziran aldaketa galantak gai-jartzai-
lle ta bertsolarietan. Guztia ez dut uste bertsolaritzaren kalte-
tarako izan danik. Bidebatez, ain gutxi, berriz, dana onerako.
Lengo bertsolariak esan zuen bezela.

Txuriak eta beltzak
mendian ardiak,
zuk ere ez dituzu
bentaja guztiak.

Ortan dijoaz gauzak, batzuetan batera eta besteetan bestera.

Bai Amerika eta bai beste edozein aldetako *trobadoreekin*
gure bertsolariak daukaten kidetasuna ere izbide izan zan bo-
lara batean, eta bazirudien zerbait ekarri bear ote zuen ere.
Baiña gauza pixka dagoela or esango nuke nik, nere iritzi apa-
lean. Danak rimatzen dutela? Ori toki guztietan berez sortzen
dan gauza da; itzari bere kideko erantzuna ematea. Baiña nun
dira neurri ta gaiñerako arauak?

Kontu au Andaluziakoa izan bear du. Bai omen zan errero
edo zaldi-perratzaille bat; eta bai omen zan kortijo oietakoren
batean, oso zalea zana bertso-tankeran erantzuten. Kortijoko
señorito oietako batek, andik igarotzerakoan, jakiña izaten
omen zuen ari alako batzuk atera araztea; eta, orduan ere ba-
zeterrela ikusirik, ala esan omen zion batek:

–Ya viene er zeñorito. Prepárate para echá arguna de lah
buenah.

–Éze eh un animal.

–¡A que no ze lo dizeh!

–¿A que zí ze lo digo!

–¿Una ronda pa todoh?

–¡Va!

Iritxi omen zan *zeñorito* ori eta, egun onak eman orduko, esaten dio:

–Oye, herraor: ¡echa una poezía, hombre!

–Zi me da uté un pie, sí le echo.

–¡Toma!

Besteak onen ankari eldu ta onela esan omen zion:

–Buen pie, mejó coyuntura. Paize, noble zeñó, que yo zoy erraor y voh la cabalgadura.

Orrekin pozik joan omen zan gure zalduntxoa, eta besteak ere bai, *zeñoritari* animalia zala esan ziolako, bertso izugarria bota balu bezela.

Onerako balio ez duten argudioak dira oiek; baiña, tokian tokiko oiturak gauza sakratua izaten diranez, bijoaz berenekin.

Zerbait ulertzen errezago, noski, baiña alde aundirik ez Antonio Joxe Gaztaindizabalekin. Batek rimarik ez eta besteak neurri-arrastorik ez, biak ere zein diran txarrenak epaitzetik Jainkoak gorde gaitzala!

Ukatu eziñezko gauza da otskide (*rima*) oso ona zeukala, baiña besterik ez. Neurri aldetik gogoan artzerik ez dagoen oietakoa. Baiña aiek berenarekin eta guk geurearekin jarraitu obe izango dugu, noski, neurri oietara urbiltzea baiño.

Batenbat ibilli liteke zerbait berriren billa; baiña oraindik lengoetan ere badaukagu zer ikusia ta zer ikasia. Or daude Pedro Mari Otaño aundiaren bertsoak eredu bezela, iñork nai badu jakin bertsoaren sakontasuna. Baita ere Xenpelarren ugaritasuna, Bilintxen maitasuna, Txirritaren almena, eta Basarriren ausardia edozer gairi eltzeko ta kantatzeko. Oietaz gaiñera, milla adibide jarri genezazke; baiña naikoa dala derizkiot eta ortantxe utziko ditugu lengoak. Oraingoak, berriz, geroak epaituko ditu.

Orain aspaldian pakean utzi diogun lanera itzuli bear du-
gu: bertso idatzietara. Nere betiko gogoia orixe izan da, eta
bertsoak idazteko arazoari eldu bear diogu. Gazte-gazterik
asia nintzan eta oraindik aldegiten ez ditzen gogoia izan dut.
Urte askoan argitaratzeko asmorik gabe eta burutik pasa ere
egin gabe, idazten jarraitu nion; baiña geienak galduak ditut.
Baserritik atera nintzanean, bolara batean lan oietarako asti
eta gogo aundirik gabeko urteak izan nituen, eta ez nuen gau-
za aundirik egin, len egindako asko galtzea izan ezik. Baiña
lengo aietako asko gogoian ditut oraindik, eta aietako zenbait
aztu ere naiko lan egiten.

Gauzak diran bezela esateko, erreztasuna dagoenean, as-
koz ere axalagotik joaten dira gauzak. Ori ondo probatua da-
goela esango nuke. Begira, bestela, zer gertatu oi zan gerra
ondoreneko urte aietan. Gertakizun xelebrenen bat izaten ba-
zan, etzan kontatzerik izaten. Baiña ixilka-mixilka dana jaki-
ten zan. Ez, gaiñera, gutxituz edukitzekotan esaten dan gauza,
baizik-eta beti edo geienean egin oi dan bezela, batek bestea-
ri esaterakoan, zerbait geiago adierazi edo ala esan nai ote
duen errezeloa artu izan da beti; eta kontatu ere alamoduzko
aidean egin izan dala esan liteke askotan edo geienetan.

Nere izeba bati ala esan omen zion Jose Errota deitzen zi-
tzaion mutilzar batek. Denbora joan eta gero ere ala kontatu
izan zuen gure izeba Joxepak:

–Mutilzar kankallua! Arek jo zidaken arpa ederki neri!

Gauza zan alako gertakizun xelebrenen bat kontatu lenbi-
zi, ta gero azkenean:

–Neri ori esan zidanak iñori ez esatekotan esan zidan. Nik
zuri ala esaten dizut, eta zuk ere iñori esan bear badiozu, bal-
dintza orrekin esan.

Ori esan eta, oitura zuen bezela, *je-je-je!* parre egiñez jo-
an omen zitzaion bidean aurrera.

Gertakizun asko izaten dira aurrenetik ixilik gorde naian ibilli arren azkenerako azi ta puztuta azaltzen diranak. Ala gertatu izan ziran gerra ondoreneko jauntxoen seme edo alaben kontuekin ere. Izatez uskeriak ziranak, gerora, jendeak ezagutzen zituenerako, elur-pelota bezela bueltaka zebiltzala, azita zabaltzen ziran. Askotan, gaiñera, gairik larrienak bezela bertsoak jarri ere bai, ixilka eskutik eskura paseaz paper zarraren batean idatzita, lagunartean kantatzeko, beraietakorik an etzegoenean, jakiña.

Bertsoak jartze ori zer zan gaurko askok ez du jakingo, baiña zerbait arraroa gertatzean jartzen ziran. Esaera ala zan: «Orrek merezi likek bertsoak jartzea». Gauza parregarri edo, orain esango litzaken bezela, *fuera de serie* oietakoa gertatzen zanean esan izan zan ori edo orren antzeko zerbait. Nik ere neretzat eta laguntxo bakar batzuentzat jarri izan nituen, eta sailtxo polita ortxe daukat oraindik ere jasota. Askoz geiago, berriez, galduak, eta orain puntu batzuk besterik ez naiz oroitzen.

Orain dauden bezela gauzak egon izan baziran, etzan errez izango gure etxetik, baiña andik edo emendik aleginduko nintzan bertso-eskolen batean sartzen. Ez dakit gauza aundirik egingo nuen, baiña saiatu gabe ez nintzan geldituko. Alperrik izango ziran asarre etxean. Egunez ez bazan gauzez, eta astean ez bazan jaietan, noiz edo noiz, baiña alegiñak eginda geldituko nintzan. Ori ziur izan. Pentsatze utsarekin ere oraindik aoan ura egiten zait: lagunak bildurik bertsoak botatzen, saillean jarrita, nork baiño nork ohea asmatzen zuen aritzea, zer zirrara ekartzen didan oraindik ere!

Neretzat gauza izugarria izan ziteken ura, baiña geroxeagoko asmakizuna da ori. Nik uste dutanez, Balentin Enbeita zana izango zan lan ortan lenbizi asitakoa, eta zerbait garrantzitsua egitea merezi lukeala esango nuke gizon arek. Jaialdi erraldoi bat egin eskoletatik ateratakoekin eta bestelako danekin, Muxikako plazan edo beste lekuren batean. Ori bere sen-

dikoak erabaki bearreko gauza dala iruditzen zait. Baiña oroi-tarri bat jarri bear litzaioke olako lan baten asiera eman zuen gizonari. Ori gutxienez; eta, geiago bear izan ezkeru, or lego-ke leiaketa bikain bat bertso-eskolako gazteekin eta abar. Au bertso idatzientzat izan diteke.

Arek asiera eman zion bertso-eskolak sortzeari, eta orain jarraitzaille diranak ez dakit nola artuko duten; baiña ez dut uste gaizki artu bear luketenik. Ala balitz, barkatu dezaidatela. Ez nuke nai iñorekin muturka jartzerik. Gaitz izango da nereztzat gauza au ezagutzea, daukadan adin puñetero onengatik; baiña poztuko nintzake ezagutuko banu, eta ez uste batere eziñezkoa danik, esate baterako, berak erabiltzen zituen antzeko gaiekin edo zerbait oroiarria sartu. Gaiñontzean, danetik, zarrak, gazteak, eskolan ibilliak, ibilli gabeak eta danetik osaturiko multzo batekin giltzarria egin eta gaiñerakoan kantatu nai duten guztiak. Bertso bana boteaz igaro bear luketela iruditzen zait. Bertso-eskola bakoitzean txapelketa bat egin izen orrekin eta txapeldunak kantatu dezala bere eskolaren izenean.

Bakoitzak bere iritziak izaten ditu ta nik bota dut nerean. Oso ondo letorkela, berriz, ziur nago. Etxea eraikiko bada ere, oiñarriak jarri bear izaten dute lenbizi. Bertsolaritzaren etorkizuna mailla aundi batean bere gain artzen duen erakundea da gaur egun bertso-eskola. Ordain-sari aundi gabe asitako lana dala uste dut, eta orain orixe litzake eman genezaioken sari bakarra; eta ez ordaintzea ez litzake izango gizatasun izugarria, nere ustez. Ez orixe!

Egin duenari aitortzea gauza egokia da. Gaur esaten dan bezela, “ezin bestekoa”. Ori baiño garrantzi gutxiagoko gauzetan txautzen da dirua, eta asko zor diogu bertsozale danok eta batez ere bertso-eskoletatik ateratako bertsolariak.

Gaurko eskolak dauzkaten zenbait baldintza ta olako gabe asia izango zan noski, baiña eskola beintzat, zer arraio! Ala

entzun nien nik bat baiño geiagori, eta ez dakit Lopategi bera ere ez ote zan izango Balentin berarekin ibillia. Ziur ez dakit, baiña ala entzundako ustetan nago.

Jaialdi bikaiña atera diteke. Berarekin ibillitakoak, seme eta abar, saiotxo bat. Beste bat, gaur eskolan dabilzanekin; eta, amaiera emateko, nai bada, *eliteko* bertsolariekin, edo bestela goi-maillako bertsolari guztiekin, gaiari dagokion oroigarritxo bat ezarriz Muxikako plazan.

Muxikako plaza diot nik itxu-itxuan; baiña orrek ez du esan nai ala izan bear duenik. Bere etxeko eta berarekin ibillitakoen artean erabaki bearrekoa dala derizkiot ori. Baiña an edo emen ipiñi bear litzake, geroak esan dezan, orain daukagun bertsolaritzaren *aitajauna* zein eta nungoa izan zan aitortuz.



Etxeberria eta Mugartegi bertsolariak. Pello Artetxe gaiak jartzen

Seme-alabak eskoletan eta abar

Nere bizitzako amets nagusia orixe zan: euskeraz aztu ga-be eta langille-maillan, nere seme-alabei al dan kultura geiena erakustea, eta ortantxe egin ditut nere alegiñak. Lasartera etorri nintzanean, nere aurreneko lana oiek nun edo nola asi izan zan, eta bakoitza bere tokian kokatu bitarteko onik ez nuen izan. Lau seme neuzkan eskola-garaian bete-betea, eta badala uste dut zerbaiten arreta artzeko ainbeste, orduko jorنالak eta eskoletan gauzak zeuden bezela egonda.

Kezka berezia sortzen zitzaidan, pentsatzen jartzen nintzan bakoitzean, zer lanak eman bear ote zizkidan aien ezierak. Aziera bat zala, ezi egin bear zuten alako mutil-sailla, kale gorrian iñundik ezeren alderdirik etzala, bekarik ezean. Auek ere lortu egin bear, eta lortu al zituzten? Orain ikusiko dugu zer egiten duten. Beren onerako izango zala sinistarazten alegiñak egiten saiatu nintzan; baiña beti etortzen da zalantza, gauza ori aurrean daukazunean, eta ez nolanaikoa gaiñera.

Lasarten zegoen gazteentzako irabazpidea golf-zelaian zegoen, eta esan zidaten neri batek eta besteak *caddie* edo golf-efean jokatzen zutenen laguntzalle izateko apuntatu bear nituzkela, txanpon asko ekartzen zutela eta. Gero or zeudela lantokiak, eta bere garaian an sartu eta aurrera. Bai; arrazoi zuten ori esaten zutenak. Nere biziera asko legundu zezaidaketan, eta material aldetik soluzio ona zanik ezin ukatu. Baiña gerora begira etzan soluzioa eta nere elburuari eustea pentsatu nuen. Artara joan nintzan kostala ala kostala eta asmatu egin nuela uste dut.

Don Bosko ikastetxean sartu ezean *interno* egon bearra zeukaten, eta onek bildurra ematen zion zenbaiti. Gurean ere

bazan olako zerbait. Gero laister aldegin zioten, ikusiko dutenez. Lenengoa etzan ausartu an aurkezten.

Seme zarrena amalaugarren urtean zijoan eta Ernaniko *Karmelo Balda* zeritzan Langille-Eziketarako ikastetxean asi zan mekanika ikasten. Baiña bereala pasa zan delineantetza ikastera, eta antxe egin zituen bere ikasketak. Lenbizi *oficialía* ta gero *maestría*, orixe zan nik eman nezaieken guztia, ori beka ateratzen zutela. Zarrenak atera zuen eta ikusteko zegoen besteak zer egingo zuten. ATC lantokian ibilli zan, krisis-bolara etorri artean. Orain, aspalditxotik gaiñera, Donostiako Aldundian Ogasun-saillean egiten du lana, ango delineante bezela. Lasarten bizitzen da.

Bigarrena Lasarten bertako nola-alako eskola batean ibilli zan lenbiziko urtean, eta urrengorako Michelin lantokiak Don Boskon urtean lau beka jartzen zituen. Gastu guztiak ordainduta zeuzkaten lantoki ontako langilleen semeetatik lau aurrena ateratzen ziranak, eta gure mutikoa izan zan lau aietako bat, eta onek kimikan egin zituen eziketak, *maestría* osoa egin bitartean. Ondoren lantokian bertan sartu zan. Azterketa bat egin ondoren, laboratorioan asi zan. Gero, eun eguneko lan-uzte ospetsuan kanpoan gelditu ondoren, Ernaniko Lanbide ikastolan asi zan irakasle. Bidenabar, *pedagogía* ikasketak egin zituen gauez Zorroagan eta lizentziatu egin zan. Gaur egun, Ernaniko *Instituto Laboral* ortako ikasketa-buru dago. Donostian bizitzen da.

Irugarrenak, berriz, Añorgan bazeukan eskola bat Michelin. Bere langilleen semeetatik azterketa bat egin eta, an onartu ezker, bazeukaten bertan batxiller egitea eta asi zan. Bai jarraitu ere amalau urtera arte. Aiek beteta, urrengo kurtsoan Don Bosko ikastetxean aurkeztu zan. Oso puntuazio onarekin lenbiziko atera zuen, eta onekin beka bat ere bai, Michelingo langilleen semeei zegokiena. Au ere kimika-saillean asi zan eta an egin zuen *maestría* bukatu artekoa. Au etzan

Michelin lantokian sartu. Ordurako krisisaren aztarrenak azaltzen asiak zeuden. Liburu saltzen eta abar or ibilli zan soldaduskara arte, eta gero A. T. C. lantokian sartu zan. Ura ere gaizki zijoala ta kooperatiba batean asi zan. Orain EUROJAM lantokiko gerente dago. Lasarten bizitzen da.

Laugarrena ere Añorgako eskola ortan asi zan; eta, an batxiller egin ondoren, Don Bosko ikastetxe ortara aurkeztu zan. Baita lortu ere ango beka, eta elektronika-saillean egin zituen ikasketak, *maestría* bukatu arte. Aldi batean ikastoletako mai-xu bezela Ernani, Andoain eta Iparraldeko *Seaskan* ibilli ondoren, emengo ikastolen federazioko idazkaritza nagusian Donostian egiten du lana, eta Endaian bizitzen da. Lau auek ziran Lasartera etorri giñanean eskolatu bearrak genduzkanak; eta orra, ikusten danez, nola eman genion buelta ainbeste kezkatzen ginduen gauzari.

Bostgarrena, alaba zarrena, Lasarten moja batzuek euki zuten eskolan asi zan. Gero ikastolan ere bai, eta Donostiko *Nazaret* zeritzaion ikastetxean egin zituen bere ikasketak, eta an F. P. 2, len *maestría* zana, egin eta Eusko Jaurlaritzan garrario saillean asi zan lanean. Gero, transferentziak zirala-edo, Gipuzkoako Aldundiko errepideetako saillera pasa zan. Or egiten du lana aspalditxoan eta Lasarten bizi da.

Seigarrena, bostgarren mutilla, au ikastolan ibilli zan asieratik E. G. B. bukatu arte. Gero Don Bosko ikastetxe ortara aurkeztu zan, eta bai lortu ere beka. Etzan, len bezela, pentsio osokoa; baiña ango ikasketak, bai, osorik zituen. F. P. 2 bukatu ondoren, an Don Bosko bertako irakasle bezela asi zan. Soldadu izan ondoren, berriz, bikoizle bezela asi zan lanean, lenbizi Euskal Telebistarentzat, eta orain edozein iragarki ere bai, edozein motatako itzulpenak egiten ditu. Lasarten bizi da.

Zazpigarrena, bigarren alaba, etxeko txikia, ikastolan ibilli zan. Gero, Andoaingo La Salle ikastetxean, eta azkenik

Donostiko Nazareten, Lanbide eziketean. F. P. 2 bukatu ondoren, Eusko Jaurlaritzan asi zan Gasteizen. Baiña beti “onuntza begira” lo egiten zuen nunbait eta, lenengo egokiera izan zueanean, Donostira etorri zan eta Osasun-saillean egiten du lana. Lasarten bizitzen da.

Ikusiko zendutenez, ez dut lan zailla izan seme-alaben ikasketak burutzeko arazo ortan. Gauza arrigarririk egin gabe, danak atera dituzte beren bekak, batzuek aundiagoak besteak baiño, baiña danak bakoitza bere lekuan eta bere garaian. On-do portatu ziran zazpi biurri oiek, ia ogeina urte arte eskolan ibilli arren. Urte bat galtzea zer dan ez dugu jakin eta ez dut uste gutxi danik. Nik beste ezertan baiño arrotasun geiago daukat gauza ortan. Eskerrik asko zazpiroi! Bejondeizuela!

Amaika buruauste eman zizkidaten, ala ere; baiña beren amari ez gutxiago, askoz geiago baizik. Baiña onek beste atal bat merezi duela uste dut, eta saiatuko naiz an argibideak ematen, alik zeatz eta egokiena.

Ondo pentsatzen jarri ezkerro, zeñen ederra ta mamitsua dan itz au: ama! Nor ez da oroitzen bere aurtzaroaz? Bear ain-beste iñork ez; baiña oroitu geienok egingo gera, noski, ama edo amatzat euki genduenarekin. Aurak gozotasunik artu baldin badu, amarekin izango zan zalantzarik gabe; eta aurtzaro-koak bakarrik ez. Geroagokoak ere ez dira gutxiagorako izaten. Orixe: zenbat eta aziago egiten ari dan, orduan eta errezago irrist egiten dutela eta askotan konturatu gabe pasatzen dirala. Baiña geroxeago, bederen, oroitu egiten dira eta maitasun osoz egiten diran gauzak maitasun biurtzen dira geienetan.

Iñun baiño geiago baserrietan izan dirala esango nuke etxeko bizimodua eramaten dakiten emakumeak. Etxeko go-bernu aien esku zan dana. Gure artean ere ezin esan etxean izan ez dedanik emakume jator baten bearrik. Azi ditugun se-

me-alaba sailla aurrera ateratzeko, andik edo emendik, asko bear eta nik an edo emen lana egin bear. Gaiñontzean, ainbeste arazotan sartuta ibilli nintzan. Askotan etxeko goraberatan geiegi laguntzerik ez dut izan, eta emazte gaixoak amaika ordu latz ikusi du, aurra azitzen eta ezitzen ari zanean. Garbi aitortuko dut, nik zerbait egin badut gizartearen onerako, nere emazteari esker izan dala.

Eskerrik asko, Joxepa. Zugatik izan ez balitz, ez nuen ezer egingo; eta, ezer egin badut, zuri dagokizu neri ainbat edo geiago.

Baiña ez da emen bukatzen emakumearen lana. Umeen zat gauza beneragarria da benetan amonaren izena. Umetan amazulo xamar izaten dira ume geienak. Baiña, koskortzen asten diranetik, beren arazotxoak izaten dituzte. Orditik asten dira gauza garrantzitsuak izaten amonak. Umeak orduan arkitzen dute nun babestua beraren gonapean edo inguruan.

Amonaren babes ori lenago arkitzen zuten, edo arkitzen genduen, txikiagoak atzetik etorri ziralako. Gaur egun ortan ez dago arazo aundirik. Baiña gaur lanera joan bear izaten dute amak, eta amonak egiten die kontu gauza askotarako. Orregatik, arengan dute konfiantza itxu-itxua, eta gauza askotarako amarengan baiño uste ohea artzeraiño. Gerora, ordea, amona ona bai, baiña atzeratua edo zarkitua arkitzen da. Ori bai: ez dago berea bezelako beste amonarik munduan. Aldaketa asko denbora gutxian. Olako goraberak izaten ziran len, eta olakoxeak dira orain ere. Gauza asko ari da aldatzen, baiña ustegabeen alkar jotzen dugu bi muturrak. Banatzen ari generalakoan alkar jo, mundu txar au borobilla baida.

Baiña amonaren kontu ori gabe azi ta bizi egin bear izan zuten gure umeak. Amonarenak ere, gure umeak azi ta ezi egi-terakoan, nere andreak egin bear izan zituen. Baiña gero, bai, izan dute benetako amonaren bearra, eta gogoz eta egokiago

egin ere egin zuela, eta egiten duela oraindik, baiña bere bilobekin.

Orain seme-alaba sail galanta, dana inguruan bizi zaigu eta danak beren familitxo ta guzti. Eta, jakiña, aien umeak as-tean bein bederen etxera ekarri bear izaten dira. Bi aldiz esan bearrik ez dute izaten, gaiñera. Auek ikastoletatik datozenean artu edo orrelako zerbait egiten ez badu, ez duela ezertarako balio iruditzen zaio. Baiña gauza bat dago segurua: beti lanean ari bear. Bestela, ez da gauza onik gure etxean.

Ezkondu giñan egunetik berrogei ta amar urte igaro ziran garaian, urrezko eztaiak egin giñun Urdanetako elizatxoan, eta bazkaria izan genduen an bertako *Bar Izarra* deritzaion ostatuan: bost seme ta bi alaba, sei ezkonduak eta bat ezkon-gaia, alaba gazteena; amairu billoba eta bi billoba zarrenen senargaiak; geu, senar-emazteak; eta apaizarekin, ogei ta amai-ka. Sail ederra etxe utserako, esaera dan bezela.

Bazkalondoan bazan txistulari, duntziñalari, trikitalari ta dantzaria naikoa, ta danak etxeakoak. Bost senide gazteenak *Erketz* dantza-taldean ibilliak dira, eta billoba geienak ere bai. Ez da ain arrigarria dantzariak eta soiñujoleak ugari izatea; baiña ez dute nere aldetik artua, beren amagandik baizik.

Lasartera bizitzera

Emen asten da nere bizitzako zatirik luzeena; goraberarik geiena eta aundienak izan ditudana ere bai. Beraz, esan ditek garrantzitsuena izan dala neretzat. Orregatik saiatuko naiz al dutan zeatzena kontatzen emen izan ditudan gertaerarik nagusienak bada ere, guzti-guztia eziñezkoa da baiña. Ni bezelako gizon arrunt batek ez du izan ere egiten garrantzizko gauzarik, danak kontatzen asita.

Ni onera etorri banintzan, batik-bat etxeko lasaitasunagatik izan zan. Ez daukat etorritako damurik. Askoz ere biziera normalagoa da, batez ere erreleboetan lana egiten danean; eta danean egin bear, berriz, gurea bezelako lantoki batean lana egin bear duenak; astelen-goizeko seiretan asi ta larunbat-arratseko amarrak arte gelditzen ez dan tokian dabillenean. Naiko irteera tristea jartzen zan. Goizeko bostetatik laister atera bear izaten zan Oriotik, garaiz etorriko bazan. Eguraldia nola zan ere arrastorik etzan izaten. Dan suertea dala, atera bear izaten zan.

Etxeko lasaitasunagatik esan dut eta alaxen da, izan ere. Motoan ibiltzen nintzan, eta ainbeste gauza entzuten ziran, batean eta bestean gertatuak. Egunen batean bat edo bestea-gatik ordu laurden bat geroago etxeratzean, an egongo ziran danak bildurrak aidean. Ori. istripurik izan ez nuelarik, gaiñera. Bein alakorik izan banu, ez dakit nola jarriko ziran.

Lendik emaztea bakarrik egoten zan, eta gero, berriz, semeak eta danak berdin. An egongo ziran ildakoak baiño aurpegi txarragoarekin noiz iritxiko nintzan zai, eta ezin zan geiago artan jarraitu. Etxeak egiten gogor asiak zeuden emen Lasarten, eta bertara etorri giñan eta danontzat obe. Emen ere

etzeuden gauzak ondo, baiña lengo esaera zarra da Jaunak agindu zuela “otzik ainbat estalki”, eta aurrera!

Gaitza gertatzen zait neure burua billuztea, beti besterik billuzten ari izan naiz baiña. Oraingo ontan neure txanda gertatu da nunbait eta ikusiko dugu zer eta nola moldatzen geran. Baiña besterena askoz errezagoa dala derizkiot. Orain arteraiño-ko lanari begiratuaz ala esango nuke, beintzat.

Zazpi urte igaro nituen, Orion bizi nintzala, Michelin-en lanean. Baiña azkenean, oi dan bezela, lanak beregana bildu ninduen eta geroztik emen nabil aruntz eta onuntz, batean obetoxeago eta bestean okerrago. Artean sasoi bikaiñarekin etorri nintzan, baiña orain arrunt zartu ta biotzari loak artzen ez uzteko iratzargailua ipiñirik, eta ala ere naiko lanetan. Baiña ementxe naiz, gauzen erdiak aztuz, au nai ez ta beste ori komeni ez. Aspaldi bete zala, alegia, lengo gizaldiaren lenengo laurdena!

Eta ni ordurako oiñez banenbillen, nola nai duzu, bada, oraindik sasoi eukitzea? Ori eziñezkoa da, baiña dagoen pixkarekin saiatzen naiz. Naiz lenagotik egin bearreko lanak izan, obeto dala berandu iñoiz ez baiño pentsatuz, aurrera!

Etorri baiño lenagotik ezagutzen nuen emengo eskoletako egoeraren berri: oso kargatuak zeudela eta mutikoentzat Añorgan bazeudela eskolak, oso onak gaiñera; Michelin-go langilleen semeak bertan sar zitezkeela, azterketa bat gainditu ezkerro; baiña ortan zeudela kontuak; oso azterketa gogorra jasan bear zutela ta abar. Berai buruan sartu arazten saiatu nintzan alegiña eta ondo portatu ziran ortan. Gaiñerakoan biurri samarrak baziran ere, ortan or nunbait ibiltzen ziran; eta adiñaren barnean zeuden biak gainditu zuten azterketa.

Bigarrena, berriz, batxillergoa egiten asia zegoen Zarauzko frantziskotarren eskolan, eta Lasarten bertan asi zan, batxillergoa jarraituz. Naiko lanekin baiña atera zuen aurrera urtea, beintzat; eta urtea ezin esan gaizki asi genduenik.

Mutiko zarrenak amalau urte zeuzkan, eta lanbide-ezieran asteko adiñekoa. Ernaniko *Karmelo Labaka Lanbide-Eziketa* zeritzanean asi zan. Beka ere atera zuen, gaiñera, eta asiera ona eman geniola esan bear. Zalantza aundia sortzen zidan arazo onek pentsatzen nuen bakoitzean. Ez nuen oso gutxitan pentsatzen, oso maiz baizik. Lasarte eskolaz ain gaizki zego-ela jakiñik, neretzat gurutze bat zan eskola-arazo ori; baiña asieratik, beintzat, or nunbait asi giñan.

Ez da berriketako kontua, izan ere. Zazpi urtetik amalaura tartekoak lau mutil eukirik, erriko eskoletan fundamentu geia-go egon ez, geroxeago ikusiko dugunez. Ez uste txorakeria danik langille baten etxerako. Baiña, zorionez, uste baiño obeto atera nintzan arazo ortatik. Orain lana gogotik egitea gelditzen zitzaidan elburu bakarra, mutikoak eskoletan ondo asi ziran arren, alde askotarako bear zan eta.

Arotz-taller koskor batean asi nintzan ordu sartzen; eta luzaro baiño len txabola-moduko batean neure kontura. Akordagoitia deitzen zitzaion egur-almazen aundi bat bazan Lasarten. An tabloia aukeratu eta enkargatuak neurtzen zuen. An bertan neurrira zerratu eta makinan pasa, zulatu, espigatu eta, esate baterako, montatu besterik etzutela jartzen uzten zidaten. Zenbat denbora pasatzen nuen makina batean eta bestean, zenbat zan adierazten zuen papera ekarriko zuen enkargatuak, neronek kobratu al izateko. Illean bein danen kontua pasatzen zuen, eta aurrera.

Arraska (*fregadera*) azpiko atea eta ikaztokiak (*carbónicas*) egiten nituen geiena. Sukaldeko armarioak ere bai. Orduan etxea egin eta etxea egin ari ziran emen, eta etzuten ez arraskapeko aterik jartzen, ez ikaztokirik ere. Etxea erosten zuenak jarri bear izaten zituen, al zan bezela.

Zerbait egin bear eta olaxe ibiltzen nintzan. Sasoi neukan eta, lotarako denbora izan ezkeru, etzidan ematen bildurrik.

Orretzek erabiltzen ninduen gaizkiena, loak, eskasian ibiltzen nintzan sarritan eta.

Baserritik atera ondorenean, Zarautzen ibilli nintzan aroz-tegi batean, eta emen ondo etorri zitzaidan ori. Lana bazegoen eta egin bearra ere bai. Oiek biak alkarrekin diran arte, or nunbait etortzen dira. Bat bai eta bestea ez askoz okerragoak dira, batez ere bearra egon eta lanik ez danean. Baiña, Jaunari eskerrak, orixe ez dut izan. Batean edo bestean lana beti izan dut, egin nezakeana baiño geiago gaiñera.

Onuntz bizitzera etorri ta laister esan zidaten emen ere asiak zeudela orduan asi berri zan gauza baten atzetik: ikastola jarri nairik, alegia, eta ea tarteko izan nai al nuen. Nola ezin eman zezaidaketen berri oberik, bertatik asi nintzan billeretara joaten eta artan jarraitu genduen aldi luze batean, bein batean eta bein bestean bilduz, lapurreta aundi bat eratu nai bagendu bezela, beti ixilka-mixilka, zergatik eta geure umeei geure izkuntza erakusteagatik, ez geiago ta ez gutxiago.

Asi bagiñan asi, etzan egun baterako lana izan ikastola sortzea. Kosta zitzaigun ederki txulo bat billatzea; eta azkenean, ez guk nai bezela, baiña nunbaiten sartzeko bidea egin genduenean pozik. Nola-ala asi egin bearra zegoen eta asi, al genduen bezela.

Ilunabarretan izaten ziran billerak, eta ordu batzuk galdu ere bai batetik. Logale galantak pasa arazi ere egin zizkidan urte-mordoska batean. Baiña nola edo ala igaro giñun urte aiek ere eta aurrera. Danakgatik ere bizi gera beintzat oraindik, Jaunari eskerrak.

Nik arkitu nuen alderik aundiena ortantxe arkitu nuen Oriotik onuntz etorrita: etzitzaiela itz bat bakarra ere entzuten, batez ere umeen artean, euskerazkorik. Ez, ordea, itz bat, bearda ere! Ezagunen umeei edo orrelakoei zerbait euskeraz esan eta erderaz erantzuten zuten. Zenbait gurasok arro-arro

esango zuen, gaiñera, ulertu egiten zutela baiña esaten etzekitela, eta lasai demonio gelditzen ziran. Ez dakit beren arrokaria euskeraz ulertzen zutelako zan ala erantzuten etzekitelako izango zan. Baiña ez dago alde aundirik batetik bestera. Biak naiko etsitakoaren ateraldiak dira, ondo pentsatu ezkeru.

Orion gertatzen zanetik batekoz besterakoa zan emen gertatzen zana. An kanpotarren umeei etzitzaien besterik ezer gelditzen: edo euskeraz ikasi ala ixilik egon. Eta emen alderantziz: ixilik egon ala erderaz itzegin. Ori geure umeei eta geure lurrean. Nai bazan eta ez bazan, ortik igaro bearra zegoen. Zergatik? Emen euskaldun jendea geiena bildurtua zegoelako.

Ainbesteko erasoak izan ere egin zituen eta ez da arritzekoa. 1930 ezkeroztik erauntsipean egon zan eten gabe, eta Oriakoa ori baiño lenagotik izana zegoen gaiñera. Beraz, ez dugu arritu bear jendea etsipenean murgildua egotearekin. Azkenengo Espaiñiako jendearen etorrera izugarria eldu zan garaian, ugoldeak errekatik ateratzean bezela, jo ta danak apurtu bear balitu bezela, irixten zan tokiraiñokoa. Dana bere mende artu bear zuela zirudien. Urte aietan soldaduska egin eta ez dut uste iñor etxera itzultzen zanik. Danak onuntza eta ederki egiten zuten, gaiñera. Etxean len ere egiteko ainbat egongo ziran jateko, eta lana zegoen tokira etorri bear lanik etzeukanak.

Gerra-denboran ere oso gogor zigortua izana zan Lasarte, batez ere Oria. Ezin bururik jasorik zebillen artean. Eskerrak ikastolari eta Ttakun bieri. Orain, beintzat, nai duenak ikasi eta nai duenak itzegiteko egokiera dauka, eta ez uste gutxi danik, emen zegoen atarialdea ikusirik. Orain berrogei urte inguru esan balitz emengo ume geienak ikastolatik pasa bear zutela, nork sinistu?

Arritzeko erakoa izan zan kanpoko jendearen etorri bearra. Guk ere orixe egin genduen eta zer esango zan? Bizi be-

arrak jan bearra berekin du; eta, jango bada, lana egin bear; eta, lana emen zegoenez, onera al genduen danak arrapaladan alde guztietatik, eta adin guztietakoak, gaiñera. An eta emen jira eta bira ibilli ondoren, emen lurra artzen zuten askok, edo geienak beintzat.

Alako etxeak egin bearra ere ari zan, 1960-1962 bolara artatik asi ta aurrera amar urtean. Gu ere orduan etorri giñan; beste asko ere bai. Izugarrizko aziera bat egin zuen erriak –barkatu, orain erria dagoen onek–. Etxeak an eta etxeak emen. eta erriak bearrezkoak dituen infrastrukturak: ura, argia, eskolak, garraio eta ibilbideak, adibidez. Baiña bai bearren-bearrena ere: erria ta erriko serbitzuak. Bai, jau-na. Ori dana bearrezko zitzaion Lasarteri. Ori dana eta geia-go ere bai.

Beeraxeago esaten dut kalea eraikitzeke dirua geuri eskatu zigitela, etxetik lanera joango bagiñan. Euria egiten zuenean, ankarik ateratzerik ere etzegoen loitan edo putzuan sartu gabe. Alakoxea zan, izan ere, emengo egoera. gezurra dirudi baiña. Eman egin bear gaiñera. Ura zan marka, ura! Esate baterako, txaluparen bearrean giñan, etxetik ateratzeko.

Ori ibilbideei dagokionez. Eta garraio-bideak, berriz, oien antzekoak. Erriaren erditik pasatzen zan Madrillera zijoan errepide nagusia (N-1), eta juxtu eliza ta erriko bulegoaren ate aurrean igarotzean zegoen batxe zulo ikusgarri bat. Antxe erori zan ipurdiz gora errusitar neska txirrindulari bat, eta min artu zuen gaiñera, munduko txapelketak emen ospatu ziranean. Ederra propaganda errigune batentzat!

Eskolak zeuden bakarrak lepo-ezurreraiño beteta. Ori, sei urtez gorakoekin. Andik beerakoak etziran kontatzen; auentzat naiko loa eta naiko esnea, esaera dan bezela. Atzetik bulzata bezela atea itxi ta bertan egon bear izaten zuten irurogei ta amar umetaraiño klase bakoitzean.

Gaixotzea egokitzen zitzaionak bere burua eriotzaren atzaparretatik gertu sentitu bear izaten zuen. Nundik asi sendagille billa? Ezin joan, berriz, etzeuden gauzak orain bezela ta.

Argia ere alamoduz zebillen. Sendagillerik etzegoen amasei milla bizilagunetik aurrera joan arte. Dana era ortan, gauza guztiekin ez bazan ere, geiengo aundi batean bai. Bi milla ta bosteun bizilagun izatetik ia ogei milla izatera kolpean iritxi zan Lasarte. Bertan ezer ez, eta kanpoan bi erritan *urbanizazioa* egiteko ardura. Baiña arretarik batere ez, eta gero alako emaitzak eman bear.

Gauzarik xinpleena bear bazenduen ere, Ernani edo Urnietara joan bear, eta aurreraxeago adieraziko dut nolako arerra egiten ziguten an. Orregatik zeuden kaleak zeuden bezela. Etxeak egiten asi ziranean, dana batxez beteta lenbizi, eta kale guztia beteko batxe bat, iñor pasa ezin zan tamaiñan jartze-raiño. Ori konpontzeko dirua ere geuri eskatu gaiñera. Ez naiz gezurretan ari. Ori, orduko Urdaneta kalean, gaur Pablo Mutilozabal. Eta orren antzera beste gauzak. Nai ta nai ez, erria bearrezko genduen emen. Baiña ni bezela oroituko dira kale ontan bizi ziranak, eta galdetu kalea egiteko dirua eskatu ziguten ala ez, emen bizi giñanoi.

Oesteko pelikuletan ikusten zan urrearen sukar-bolaran egiten ziran *campamento minero* deitzen zioten errigune oietakoa zirudien, alde ortatik eta bestetik bere etxe-tarteetako putzu aundiekin. Loia, berriz, nun-nai. Etxegintzako langilleak beren katuska aundiekin, mineroen orde z ikusten ziran, loi tartetik irten eziñik. Beste aldetikan, berriz, etxea etxearen gaiñean egiten ari ziran. Nola ulertzen zan kontraste ori? Iñola ez, eziñezkoa zan eta.

Alde batetik alako aberastasuna zeukan. Etengabeko etxegintzan ari ziran baztar guztietan. Beste aldera, serbi-

tzuetako murriztasun ura alakoa. Etziran iñongo aldetik bat etortzen. Baiña emengo errealitatea orixe zan; ori ez dago ukatzerik.

Aginte-utsune edo *vacío de poder* izugarria zegoela ikusteko orixe asko zan, beste gabe. Batzuek nai zutena egiten. Erri guztia mendean balute bezela zebiltzan emen etxegille ausarta batzuk. Alkaterik gabeko errietan esaten dan bezela, «*tiran la mierda desde el balcón*»; eta orixe egitea bakarrik falta zala esango nuke bolara artan emen.

Emen gertatzen zana zan empresa aundiak eta indartsuak zeudela, eta bereala jarri zituzten martxan beren indar guztiak. Espainiako nekazaritzatik millaka ta millaka langille merke zetoziela ikusten zuten. Kontuz emen: langille merkea ez dut esan nai desteñaz, baizik an kolpetik lanik gabe gelditzen ari ziranak, kanpo-lanak mekanizatzen ari ziralako. Eta, noraezean egon bearrean, emen lana bazegoen otsa entzutean, lan billa zetozen, eta enpresak artu, legez eta bidez zetozen eta. Bereala etxea bear, gaiñera. Gurasoekin ere asko etorri ziran. Ezkonduak ere bai. Eta ezkondu naian zeudenak ere ez oso gutxi. Bein beren ogibidea ziurtatzen zutenean, urrengo pau-soa nola edo ala etxea lortzea izaten zuten. Orregatik zegoen alako arrapazka etxea lortzeko.

Etxeak artzeko orduan laguntza zerbait izaten zan. Michelin-ek ogei ta amar milla pezeta ematen zituen maillegu bezela, irabazten zuenetik gero kentzen joateko. Orrekin poztuta ere asko animatzen ziran etxeak erosteko; eta batez ere bearra. Bear gorria zegoen eta zenbait etxegillek ederki aprobeztatu zuen jendearen bear ori, ta bai ere aldamenetik zeuden laguntzak.

Orrek ondo adierazten du zer gertatzen zan emen. Kanpotik jendea multzoka etortzen asi zurretik asiak zeuden, berebiziko azi-aldia egiteko asmoetan, barrengo eraikuntzak egi-

ten. Artarako bai; bazetorkien ongi jende gaztea ta ausarta aukeran eukitzea. Tiro batekin bi txori iltzeko: bat, une artako lanak egiteko; eta bestea, ondorenean lantokian bertan artze-ko aukera egiteko. Ettetorkien nolanai arrapaladan zetorkien jendetza ugaria.

Nora joaten ziran emengo etxeei zegozkien infrastruktura-ko kanonak, etxegillea ala goragokoa? Nik ez dakit, eta beste iñork ez dit arrazoirik ematen gauza oni buruz; eta arritze-koa da alde batetik era artako aberastasuna; eta, bestetik, tamaiña artako miseria ta arlotekeria leku berean eta ordu berean. Eziñezkoa dirudi eta, izan ere, ala izango da, iñork besterik demostratzen ez duen bitartean. Baiña bazegoen arrazoi bat beste iñon, edo ia beste iñon, ezagutzen etzana: Lasarte etzala erria oraindik; eta orixe naikoa, ikusi bear zuketenak ez ikusteko. Eta esaera dan bezela: «Ikusten ez duten begiak ez dute negarrik egiten». Berriz diot: nora zijoazten len aipatu ditudanak? Ez esan neri, ogei ta amar bizitzako etxean, bizilekua erosi ta gero, pausorik emango bazan kalea zerbait moldatu al izateko, Ernanitik etorritako ziñegotzi batek zergatik dirua eskatu bear zigula guri? Ez al genduen, ba, ordaintzen etxearekin batean eta ondorengo zergakin kalean ibiltzeko eskubidea? Zertara zetorren eskaera au?

Beste iñun gertatzen etziran gauzak gertatzen ziran emen egunero, bat ez bazan bestea. Erririk ezaren kontuak ziran oiek eta gertatu bear zuketenak gaiñera. Ainbesteko errigunea osatzen zuen etxe-multzoa, lau-bost kilometrotara zeuden bi erritatik zuzentzeko, aundiegia zala nabarmen agiri zan.

Euria atertzen zuenetik asten zan legortea, eta erria urik gabe uzteko etzuten beste ezeren bearrik. Andik gerorago ere ortan jarraitzen genduenez, *Goiz-Argi* aldizkarian jarri nituen onoko bertso aukerak eta *Bertso idatziak* saillean datoz; baiña barkatu bat emen azaltzea, ainbeste merezi du eta:

Atertzen baldin badu
iñoiz euririkan,
seguru ez dugula
etxean urikan.
Ala ere apenas
duten asmorikan
etxeak egiteai
utzitzekorikan.

Bistan dagoen gauza da, onezkero konturatuko ziñanez, Lasarten *desbarajuste* osoa geneukala arazorik geienetan; eta etzan, gaiñera, ikusten gauzak zuzentzeko berealako irteerarik. Iñork etzeukan ezer egiteko konturik, eta ortatik danok alkarrekin gindoazen ondamendira. Gauzak itxura ori zeukan. Baiña ez al zeukan ezeren alde onik ezerk emen?

Bai: lana. Orixe zeukan bere alderdi on bakarra. Batean eta bestean lana erruz zebillen emen, eta gero ta geiago sortzen zan. Jendea etorri ta etorri ari zan; baiña danak lanean asten ziran an eta emen. Ortan, bai, ondo zegoen Lasarte, ta ori jendeak ondo zekien. Orregatik zetorren ainbeste jende; edonundik etorri ere, gaiñera. Goraxeago aipatu ditudan zenbait alderdirengatik ere ez oso gutxi, gaiñera.

Len esan dedan bezela, Lasarteko euskera oso auldua arkitzen zan. Etzan batere arritzekoa, eta etorkiñen zalapartako etorri bear arekin, erabateko eta betiko galbidearen oiñetan jarri izana gure euskera gaixoa, eta alaxe zegoen egon ere. Zetorren jende-ugoldeak, gaiñez eragindako errekak aurrean arrapatzen duen guztia eramaten duen era berdiñean, bazirudien dana eraman bear zuela. Baiña ori galerazteko orzeuden zenbait gizon, berak alegiñak egiteko eta aldameneetik zetoztenei atek irikita uzteko ere bai. Nerea bezelako arazoak lekuko.

Esan bezela, Lasartera etorri berria nintzan artean, ikastola jarri nairik asiak zeuden. Besterik ez nuen bear izan nere alegintxoia egiten asteko, eta alaxe egin nuen, naiz nere gaueko erreleboa tokatzean, edo obeto esateko arratsaldekoan, zailtasunak izan, amarretan ateratzen bainintzan lanetik. Baiña an egoten ziran zintzo asko, *Bar Joxe Mari* tabernan, Jo setxo Yartza eta Kerman Rekondo biak ala ere, billerako berri emateko zai. Alako lagunak lankide izatea guztiz atsegin da; baiña ain dago murriztua, galtzera doala ematen du. Aiek ere il ziran eta goian bezate atsedean.

Jo batean eta jo bestean ibilli giñan alegiñak egiten doaiñeko tokixoren bat arkitzen ote genduen; baiña iñundik ezer ez genduen ateratzen. Ala ta guztiz, bein ere ez genduen etsi. Putzura erori bai, baiña ito baiño lenago ateratzen giñan beti. Ortan suertea izan genduen: eroritako bakoitzean altxatzeko animoa arkitzen genduela gutxienez, eta aurrera berriz ere.

Zailtasun guztiengatik ere aurrera jarraitu banuen, beste ezer baiño geiago uste dut aiek biengatik izan zala. Nere izakera zakar onek ematen zizkidan naiko lanak. Nere ustez ateraldi ain kaskarrak ziranean, eta beti berenarekin ateratzen ziralara ikusirik, su artu bearrean jartzen nintzan, eta alakoetan aldamenean zein dauden asko esan nai izaten du.

Nolabait, beintzat, ainbeste lekutan atea jo ondoren, irixi giñan ondoraiño eta etsi genduen doaiñeko lekuri ez genduela lortuko. *Andre Joakina-enea* salgai omen zegoela ta an asi giñan galdezka; baiña an jaso genduen belarriondokoarekin uxatu ziran gure zalantzak. Billeretako multzoa murriztu ere bai, ordurarte ibilli giñanetik. Baziran gure inguruan diru-otsa zuten gizonak; baiña laister aldegin zuten gure ingurutik, milloi t'erdiko diru-kontuak aipatzen asi giñan ordurako.

Bat ez beste danak, gaiñera. Jakiña: bat ori Kerman Rekondo izan zan. Zer galdua zeukana bakarra, asi ta buka, beti

aurrean azaldu zana. Besteak, ni aurrena nintzala, anketatik zintzilik jarrita ere etzitzai guken ezer askorik eroriko. Danok langille soillak giñan eta garai artan badakizu nola zebillen langilledia, egun batekin bestea arrapatu eziñik.

Danakatik, artzea erabaki zan milloi t'erdian *Andre Joakina-enea*. Aurrezki Kutxa Munizipalak ipotekan emango zuela diru guztia eta orren pozean aurrera jo genduen. naiz eta buruauste galantak sortzen zituen. Orren itzulera nola edo noiz egingo zan noizbeinka pentsatzen genduenean, alakoe-tan, bai, sortzen zan ikara.

Lortu zan etxe ori artzea; lortu ziran andereñoa eta aurrak ere; asi zan ikastola bere martxan eta zorioneko giñan lorpen ori egin genduelako. Baiña bigarren urtea bete zane-tik laister izan genduen abisua D. Nikolas Lasarte jaunagan-dik. Baziran gure artean esaten zutenak etzegoela orren bil-durrik. Baiña orduan etzegoen olakorik. Alakoan begiak argi eta belarriak tente, Aurrezki Kutxa Munizipala deika asi zan garaian.

Joan giñan esandako egunean. Apur bat zai euki ondoren, agertu zan Lasarte jauna, bera baizan Aurrezki Kutxa Munizi-paleko zuzendaria; eta, zegokion bezelatsu, pareta baiño se-riagoko aurpegiarekin or asten da orrenbeste denbora igaro ta ez giñala azaldu ere egin, eta ez informerik bialdu eta ez ezer egin. Etziran gezurrak, gaiñera. Zenbat olako ezartzen zizki-gun, bazirudien pelikulako gaizto-sailla giñala. Baiña ala be-arrez informea eramana genduen, esanez nola aur askorekin borroka latza ari giñan jokatzen; urrengo urterako Rekondo-ren etxean gela antolatu bearrean giñala, ark erosi zigun etxea gaiñezkatuta gendukalako lendik ere, bat andereñoarentzat utzia zeukala eta...

Orrelako kontuekin erantzun zitzaion. Oso estu genbiltza-la eta bitatik bat gendukala egin bearra: ari zuzen ordaintze

ezkeroz, andereñoak gutxitu, aur geiagorekin lan egin araztea naiz pedagojiaren aurka joan. Etzitzaigula beste jokabiderik gelditzen; aurrak danak langilleen semeak ziralako eta berak ondo zekiela nola zebillen langilledia.

Il edo biziko jaupada izan zan ori. Gure aldetik orrekin argi gelditzen zan ikastola lanean gogor ari zala, batez ere ain denbora gutxian alako ugalmena izaten ari zalako, batetik; eta, bestetik, danak langilleen semeak ziralako. Ortik baize-torkion arrakasta geiengoaren aldetik. Naiz diruz urri ibilli, ikastolaren jarraipidea or ikusi ziteken.

Orrela ulertu zuela uste dut Lasarte jaunak ere. Bazirudien pelikulako gaiztoak aldatu egin giñala. Itza artu zuen berriro eta esan zigun angoagatik pedagojiarik ez kargatzeko, arren; arek nai zuena zera zala: urtearen inguruan genduenarekin azaltzeko, eta batez ere informea eramateko, orduan eraman genduen bezela; eta urte batzuetan, beintzat, iraungo zutela. Olako arrazoiekin amaitu zigun bere jarduna.

Gure tripetako miñarentzat kamamil ur oberik ezin zezaken eman. Eguerdira artekoa oso atsegiña izan etzan arren, pozik etorri giñan Lasartera; eta arratsaldean lo lasai eginda joan nintzan gauetz lanera. Baiña egon, egon: laister etorriko dira ortik onerakoak. Andik aurrera diru kontuei geiago begiratu zitzairen, eta ala obe. Batekin aski zan alakoa eta etzan berri-z gertatu.

Lasaitu galanta artu genduen arren, etzan luzarorako izan lasaitasun ori. Aurretik asiak zeuden an eta emen ikastolak itxi arazteko meatxuak. Orregatik biltzen giñan Loiolan Gipuzkoa guztiko ikastolik geienetako ordezkariak, elizaren babesean oiñarrirituz zerbait geixeago uzten ote ziguten asmo edo naitasun orrekin. Ni ere joaten nintzan aruntz.

Illean bein biltzen giñan D. Jose Lasa ataundar kalonje ezagunarekin. Onek gotzaindegiaren ordezkari-tza eramaten

zuen; ixteko meatxuak artzean zer paper bear ziran informatu ere berak egiten zigun.

Guretzat laguntza izugarria egin zuen, karguan egon zan garaian, D. Jose Lasak. Batetik elizak itzal aundia zeukan artetan; eta Loiolako billeretan, bera buru zala egiten ziran eta setatiak ugari biltzen giñala derizkiot, neroni aurrena nintzala. Baiña guztiok alkarrekin eztabaidatu ondoren erabaki asko artu ziran, eta batek izaten zituen goraberak guztiei jakin arazten zizkien, batez ere lege aldetik, eta danen bearra izan genduen. Eskerrik asko, Lasa jauna. Bagenduen zure bearra.

Zenbait billeraren ondoren erabaki zan bakoitzak bere erriko erretoreari esatea ea gertu zegoen ikastolaren ardura-dun egiteko, edo bere ordezeko bat izendatzeko, berari ondo ez bazegokion. Guk ere orixe egin genduen, an erabakiei jaramon egitearren. Baiña aurretik ere bagenduen guk geure kontsiliaria, eta sorrerako taldekoa gaiñera: Pako Azpitarte jauna. Baiña esana betetzeko D. Migel Olaziregi jaunari zegokion eta ari eskeini bearra zegoen, eta bai egin ere, Lasarteko erretorea bera zalako.

Bere betiko oiturari jarraituz, lenbiziko purrustada bat bota zigun: lendik ere bazeukala naiko lana orain berririk artu gabe; ikastola zabaltzerakoan ez geniola ari baimenik eskatu eta ea orain zergatik. Nik al dakit zenbat olako esan zizkigun Josetxo Yartza eta biori. Baiña, noizbait aspertu zanean, asi giñan esanez ez uste izateko geure kabuz joan giñanik berarengana; ondotxo genekiela zenbateraiño lanpetuta zegoen; baiña Loiolan erabaki zala; D. Jose Lasa zala Gipuzkoa guztiko kontsiliaria, eta aren lankide bezela agertzea ea ez al zerizkion oore aundia zanik; gaiñera, etzeukala lana egin bearrik; D. Frantzisko or zeukala sasoi obekoa eta ari baimena ematea naikoa zuela. Orrela, izenpetu zigun, eta ordezekoa izendatu ere bai. Bere eginkizuna bete zigun beintzat, eta gu ere pozik itzuli giñan.

Emen beste gauza bat ere badago aipatzea merezi duena: Josetxo Yartzaren kontua, alegia. Berak aurrak aziak zeuzkan, ikastolako adiña paseak, baiña seme-alabarik etzeukan ezkon-urteetara etorritakorik. Beraz, gizon onek etzeukan ikastola-
ren bear gorririk, guk geneukan bezela. Baiña biotzean bai
sua, ta arek bultzatzen, nunbait, euskeraren alde lana egitera,
ta bai egin ere zintzo asko. Goazen arira.

Une artakoa egiñik gelditu zan. Erretorearen babesean ja-
rri genduen. Loiolako araua betetzen genduen orain, eta itxa-
ropen apur bat ere gelditzen zitzaigun Elizaren babes osoa lor-
tzeko. Baiña etsai asko geneukan, eta gogorrek gaiñera. Esan
ziteken oraindik asi besterik ez genduela egin zailtasunak
txostatzen eta orduan zetoztela txarrenak. Izan ere alaxen zan.
Borroka gogorrek egin bearrak geunden, batez ere legearekin
asia geneukan gatazka latza gaudituko bazan.

Loiolan biltzen giñan danontzat edo geienontzat ori zan
arazorik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetakoa. Tarteka
banaka batzuk bazeuden, ori etzala ezer eta ez kasorik egite-
ko ziotenak. Baiña etzeuden aiek gure ataka berdiñean. Etzeu-
katen umerik ikastolan eta aiek erraz esaten zuten. Gu geun-
den an larri. Ikastola itxi orduko kalean gelditzen ziran umeak
eta ori ez izan, berriz, auntzaren gauerdiko eztula.

Loiolako billerak maiz aipatzen ditudala esango duzu, ira-
kurle. Baiña ez dut uste geiegitan. Zergatik? Izan genduen bo-
lara txarrenean antxe billatu baigenduen gure babesa eta bata
bestearen ingurura bilduz alkar kontsolatzea. Ortarako biltzen
giñala esandakoak ere baziran, gaiñera. Bakoitzak bere infor-
mea eman bear izaten zuen eta danok danon berri jakiten gen-
duen. Naiko larri ibiltzen giñan, batzuk alde batera eta beste-
ak bestera, baiña danok edo geienok eziñean.

Estualdietatik nola atera bear zan ere ederki ikasten zan,
eta gure larrialdietan nola ibilli giñan kontatzea ere egokitu zi-

tzaigun bere garaian; eta norbait guri gertatukoekin baliatu bazan, ainbat obe. Gu ere besteenaz baliatu giñan eta zorra ordainduko genduen.

Bat eta beste esaten ari naiz, eta norbaitek esango zuen onezkero: Au bakarrik ibiltzen ote zan lan guztietan? Eta ez; ni bakarrik ez eta gauza guztietan ere ez. Loiolako billereta-ra joaten nintzan ni bakarrik; gaiñerako lanetan beti norbaitekin ibiltzen nintzan. Andereñoekiko billeretan eta orrelakotetan ere ni baiña aurrerakoagoak baziran. Baita aministrazio arazoetarako ere. Baiña batez ere legearekin izan giñun arzoetan, beti or ibillia nintzan. Erreleboagatik, goizean ez bazan arratsaldean libre izaten nintzala eta orregatik asi nintzan; eta gero bere artan jarraitu, baiña beti edo geienez lagunarekin.

Izan giñan gotzaindegian Loiolan biltzen giñan danak, gotzaiari eskatzen gure ikastolen ardura ar zezala, bestela itxitzera beartzen ginduzela-ta. Baiña ez genduen ezer lortu. Gotzaiak berak ez ginduen artu, kalonje batek baizik, eta onek garbi esan zigun etzegoela bere esku gauza ori; orduan Espainian eziketa erabat bereiztua zegoela Elizagandik, naiz-ta oraindik erlijiosoak bazeuden eskola ematen zutenak; auek alako tratu berezi baten bidez zeukatela baimena, eta berak ere alegintzeko gertu zeudela; baiña naiko luze joko zuela gauzak. Gu, berriz, ez geunden luzaroan itxaroteko eran, itxitzeko mezuak artzen asiak baigeunden an eta emen. Urrengotan guretzat izango zan bildurrak aidean bizi giñan. Egia esateko ez daukat lotsik.

Gauza bat garrantzitsua esan zigun gotzaiaren ordeztu ginduenak. Gure arzoetan Don Jose Lasak artzen zituen erabakiak, bereak egiten zituela andik aurrerakoan. Ori gauza aundia zan guretzat. Gotzaindegiak pixu aundia zeukan artean eta sei urtera bitartekoa lortu genezaken suerte pixka batekin. Ori asko zan, batere ez izatearen ondoan, eta alegiñak

egin bearra zegoen ori lortzen okerretik edo zuzenetik. Baiña alegin guztiak egin gabe ezin ziteken gelditu. Bein artara giñan ezkerro aurrera, al zan guztia!

Seminarioan izan zan billera ura. Pako Azpitarte eta biok izan giñan. Gogoan dut oraindik nolako beroa egiten zuen. Egoaize sastarra *pal-pal* zebillen. Bitartean jende guztia berokak erretzen trumoi-eguraldi sastar arekin. Baiña illuntzerako trumoa jo zuen eta euria egin ere bai gogotik. Sekulako zaparrada bota zuen.

Norbaitek galde egin dezake: zergatik ainbeste alegin legepean jartzeko, baiña denbora berean legearen bidetik igaro gabe? Begira: artean frankismoa indarrean zegoen eta bildur giñan euskeraz irakasteko lege ori bat-batean kenduko ote ziguten erabat, eta ori ez genduen egin nai iñola alean. Orregatik gure alegiñak nunbaitetik irteera billatzen. Baiña ortan zeuden naiko lanak, laister ikusiko duzutenez.

Asteko esan dezagun gure ikastolek etzeukatela tokirik orduko eziketa-legeetan. Gurea, izan ere, iru urtetik seirako aurrentzat zan, eta ordurako *parvularios* deritzan legea jarria zegoen. Baiña bete gabe iraun zuen urte askoan. Orregatik, utzi ere egin ziguten ainbat denboran. Gerora, ordea, asi ziran danekin sartzen. Gure alde orixe gendukan: errian etzegoela sei urtera arteko parbulariorik. Moja batzuk bazeuden. Iñigo de Loiola eta Urdaneta kaleak bat egiten duten toki ortan, artzen zituzten aur bakar batzuk, baiña oso gutxi. Eta, jakiña, mojetan izanik, danak neskak, bertan aurrera jarraitzekotan zebiltzanak ziran eta.

Etorri zan, bada, aspaldian noiz baiño noiz etorriko zai geundena: ikastola ixteko mezua. alegia. Beste askori bezela, amabost egun barru uste dut *recurso de alzada* egiteko, beste ixtera etorriko ziralako jakin arazten zigutela esanez, eta orduan ziran emen ixtilluak. Baiña ate bat zabalik zegoen arte-

an ez geunden etsitzeko gertu; eta bereala ekin genion ate orri zabalik eutsi naian, jo eta autsi.

Orain ere gobernu aula dagoen tokietan geiena zigortzen dana orixe. Eziketako ministerioa diru gabe uzten dutela agirian dago *irugarren mundua* deritzaion tokietan. Armak erosteko dirua bear dala? Eziketako karteratik artu ta aurrera. Guk ere mundu ortatik ez genduen erten eta orregatik uzten zuten sei urtera arte, parbulariorik etzegoelako. Baiña ori ziurtatu egin bear zan eta artan zeuden lanak.

Guk bagenekigun, ondo asko jakin ere, ez genduela legea betetzen. Baiña gure erantzuna zan ez Espāñiko gobernuak eta ez beste iñork etzuela betetzen Eziketa-ministerioak ziona. Batetik, sei urtera arteko umeentzat etzegoela tokirik. Ori agerian utzi ezkeru, erabat galerazita etzeuden gauzetan aurrak erabil-tzea zillegi egiten zitzaigula, iñondik iñorako irtenbiderik zegoen arte ez geunden edozein moduz uzteko. Gure izkuntza milenaria jokatzen genduela jakinda gutxiago, gaiñera.

Bestetik, berriz, zeuden eskola bakarrak umez oso karga-tuak zeuden eta etzuten artu nai sei urtera arteko umerik, eta sei urtera artekoa zan gure epea asieratik. Gerorako asmoak edo desioak ere bai, baiña ori zailla zegoen Francok bizirik irauten zuen artean. Ori jakiñean geunden, baiña baita ere jakiñean geunden betirako ezin zitekela izan bera ere, eta orrek ematen zigun indarra borrokatzeko.

Eta maixu-maixtrak zer zuten ain setati jokatzeke? Auek umez kargatuta zeuden beren eskoletan. Lasarten gertatzen zana jorratzen saiatuko naiz, gaiñerakoak pakean utzita. Klase bakoitzean irurogei ta amar ume edo geiago zerabilzkiten. Ongi erakutsi al zituzten alako bi, gutxi gora-bera: ta ori orduko neurrietan. Oraingoetan zenbat? Iru, lau aldiz? Ezin ongi irakatsi zezaketenez beren orduetan, gero geigarria ematen zioten arratsaldeetan, *partikular* gurasoak ordainduta; eta ori

lege bezela zeukaten artua gaiñera. Kontuz artan *konpetentziarik* egin aieri!

Gaur gezurra badirudi ere, egi borobillak dira oiek. Bazan maixu bat esaten zuena:

–Tantos culos que se sienten en mi escuela. tantas monedas. Cincuenta pesetas cada mes caen en mi bolsillo. Están arreglados esos que quieren organizar escuelas clandestinas, si creen que yo les voy a dar facilidades.

Arrazoi bikaiña egoera ura azkar konpontzeko, atzeraka izatea!

Alde batera bazuten beren arrazoa maixuak gauza ortan. Aiek beartuak zeuden sei urtetik gorako ume guztiak, kabitzen baziran beintzat, beren klaseetan artzeko, naiz ondo zekiten ezin zezaketela ongi ezi. Garai artako maixuen soldatak ere xeble samarrak ziran; eta, bizi bearrak estutzean, lenbiziko nork bere burua jartzea ez da arritzeko gauza, askotan ala gertatzen dalako. Baiña orrekin ez dugu esan nai in-jutzizia ez danik.

Egia esan bear bada, Ernaniko alkatea zan Fermin Altuna emen bizitzen zan eta arekin oso artu-eman onak neuzkan garai artan, eta asko balio izan zigun orrek, beste ezer baiño geiago berak ematen zidan animoagatik. Arek garbi esaten zuen berak ezin zezakela ezer egin ikastolaren alde, berari oso gogozko zitzaion arren. Legez kanpo zegoen artean ezin zezaiokela babesik eman alkate bezela; baiña oztoporik etzigu-la jarriko eta lenbailen legepean jartzeko. Orduan bai babes-tuko zigula eta abar.

Arrazoi zuen gaiñera ortan, lenbailen legepean jartzeko esaten zuenean. Beste patxara batean ibilli bear genduen, ez ibilli giñan bezela, uretatik surtara saltoka dabillena bezela lenbailen legepean jarri nairik. Baiña danok ez genduen pensatu ere berdin egiten. Batetikan, jakin ere ez nola edo nun-

dik asi; eta, bestetik, gure artean bazeuden lege-konturik entzun ere nai etzutenak. Legepean jartzeko itzarekin bakarrik sutan jartzen ziran eta etzegoen pakerik aiekin. Baiña estuasun artara iritxi baiño len artu bearreko neurriak ziran zalan-tzarik gabe, ikusten baizan bazetorrela gure gaiñera. Baiña...

Gero ortara iritxi giñanean ere, bera izan ez balitz naiko lanak izan bearrean giñan. Laister ikusiko dugun bezela, azkeneko unean bada ere lagundu zigun eta kontentu. Eskerrik asko, Fermin.

Zer zan ate ori? Bat, beintzat, aurtxoen eskola edo parbularioa jartzeko legea aterea zegoen arren, emen Lasarten etze-goela parbulario oietako bat bakarrik ere; eta orrek ematen zigun itxaropen bakarra. Kosta zitzaigun ori bear bezela paperetan agertzea, gezurra badirudi ere. Egi utsa zan, ordea, orain ikusiko dan bezela.

Aurak etxean ere askok etzuen gure izkuntzarik ikasten; eta, kalera irteten asi ordurako, nasten ziran danak erderaz, eta gero zeñiek itzegin arazi aieri euskeraz? Ez uste lan erreza zanik orduan Lasarten euskeraz itzegiten zuten aurak ateratzen.

Ez dakit oraindik ala jarraitzen duen ala ez; baiña garai artan erri bakoitzean bazegoen *Junta Municipal de Enseñanza* zeritzaion erakunde bat. Orren idazkaria erriko maisu bat izaten zan; eta lendakaria, berriz, erriko alkatea. Emen arkitu nuen lenengo aldiz benetako erri izatearen gabezia Lasarten. Utsune latza, gaiñera, eta gauza utsagatik zenbat arazo erorri zitezken eta etortzen diran Jainkoak bakarrik daki. Nik beintzat ez nuen jakingo, beartu ez banintzan; eta nere buruari esan ere bai: «Aitona xarra edo txarra iltzen danean edo olakoren batean izaten baldin bada aukerarik txikienik, alegiñak egin gabe ez nauk, bada, geldituko, goiak bea jotzen ez badu beintzat».

Goazen arira. Sei urte arte etzuen legeak beartzen umeak eskolara bialtzetik. Andik aurrerakoan bai, eta gure lenbizi-

ko itxaropena ortxe zegoan: iru urtetik seira arte gutxienaz ibiltzea izango zutela eta tarte ortan euskera eta euskal jolasak zerbait ikastea. Gero ere zerbait izango zala eta aurrera, beintzat. Baztarra jo arte gero gerokoak. Bai kosta ere. Ortarako irikita egon bear, ordea, eta ortan zeuden lanak, itxi gabe eusten.

Ortara joan giñan gu ere, baiña uste ez nuen tokian estropozo egin nuen. Lenbiziko joan nintzan Ernaniko Biteri eskoletako maisu zan eta len aipatu dugun erakundeko idazkaria zan eta satorrak ainbeste ikusten etzuen maisu zar batengana; eta, eman nionean eraman nuen papera, ari etzitzaiola tokatzen eta etzidan izenpetu, alegiñak egin arren. Ez nuen astotik jetxi arazi.

Jaun au, zarrena zalako edo txarrena zalako jarria izango zan zeukan kargu artan; baiña setoso demonio jarraitzen zuen. Bigarren baldintza, beintzat, ederki betetzen zuen. Alakoxeak komeni nunbait eta zeukaten planari jarraitzeko izan liteken onena.

Orduan Ernaniko alkatea, Fermin Altuna, emen Lasarten bizitzen zan eta nik oso arreman onak neuzkan. Beragana joan nintzan eta onek esan zidan kaskaillu samarra zala, baiña etzala gizon txarra: aren partetik joan nintzala esateko eta izenpetuko zidala, eta gero berak ere bai; lanak eginda etorriko nintzala etxera. Baiña ni ez nengoen ain ziur, eta Pako Azpitarte eta biok joan giñan urrengo egun ortan, eta biok ere emaitza berdiña jaso genduen gure maisu erdi itxuarengandik: etzala aren egitekoa eta etzuela siñatuko. Aren zalapartak! Azkenean eskuetatik papera lurrera boteaz aldegin zigun aurretik arrapaladan, atzetik segitu bagenio bezela.

Andik atera ta Udaletxera joan giñan, eta emen gauzak aldatu zirala antzeman nion sartu ordurako. Alkateak itzegin zien nunbait. Ala galdetu ziguten: ea alkatearekin itzegin nai

genduen. Baietz esatean, bereala joan zan esatera eta berarengana joateko esan zigun. Aurreko egunean etzan olakorik. Kontatu genion zer gertatu zitzaigun eta bereala deitu zion aruntz joateko, garrantzi aundiko arazoa zeukala ta. Guri, berriz, aldameneko salan itxaron genezakela esan zigun eta ala egin genduen biak, arazoa konpondu zuten bitartean, zer gertatuko ote zan larri asko gaiñera.

Esan eta izan. Andik laister zan gure maisu erdi itxua –oso itxua izateko ere gauza aundiaren bearrik ez dut uste zeukanik, irakurtzeko sudurraren puntan jartzen zuen beintzat papera ta– esanez:

–Toma. Ya habéis conseguido lo que pretendíais.

Eta ez agur eta ez gero arte, bere artan ezkutatu zan gure aurretik. Geroztik ez dut iñoiz ikusi eta ez nai ere. Or konpon dabillela ongi! Baiña nigandik zenbat eta aparteago, orduan eta obe.

Ondoren eskerrak eman genizkion Fermin alkateari; eta, lanik zaillenak egin giñun ustean, pozik etorri giñan etxera. Baiña toki ederrean zegoen kontua. Urrena joan giñan tokian ez geneukan ez alkaterik eta ez lendakaririk geure alde, eta emengo esperientzia bakarrik gelditzen zitzaigun orain. Etsaiak geroz eta agin zorrotzagoekin agertzen ziran, berriz, bereala ikusiko dugunez.

Orain gogora datozkit ain ugari dabiltzan etorkin edo emigranteak, batean nai ez eta bestean bear ez, esaera dan bezela. Toki guztietatik ikusi nai ezik bialtzen dira orain, paperak ez dauzkatelako bear dan bezela. Gu alaxe erabiltzen ginduzten orduan Ernanin, zerbait bear genduenean; eta ori oso gaizki dago emen eta Kontxintxinan ere bai. Nola ez orren aurka borrokatu? Egokierarik ez gendukalako; baiña eldu zan egun bat *aitona xarra* eta *txarra* il zana, Jaunari eskerrak, eta lortu ere bai *erri* izatea eta bego ortan, ondo baiño obeto dago ta.

Urrengo egunean Donostira joan giñan Pako eta biok, eta emen ere berdin gertatu zitzaigun: bati etzitzaiola tokatzen; besteak etzegoela ondo, eta bat eta bestea. Baiña iñork artze-ko konturik ez, eta egunak aurrera zijoazten berriz. Etxera etorri giñan eta berriro galdezka asi bear izan genduen an eta emen, lendik ibillita zeudenai. Baiña toki guztietatik albiste berdiña zetorkigun: guk geneukan paper uraxe zala aieri bide-ak iriki zizkiena eta arekin saiatu bear genduela, etzegoelako besterik.

Detalle puñetero baten falta eduki guk paperean, eta esan bear ziguketenak esaten ez zer zan akats ori. Orixe izan zan gure erru guztia eta orrekin eragin ziguten bigarren egunean itzuli araztea. Ez jakin, gaiñera, zer pasa zitzaiguen bigarren ortan, ez bazan erori edo konturatu gabe pasa izan bagenduen detalletxo ura.

Joan giñan berriro bigarren egunean, eta asi leiatilla batean eta bestean aurkeztu naian; baiña danak aitzeki berdiña jar-tzen ziguten: etzegoela bear bezela osatua, eta beste gabe itzultzen ziguten.

Baiña batek esan zigun seillu baten bearrean zegoela ain zuzen; eta nik orduan eskua sartu nuen sakelean eta amar du-roko txanpon bat atera nuan –etziran alako asko geldituko– eta geunden leiatillaren gaiñean ipiñi nion esanez:

–Esan zaiguzu, arren, nork ezartzen dion edo nun ezarri bear zaion, gizonik ez da erabiltzen onela iñun eta!

Egia esateko, negarra ez neukan urruti, injustizia, inpoten-zia eta eziñarekin erabat jota. Ori entzutean, ez dakit gure itxuraz errukituta ala amar durokoaren usaia gustatuta, baiña artu zuen paper mutur bat eta eskuan zeukan arkatzez auxe idatzi zuen: «Dionisio Adán». Zuzenbidez ez nago ain ziur, baiña Igara alde ortan zala uste dut, eta joateko. Ikurra ezarri-ko ziola esan zigun, bi belarriak jotzeraiño aoa zabaldurik pa-

re egiñez. Nik lanera joateko ordua nuela bereala eta Pako joatea naikoa izan zan; eta, bertan seillatu ondoren, berriz delegiora eraman, eta bertan artu zioten eta agiri bat eman ere bai nola eraman genduen, eta kitto: dana egiña.

Andik egun batzuetara etorri zan irikita jarraitzeko baimena. Orrekin bukatu zirala esan dezagun gure orduko estuasun eta larrialdiak. Baiña bat bukatu ordurako bestea sortzen zan gure artean, eta orain ere beste bat berria bagenduen eskuartean.

Baiña lenagotik jakin dezagun nola dijoan gure ikastola. Gero eta aundiago badijoa; guztiok zorionerako, azitzen ari zan urtetik urtera. Usurbilgo ikastolarekin bat egin genduen. Ortik datorkio *Landaberi* izena. Gurearen jatorrizko izena *Academia Lander* zan; Usurbilgoa, berriz, *Udaberi* zeritzan; eta, gauzak zerbait baretzen asi ziranean, biak bat egitean, *Landaberi* deitzea erabaki zan.

Bete ziran sortu giñun tokiak. Kermanen etxe zarrak zeuzkanak oltza berriarekin ipiñi giñun. Baiña danengatik gaiñez egin bearrean geunden; eta Usurbillen, or Kalezar aldean, bazeudela barrakoi batzuk eta aiek ere artu ziran. Aldi baterako *tapatxuloak* ziran eta soluzio obearen billa asi bearrak geunden. Bazegoen asia ere zerbaiten atzetik, eta zerbait aterako zan etzebillen esku txarretan. Ez orixe!

Elizondon bazan gizon bat, ni oso oker ez banago Iturria zan bere abizena, eta Zubietan bazeuzkan baserriak. Saltzera joateko soiñuak asiak egon bear zuten eta tratua egin zitekela zion Kerman Rekondok. Berarekin etzuela ezaguera aundirik, baiña bere diruzain edo aministradorea asko ezagutzen zuela, eta modu onean atera zitekela. Aurrezki Kutxarekin tratuak nola izan zitezken eta danak antolatuak zeuzkan ordurako eta artu zan lurra. Egin ziran lanak eta kaixo, mutil! Ikastola berriaren jabe egin giñan egun batetik bestera. Baiña oraindik ere arazoak izaten jarraitzen zuten. Beti bada emen zerbait.

Barria

Ordurako nere ikastoletako lana aldatu zan. Orain ikastoletako uda-lekuetako aurren arduradun nintzan. Toki berria gertatu bearrean giñan emen ere. Lenengo urtean, Barriako komentuaren egalean zegoen erromes-leku edo ospederian egin genduen. Baiña, taldeak azitzen ari ziran bezela, tokia bear. Ain zuzen, Barrian zeuden mojak joan ziran Oion alde ortara uste dut, eta aiek utzitako tokia ere guk artu genduen. Itz batean esateko, komentu osoa gure eskuetan zegoen orain, eliza izan ezik. Baiña aundia zan benetan bertan egin bearra zegoen lana. Komentu barrenean txoko asko baitira ikastolako aurrentzat egokiak ez diran oietakoak, eta aiek gutxienez ere tapatu egin bear ziran. Ortarako egokiera polita izan genduen. Setien Donostiko gotzai izandakoaren anaiak biltegian bazeukan txapa *okume* mordo dezentea, ugoldeak aurre artan arrapatu eta mantxatu edo zikinduak, berriak bezela ezin saldu zitezkenak, baiña guretzat berdin balio zutenak. Baita *tepe* esaten zaioten oietakoak ere.

Garai artan bagenduen guk Ernanin lagun bat zorrotza eta etzitzaion oartu gabe pasa detalle ura; eta arekin beste bat etorri zedilla eta bera joango zala Setien jaunagana esan zingun. Esan eta egin, gaiñera. Larunbata zan ori eta ni joan nintzan. Astelenean, Goia jauna eta biok joan giñan, esanez nola artu genduen aldi baterako komentu zar ura, eta ango arregloetarako baliagarriak izan zitezkelara arek bear etzituen gauza asko, eta *tepe* oietakoak izan ezkeroko, komonak egin bearrak genduzkala, komonen dibisioak, alegia, eta ortarako ondo etorri zitezkelara era ortako gauzak. Gertu geundela zerbait ordaintzeko.

Oso ondo artu zigun gure eskaera Setien jaunak. Esateko zenbat puska eta zer neurritakoak; orrekin naikoa zuela, eta urrengo larunbat eguerdian ebakita egongo zirala. Baiña joan egiteko gero; bestela, danak zabortegira botako zirala. Bazan- ezbazan ere, Antton Sagardia (g. b.) joan zan, kamioia kargatu zioten eta an joan ziran arratsaldean «bertsoak kantatuz» lasai, Joanito Goiak zion bezela, Barriara, eta etzigun sosik kobratu.

Nor dugu Joanito Goia au? Bala baiño bizkorragoko gizona. Bera zan udalekuen arduradun nagusi. Igeltseroa zan. Taldeko buru edo nagusi ibiltzen zana. Berak billatzen zituen aruntzako mutil asko ere, Oiartzun aldetik geienak; eta berak zeukan ango lanen zuzendaritza. Euskera zale purukatua eta ikastolen eragille zintzoa benetan. Izan genduen aren bearra ango lanai aurre egingo bazitzaien. Nik aitortzen dut: alakoe- kin lanean aritzea gauza ederra zan. Ori bai: beti marmarrean, beti kexu, baiña beti lana nola egin bear zan pentsatzen. Jateko garaian ere besteetatik bananduta jarriko zan, eta uste dut lanarekin pentsatzen ariko zala. Berak eramandako jana eta gatzik gabea, gaiñera, jaten zuen. Amaika aldiz Maritxu Barriola alegintzen zitzaion berak edo bere lagunen batek eramandako zenbait goxagarri jan arazteko; baiña alperrik.

Erri bakoitzean bat egon izan bazan ikastolak arek maite zituen bezela maite zituena, beste ollar batek kukurruko joko zuen Euskal Errian; baiña Joanito Goia bakarra zan (g. b.). Arekin kide izateko zoria izan genduenak agur eta oore demaiogun, beste ezer ezin genezakelako. Jaunak ordaindu de- zaizula guk emen ordaintzerik izan ez genduenena. Baiña orre- laxe dira gauzak.

Mundua markatzea ez da gauza egokia ta ez noa egitera. Nik ez dut ikusi ura baiño gizon atsegiñagorik onean zan arte; ezta ere ura bezela txartzen zanik, zerbait gaizki atera zitzaio- lako. Baiña, eramaten jakin ezkeru, atsegiña zan ezin geiago-

raño. Egia esateko, amaika lan egin genduen bion ardurapean; baiña ez genduen izan egundaño itz bat bestea baiña altuago egin bearrik. Nik esker ona zor diot gauza guztien gaiñetik.

Baziran gizonak garai artan borondate latza zutenak ikas-tolei laguntzeko, Barriako komentu zar ori artu zanean ederki ikusi zanez. Ez gizon aberatsak; baizik eta langille bakar batzuekin denda koskorren bat zeukatenak eta orrelakoak. Baita batere orrelakorik gabe zebiltzanak ere, beren kontura lana egiten zutenak, eta zein edo zein langille soillak ere baziran. Larunbat arratsaldean ta igandean antxe lanean aritzen ziranak ere bai tarteka. Debako Sagarna jaunak argi-lanak egin zituen, bere mutillekin batean joanda. Ez dakit mutillak nola joaten ziran: doaiñik ala zerbaiten ordaiña eramaten zuten. Baiña nik dakidana da andik etzutela ezer jasotzen. Gu bezelaxe *musutruk* ibiltzen zirala aruntz joatean, eta gure eskerrik onena merezi zuten. Ez gaiñera egun bat eta bian, aste saillean baizik.

Zestoako Gaztañaga –*Kastaños* deitzen zitzaion– beste ainbeste iturgintzako lanekin. Ernaniko Paulinok –abizenaz ez nago oso ziur– tuboak bialdu zituen. Lasartetik ere bi mutil, Muga anaiak, izan ziran. Batetik eta bestetik orrelaxe bildu zan jendea; eta Iñaki F. Agirre ta biok ango arotz-lanak egin giñun. Orrelaxe egin ziran Barriako komentu zarrean uda-lekuak jartzeko lanak. Aldamenetik iñork sinisten etzuen arren eta luzarorako izan etzan arren, urte bakar batzuetan irau zuen.

Andik gutxira, ezer egin ez bagendu bazela, beste batzuk sartu ziran putreen gisa ondakin billa. Baiña urterik txarrene-tan eutsi genion beintzat eta ori ez digu iñork ukatuko aurrez aurre beintzat, eta orrekin gelditzen naiz.

Beste bi lagun ere badauzkat oraindik aipatu bearrik. Bat, Maritxu Barriola, donostiarra (g. b.). Ain zan leiala eta ongi-

ilea. Berarentzat ariko bagiña bezela, beti eramango zuen zerbait lanean ari giñanontzat. Igande eguerdi aldera joango zan, geienetan beintzat, txistor mordoska aundi batekin; eta iritxi orduko zai egoten zan txistorra ta ogiarekin amaiketakoa egiteko. Ondoren paella egingo zuen, edo zuten, ez baizan baka-ririk joaten. Batzuetan donostiarrak, besteetan Bergarakoak eta nik al dakit nungoak eramaten zituen emakume beneragarri onek; eta ez esku utsik eraman ere, beti zerbait garrantzitsua eramanez gaiñera.

Bai al dakizu zer zan guretzat, larunbatean joanik an ari giñanontzat, otarteko kaskarren bat izango genduen, baiña zer bizitua ematen zuen eguerdi arteko txistor beroak, eta, zer esanik ez, bazkaritarako egiten zuen paella ederrak?

Bada-ezbadako animoa ematen zuen alako gauzak, bazka-londoan beste saiotxo bat egiteko. Ala egin ere egiten zan beti edo geienean, eta ala ere epea bukatzerako naiko juxtu ibilli giñan, eta ori izan ezik beranduegi ibilliko giñan.

Ori, gaiñera, zenbait asteburutan ogei ta amarretik gora ibilli giñalarik. Baiña ainbeste tokitan eta ainbeste lan zegoen egin bearra, denbora joan egiten da oartu gabe, eta guri ere orixe gertatzen zitzaigun: lan bat aurreratu ustean utzi egun batean eta urrena asitakoan uste baiño askoz lan geiago atera-tzea; eta ez oso gutxitan, lanak ustez bukatutzat eman ondoren, eusgarriren batek utsegin zuelako, berriro geiena edo dana egin bearrean gertatu giñan.

Bejondeizula, Maritxu! Jainkoak ordainduko dizu Euskal Erriak zor dizuna

Beste bat lagun jatorra eta ona Felix Durandegi, Donostiko Ibaetakoa, izan nuen. Ango lanak egiten baiño geiago, bertako erakundea eramaten eta an gertatzen ziran ustegabekoak, bateko tuberiren bat itxi eda ataskatu zala, bonbillaren batek etzuela argirik egiten, alkarren arteko liskarren bat sortu zala,

edozer gauza zala, nundik edo andik soluzioren bat arkitzen alegintzen zan gizon leial oietakoa zan. Gaiñera, larunbat geienetan eta igandero joaten zan bere kotxearekin. Baita ni ere berarekin joaten nintzan ura zijoanetan. Federaziotik ibilli zan, ni bezelaxe uda-lekuetako arduraduna zan eta. Uda-lekuetako Federazioan arduradun izendatu zuten ezkeroztik, amaika joan-etorri egin zuen Arabako Barriara. Negozio propioa bagendu bezelaxe ibiltzen giñan gu.

Sukaldean bazegoen jende arduratsua eta orri eskerrak. Bazeuden emakume jatorrak. Beste batzuk gazteak ziran eta, arritzekoa ez danez, aiek, *ijiji* ta *ajaja* ibilli ezker, dana egiña zegoela uste izaten zuten. Aiekin arreta latza bear zan, eta maiz iritxi bear gaiñera aruntz itzulitxoa egitera. Ordubetetik laister egiten genduen alde bakoitzekoa, eta joan egin bear izaten genduen astean bi aldiz beintzat, asteburuz gaiñera. Eskerrik asko, Felix, ire laguntza neurrigabeagatik.

An lanean ibilliak baziran pertsona ezagunak izatera iritxi ziranak. Bat, beintzat, Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaur-laritzaren Kulturako sailburu izandakoa. *Andresen alaba* guretzat. Ain ezaguna zan gizon au. Etxekoa bezela zan. Ura igotzeko doain ipintzen zizkigun gizon beneragarri onek. Barrian ur asko zegoen, baiña lurpean. Putzuak egiñak zeuden arren, ura gora igotzeko bonbak bear izaten ziran, eta ortan zan artista Andres au. Zergaitengatik zeukan bonba koskor oiek egiteko lantokia Ormaiztegin. Eskerrik asko, Andres, zure laguntza bikaiñagatik.

Urte aietan an ibilli ziranetan asko izango dira, noski, ziñegotzi naiz alkate izatera iritxi diranak; baiña ez naiz beste iñorekin oroitzen. Bat, Nekane Azelai. EA-ko parlamentari aspalditxotik dabillena. Ori ere gurasoen ezagueragatik, beste ezer baiño geiago. Ama bertako begirale egon zan, eta aita ere sarri joaten zan aruntz, guri laguntzen kupida gabe aritzen zana, Durandegi eta biori. Ez al duk ala, Esteban?

Zorionak diranai eta izan ditezkenai. Pozgarria da beti ere toki bakarti aietan kide izandakoak goien ikustea. Nik, beintzat, ala artu nuen oiena jakitean; eta beste geiagorena ere jakingo banu, alaxe artuko nuke, zalantzarik gabe gaiñera.

Toki bakartia esan dut eta alaxe zan, izan ere. Komentu eta elizaz gaiñera, beste iru etxe zeuden an bertan; eta alde batera Errotazar esaten zitzaiona, beste bi edo iru bizitzako etxe zar aundi bat. Amuarraiak ugari bertan. Kilometro erdiren bat ingurura zegoen ori. Erritikan urrenak, berriz, Narbaxa eta Gordoia. Agurain amar kilometrora zegoen; eta naiz Gasteiz eta Donostira artzeko ere, trena eta beste gauzak emendik zeuden egokiena.

Beraz, ez arritu toki bakartizat artu izana. Donosti, Irun edo Eibartik joandako umeak, erriz inguratuta zeudenak, etzuten bereala ulertzen nola zegoen ain bakarrik. Gero, erre-kara baiñatzeraz joaten asitakoan, zerbait aztutzen ziran, baiña tristura galantak igarota.

Orain ez dago Barria ezagutzeko moduan ere, Arabako Al-dundiak artu eta gero, *albergue* edo orrelako zerbait jarri zuen an bertan. Santiago-bidea, len galtzara zar bat zana, orain errepidea egiña. Ospederi zar ura ere erabat berritua. Errotazar alde ura ere berdin. Lengo antzik ezin eman iñola. Ni, beintzat, esan ez bazidaten iritxi giñala, ez nintzan jabetuko Barrian geundela. Ainbesterañokoa da ango aldaketa arrigarrria. Toki zoragarria jarri zuten.

Orain kontatzera noakizuen au, nere Barriara egin nituen bidaietatik azkenengoa izan zana da, ain zuzen. Udaldietako bigarren txangoa amaitu ondorengo igandean joan oi giñan, gure iritzi arriskutsuak ziran ate eta leioak barrendik itxi eta seguratzearren an gelditzen ziran gauzak. Maritxu Barriolaren esanetara gauzak jarriz eguna igaro genduen. San Bernardo eguna, ain zuzen, eta ango komentuko mojen eguna. *Recolec-*

tas Bernardas oietakoak ziran. Baita ango eliza eta erriko etxe –zazpi-zortzi etxe?– guztien zaindaria ere bera izan bear zuen. Aguraindik bialtzen zuten txaranga edo olako zerbait, eta egun guztian *txin* ta *pun* an aritu ziran jo ta jo.

Ori etzan okerrena izan neretzat. Ango mojetako *ama abadesa* zala edo moja batekin zituen berebiziko kontuak, eta arekin gelditzen zan an. Nik, berriz, nere lanak egin nituenean, ospa egin nuen andik. Nere pekatu-pentsamentua banerabilkien: Añorgan bertsolari-txapelketa baizan, eta aruntz joateko asmoz seirak aldean zegoen trena artzeko Aguraina etorri nintzan. Baiña toki ederrean! Onek ixtripua izan zuela eta an gelditu nintzan ez zerurako eta ez lurrerako. Gure aita zanak esan izan zuen bezela, *balas* baiño petralago, baiña egon egin bear.

Illunabar artan pasa nuen bezelako otzik ez dut askotan pasa. Bi ordu ta geiagoren atzerapenarekin etorri zan trena. Beste gauza bat oso gogoan artu nuena, onuntza nentorrela, or Otzaurte aldean barrena gentozela, sua piztuta bertan berotzen ari ziran. Gau ta egun ari bai ziran bi bidekoa edo *doble vía* jartzen eta orra orren arrazoa, sua egin eta berotuz aritzeko. Pentsa zer eguraldi egingo zuen, eta abuztuaren ogeia zala.

A! Ta gau artako txapelketa, Añorgakoa alegia, Eusebio Igarzabal gabiritarrak irabazi zuela. Naiz nik joaterik izan ez nuen, oera joaterako jakin nuen zer gertatu zan.

Mitxelin fabrika

Bitartean bazijoan aurrera gure Mitxelingo ibillera, urteak aurrera joan bezela. Langilledia menpekotasun osoz dominatu zuten, baiña bazirudien eskuetatik iges egiten ari zitzaioz. Geroz eta lanuzte geiago eta geroz eta zakarragoa barren-giroa. Gazte jendeak bere eskuetan zeukala uste zuten mundua. Beste aldetik, berriz, alako organizazioa zegoen. Bi alderdi aien artetik gauza ona ateratzen gaitza zan oso, eta ortan iritxi giñan tokira, eun eguneko lanuzte aundira, *la gran huelga de cien días* izenez ezagutzen daneraiño.

Zergatik iritxi ziran artaraiño? Nik baditut neure zalantzak, eta aundiak gaiñera, baiña ixiltzera noa, ortan utzita ohea dala derizkiotelako. Gauza bat bakarra esango dut: gazte jendea geiegi berotu zala; aurreragi joan zala eta enpresak, berriz, gogorregi jokatu zuela. Momentuz etzuen uste, baiña garesti atera zitzaion luzera.

Gero eta bearragoa ikusten nituen Joan XXIII-garrenaren *Pacem in terris* dokumentua, Baita Cardjin kardinalaren erakutsiak eta Rikardo Alberdi eta bere anai Joxe Mariren sindikalismoa. Aiek atzeratutzat utziz aurrerago jo zuten langille gazteak; eta enpresa, berriz, orrekin oroitu ere ez. Baziran garai artan enpresa barruan edo inguruan zebiltzanak oiekin zerbait ezitakoak, baiña jaramon gutxi bein gora igo ezker. Etzan, beintzat, alde ortako abotsik entzunik izango inguru artan, nere ustez beintzat, eta gogorkeri osoan joan zan orduan, eta ondorenean ere bai, naiz enpresatik kanpora jendea botatzerakoan, naiz barrenean bertan. Etziran, gaiñera, batere aldatuko, zuzendaritzan aldaketarik izan ez bazan.

Eziñezko gauza da gogorkeriz gauzak zuzentzea, bein ar-taraño irixten danean, orduan Espaiñian zegoen agintaritz-a egon ezik, eta au azkenetan zala ikusia zegoen. Baiña nundik edo andik iraungo zuen itxaropena zuten, eta orrek bultzata jokatu zuten jokatu zuten bezela, eta gero izan ziran kontuak. Lengo mutil langille ixil eta apal aiek orain gizon eldu ta au-sartak ziran, eta kozk egiten ere bazekitela erakutsi zuten.

Ondoren beltza izan zan ura. Ainbeste gazte lanik gabe gelditu zan, eta barrenean bertan ere latzak erakutsi zizkigu-ten, augatik edo origatik. Gogozkoak ez giñan izandu semeak sindikalistak ote giñun uste ortakoak giñanok, eta ez dut au Prantzitik etorritakoakgatik bakarrik esaten. Lasarten bertan jaiotakoak berak etziran izan *prantzesik* onenak. Ori garbi geldi dedilla; eta, beste iñork ulertzen ez badu ere, berak uler-tuko du. Ziur nago ortan eta naikoa da orrekin.

Urte batzuk igaro ondoren naiko biurri ta trakets, etorri zan egokiera nere bizitza egiten asteko, eta badakizu zer izan zan nere salbamena? Nere arnasa bezela maitatzen dutan gau-za. Euskera izan zan nere onera Mitxelingo biziera itzuliko zi-dana. Gezurra badirudi ere, alaxe da eta saiatuko naiz alik egokiena agertzen, len ere gai ontaz zerbait esan badut ere.

Bazan ordurako denbora apur bat *Jurado de Empresa* da-lakoak euskerazko itzulpena egiteko eskatu zuela agirian ipintzeko, eta orduan etzeukaten aukera aundirik. Nik aldiz-karrietan eta orrelakoetan idazten nuela bazekiten eta nigana etorri ziran. Nik, batetik, ezin nezaken ezetzik esan; eta, bes-tetik, ain gogozkoa dutan gauza bat ezin ukatu. Baiezkoa eman nien eta ala asi nintzan juraduko agirien itzulpenak egi-ten. Jarraitu ere bai alditxo batean, eta bai ekarri ere estualdi latzak: batetik ekarri ere naiko denbora eskaxarekin egiten zizkidaten, eta askotan ezin izaten nuen garairako eraman be-ar nuen tokira.

Bein oso larri ibilli nintzan, orduan ere garairako. Ordua jo ta bereala eraman nituen lanak eginta, eta esan zidan –ez dut ezaugarri geiago eman nai–:

–Ya viene el traductor, como siempre, con retraso.

Eta erantzun nion nik ea ez al zan posible karta ori Z-ra –nik lana egiten nuen tailerra zan Z– bialtzea. Edo, gure tailerrera bialtzeko orde, urrutizkiñez deitzea neroni billa joateko. Eskertuko niekela pozik, egingo bazuketen. Bi ordu etzirala artean artu nuela; eta, neronek artuko baldin banu, agian asti geiago izango nuela ortarako, eta bazitekela ordua baiño len ekarri al izatea.

Izan zan itz oien esan naia oso-osorik jaso zuena. Etzuen itzik atera, baiña bere buruari eman zion eragiñak ezagun zuen zerbait ekar zezakela onerako edo txarrerako, eta bai ekarri ere luzaro baiño len. Zorionez, nere onerako izan zan gaiñera, eta beti izango dut gogoan une ura. Esan eta egin gaiñera, andik urrengoan ala egin zidaten, eta arratsalde artan bertan eraman nizkion zuzendariari.

Baiña bazan an beste bat deitu ta bereala joatea nai zuena, eta ura ere berdin egiten asi zan. Au Puri Gutiérrez prentsako arduraduna zan. Baiña euskeraz etzekien eta tarteka, euskerazko lanetan Mitxelin azaltzen zanean, kezka sortzen ziztzaion. Berdin zan emakumeen gerriz gorako gizenkoskagatik norbaitek idazten bazuen ere. An izango zan zer esan nai ote zuen galdezka.

Arriturik zegoen au nola aldatu ziran gauzak, len deitu ta andik bi edo iru ordura arte joaten ez nintzana, deitu ordurako an izatearekin. Baiña ni ez nintzan batere aldatu. Nik berdin-berdin jarraitzen nion. Beraz, argi zegoen mezuaren gorabera zala.

Andik gutxira deitu zidaten zuzendaritzatik, neretzat lantoki berezi bat bazutela esanez. Polideportibo berria egiten ari

zirala eta ango kargu egin nai al nuen. Len baiño gertuago nai nindutekela asti geiagorekin, eta an barrungo lanak egiteko jendea jarriko zutela. Nere lana ango diruzaintza edo aministrazioa izango zala eta orrelako kontuekin. Jakiña, baiezkoa eman nien, naiz ezaguera gutxi eduki olako instalazio aundi batek zer lan eman zezaidaken.

Frontoi estalia egin zutenean, eta arekin batera berriz tenis-erako bi pista. erriari begira lan egiteko asmoak zituela zirudien, bearbada lengo gogorkeriaz konturatuta. Ez dakit, baiña itxurak baziran. Zergatik? Erriak bere gain artu bear lituzken gaiak, jolastoki eta gaiñerakoak, bera asi zan artzen, eta erriko jai nagusietan ere egitarauaren zati aundi bat bere gain artzen zuen. Berak bere sail bakoitzerako izendatuta zeuzkan delegatuen bidez eratu eta berak ordaintzen zituen jolasik geienak.

Begira zer sailletan sartzen zan: pelotan, boletan, tokan, tenisean, tiroz plater austen, arrantzan eta beste zerbaitetan ere berak eratu eta berak ordaintzen zituen danak. Badala uste dut zerbait doainean jartzeko. Oiek danak ala izaten ziran ni orko karguan egon nintzan garaian, 1980-tik aurrera, eta danerako kopa ta gaiñerako trofeoak nere kontu izaten ziran erosi ta ekartzea. Zenbat zan kontuaren agiri edo *albarana* neri ematen zidaten eta nik ura eramaten nuen kajara. Gero, kontua zeto-rrean, arekin konprobatuz ordaintzen zituzten, eta jolas bakoitzeko arduradunei ere berdin: bakoitzari bere kastuak zuzen ordaindu, baiña ondo justifikatuta. Bestela jai zegoen.

Orri batzuk ematen zitzaizkien arduradun oieri. Aiek an jarri zer gauzetan zenbat kastatu zuten eta neri ekartzen zizkidaten. Kajatik dirua atera eta ordaintzen nien bakoitzari berea, eta aurrera.

Erriko jaiak zetoztenean, billerak egiten ziran eta nik joan bear izaten nuen aietara. Zer artzen zuen bere gain empresak

neri esaten zidaten, eta nik aiek esandakoak presentatzen nituen, zer joko eta nun izango ziran ere bai, sasoi batean Añorgan Rezolak egiten zuen bezela gutxi gora-bera.

Len aipatu ditudan delegatu oiek kanpora irten bearra bazuten, berriz, bono batekin ateratzen zuten dirua kajatik; eta, etortzen ziranean, beren orrian gastuak ipiñi, eta, gutxiago izan baziran atera zutena baiño, itzuli, eta, geiago bazan kobratuz, kontuak garbi ta lagun zar.

Frontoi eta tenis toki estaliak egin zituenetik arrigarria izan zan bazkideen gorakoa, nolako bertako langilleak eta aien semeak ala gaiñerako erriko jendea. Tarteka naiko ugari ziran bazkide egiten ziranak. Geienak Donostitik eta Usurbildik pelotan jokatzearren egiten ziran bazkide. Alde aundia baizeukaten ordaintzeko garaian. Gaiñera, aurreneko bolaren beintzat, bat bada ere bazkidea bear zuen pelotan ordua artu al izateko; bestela, etzegoen artzerik. Bazkideak ziran lenengo. Bazkiderik etzegoen garaian jokatu zezaketen, baiña aurrenetik ordu guztiak beteak zeuzkaten, Laister pasa zan bolara ori, baiña aurrenetik izugarria izan zan.

Bat-bateko jendearen joera izan zan bai pelotan eta bai tenisean ibiltzeko. Asko ziran goizean zortziretan asi bear lanean eta aurretik frontoian pelotan edo tenisean pistan saioa eginda joaten ziranak. Arratsaldean, berriz, zer esanik ez, lanetik ateratzen ziranean beste ekiñaldia egiteko txanda artuta egoten ziranak. Mutil koskorak giñanean gu ibilli oi giñan bezelaxe ibiltzen ziran adiñeko gizonak ere berri artan. Laister pasa zan bolara ura, baiña polita izan zan, batez ere ni bezela ustegabeen lan ortan sartutako batentzat.

Bi gizon zeuden jarriak, bat goizetik eta bestea arratsaldeetik. Pelotarako eta teniserako txanda artzera zijoaztenei orduak apuntatu, gero kobratu ta apuntatu egiten zituzten. Gero konserjeari pasa, onek orri berria bete eta neri pasatzen zizki-

dan aurreko eguneko gora-bera danak zeramazkiten orriak, eta biltzen zan dirua ere bai.

Neronek arturiko datuak diran orain ematera nijoanak eta ez dago erru aundiaren bildurrik. Geienera jota, millatik bat. 1984-an 3.404 bazkide ziran *S.D.C. Michelin* deitzen zitzaion elkartean, eta ontan banaturik:

Bertako langilleak:	790
Langilleen sendikoak:	2.019
Gaiñerakoak:	595
	<hr/>
Guztira:	3.404 bazkide

Nola ezagutzen dan orain baiño sendi ugariagoak zirala orduan, langille ta bazkide eta langilleen sendikoen kopuruak kontutan izanik! Baiña ez da ori bakarrik. Asko ziran bertako langilleak ere, naiz berak bazkideak izan ez, beren seme-alabak bazkide egin zituztenak, ango zenbait jolasetan parte artzeko zaletasuna azaldu zutelako eta bertako langille eta beren seme-alabak zeuzkaten onurak eskuratzearren.

Bazkide multzo polita erri bat izatera irixten ez dan *auzo* baterako, eta orrek zer ikusirik etzeukalarik fabrikako langilleen kopuruarekin. Nai zuena egiten zan bazkide, eta nai etzuenaz. Bazkide egiten zanak bere emaztea ta umeak ere egin zezazken. Orregatik multzo aundiena agertzen da bertako langilleen sendikoak. Emakume elduak jimnasia egin nai izaten zuten. Umeak, berriz, batzuek pelotan, besteak tenisean edo beste edozein jolasetan: baiña fubolean edo saskibaloian geienak.

Pelotarako eskola ere jarri zan eta eltxoa bezela jendea inguratu zan, izena emanda. Yudorako ere askok. Baiña arritze-

koa izan zana emakumeen gimnasikoa izan zan. Aurreneko Belen Azpeitia ezagunarekin asi giñan, eta gerora lautaraiño jarri bear izan giñun irakasleak, egunean bitan emanez, gaiñera. Umeentzat ere jarriak izan ziran larunbat eguerdi arteetan. Baiña bi turnotarako ere geiegi ta or ibilli giñan moldatu eziñik ortan ere.

Geiena arritu ninduten gauzak mutikoen pelotarako joera eta emakumeen gimnasirakoa izan ziran, zalantzarik gabe gaiñera; 125 mutiko pelotan eta 236 emakume elduak gimnasia izateraiño iritxi giñan, eta badala uste dut zerbait.

Euskerazko klaseak ere ematen ziran. Len ere asiak zeuden zerbait, baiña kaso aundirik egin gabe zebiltzan. Urrengo urtean zabalkundea egin ere ala egin zan, eta arrigarria izan zan jendearen erantzuna. Eun eta berrogeitik gora, eta pertsona elduak ere bai. Nere gustoko lana bazan ere, bolara batean etzan atsegin. Batetik eta bestetik sortzen zan zer egiña, eta euskerazko klaseak ezin utzi tokirik txarreanean. Andereñoak billatu an eta emen. Gero tokia ere arkitu egin zan. Garaikoe txean, beko eskola ortan. asi giñan eta azkenerako ondo moldatu ere bai. Gau eskolak ematen ziran eta “gogozko bidean aldaparik ez” esaten da, eta izan ere bai zerbait. Amaika itzuli egiñak banituen nik orrera gaez eta “utsaren soilki”, Urdatetan esaten zan bezela, doaiñean alegia, eta pozik, eun eta berrogei ta bost pertsona eldu euskeraz ikasten ikustearren.

Federazio guztiekin lan egin bear eta orretarako arremanak bear, berriz. Lenbizikoz asi bear zuten pelota, tenis, *tenis de mesa (ping-pong)* eta aiekin arremanetan jarri. Lendikakok an zeuden futbol, saskibaloia, boletakoa, eizerakoa, arrantzurakoa eta beste orrelako zerbait ere bai agian. Danekin arremanetan jarri eta asi nintzan lanean. Preparatzeko naiko denbora eskaxa izan nuen. Illabete juxtua, ain zuzen, abenduaren aurrenetik urtarrilla artekoa. Baiña eskerrak nere aurretik zegoena egun bat baiño geiagotan etorri zan, jubilatuta

egon arren, neri erakutsi arte. Nola-ala moldatu giñan eta an aritu nintzan, pozik gaiñera.

Egia esateko, ez neukan jubilatzeke batere gogo berezirik, ez bainekien zer zan askatasuna. Uste baiño lentxeago etorri ere zan, eta artean sasoi oneko arrapatu giñun jubilazioak. Ez neukan bildurrik beste urte batzuetan lana egin bear bazan ere; baiña ez nuen etsi eziñik izan, ala ere. Baratza polita ba-neukan eta antxe asi nintzan txirriki-txarraka lenbizitik, geroxeago egurra lantzen ere bai, mendian ibilli gogotik eta illunabarretan lagunartera joan-etorri bat egiñez. Errege baiño obeto bizitzea ari esaten zaio.

Bizimodu ori ere probatu genduen, Jaunari eskerrak. Orain badakigu nolakoa dan.



Pello Artetxe, irudigintzan

Errigintzan

Errigintza ez dakit itz egokia izango dan, baiña nik ez dut egokiagorik arkitzen orain jaulkitzera noana adierazteko, eta izen onekin dijoa oraingo zaparrada au.

Lasarte aundiegia zala besteren mende egoteko ondo oartu nintzan ikastola legepean jartzeko erabakia artu genduenean. Esan nuen orduan ere lenbiziko egokiera izaten nuen garaitik aleginduko nintzala erri baten eskubideak lortzen; eta orduantxe zala iruditurik, asi giñan batetik eta bestetik Lasarte erri biurtu nairik. Baiña “zenbat buru ainbat aburu” esaera ori lendik ezaguna izan ez banuen ere, orduan bai asmatuko nuela, gertatzen zana ikusita.

Ume-moko guztiak bazekiten, ez nola egiten zan bakarrik, zer egin bear zan ere bai. Baiña iñundik ezertarako gaitasunik etzan ikusten. Naikoa bildurtzen asia nengoen garaian, eskerak ordurarte neretzat ezezaguna zan batek asmo ona izan zuenari: alderdi politiko guztiei Lasarteko Auzo Elkartearen *Iñigo de Loiola* kalean daukan biltokira deitzea ain zuzen.

Nik egun artara arte ezagutzen ez nuena eta billera ortarako deia egin zuena, gero lagun ona izan nuen Bitorio Bikuña (g. b.) izan zan, eta orduan ere erakutsi genduen *nortasuna*: alegia, ez geundela demokrazian lan egiteko prestatuak, ezta gutxiagorik ere; bakoitzak bereari eusten geniola, bestek gauza ohea eskeiñi arren; eta zalaparta eta bullarik aundiena ateratzen zuena nagusi bear zuela. Baiña Bikuñak ezagun zuen ortan gugandik urruti zegoela.

Billera asi ta laister antzeman nion ortan gu baiño askoz geiago zala, eta kontuz ibilli bear genduela; bestela, arek era-

mango zituela ango urak bere errotara. Baiña ortan okerragoak agertu ziran an bertan; eta, eztabai agor eta zekenean ari giñala, atera zan onoko ateraldi onekin:

–Si continuamos así, vamos a salir de aquí con los pies fríos y la cabeza caliente.

Orren ondoren, itz zaparrada luze bat bota zuen, bakoitzari bere iritzia errespetatzeko eskatuz. Benetan txalogarria iruditu zitzaidan neri, eta era ortan erantzun nai izan nion; baiña baziran asko ulertu etzutenak, ikusiko dugunez.

Ura ixildu zanean, bereala jaso nuen eskua: an ala aritzea baiño ohea zala urrengo egiten zan billerara alderdi politiko bakoitzak bere proposamena eramatea; eta, patxaran gauzak aztertuz, iñola al bazan bat aukeratu eta arekin aurrera jarraitzea. Orrela esan nuen nik, Bitoriori arrazoi emanaz. Baiña laister ziran kontuak. Izan ziran ondo artu etzutenak ere.

Esan banuen esan nuen, ura *eskakeatzea* zala eta nik al dakit zer etzituen asmatu gazte batek nere ateraldiari buruz. Baiña nik neuk ere buruan itzuli asko emandako proposamena neukan, eta an zegoen giro zitalarekin alperrik galtzeak ere pena zemaidan. Lanak izango ziran gu biok alkarrekin ondo konpontzen. Eta, gu bion eztabaida onen ondoren, ordukoa bere artan utzi eta urrengoan, nik eskatu nuen bezela, eramateko alderdi bakoitzak bere proposamena, eta urrengoan aiek aztertzekotan gelditu eta etxeratu giñan.

Bazegoen taldetxo bat iñoren proposamenik onartzen etzuen. Etzeukan beste iñorekin lotura aundirik eta eskerrak orri. Bestela, etzan giro izango aiekin. Bat beintzat arritzeko bezelakoa, eta ez dakit orain nola ez dugun zalaparta geiago entzuten, daukan kargua edukita.

Proposamen bat ona izanagatik, izan zezakeala alako akatsen bat, eta ura lanerako arturik obeagotzen saiatu bear genduela, baiña alkar errespetatuz. Ez geneukala alkarri alako zi-

talkeriak zertan esanik. Ortan bukatu genduen egun bedeinkatu artako billera, une batean ematen zuen baiño askoz obeto gaiñera.

Ez nintzan asarre, artan kalmatu zanean. Beste egun batean ere giro txarragorik etziteken espero, eta ea suerte pixka batekin onartzen zan nere buruan zebillen proposamena. Ziur nengoen, patxaraz eta lasai aztertu ezkerro, dana edo geiena onartu zitekela. Nola ez geneukan oiturarik ortarako, bildur nintzan; baiña, bide batez, askori gustatuko zitziola ere pentsatzen nuen, eta ortxe nenbillen “*entre Pinto y Valdemoro*”, madriltarrak esaten duten bezela. Alegiña borrokatzeko asmoan nengoen, naiz neure alderdian eta naiz Bikuña jaunarekin egiten giñun billera aietan.

Urrengo egunetan nere buruan etzebillen beste gauzarik. Len ere ustez naiko mamitua neukan, baiña alderdiaren iritzia bear nuen an aurkezteko. Azaldu nuen urrengo larunbatean eta ondo artua izan zan gure alderdikideen artean. Auxe zan nere proposamena: aurreko auteskundeetako zentsoaren araberan zenbat ziñegotzi tokatzen zitzaizkion Lasarteri; ainbes-tek osatutako kopurua jarri –au ere alderdi bakoitzak euki zituen emaitzen araberan–, eta lanean asi bein-beiñeko udala balitz bezela; bakoitzak bere proposamenak aurkeztu eta an aztertu, bata-besteak alkar errespetatuz; erriko arazoak areraman eta an artutako erabakiak, Ernaniokoak Ernainin eta Urnietakoak Urnietan, aiek aurrera ateratzen saiatu bear zutela alegiña; ikusiko zala ea zer egiten genduen.

Ernani ta Urnietari erreku bezela bidali eskutitz bana: ango erabakiak artzen zituen aktaren kopiak arren bidal zitzate-
la, emen aztertzeke; eta berdin Donosti, Usurbil eta Andoaini ere jakin arazi, azpi-janean genbiltzala esan etzezatzen; bien bitartean bakoitzak bere alderdiarekin saia zedilla lanean, danden bearra izango genduela ta.

Orixe izan zan nere proposamena. Lenbizi neure alderdian eta geroago Bikuña jaunak deituriko billeran azaldu nuen. Ori oiñarri zala asi giñan lanean, Lasarte askatua izatea lortuko ote genduen. Etzan beste irabazlerik: Lasarte-Oria.

Etzuten artean ere etsitzen beste zenbaitek, eta iritxi ziran Bitorio Bikuña bera ere zalantzan jartzera. Baiña geroztik deitu ta esan zidan nola esan zioten guraso elkartetik lenago zer-bait asiak egon bear zutela, eta andik astea ohea izango genduela.

Nere erantzuna izan zan nai bazuen asi zedilla, baiña nik ez nuela pausorik emango ez alde ta ez kontra, aiek zer egiten zuten ikusi arte; baiña or gelditzen zala nere lengo proposamena; eta espero nuela, orrekin etsitakoan, beranduegi baiño len, berriro elduko geniola berari. Eta ala gertatu ere egin zan.

Guraso Elkartearen izenean Madrilla joatea alperrikako gauza zala jakiteko etzuen jakintsua izan bear. Erakunde oiek indarrean zeuden garaian eramane zan lenago proposamena, eta itz polit batzuk besterik ezer atera ez. Gero, indarra joandakoan, proposamen itxurazko bat gabe, ez dakit nola engañatu zan Bikuña zana. Baiña etzan luzaro egon. Laister itzuli zan len utzitako artaldera. Eta goazen arira.

Auxe zan urrengo larunbatean alderdiko billeran aurkeztu nuena. Jakiña, Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean joan nintzan eta aren baimena bear, legez ibiltzezkerok. Alderdiko billeran oso arrera ona izan zuen nere asmoak; eta ala aurkeztu genduen, izendatuta geneukan bezela, Bikuñak deitutako billeran.

Ez ta bai batzuk izan ziran, baiña orixe onartu zan urrengo billeran. Besterik etzan izan itxurazko gauzarik. Batek, *desobediencia civil* egin bear zala; besteak, Guraso Elkartearen izenean joan bear zala; besteak, berriz, Auzo Elkartearen izenean joatea obe zala. Bakoitzak bere eskua norbere txilborre-

ra eramaten zuen, baiña ezer ez. Bere ortan gelditu zan gauza. Lenengo borrokaldia or irabazi genduen.

Geroztik amaika gora-bera izan genduen, baiña or bukatu zan *etapa* ura. Auteskunde munizipalak etorri ziran, ziñegotziak aukeratu ere bai, eta ikusiko genduen zer egiten zuten lenbiziko ziñegotzi *demokratikoak*.

Aurrera jarraitzeko asmoekin osatu genduen ziñegotzietan zegokien kopurua. Asi giñan billerak egiten, eta naiko poliki auteskunde munizipalen aurretik. Baiña ondoren izan ziran komeriak. Zenbait ziñegotzirekin etzan erreza itxuraz konpontzea ere. Nunbait iñoiz alakorik izango etzan bezelako mauka zala usteko zuten. Etzan berriketa aiekin. Berak ezer egiteko moduko ateraldirik egiteko senik ez: baiña bestek zer-bait alamoduzko maian jartzen bazuten, seguru ezetxean aterako zirala.

Eskerrak beste aldetik laguntza ona izan genduenari. Baztar Nagusietatik asi ta Diputaziora arte bikain portatu ziran, eta eskerrik asko batez ere Xabier Aizarna jaunari (g. b.). Imanol Murua eta beste zenbaiteri ere berdin. Emen ezin asiko naiz danak izendatzen, liburu osoa ortarako barko nuke ta. Arrazoa ikusten nunbait, ia ogei milla bizilagun ainbeste puska eginda, danak zakur amorratuak okela zati baten jiran baiño okerrago, bakoitzak bereari tiraka jarritz, erri bat eukitzea ez dala bidezkoa ikusten zailla ere ez da ta.

Andik-emendik ibillian-ibillian lortu zan, beintzat, Jainkoari eskerrak, erri egitea. Eta jarrai dezala erri izaten; “zeruan izarrik dan arte / bere buruaren jabe” esaten du Lasarterko ereserkiak, eta ala izan dedilla.

Don Manuel Lekuona zanak (g. b.) ezarri zizkion itzak dira oiek, Lasarterentzat egiñiko ereserkiarentzat. Orain nik ontzat artzen dizkiot, oso egokiak dira ta. Ainbeste urtean ez ta bai jarraitu ondoren, ainbeste lasarter jararren ametsa egi

biurtzearen lekuko izan giñan, eta orain eskertu didate esker ona aitortuz eta oroigarri ederrak emanez. Ez uste berealakoan aztuko zaidanik, bizi banaiz beintzat, 2004-ko San Pedro eguna, eta batez ere eguerdi aldera izan nuen bixita. Eskerrik asko guztioi.

Pentsatzen jarrita ere, lanak ematen ditu gero olako ekin-tza batek aurrera aterako bada. Ezer ez dagoen tokian erria eraikitzea garestia izango da dirutan; baiña etxadia eraikita dagoen tokian erria egiteak ere badu amaika arazo, eta ez us-te, gaiñera, gainditzen errezak diranik. Zenbat eratako ateraldi xebreak entzuten diran ere...

Egun batez. jai arratsaldea zan ain zuzen, Oriatik artu genduen mezu bat, gurekin egon nai zuela eta ea batzokian artuko genduen esanez. Baiezkoa emanez, ordua ta eguna izendatu ondoren, bildu giñan, eta asko uste ez giñun ateraldiak egin zizkigun artxek, arraioak ez badu; eta esan genion ea zergatik etzan joaten; orain Euskaltegia dagoen ortan egiten giñuzela billerak eta an agertu zezala beren proposamena. Baiña alperrik zan guztia, eta esan zigun Lasarteoria izena ez jartzekotan aiekin ez kontatzeko; berak etzuela nai eta beste asko zeudela ala; Lasarte soilik izena zeramakien errian bizi baiño, naiago zuela len bezela jarraitu urnietarra izanez.

Alperrik izan zan, danak ala pentsatzen bazuten, orduan barrurako kontatzen ziranak esatea; baita idatzirik erakustea ere nolako izena izan zezaken. Txikierdi, Errekalde, Oztaran eta Baratzalde, une artan danakin kontatzen zan erria egiteko. Begira zer izan ziteken: Lasarteoriatxikierdierrekaldeoztaran-baratzalde... Danak alperrik ala ere. Eutsi egiten zion bereari, eta ez uste txotxoloa zanik. Izenik ez dut emango, baiña gizon pixka baten otsekoa zan. Azkenean berearekin gelditu zan. Eskerrak besteai etzitzaien beste ainbeste gogoratu, eta asko etziran animatu sartzera. Gaiñerakoan, Guines liburuan sartzeko moduko izena izan ziteken.

Ala ere danengatik nik ez nieken ezertan ere atzera egingo. Izenarena da gutxienekoa. Oiek berez erortzen dira, iñork erabiltzen ez dituelako. Kontuan izan zenbat ziran lenago Gipuzkoan bertan, eta begira orain zenbat gelditzen diran: Villareal de Urrechua zana, orain Urretxu soilik; Villafranca de Oria, gero Villafranca de Ordicia, orain Ordizia soilik; Salinas de Léniz, gero euskeratuta jarri zioten Leintz-Gatzaga; baiña alperrik: orain Gatzaga ta kito, naikoa gaiñera.

Ez dakit azkenean pozik gelditu zan ala ez gure oriatarra. Arek nai zuena, baiña arek nai zuen bezela etzan gelditu azkenean. Lasarteoria esaten baizuen, eta Lasarte-Oria jarri zitzaion. Ez dakit kontentu zan edo ez, baiña onezkero ala berko du.

Txalotzekoa da oriatarren berenari eutsi naia. Orregatik dauka orain daukan izena Lasartek. Bestela, etzuen izango iñola ere. Baiña neri ez dit ezer galerazten eta jarrai dezala bere ortan. Baiña eroriko da denborarekin, besteak erori diran bezelaxe. Oraindano bezela jarraitzen badu, gustora egon gindezke geure erriarekin. Alde ederra dago len garai batetik.

Gobernatu ditezken baiño lur sail geiago eukitzea ere traba izan diteke, baiña ortantxe arkitzen diot nik akats apur bat: bi puntetan motzegi dala. Dagoeneko, galtzak bete ipurdi dauzkala dirudi; eta erriak, jaio orduko azipurua artuta ere, ez du ondo ematen. Lasartek ere oraintxe joak dauzka bi baztarrak. Donosti aldetik Elespe parkearekin joa dauka baztar bat; Andoingo mugaraiño sartzen da Baratzaldeko etxadia; Oria ibaiak eta Mitxelin zearkatzen duen errekatxoak Usurbillekin. Utsune apur bat badauka or. Baiña nik akatsik aundiena topatzen diotena Ernani aldetik dauka, Pangorri aldeko gain ortan zear, Galarreta eta Jauregi utzi ta goitik Txanet-enea goia dala, Errekaldetik dijoan errepidean beko aldea gutxi gora-bera artu, eta orko baserri bakarrak daukaten garrantzia baiño latzagoa izango zan orain Lasartek da-

rabilzkien planakin. Etzeukan zertan kezkatu rik piñu aundien inguru orrekin.

Beste akatsa edo utsunea or dago: ibaiz aruntza pasa gabe, Mitxelinek ematen duenarekin, nolabait, kontziertu baten bidez, ondo Usurbilli ordaindu dagokiona; beste lantegi koskor oiena ere bai, eta gaiñontzekoa utzi bazion Lasarteri, etzan bada gauza aundia, Baiña ortarako ere talentua bear du, ta ori ez da nunai izaten, eta alperrik.

Zer esango dugu Donostiari buruz? Ezer ez. Lendik ere esana dago Donostia uri txukun eta dotorea dan bezain zikin eta narratsa dala beste erriekiko mugetan. Aundienetik asteko, or dago Pasaian gertatzen dana. Pasai Antxon badago kale bat, Eskalantegi deritzaiona, len ni oso oker ez banago *Javier de Marquina* zana; alde bateko zenbakiak Pasaira eta beste aldekoak Donostira egiten dira. Ori asko ez balitz, or dago Zubietta, baserri bat Donostiarena eta bestea Usurbillena, dana naasian, dametako taulak lauki zuria ta beltza dauzkan bezela. Eta orain, besteak beste, Lasarte milixkatuz dijoan Oria ibaia- ren beste aldetik bere zaldi-zelai ospetsua. Orrekin esana dagoela uste dut esan bearreko guztia, eta dana legez, e? Dana legez. Borondatez batez; zero ezkerretik, orixe, naiz bere mugak erriz beste aldera egon.

Eta Usurbildarrak, beren erria Donostirekin ain naastua dagoenez, onen babesa ziur kontatzen zutelarik, jakiña, auzo- arte jatorra ta gizalegea zijoartzela pikutara nai bazuten, eta batere ez eman. Olakoxe jendea daukagu gaur inguruan. Gu- txi, oso gutxirekin asko lagundu zezaiuketanak biak ere; bai- ña bi oiengatik utsik gelditu bear izan genduen.

Errekaldeko ortan itxaropen aundiak jarrita zeuzkaten emen. Ala ere, azkenerako or azaldu zan nolako jendearekin genbiltzan. Baiña aurrera bildurrik gabe. Au egin balitz eta ura egin bazan aritzeko garaiak joan ziran.

Gauza asko gelditzen zaizkit esateko, batez ere orain Euskaltea dagoen toki artako billerei buruz. Luzaro jarraitu baigenduen or billerak egiñez, eta gordean edukitzeko egokiagoak dira gauza ugari bazan an azaldua, neregandik asi ta aurrera, batez ere eraikuntzari buruzko kontuetan. Urbarte or zegoen gelditurik, krisis bolara izugarria zegoen, eta bukatu-rik zeuden etxeak martxan jartzeko ura bear zuten. Ortarako udaletxearen baimena bear eta ortan zeuden ixtilluak. Len alako ur eskasia zegoen Lasarten; eta, bear gorrian egon arren, egoera artatik ateratzeko proposamena agirian jarri eta ezezkoa eman zitzaien. Ni, egia esateko, baiezkoaren alde nengoen, ematen zuten itza betetzen bazuten. Berak arreglatzeko agintzen baizuten Galarretan zegoen aberia. Ortaz gaiñera, al- dapa barrenetik Galarretako itzulera arte *bonbeo* bidez ekarri bear zala eta ori ere berak egingo zutela, segundoan litro erdi bat ur beretzat izateagatik.

Ezetz esan zioten. Andik laister geure erriaren kontura lanak egin eta jarri ziran urak martxan, eta emen gabiltza naiko urarekin. Baita Urbarten ere, galanki aziagatik. Orain ez dago iñorentzat ur faltarik, eta ori dana Urbarteko kideetako batek esaten zuena eginga. Ori bai: orain erriak bere kontura jarrita; ez aien kontura.

Gauza xebreak ikusi bear izaten dira, eta ementxe bai ikusten zirala arrigarriak. Beste iñun ikusi ezin ditezkenak esango nuke nik orduan, baiña an alakoak astero edo geiengan ikusten giñun. Beste mundu batean bizi giñala zirudien; baiña lengo munduan eta biziera berrian geunden. Ain zuzen, askatasunean eta demokrazian eztabaidatzeko oiturarik ez eta giñanak giñan bezelakoak agertzen giñan, naiz erri guztiari kalte galanta egin. Geurearekin atera ezker, dana ondo, kasu ontan bezela. Lenbizi urte pare bat geiago ur mixerian, eta gero erriak diru pilla bat txautu. Ez uste au asmatutako gauza danik; ez, ez. Lasarteko Euskaltea dagoen leku ortan bil-

tzen giñan garaiko kontua da, oraindik Lasartek etzuen udalik baiña.

Ori dana zergatik? Urbarteko promotoreak pikutara bialtzeagatik, kinka larrian zeudela. Eta lenbailen bukatzeko, bes-teren bat izango etzalakoan, aien ondoren alako lanak egin eta gero, danak utzita aldegin bear izan zuten, urik eman etzi-tzaielako; obeto esateko, uraren arazoa konpontzen utzi etzi-tzaielako. Tamaiña artako lanak egin zituenari ukatu egin bear zaio gero, uraren soluzioa ekarri zezaken ekintza!

Enpresa ori bera zan Lasarten eredu bikaiña eman zuena urbanizazio kontuan. Beste iñork egin etzuen egin baizuen: lurrak erosi ta etxeak egiten asi baiño len, gero izango zirala pentsatzen zan kaleetako urbideak danak jarri; amar milla metroko E. G. B. zeritzaien eskolak egiteko tokia utzi Ernaniko udalari, eta ortxe dago, ogei ta lau gela ta jolas-toki ederrekin, *Pablo Garaikotxea* deitzen zaiona; eta, ikastolako aurrak erabiltzen dutenaz gaiñera, beste bi milla ta bosteun metro lengoaren jarraian aurrentzat *parvulario* deitzen zaion oietakoa egiteko.

Azkeneko au etzan eraiki; baiña orain *Parque Somoto* de-ritzaion ori zan eraiki gabe gelditu zana –garai bateko nere baratza izandako tokia– eta beartu ez gerana, jaiotza-tasa lurre-raiño jetxi zalako.

Pablo Garaikoetxea ikastetxe orrek badu bere ixtori apur bat oso berezia. Orrek bere izena ez dakit zer izan zuen, baiña ori ez. Ikastolako aundientxoena dabilzan ori zan izen ortakoa, emen lenagotik egon zan erretorearen izenez eraikia. Baiña oso jolastoki gutxi du. Esaten zutenez, eta itxura badu, gure kaletik asi ta eskola ori dagoen tokia dana omen zan kolejioari zegokiona. Baiña *entre bambalinas* esan oi dan bezela egin zituztela gauzak. Orain *Lasarteko Dorrea* dagoen ortan lengo *Pintore* etxe zarra zegoen arte egiñiko eskola. Gero

jendea mar-mar asi zedilla, baiña errian zan etxerik altuena eraiki bertan eta kitto. Baterako zegokion lurra banatuz milloi pilla bat jaso eta “kaixo, motell, i etxerako, beste danak obeak badira ere”, esaera zarrak zion bezela, ta agur! *Pablo Garaikotxea* eskolako jolastokiak or gelditu ziran, ume danak pillaturik, jolastoki gabe.

Or asi ziran umeak eskolan. Ez dakit zenbat urtean ibilli ziran, baiña bost edo sei urtean bai gutxienez, eta bestea ere bukatu. An zegoen utsik eta alako batean jendea nazkatu zan zearo; eta, ez baimen eta ez autorizazio, eskolan bertako umeak eta zenbait gurasoren laguntzarekin aldatu zituzten maaiaik, aulkiak eta bestea gauzak, “*Mal gobierno* dan etxean, edozer gauza eltzean” dio gutxi gora-bera esaera zarrak, eta garai artan emen alaxe egon, berriz.

Ori Ertamerikan edo Aprikan ola gertatu izan balitz, etzan ainbesteraiñokoa. Baiña gauden tokian eta ogeigarren gizaldiaren azken aldean gertatzeko marka aundia da, nere ustez. Baiña len esan dut eta berriz esango dut *mal gobierno* zegoe-la emen, eta ez da arritzekoa olako gauzak gertatzea. Eskatu ta eskatu egin arren, ezeri jaramonik egin ez eta, olakorik etorritakoan, errespetoa jartzeko bear diran aiek... nun?

Geroago, izena aldatzeko garaian, ez dut uste iñork ezer egin zuenik. Batetik bestera aldatu ziran irakasleak ere kontentu nunbait toki berrian, umeentzat naiko jolastokirekin ta gaiñerako gauzetarako ere bai. Len esan dedanez, ogei ta lau gelakoa zan eta emen bekoa, berriz, amaseikoa. Alde ederra dago batetik bestera.

Emen bertan erria egin zanean eta len Ernaniren izenean zeudenak Lasartera pasatzerakoan, berriz, izenen konfusioa izan balitz bezela, noski, iñorentzat kalterik etzan etorri orrekin, eta dana bertan bera gelditu zala esango nuke. Etzuten ezeren zalapartarik atera, eta bazekiten emen agintzen jarri zi-

ran ziñegotziak zer gertatu zan. Baiña ezin kejatu, danen one-rako gauza zan, naiz itxusia izan, eta aurrera txalupa!

Aurak gutxitu ziran, gauzak aldatu ere bai. Ikastolak umez kargatzen ari ziran; eta beste eskoletan, berriz, tokia gero ta geiago egiten ari zan, eta azkenean utsik gelditu. Iñoiz ez garai oberik ikastolak jabe egiteko, eta ala egin ere azkenean batzuekin eta besteekin ere. Geienekin ori gertatuko da, ziur asko.

Urte batzuk geroago, berriz, bestea ere –orain ez dakit zer izen daraman lenbiziko *Pablo Garaikoetxea* izandakoak, baiña erriko jendeak *REM* izenarekin ezagutzen du– ikastolentzat gelditu zan eta aurrera. Laister danak edo geienak berdintsu izango dira, uste ez dan gauzaren bat gertatzen ez bada gure artean.

Nork esan bear zigun guri garai batean, toki guzietan atak itxiz bezela ibilli giñan artan, erriko eskolarik geienak gure erakundearen eskuetan egongo zirala? Ezin ziteken esan, ez eta foroforik aundienak ere, eziñezkoa zirudielako alde guztietatik.

Ogei urtera inguratu zaigu oraintxe erritxo au, eta dagoe-nerako oitu ere egin gera, beti alaxe ezagutu izan bagendu bezela. Baiña oraindik gogoan dauzkat nik garai artako ibillerak. Alakoak, izan ere, egin ziran, eta beti presaka, berriz. Mendarok aurea artu zigun eta bildurtu ere bai zer gertatuko ote zan. Beti izaten dira zurrumuruak au ta ori, bateko deskonesioa zala ori ta beste aldera jo bear zala, anesioak egitera alegia; orrekin moztuko ote zuten udal berriak sortze ori, eta okerre-na noiz arte ez jakin, gaiñera.

Erria egitearen aurka zeudenak esaten zuten, ez dakit zeiniek esan zuela berriak egin ez baiña zarrak alkartzea zala one-na, eta orri eltzen zioten. “*Desanexión no, pero anexión sí*”, eta orrekin sartzen zitzaigun berebiziko bildurra; *izu-laborria*,

Urdanetako zarrak esaten zuten bezela. Uste dut zenbait tokitan esaten dan *bildur-ikara* bezelatsu izango dala.

Alakorik etzan komeni iñola alean, eta barrendik gogor lana egin bear izan zan ori orrela gerta etzedin. Gure arazoak ere al zanik azkarren egin eta alkarren arteko erabakiak artzen saiatzera beartzen giñun. Egin ere ala egin ziralakoan nago, eta ez da arritzekoa mugak aruntzaxeago ala onuntzaxeago izan ardura aundirik gabe jokatzea.

Baiña orain garbi ikusten da, eta ez daukat aitortzeko lotsik garbi esateko, gauza ain eskura euki eta iges egiten uztea ez uste berriketako zaplastekoa izango zanik, eta ez geunden ori ortan arrixkatzeko. Ez orixe! Ainbeste inguraturik geundela iruditzen zitzaigun garaian, olako zerbait entzun orduko, tripak beren tokitik irten bearrik jartzen zitzaizkigun, eta etzegoen lo lasai egiterik, alik eta gauza seguru ikusi arte. Orduan, bai, egingo zan. Legorte baten ondoren euria asten duenean baserritarrak esaten duten bezela, “lo eginda ere kontua zegok eta”.

Jubilazioa

Ez da gauza txalogarria, egia esan baldin bada, langabezia. Baiña lengo gizaldiaren larogeigarren amarkadan sortu zan artan ez giñan ain gaizki atera, gure enpresa aundiak erabilli zituen trikimailluengatik. Gero, benetako langabezia etorritakoan, langilleak bialtzen lan txarrak izango zituela konturatu zan garaiz, eta aldez aurretik asi zan bere arloan zeukan jendea zarrenetik aurre-jubilazioa ematen. Langilleei jornalik gutxitu gabe irurogei ta bost urte arte jarraitzeko egokiera ematen baizuen, jubilatuta egonagatik, eta berebiziko mauka izan zan enpresarentzat bere plantilla gaztetzeko.

Irurogei urte bete alan ateratzearekin beste gabe, or zeukan, berriz, bost urtez gaztetua bere plantilla, ez geiago ta ez gutxiago, eta bost ajola zitzaion irurogei urtez gorako gizonak an euki edo kalean euki, esate baterako. Eta irurogei urtera eltzerako beren zukua ateratzen zien, berriz, langillei. Sokan lana egin bear orrekin jarria zeukaten gizonak sasoi betean egin dezaken neurririk altuena. Jarrita zeukan gutxi gora-bera lanerako ritmoa; eta, jakiña, gero ezin jarraitu irurogei urtetik gorako gizonak.

Irurogeiz berakoak ere asko izaten, berriz, bat dalako edo bestea dalako, jarraitu ezin diotenak sokan dijoan –*trabajo en cadena*– lanari, eta beraiekin naikoak ziran barruko txutxerietarako bear ziranak osatzeko. Ori oraindik bertan ibillitakoei, eta dabiltzanei ere ez oso gutxiri, etzaiote buruan sartzen. Baiña ori orrela da.

Gu ere ez ginduzten lenengo kolpetik arrapatu, baiña laister bai eta gazterik iruditzen zan onez jubilatzeko. Esan dudanagatik, etzegoen ardurarik martxa ura galtzeko eta laister gi-

ñan libre. Aurrez pentsatzen genduen baiño urte batzuk lenago artu genduen jubilarzio ori, eta saiatu giñan alegiña gure zartzaro gazteari etekiña ateratzen, al genduenik geiena eta egokiena.

Gizonarentzat ez dala erreza esaten dute sasoirik onena noiz izaten dan esatea, eta ortan arrazoi ematen diot eta ez naiz sartuko sasoi onenarekin. Baiña ondo pasatako denbora esan bear izan ezkeru, nik jubilatatu ondorena izan dut. Ez dut iñoiz denbora ain errez pasa: mendian ibilli, baratzen lana egin eta zura landu, iru gauza oietan denbora akordatu gabe joaten zitzaidan neri; eta neri bakarrik ez. Nere emazteari ere berdin gertaten zitzaion: nerekin batean mendira, nerekin batean baratzen. An jarri nuen putzu aundi bat, euria egiten zue-nean txabolako terrazatik betetzen zala, eta putzutik ura ateratzeko motobonba koxkor bat ere bai. Nere baratza koxkorrekin iruditzen zaitzaidan arrantxo batean bizi nintzala, eta nere andreari ere berdin. Goizean mendian ibilli eta gero polita lantegia: jarri ango matsaren parral azpian eta irudigintzan.

Ori eguraldi ona zanean, eta ala egiten zuen geienean, legor-urteak ziran eta. Bestela, txabolan sartu eta zura lantzen, giza-irudiak egiten jo ta autsi. Lenbizitik egurra bakarrik erabiltzen nuen, baiña gerora asi nintzan arria ere lantzen, eta kaixo, mutil! Bietatik aritzen nintzan, gustora gaiñera. Neke aundirik ez duen lana da; eta bein antza ematen asi ezkeru oso lantegi tentagarria, neretzat izan danik politena, zalantzarik gabe gaiñera. Nik penetan utzi izan nion, illundu zuelako edo beste zerbaitengatik, askotan gaiñera.

Mendiko ibillaldiak

Ni beti izan naiz mendian pozik ibiltzen naizena; baiña ez dut egokiera aundirik izan *alpinismoa* zer dan edo nola egin diteken jakiteko. Ala ere, ibilli beti egin naiz, eta gustora.

Beingoa gogoan dut oraindik; aste osoa egunero amabi ordu sartuz igaro lanean eta larunbatean arratsaldeko seiretan atera lanetik eta an joan nintzan Andatza mendira, ibiltzeagatik, beste egiteko gabe.

Al nuen guztietan mendira joan; baiña nere ibillerak oso esparru txikian izaten ziran: Lasartetik Andatzara, Buruntzara, Belkoaina... Andazarratetik Aian barrena Oriora jetxi. Baiña, bein jubilatatu giñanetik aurrera, asi giñan zerbait geixego irtetzen. Taldetxoa bildu giñan eta bateko Anboto, besteko Gorbea, Aralar, Aiako Arria, Larreko San Lorentzo... Bai Iru Erregeren Maaia ere, eta onekin Euskal Erriko goiena jo genduen. Baita ere Lasartetik Azpeitira, Goizuetara eta Tolosara; edo-ta Urdanetara eta Zarautza jetxi. Elkanora kotxean joan eta Txontxormenditik Indamendira. Andik, Loitako gaiñean barrena, Saroberriko aitzetik, Menditxon barrena, Pagoetara eta andik bera. *Ama Birjiñaren iturria* deitzen zaionean ura edan lasai eta Altzolara jetxi. Andik Urdanetara eta Txatxarron barrena Elkanora, ibillaldi ederra, goiz bat igarotzeko askoz politagorik izaten ez dan bezelakoa.

Egun batean, lortu zuen baimena gure apaiz jaunak Artikutzara joateko, eta an joan giñan goizean goiz ango mugan dagoen goarda-etxe, ostatu ta ez dakit zenbat gauza geiago egiten dituen toki artara. Bertan kotxea utziz, an joan giñan Artikutzara; eta andik, basoz baso, Aranatz aldera. Andik *Sanjoanxar* deitzen dioten ermitatxora, eta andik Igantzira. An

bazkaldu ta San Antongo urtegiaren ondotik barrena Agiñara igo, eta andik Artikutzako sarreran goizean utzi genduen tokian kotxea artu ta etxera, kilometro pilla galanta egin eta gero. Ibillaldi galanta.

Txindoki, Ernio, Izarraitz, Aizkorrin eta beste zenbaitetan ere, len askotan izana nintzan arren, berriro izan giñan. Lenbizi Antiguora joan, andik Igeldora eta andik Oriora oiñez joan eta gero Oriotik Lasartera trenean etorri ere egin genduen.

Oiek eta beste zenbait ibillaldi egiten giñun guk bolara batean. Bi taldetan ibiltzen nintzan, astean batekin eta jaietan bestearekin. Bat Zumaburuko erretore zan D. Bartolome –guzretzat Bartolo zan– gaur Donostiko Artzai Onaren elizako erretore dagoenarekin; Eloy Arroyo eta Enrike Naparra, mendizale bikain askoa auxe ere, biotzekoak astindu ondoren il zana (g. b.). Agirretxe ere aurrenetik ibilli zan, gero gelditu bazan ere. Eta beste bakarren bat edo beste ere izaten zan. Batean bat eta bestean bestea, talde polita egiten genduen. Auekin aste egun buru zurian ibilli bear, eta ala ibiltzen giñan beti.

Beste taldekoak Mitxelinen ibiltzen ziran; eta aiekin, berri, jaietan ibilli bear. Orra: bi aldeetatik lotuta gelditu nintzan eta ni gustora. Bai batekoarekin eta bai bestekoarekin oso ibillaldi politak egiten giñun. Zer nai duzu? Zalea dan gauzetan, errez erortzen nunbait.

Gauza ederra da mendian ibiltzea, ezeren ajerik sentitzen ez dan garaian. Baiña etzan luzarokoa izan gure bolara. Gero, jubilatuetan lanean asi nintzanean, asko murriztu zan nere askatasuna. Ordu asko ta asko kentzen zizkidan; eta, bestetik, salduta zeunden. Iñori ezin agindu noiz izango nintzan libre norabaitera taldean joateko, eta iñoren amorragarri izan nai ez. Bein bai ta bein ez, utzi egin bear izan nuen, Donostin asi nintzanean. Lasarteko *Hogarrean* nenbillen arte bai; baiña geiago etzan posible.

Beste aldetik, Bartolo ere joan zan emendik, eta orrek ere etzigen batere onik egin. Bukatu zan gure aste egunetako mendirako irteera, taldekoa beintzat, eta jaietakoak ere etzigen asko geiago iraun.

Geroxeago nere tronbosis ere etorri zan, berriz, eta or joan ziran pikutara gure mendiko ibilliak. Geroztik ementxe, len mendi muturretik goitik bera begiratuta begiei gozatu bat ematen geniena, orain betik gora begiratzuz malkoren batek irrist egiten baldin badu, ez arritu batere.

Ain gogozko gauza bat ain kolpean utzi bearra izateak ere ez pentsa on aundirik egin lezakenik, Nik geroztik, tronbosis izan ezkeroztik, mendira irten dutanetan, beti patxaraz irten izan naiz, eta etzait iruditzen kalterik egiten zidanik. Baiña sendagille kardiologoak ez ibiltzeko esan zidan, eta utzi egin nion mendian ibiltzeari, ohea izango zala pentsatuz, eta pakea. Baiña goazen urte batzuk aurreragoko kontuetara.



Iru-Erregeen Maaian.

Federazioan

Urte pare bat-ego pasa ondoren deitu zidaten: Lasarteko jubilatuetan idazkari izan bear nuela. Bi urte pasa nituen eta andik ateratako udaberrian bertan deitu zidaten Donostitik, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako federaziotik, eta nik ez nuen iñor ezagutzen an. Baiña laister eman nion tanke-ra norxego izan ziteken nere *salatzailea*. Oso jenio txarra nuela, baiña idea onak ere bai, esaten zuela batek, ikastoletan ezagutu ninduela esan zidan lendakariak; eta nun zan bera galdetu nion eta gaixorik zegoela.

–Badakit orain zein izan dan ori esan dizuna eta ez dauka-zu esan bearrik –erantzun nion nik. Iñaki F. Agirrek esaten zuen ori eta il berria da orain (g. b.).

Ortarako berriketaldi bat egin ondoren, baiezkoa eman nion lendakariari, eta onek lendakariorde izendatu niñun. Bereala asi nintzan lanean. Andik egun gutxira zan batzar nagusia, eta an ontzat artu ninduten eta aurrera.

Gizon gogorra zan gure lendakaria. Baiña emaztea zeukan gaixorik, eta berari ere sendagilleak aintzat artzen ez duten *zartrosis* ori ari zitzaion naiko aurrera. Larogei urte gaiñean zituen, eta nekatua edo aspertua arkitzen zan. Oiñordekoa bi-llatu nairik zebillen. Bera izan zan Federazio ori sortu zan ez-kero lendakari bakarra. Etzeukan iñor bere ordekotzat uzteko diña zanik, eta ori jende aundia zeukalarik bere plantillan, baiña iñorekin etzegoen oso kontentu. Batek bat zeukan eta besteak bestea. Nerekin artu zuen berebiziko itxaropena, baiña garbi esan nion ez nintzala arek uste zuen bezelakoa; ni menditar bat nintzala, orduan beste erako biziera neramakien arren; ango federazioaren berririk ez nuela ara deituta joan

nintzan arte, eta oien antzeko milla gauza. Baiña ikastolen federazioan izandako portaera eskatzen zidala erantzun zidan.

Itz eman nion nik nere aldetik al nuen guztia lagunduko niola; baiña lendakaria bera zala eta beraren itzalean lana egiteko gertu nengoela; orrek etzuela esan nai nik ango martxa eramateko gai nintzanik, eta berak jarrai zezala bere martxan. Artan asi giñan. Baiña urrengo udazkenean Palma de Mallorca-n izan zan *Comité Confederal* deritzaionera ere nik joan bear izan nuen, eta andik aurrera danetara. Etzan bera geiago atera Iruña, Gasteiz edo Bilbotik aurrera.

Antxe *urkatu* nuen neure burua, neroni batere konturatu gabe, betiko oitura txarrari jarraituz. Aspalditikan biraka zera-bilkiten gauza bati soluzioa billatu niolako, an bertan asi zitzaidan esaten urrengo lendakaria nik izan bear nuela esaten. Baiña gero argituko dugu gauza ori ta goazen arira.

Aldi luzea baiño len, Suizan izan zan *Comité Confederal* deritzaiona, eta ara ere berdin: ni joan nintzan Euskal Erriko Federazioaren buru, eta gai garrantzitsuetan parte artzeko zoria izan nuen an bertan.

Beraz, azkar egokitu zitzaidan *presidente en funciones* egin bearra. Era ortan lenbiziko bi urteak igaro ondoren, Bartzar Nagusian etzuela jarraituko esan zuen gure Maritxalar jaunak; eta zortzi urte bete ondoren utzi zuen ainbeste maite zuen eta ainbeste lan egin zuen federazioa. Nere izena jarri zuen autagai eta bertan autatua izan nintzan ao batez Euskal Erri osoko jubilatuen lendakari. Agur nere aste egunetako mendiko ibilliak.

Txaloka artu ninduten, baiña ondoren auxe eskatu nuen nik: Iñaxio Maritxalar jauna oorezko lendakari izendatzea eta omenaldi bat egitea, urrezko ikurra emanaz, berak jaso zuelako federazioa, utsetik asita gaiñera. ain utsetik ere. Lanerako maai bat ainbeste ere etzioten eman lendakari izendatu eta ge-

ro. Etxea erosteko eta lanean asteko diruaren zuzenbide guztiak, Garaikoetxea zegoen lendakari eta, ausarditsua izanik, beragana joan zan Maritxalar. Labaien zegoen kulturako sailburu eta onekin jarri zuen arremantetan. Etxea ikusi eta berea la bialdu zion dirua, lanerako bearrezko zituen gauzak egiñik. Orrenbeste merezi zuela uste dut, beraz, ainbeste lan egindako gizonak, emaztearen ondoezak uztera beartu zuen-eta, larogei urte betetzear zegoen garaian.

Ala iruditu zitzaaien beste guztiei edo geienei, eta ala egin giñun ondorenean esandako guztiak. Jaialdi ederra izan zan onen omenaldikoan, *Cofradía Gastronómica Vasca* deritzaion etxean egin genion bazkari berezi baten ondoreneko urrezko ikurraren ezarpena. Federazioaz gaiñera, *Unión Democrática de Pensionistas y Jubilados* gure alkarte guztiko burua Madrillen egoten zan Mallo jauna, eta onek eman zion oparia: urrezko ikurra, lau eskualdeetako armarriekin, emazteari lore sorta eta gaiñerako erregalo asko, bere sendi osoaren aurrean. Oso jaialdi zoragarria izan zan. Eskeintzakoan bi bertso kantatu nizkion. Lasarteko *Erketz* taldeko dantzariak agurra dantzatu zioten, eta oso ondo irten zan dana, bizi zan bitartean naiko lan aztua izaten Maritxalar jaunari (g. b.).

Ordutik jakin nuen berriro askatasuna galtzea zer dan. Ordurarte, zerbaiten ardura zuen arazoa zanean, ari galdetuta moldatzen giñan; eta ordutik aurrera ez neukan iñoren arri-morik. Oker edo zuzen neronek artu bear erabakiak, eta ori ardura latza da. Aietako asko Ego Euskal Erri guztiko jubilatuei dagokiena dalako, kezka berezia sortzen du. Urrengo egunean ez neukala joaterik esan eta etzegoen joan gabe gelditzerik.

Egin bearreko lanak dira oiek danak, eta norbaitek ibilli bear bitarteko. Baiña denbora luzea baiño len sartuko nintzan arazo berrietan, batere neroni billa ibilli gabe sartu ere. Madrillen ministroarekin asiak zeuzkan arreman batzuk Mallo jaunak, gu guztion buru egiten zuenak; eta, laguntza bearrean

arkitu zanean, etorri zan guregana, eta ni ere sartua izan nintzan sokan. Ministroarekin asia zeukan berebiziko tratua, eta gero uste gabean aundiegi egin zitzaien. Orduan etorri zitzaizgun Balentzi, Kastilla-La Mantxa, Galizi ta Euskal Errikoei, Bizkaiko lendakari ta pentsioen U. D. P.-ko arduraduna zana-rekin batean lanean astea.

Lenengo bildu giñanean, arriturik geunden. Mallo jauna ez beste guztiak lenbiziko aldiz joan baigiñan ministerio batera. Ministroarekin eztabaidatu bear genduen gaia, berriz, alakoa. Ainbeste milla jubilatu ta alargunen pentsioak zeuden jokoan. Urte batzuk lenagotik egin zuten igoera txapuzari etzegoela jarraitzerik zion ministroak. Datoak oso erakusgai zeuzkan, gaiñera, eta arrazoi aieri aurre egiteko konturik etzeukaten, berriz, sindakatuak. Zeiñek egingo aurrera ta guk egin genion, Mallo xarra buru genduela. Arrazoi sendoak aurretik jarrita joan gintzaizkion. Batere arrokeri gabe joan giñan; arrokeririk gabe, baiña burua tente genduela joan ere.

Aurrez jakiñean geundela adierazi genion: guk ez geneukala sindikatuak bezelako indarririk; baiña gogoan izateko, ez ikurriñak astinduz, baizik eta beren jantzi apalak –asko erabiltzera beartuta zeuden bezela– eta makillatxoekin millaka batzuk Madrilko kaleetan zearka ibiltzea bera ere etzitekela propaganda bikaiña izango agintean zegoen ezkerreko partidu batentzat, zein zer lanetan aritua zan, zenbat urtean kotizatu zuen eta zenbat irabazten zuen adierazten zuen karteltxoarekin. Orrek min egin zion nunbait. Bereala mugitu zituen ango urrutizkiñak eta gaiñerako tresnak.

Guretzat ondo zetorren Mallo ori bera zarra izanik pentsio bajuarekin egotea. Aurreko igoera artan ez baizuen arrapatu. Ura ere lenagokoa baizan. Gogor eltzen genion guk arrazoi orri: gerorako agindu zutela aieri igotzea, eta orain danak bertan bera moztea injustizia zala; kasik traizio bat bezela, ta

orrekin amaitu bearra zegoela eta abar. Nolabait moldatu giñan, beintzat. Kartzelara sartu ez giñuztenean pozik.

Lenbizitik Madrillen egiten giñuzen billerak, baiña ministrorik gabe. Zeiñek zer iritzi zeukan jakin nai zuen. Gero, berri, lan eta gizarte arazoetako ministroa zan Martínez Noval jaunarekin, irabazitako eskubidea geneukala. Ori guztia ala zan; baiña ala dala demostratzeko agiriak garbi bear ziran, eta guk ez geneukan eta bestek ere ez. Oso lan zailla txarrean asita egiteko. Ministerioan bazeuden agiriak, baiña guk ezeren aztarnarik ere ez. Orrela zailla zegoen gauza, eta min egingo zion tokia billatu bear, onean zanean.

Au guztia etorri zan, bost urte lenago egin zan pentsioen igoera xelebrea ezeren garanti gabe egiña izan zala agirian utziz. Bertan bera utzi nai zutela ikusirik, biltzen asi giñan lenbizi, eta ministroarekin urrena. *Como un derecho adquirido* zan ura guretzat, eta ez ori bakarrik; bidegabekeri itxusi bat, gaiñera. Lenagotikako pentsiodunei jaramonik egin gabe, ordutik aurrerakoei bakarrik egiten baizitzaien igoera. Entzun ondo: lenagotik jubilatuz zeudenak aintzat artu gabe; eta or agertzen ziran urte batetik bestera jubilatuz, eta biak jornal berdiña zeukatenak. Bost urteren buruan nolako aldea ateratzen zion badaude dakitenak, eta ori ezin ziteken ontzat eman. Ez geunden ortarako gertu, eta ala jakin arazi genion: lantoki eta lanpostu berdiñean aritakoentzat bidegabekeri itxusia zala ori ta prentsan egingo genduela kanpaña, eta ori etzuen nai.

Beraz, gai garrantzizkoa geneukan esku artean, eta dana eman bearra zegoen an ezer egitekotan, eta egin genduen egin zitekena. Eskerrak Martínez Noval ministroari eta Mallo U. D. P.-ko buruzagiari. Bata baiño bestea egoskorrago zeudela ematen zuten, baiña azkenerako etorri ziran arrazoitara, eta begira zer lorpen izan ziran iritxi giñuzenak:

Lenengoa: pentsiorik txikienak ere gutxieneko soldata industrialara ainbeste izan bear zuela; kotizazioko pentsioa alegia. Asko zeuden oso urruti zeudenak. Aientzat ondo etorri zan; oso ondo, gaiñera. Pentsa: urte aietan egin ziran soldataren igoerarik aundienak, eta urte askorik etzuten bear kobratzen zutena bikoizteko, jubilatua bere artan jarraitzen zuten bitartean.

Bigarren: alargunak ere berdin. Irurogei urtetik gorakoei gutxiengo soldata industrialaren parean jartzea. Auentzat izan zan igoerarik garrantzitsuena agian. Beste puntutxo bat ere, etsi ez genduen, ortxe izan genduen, Irurogei ta bost urtetik berakoei ere tratu berdiña eskatzen genduen. Baiña ortan amore eman bear izan genduen andik gorako onagatik. Ortan *sine que non* jarri zan ministroa, bere bigote txikiekin; baiña geroago *gradualmente* egin bear zala: eta, ortan gelditu zanez, ortan jarrai lezake eta ala jarraitzen duela uste dut.

Zergatik zeuden alako aldeak urte gutxiren barruan? Begira: diktadura garaian, eta geroxeago ere, bi eratarik gutxienez kobratzen zan jorrala; *sueldo base* uskeri bat ordaintzen zuten, eta *prima* eta gaiñerako geigarriekin, lan zikiñarena adibidez, eta danen artean osatzen zutena zan *sueldo real*. Geroa oiek guztiak berdintzen joan ziran batetik, eta urte gutxian gorakada izugarria izan zan bestetik, jubilatuei nola ordaintzen zitzairen *sueldo base* orren arabera. Ara nun daukazun lau-bost urteren tartearekin jubilatzen ziranak bikoiztuta jubilatzeako orduan.

Irugarren: pentsiodun guztiei, ez lengo txandan egin zan bezela, batzuei bai eta besteei ez: len geiena irabazten zutenei gaiñera jaso, besteei geroago zerbait jasoko zitzaie eta; urrengo urterako gobernuak aurreratzen zuen konsumoaren igoera zenbatekoa zan (I. P. C.), ainbesteko igoera egingo zuela.

Gure naia zan lendik gutxirekin gelditurik zeudenei ere igotzea, eta lege berria egin eta parlamentuan aprobatu gabe

eziñezkoa zala adierazi zigun ministroak. Or ere gainditu ezin genduen oztopoa arkitu genduenez, atzera egin bear izan genduen; eta, ori alde batera utzirik, irugarren puntura itzuli giñan.

Une labur bat eskatu ondoren alkarren artean erabakitze-ko, baiezkoa izan zan; baiña urtearen bukaeran egiten zan re-bisioan zerbait geiago irteten bazan, tokatzen zan ainbeste pa-ga berezi batean ordaintzekotan; urtearen aurren aldean ongi etorriko litzakela. Ortan gelditu zan gauza, eta ala egiten dute urtero. Geiago egin ez bazan, ezin izan genduelako.

Norbaitek esan dezake:

–Nolaz sartu intzan i lantegi oietan? Urdanetako *kolejioan* erakusten al ziteken olako gauzetarako?

Ez; etzidaten ortan eta beste gauza askotan ere erakutsi, ez gogorik ez nuelako. Asko ibiltzerik ere ez nuen izan, eta nere gogoaren aurka asko ikasi gabe gelditu nintzan; baiña egokie-ra berezi bat izan nuen lan ortan sartzeko, eta antxe nintzan gaur arte iñoiz jubitakuak izan dutenik igoerarik garrantzi-tsuenean.

Ni arazo oietan sartzeko meritua, ala deitu balezaioke, Palma de Mallorca-n egin zan billeran aspaldian atzera ta aurrera zerabilkiten idatz-leiaketa bat iñondik iñora aurrera ate-ra eziñik; eta nik aiek eztabai ari ziran bitartean, pentsatzen nuen: «Ori etzegok, ba, aurrera ateratzen ain gaitza».

Alako batean itza eskatu nuen eta bota nuen nere iritziz no-la egin ziteken. Alegia, lana banatu bear ziteleka alkarte, fede-razio eta Madrilgo danen artean, ara nola: idazleak egindako lanak bialdu zitzala bakoitzak bere asoziatoria eta, jenero ba-koitzeko iru lan aukeraturik, bialdu zitzala bere federaziora, eta onek jenero bakoitzetik bat aukeratu eta bialduko zuela Madrilgo UDP-ren etxe nagusira. Onek, berriz, etzeukala era ortan lan karga aundirik iruna aukeratzeko; lenengoa, bigarre-na eta irugarrena erabakitze-ko, eta orrekin egiña zegoela dana.

Jenero onek esan nai du iru sailletan jokatzeko zala leiake-ta; entseguak, ipuiak eta olerkia ziran oiek; eta esan dezagun orixe izan zala ni tarte ortan sarturik ibiltzeko arrazoi baka-rretakoa.

Zer esango genduke Espaiñiko sindikalismoari buruz? Ezer ez. Auxe bakarrik esango nieke nik: ez diogula guk, ju-bilatuok, ezeren zorrik sindikatuei, ezta xentimorik ere. Lortu zuten igoera lotsagarri ura ere, ain gaizki egiña izateaz gain, juxtu enpresa aundiek *regulación de plantilla* delakoa saille-an asteko punta artan egin zutela. Noren onagatik? Bakoitzak pentsa beza orrek zer esan nai duen; eta okerrena, berak nai zutenean kentzeko asmoz egiña zala gaiñera, goraxeago ikus-ten dan bezela.

Egia esateko, ni neu ere plantilla ortan egokitu nintzan eta jaso nuen orduko onura. Baiña luzaro baiño len galzorian ar-kitu nintzan, beste guztiak bezela, eta irtenbidea billatu bear bear izan genion. Sindikatoen laguntzarik? Ez-ta erreal bate-nik ere.

Alperrik esango dute au eta ori, baiña etzuten beatz bat ainbeste ere aldatu euren jokabidea, eta ori ez da nabaitzen dutan gauzarik txarrena. Asko baidira beren odola xurgatzen bagenie bezela begirutzen digutenak, eta ez dira konturatzen orain jubilatuz gaudenon garaian jarri zirala pentsioak.

Garai aiek ere igaro ziran arren, urteak aurrera eta beren ortan daudela gauzak, eta ala jarraitzeko itxurarekin gaiñera. Guk bagiñuzen asmoak aurrera ere jarraitzeko, batez ere alar-gunen pentsioekin. Baiña eziñezkoa izan zan. Neri perlesi ai-deak eman zidan eta okerragoa: Mallo jauna il zan biotzeko-ak jota; eta or gelditu ziran alargunak beren pentsio erdiarekin, eta beste gauzak len bezela. Geroztik izen aundiko gauzak egin dira, *Consejo Nacional de Personas Mayores* eta orrelako gauzak; baiña aundi usteko gauzak orixe izaten dute

askotan: izen aundiko buruzagiak; apalxeagoak balira, *vice-presidente* edo orrelako izenen bat ezarri, eta ixo gaiñera.

Gero gertatzen dana: agintari asko baiña indiar gutxi (*muchos jefes, pero pocos indios*). Orixe izaten da olakoekin eta orrekin ere. Beste aldera esanda: zalaparta asko eta intxaur gutxi. Ezer egin al du aintzat artzeko gauzarik?

Nere ustez ez, eta ez-ta egingo ere, oraingo egitura daukan arte. Gobernuak berak gauzak egiteko ez du beste erakunde-
ren bearrik ezertarako ere. Zerbait aurrean ipintzen baldin bada, jarri dezala bere buruaren jabe dana eta bertan sorturiko elementuekin. Bestela jai dago, geien-geienez ere zerbait gaizki ateratzen baldin bada, aren errua jasotzeko balio lezaken eran montatzen dutelako. Ori asmatzeko ez du izan bear jakintsua. Lengo esaera zarra da legea jarri zuenak jarri zuela tranpa, eta egia galanta izan eta izango gaiñera.

Ori balitzake eskaerak egin bear diranean, betik asi ta gora eskatzen diranak edo aiek akordatzen diranekin. Arremanak izateko jarritako erakunde bat, ixiltzen naiz, ango goraberak gero gobernuarekin aztertzeko oso ondo etorriko litzake orrelako erakunde bat, Sueziako sindikalismoaren ardatza dan *los acuerdos de Salsjobaden* izenez ezagutzen dan dokumentuaren oiñarriak diranak bezelatsu izan litezkelako.

Ez dut arrokeriz esaten, baiña orixe zan guk ministroarekin erabilli genduen joera, Mallori ezer esan gabe, jakiña. Elizaren usaia artu ezker, ezezkoa jakiña zegoen arengandik. Baiña gero parre egiten zuen, paperak erakutsitakoan. «*Por una vez vale*» esaten zuen. Baiña arekin kontuz erabilli Aita Santuak, eta kardinalak ere bai, naiz gero aien teoriak edo edukiñak pozik artu.

Gaztetan ikasi genduen sindikalgintzari probetxua atera geniolakoan gelditu nintzan, Orain oroitzean, ordu kontuak ateratzen ditut eta geroz ta obeak ziralakoan nago gaiñera,

guk esku artean erabili giñun argudioak. Bi aldeetakoak bildu ondoren ez baitu bi aldeak eta, ez badira parean jartzen, berriz proposamenak aztertu bear dira; eta, urrengo bildutakoan, alkargana urbildu diran ala ez ikusi, eta aztertuz jarrai aurrera bidean, al dan arte, etsipenean erori gabe.

Federazioan ere etzan beti erraza izan aurrera egitea. Etxea ere zarra artu zan, eta geroz eta zarrago egiten ari zan, normala dan bezela. Berritu bat ematearen bearrean zegoen eta alaxe egin genduen. Billerak egin bear ziranean, beste nunbaiten billatu bear tokia, bertan etzegoelako federazio guztia biltzeko tokirik. Ala jarraitzea etzan gauza egokia; kajan dirua zegoela eta bazegoen, obrak egin arren, gelditu egin.

Lenbiziko gauza, tokia bazegoenez, federazio osoa biltzeko tokia izan genduen. Ortarako maai bikain bat egin zan, amasei eserleku inguruan zituela, beste zortzi jarleku toki berean sartzen ziralarik. Urrena, berriz, taillerra eratu genduen: fotokopiadora, zulagailluak, koadernoak egiteko tokiak eta olako gauzakin. Sarreran *hall* antzeko bat zan bertan; *jubio-linpiadak* egiteko bear ziran tresnak: toka rana edo igelean, botean, pelotan, musean, tutean, briskan, seikotan, billar, xakean edo ajedrezean, dametan, petankan eta gaiñerakoetan erabiltzen ziran tresnak eta olako beste gauza asko gordetzeko tokiak, eta kristaldun atea igaro ta lanerako maaiak zeuden. Erdian bi ate alde banatara. Eskubira, len aipatu dugun Batzar-gela edo *Sala de Juntas*; eta ezkerretara, gela nagusia bezela ezagutzen zana bi maairekin. Bertan lendakaria, lendakariordea, idazkaria eta artxibo nagusia. lau errialdetako datu garrantzitsuenekin.

Esan dezagun *federazio osoa* edo *pleno de la federación* al-karte bakoitzetik bi lagun eta gu, federazioko kide guztiak, osatzen genduela. Bestela, guk, federazioan bertan geundenok, *permanentea* osatzen genduela. Orregatik zan bearrekoa bi illabetetik bein osoko billera egitea, erabakiak balioa izan zezaten.

Diruz oso estu ibilli ezean beste asoziazioetatik, beste baina edo biña ere onartzen ziran, aolku-emaile bezela. Baiña maaia osatzen genduenak amasei izaten giñan; eta, gaiñera, ez giñan askotan biltzen amaseitik gora.

Erdiko gelan ordenadorea ere jarri genduen. Bearrena zuenak erabiltzen zuen, geiena idazkariak; eta gaiñontzean bear zuenak. Bolara artan Aurrezki Kutxak eman zituen klaseak eta asko animatu zan jendea ordenadoreekin lan egitera, eta esan ziteken etzala naikoa batekin bakarrik. Baiña ango lanak egiteko ainbeste bazan, eta ortan ere ordena jarri bear izan nuen: ezin baziran konpondu barrura pasako nuela, eta arekin egin bearreko lana an barrura pasata egin bearko zutela; baiña beren artean konpontzen ziran bitartean, etzala alako eze- ren bearrik, eta lenbailen alkarren artean konpon zitezela. Ala egin zuten.

Ez dira oraindik urte asko, amalau-amabost geinez ere, oraindik jubilatuen artean naiko gauza ez oizkoa zala ordenadorea, eta ez da arritzekoa danak kurtsilloak egiñez arekin jostatu nai izatea, gauza deigarria baida.

Orain osatuta gelditzen ziran guk bearrezko giñun gauzak: fasa, kopiak ateratzeko tresna, zazpi maai banakakoak; amasei eserlekurekin zan maai bat batzar-gelan; enkuadernatzeko tresnak ere bai: zulatzeo tresna, ebakitzekoa ta abar, danak ordainduta, “xentimo baten zorrik gabe”, garai batean esaten zan bezela.

Geroztik etorri ziran nere tronbosia, lendakari berria, junta berria eta gaiñerakoak. Nik, nere eziña ezaguturik, lendakariorde izatera jetxi nintzan, iñork beartu gabe; eta, gauzak ondo zijoazela uste genduen garaian, lendakariak izan zuen alako gora-bera bat familiko arazoengatik. Uztera beartu zan eta berriro lendakari-ekintzetara (*presidente en funciones*) beartu nintzan. Alaxe egin nuen urte erdi batean gutxi gora-

bera. Gero, bestea jarri zanean, berriro lendakariorde jarraitu nuen; eta, nere esanak balio etzuela antzeman nionean, eta azkenera irixten ari giñala, Bilboko billera baten ondoren, bazkaldu gabe irten eta etxera etorri nintzan, eta geroztik giltzak entregatzen bakarrik izan nintzan

Olinpiada oien bukaera igandean izaten zan, eta orduan lau errialdeetatik joan oi zan jendea: Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Naparroatik, baiña berak ordainduta. Tokia, autobusak eta elkarte bakoitzeko amar lagun izan ezik, oiek federazioak ordaintzen zituen. Baiña ala ere modu onean ateratzen zitzaizen zijoaztenei, edozein ibillalditara joanda baiño merkeago.

Joko guztietan parte artzen zutenak, ostegun eguerditik igande eguerdira arte dana ordainduta izaten zuten; eta joko guztietako epailleak eta gaiñerako federazioko plenoa, danak ere berdin. Azkenerako, kastuak gora irtetzen zuten: baiña nunbaitetik ateratzen zan eta aurrera.

–Zer ziran ilinpiada edo *jubiolinpiada* oiek? –galdetu dezake batek, eta arrazoiz gaiñera. Ez baidira nolana erabiltzeko itzak. Baiña saiatuko naiz beren esan naia alik eta zeatzena ematen.

Erriko jokoeekin eta jubilatuen eguneroko bizitzan geiena erabiltzen dituzten jokoekin naastuta: karta-jokoak musean, tutean, briskan eta seikoetan; pelotan, berriz, eskuz, paletaz, gomazko pelotarekin, danetan bi-bitara jokutzen zan. Baita dominoan ere jokutzen zan, eta ontan ere bi bitara.

Gero tokan, igelean (*rana*), potean eta petankan, jakean (*ajedrez*), billarrean, eta auetan banaka izaten zan. Boletan etzan jokutzen, eskualde bakoitzean jokatzeko era desberdiña zegoelako. Ni alegindu nintzan zerbait zuzenduko nuelakoan, baiña alperrik. Bakoitzak bere erara beste iñola jokatzeko konturik etzeukaten, eta alperrikako alegiñetan aritzea baiño obe izango zala gorputza atsedenduta edukitzea, eta bere artan utzi nion.

Esan dezagun joko auk ospatzen Maritxalar asi zala. Lenengoak Donostin ospatu ziran, eta gero urte bitik batean txandaka egiten ziran, Bilbao, Gasteiz, Iruña eta ostera berriz ere Donostira. Ortan jarraitzen zuten, lau urtetik lau urtera tokatzen zitzaion uriburu bakoitzari.

Jokoak asterako nork noren aurka jokatu bear zuen seiñalatuta zegoen, eta ondoren zer eskemari jarraitu bear zitzaion ere bai. Ostegun arratsaldean asten ziran jokoak eta larunbat erdirako bukatzen ziran, gauzak normal zijoztela; eta, arratsaldean, inguruko tokirik politenen batera ibillalditxoren bat egin eta apaltzera.

Igande goizean meza nagusi eder bat eta tokian tokiko agintarien itzaldiak eta sariak banatzea izaten ziran bazkari aurretik. Oso emozio aundiko unea izaten zan ura. Egia esateko, beren mundu koxkorreko txapeldunak ziran irabaztunak, eta benetan ala sentitzen ziran gaiñera, egiazko olinpiadetan irabaziak balituzte bezela.

Gauza ikusgarria benetan igande eguerdian izaten zana. Alako trofeoak izan ere egiten ziran aurreneko bientzat, eta gaiñera Eusko Jaurlaritzatik zetorren ordezkariak emaniko kopa aundi ta ederra jasotzen zuena ez uste asarre izaten zanian. Bazkaritako orduan ere beren ondoan eukitzen zituzten, noizean bein begiratu ta parre txikia egiñez.

Gure joko *olinpikoak* iru egun irauten zuten. Joko guztietan parte artzen zutenak dana ordainduta izaten zuten, an zeuden egunetan; eta trofeo ederrak izaten ziran joko bakoitzeko aurreneko eta bigarrenentzat, eta domiñak irugarren eta laugarren gelditzen ziranentzat. Lau eskualdetakoak izaten ziranez, normalean juxtu etortzen ziran. Ori guztia ez, noski, baiña zati aundia Euskadiko Kutxa deitzen diogun orri eskerrak izaten zan. Zenbaiten inbiriak eta beste zenbaiten arduragabekeriak alkaturik egin zuten ori ondoratzeke artea. Errezago baida ongi lanean ari dana bazter-

tzea, berriro beste bat obea arkitzea baiño, eta ixiltzera noa geiegi esan gabe.

Aldea ateratzen genduen, olinpiaden bukaerako igandean alde guztietatik joaten ziran oiekin. Danak libre bear zutela nik eziñezkoa zala. Aurrera jarraitzeko bearrezkoa zala erre-serba apur bat eukitzea, tartean zerbait gertatuta ere; ta beste-ak, gero zerbait izango zala eta kastatu egin bear zutela zeu-denak.

Len etzan denbora asko egin giñula lau eskualdeetako el-karteentzat eta federazioak beretzat telebisio bana, bere bideo ta guzi, danak gure kontura. Bideo-zintak asko etortzen ziran andik eta emendik. Madrildik bialtzen zituzten *Consejo Nacional de Personas Mayores* dalakotik, UDP geure erakunde-an zerbait garrantzitsua gertatzen zanean, edo iruditzen zi-tzaiotenean, eta egunean egoteko bearrezkoak diran gauza asko olaxe. Aldizka berrikuntzak egitea zan gure elburua, eta ori elkarteak esateko ezer ordaintzen etzigutelarik, euneko sinboliko bat besterik.

Luzea bazan ere, orra nola bukatu zan nere federazioko ibillera. Bateko lendakari ta besteko lendakariordeko, zortzi urte egin nituen, neurea izan balitz bezela, lanean; eta egun ar-tako egosgogor aldi ura izan ez banu, Jainkoak daki noiz arte. Garbi esateko, oso minberatua arkitzen nintzan. Egun artan Bilbora besteak baiño lenago joana nintzan. *Feria de Mues-tras* izeneko leku zabal aundi artan udaran egitekoa zan zarren aldeko jaialdian komisiokoa nintzan, eta goizean an izana nin-tzan. Naikoa erreta iritxi nintzan *Casa Vasca* zeritzaion osta-tu ospetsuan egiten ari ziran billerara, eta bereala azaldu zan naiko kontu baldarra. Ainbeste kostata egindako *koltxoia* gas-tatu egin bear zala; eta len beti Euskadiko Kutxarekin geneu-kan arremana autsi ta Gasteizko Vital Kutxarekin *a la baja* tratua egiña zeukatela eta zetozten Gasteizko *jubiolinpiadak* ordaintzeko gastu izugarriak federazioaren bizkarrera boteaz.

Ni ez nengoen, berriz, ortarako lana egiteko gertu. Gasturik aundienak bai, baiña egun ortan bazkaltzera zijoaztenei bideko gastuak ordaintzea naikoa zan, eta bazkaria ordain zezaketen zijoaztenak.

Eskuen artean txanpon batzuk diranean kontua euki ezeanean, gero, zerbaiten bearra etorritakoan, lenago *ipurditik* pasatakoak ez dute laguntzen batere. Alperrik eskatuko diezu alako ta olako tokitan utsaren truk jan zenuela ta dirua emateko, bearrean zerala ta. Laister esango dizute, arrazoiarekin gaiñera, len kontuak ateratzea obe zenduela, orain lantuak jozteza baiño.

Bakoitzak bere ideiak izaten ditu. Ori uka eziña da, ta aiena orixe izan nunbait. Ori ez izan, berriz, nere gogozko jokabidea. Ez-ta aldekoa ere; eta lenbailen aldegitea izango nuela onena pentsatu nuen, eta alaxe egin nuen. Nere izaera ezagutuz, oso gaitza baizan bi pertsona ain ezberdin pentsatzen genduenak egunero-egunero alkarren ondoan lanean ari bearra. Ori, gañera, musutruk egin bearrekoa edo egiten genduenan izanik. Or konpon esan eta alde egin nuen. Norberea ez dan diruarekin berriketa gutxi!

Mingarria izan zan benetan, ainbeste kostata aurrera ateratako ainbeste balio zuen *koltxoia* nolanai txautu eta uzteko konforme, batetik; eta, bestetik, *jubiolinpiadak* ainbeste urtean egiteko laguntza eman zuen Euskadiko Kutxa baztertu. Ez bat eta ez bi gutxietsi, gutxiagorengatik gaiñera, eta kaixo, motell! Lasai asko gaiñera, eta ori ez da nere barrenean kabitzen dana. Gizatasuna jokoan dagoenean, gauzak bere lekuan!

Bestela ere oso aspertua nengoen, eta ori izan zan azkeneko tantoa nere edanontziari gaiñez egin arazi ziona. Orrenbestez bukatu ziran ainbeste buruauste eman zidaten Araba, Bizkai, Naparro eta Gipuzkoako Jubilatuen Federazioko lanak.

Orren antzeko amaika joerari aurre egin bear izan nien zortzi urte luzean; baiña oraingoan ez nintzan ortik igaro. Aspertu, nekatu eta erabat nazkatua arkitzen nintzan. Alakoetan, berriz, lasaitasun osoz jokatuta ere naiko lanak izaten dira, eta nik ez neukan orduan aurrera jarraitzeko ez gogo eta ez adorerik, eta agur egin nion ango borrokari.

Alditxo batean poliki ibilli nintzan, emen inguruan ibillaldi politak egiñez. Nola ez neukan mendira joaterik, ordekan ibiltzen nintzan batera eta bestera, Egunean amar eta amasei kilometro tarte ortan ibiltzen nintzan.

Ortako aukera aundia ematen du ni bizi naizen tokiak, La-sartek: ibaiz ezkerretik Zubietan barrena Santuanera lenbizi joan –lau kilometro daude alde bakoitzera–; andik aurrera ere Txokoaldera ta aurreraxeago ere ordeka-ordeka dago. Amalau kilometro inguruko itzulia dezu or bertan; eta, ori gutxi baderizkiozu, ipodromora eltzean eskubira artu eta Oriatik itzuliz danen artean emezortzi kilometro dauzkazu. Ori geitxo baderizkiozu, berriz, Ori alderako orri utzi ta amalau gelditzen dira. Ez daude Gipuzkoan toki asko ordekan daudenak eta erre-pide nagusietan ibilli gabe egin ditezkenak.

Baiña artean sasoi apur bat baneukan, zerbaitetan erre bear ura ere ta gauza oberik zer egingo nuen ori baiño? Ezer ez. Baiña sasoi dagoen bitartean egin bearrekoak dira oiek danak. Aldegin da gero alperrik da nai izatea, eta sasoi billa ibiltzea ere bai. Ori, ematen duenak kentzen du.

Orain ez dago orrenbesteren bearrik. Orain gutxiagorekin ere naiko lanak ematen ditu, ta orrenbestean konforme. Au dek komeria, au! Urtetik urtera eskaxten eta oraindik ere bizi egin nai. Eta zer egingo da? Lengoak ere ola izango ziran eta gu ere aien antzera. Negua udaran txuxpertuko geralakoan igaro ta orain obetoxeagoan ote gabiltzan. Baiña negu lenean ainbestera ezin iritxi iñolako moduz; eta, urteak aurrera dijo-

azten bezela oroitzen dira gauzak, eta auxe ere polita da, ba. Neronek izandako gogoeta bat da; eta gaur goizekoa balitz bezela oroitzen naiz, andik igarotzean.

Lasarten urte askoan bizi izan zan eta auzokoa eta laguna genduen gaiñera, Antonio *Rioja* deitzen geniona. Azken urteetan, an Erriojan eta emen txandaka, *a caballo* esaten duten bezela, ibilli oi zan. Emen zegoen bolara artan eta ala esan zidan Zubieta aldean billatuta:

–Gero baiño gero maiteago egiten zaizkit emengo txoriak eta txori-kantak. Baita zelaietako koloreak eta loreen usaia ere. Baiña emendik aurrera neretzat alperrik dirala uste dut. Anka zar auek ezin arrastatu iñola ere –esan zidan, eta ortan jarraitu zuen. Geiago ez nuen ikusi eta andik laister il zan gizarajoa (g. b.).

Orain dijoan au Urdanetako zarrei entzundakoa da. Kontatu izan zuten bi aitona zar, lagun aundiak izandakoak eta aspaldian etxetik ezer asko ateratzen etziranak, udaberriko jai goiz batean animatu dira pazkoazkoa egitera joateko, etxekoren batek lagunduta agian. Tamalez ez nuen ikasi nungoak ziran, zein baserritakoak alegia. Baiña Urdanetakoak zirala bai. Ango plazan izan zala esaten zuten. Orain, berriz, nori asi bear diozu galdezka? Azkeneko *mohikanoa* gelditu zan bezela gelditzen ari gera oraintxe!

Arritzekoa zan garai artako gizon eta emakumeen eleizako gauzetarako atxikimentua edo bildurra, ainbeste denboran etxetik irten gabe egon ondoren norbaiten laguntzarekin pazkoazkoa egitera joateko.

Zenbat zar gaixo ikusten ziran, bi pauso egin eta eskuetan zeramaten makillari eldu ta itxoiñez, urkamendira balijoaz bezelaxe erdi arrastaka bideetan zear beren burua ezin arrastraturik. Errukia ematen zuten ikusita. Orduko apaizen alde ere ez du geiegi esan nai gauza onek. Garai artan zeuzkaten egin bearrengatik aiton-amonak ain errukarri elizara joatera beartu

gabe ere eziñezkoa zanik ez dirudi aieri Jauna etxera eramateak. Baiña, elizakoak izan ezik, oso gaitza zan orduan Jauna etxera eramatea, eta orrelaxe ibilli bear izaten zuten orduko zarrak.

Begira zer dioten gure bi aitonak eliz-atarian, aspaldiko partez alkar ikustean:

–Kaixo, Iñaxio, aspaldiko lagun zarra!

–Kaixo. Joxe Domingo! Zer moduz, ba, zer moduz!

–Zer esango diagu? Zartu gaituk eta galdu gaituk!

–Ai, Joxe Domingo. Joxe Domingo! Orixe nai genduen. orixe nai genduen!

Maiagako Joxe Mari xarra zan bat, gertakizun au kontatu oi zuena, ta onek bere ortan uzten zuen. Baiña, nik nere partetik pentsatzen dutanez, aiek banatu bear zuten unea ere polita izango zan, eta larri ibilli aien azkeneko itzak «Josafateko zelaira arte!» izan zirala, ala baizan esaera olakoetan.

Ortik aurrerakorik etzuten esaten; baiña orrekin esana dagoela uste dut esan bearrekoa; alegia, gaztetan iltzeko gogorik ez eta zartuta ere aundirik ez. Olaxe da gure izaera, eta olaxe jarraitzen dugu len, orain eta... gero ere bai noski. Bizi-legea dago nunbait olaxe jarria, ta olaxe jarraituko du. Gaiñera obe ala jarraitzea, zerbait berria ateratzea baiño. Gizonen esku balego beintzat, ez litzake txukuna izango. Diruaren arabera olakoren bat izango litzake ziur asko, ta bada- ez-bada ere naiago dut ortan jarraitu, eta bukatu bear danean bukatu ta kitto!

Ateraldi polita zan ura ere, baiña egia: «orixe nai genduen». Ez al derizkiozu ala? Nik baietz uste: guztiok pixkanaka ortara eramaten dugula bizitzaren gurdia.

Orixe nai genduen, orixe nai genduen! Orixe nai dugu guk ere orain!

Azken urteak

Nere jubilatuen federakuntzatik aldegin orduko, iritxi zitzaidan beste *fitxajea*. Len ere kideko nintzan; baiña *III Adiña III Mundurako* deritzaion gobernuz kanpoko erakundearen lendakari zegoelako, nere lagun Sebastianek, *Ttakun* deritzan alkartean naiko lan bazeukala bere ordu libreak bear bezela txautzeko, eta ni nola lendik lendakariorde nintzan, astirik galdu gabe izan nuen bertan kargura igotzeko egokiera. Lendik neukanarekin konparaturik, askoz jasangarriagoa egiten zitzaidan. Beste emakume miresgarri batek egiten baiditu interneten bidez emengo arremarik berezienak, naiz Eusko Jaurlaritzarekin eta naiz gure kooperanteekin, eta orrekin asko aurreratzen da. Orain ez naiz, gaiñera, gauza ere len bezela lana egiteko. Indar ori ematen duenak kentzen du, eta etsi egin bear nai ta nai ez. Ez dago beste jirarik ematerik.

Gu aspalditxoan Ertamerika alde ortara ari gera laguntza bialtzen, an kokatua dagoen *Fe y Alegría* erakundearen alkar-lanean. Batez ere Eusko Jaurlaritza eta Donosti, Ernani eta Ordiziko udalai esker zazpi ikastetxe eraiki dira; eta, orretzaz gain, liburu pillu izugarria ere bialdu genduen. Baita aulkiak ere. Baztarrean billatutako blokeen gaiñean ari zirala ikasten umeak, eta bialdu giñuzen emen batean eta bestean eman zizkiguten jarleku guztiak.

Baita erropa ere bialtzen diegu, batez ere Eroskik emanda. Guk, egia esan, naikoa suerte daukagu gauza oiekin. Valladoliden dago etxea olako gauzak bildu ta andik gero Barzelonako portura bialtzeko; eta guk, nola liburua izaten dan geiena, kajetan sartu eta lotu ondoren, Mitxelin lantegira eraman eta gero emendik doain eramaten dizkigute Valladolidera, goma-

rekin etorritako kamioietan, utsik joan bear luketenak. F. Amas jaunari eskerrak etzaigu ezer kostatzen aruntz bialtzea. Andik aurrerakoa egiten du, berriz, Primitivo anaiak. Naparrak badute esaera bat: «Pixke ta pixke, egiñen da puxke». Guk ere alaxe egiten dugu. Zerbaitengatik da naparra gure erakundearen eragille nagusia.

Fe y Alegría gure Ertamerikako kooperantea, jesuita euskaldun batek asitako lana da; eta, esate baterako, Ertamerika dana eta Egoamerika geienera zabaldua dago. Erri aundietako kanpo, egaletako jende beartsua eskolatzeko sorturiko erakundea da, ain zuzen; eta orretan diardu alegiña egiten. Baiña, kanpo-zorra dala medio, geroz ta ume geiago dagola diote eskolara gabe.

Jenderik arloteena erri bazterretan, eta oietako arloteenak umeak eta zarrak. Jakiña dago ori; ta, gaiñera, Ertamerikako laterri askotako gobernu *títtere* oiek errezena moztutzen duten gastua, kanpo-zorrari erantzuteko, edukazioa da. Origatik daude zenbait nazio esateko batere presupuestorik gabe lur sail aundietan, eta alako lekuetan sartzten da *Fe y Alegría* izeneko jesuiten erakunde ori, aurrak beren bizi guztirako ez ditezen izan baztarrik baztar eskoria bezela, batek nai ez eta besteak bear ez, munduan zear ibiltzeko. Beren bizi guztiko galduak izan ez ditezen ume gaixo aiek.

Orain urte batzuk Ertamerikan izan zan *Mich* izeneko aize-eraso aundi ikaragarriak egindako kalteak zirala ere, milloiti asko bildu ziran, eta bildutakoa bialdu ere bai, oso-osorik gaiñera; eta ementxe izan ziran eskerrak ematen, andik etorrita.

Gauza ederra da benetan zuk eskuetan erabillitako liburuekin indio-kumeak irakurtzen ari dirala jakitea; eta politagoa zuk ikasteko erabilli ziñuzen liburu aiek berakin orain indiotxo batzuek ango ikastetxeetan ikasteko erabiltzen dituztela jakiteak. Guk ikusi ditugu argazkian; eta zuek zergatik ez?

Zuk, gazte: zer egiten diezu aurten bear ez dituzun lengo urteko liburuei? Ez bota, arren, zakarretara libururik, testokorik beintzat; eta bestelakorik ere ez obe. Guatemala. Kolonbia. Bolibia, Benezuela ta abar luzean pozik irakurtzen dituzte; eta, aruntz bialdu nai izan ezkeru, berriz, deitu 943-291944 telefonora orduz kanpora; eta lan orduetan, berriz, 943-362624. Oietan esango dizute nora eraman edo zer egin. Baiña iñola alean ez zakarretara bota.

Asieratik izan nuen alako zerbait berezia. Len oiturik nengoetik ain zan ezberdiña. Lengo tokian goizetik asten ziran deiak; eta eguerdian etxerakoan pentsaturik uzten nuen nundik asi lanean. Baiña emen etzgoen orrelakorik. Noizean bein sortzen zan laneko bolaratxoa; baiña tartean ainbesterañoko estuasun gabe. Batez ere goizetik arrunt libre gelditzen nintzan. Asieratik izugarrizko aldea nabaitzen nuen. Goizetan nere ibillitxoa egitera irten eta eguerdi aldera arte enintzan etxeratzen. Au da benetako jubilatuen lana, eta ez lendik federazioan geneukana.

Jubilatuen federazioan gauza ona orixe izaten zan: egiten ziran gastuak danak ordainduak zirala. Asi etxetikan bertarañoko biajeagandik eta, iñora joan bearrik izaten baldin bazan, berdin. Egun batean joan eta etorri egiteko urrutiegira joan bearra baldin bazan, iru izarreko otela ere bai. Egindako gastua dana justifikatu egin bear; baiña, ori egin ezkeru, dana ordaintzen zan. Ortarako ematen zuen Eusko Jaurlaritzak dirua; baiña, gaiñerakoan, lan asko sortzen zan an. Urte batean *jubilinpiadak* eta bestean idatz-leiaketa egin, eta orretaz gaiñera iru illabetero boletiña argitaratzen zala, funtzionario askok ainbat lan egin bearra zeukan gutxienez ango lendakariak, eta lendakariordeak ere bai. Baiña, egiteari utzi ezkeru, jakiña, lanak ere bera joaten dira.

Goizean ibillaldia egiten asi nintzan egunero. Santuanera joaten nintzan geienean, askotan Txokoaldera, eta aldizka

buelta aundiak ere bai. Mendira ez nintzan joaten, bein tronbosis pasa nuen ezkerero. Baiña bestela bai gogotik ibilli, pozik gaiñera. Egin bearrak beteak neuzkan eta orain lasai ibiltzea zegokidan.

Berriro asi nintzan irudigintzan pixka bat. Baiña laister utzi ere egin nion. Nere eskuak etzeuden ortarako, eta utzi egin bear nai ta ez. Ortarako ez baida naikoa astia ta gogoa izatea. Bearrezkoak dira eskuak eta ikusmen onak edukitzea. Bestela, jai dago lan onetan. Ondo ateratzen danean, lan polita da; baiña zailla benetan itxurazko gauzarik aterako bada. Imajinazioari lana egin arazi bear zaio; eta, ortarako, nerea bezelako tronbosisarekin zaiñak urratutako larogei urtera inguratutako buru zar batekin ez dago miraririk egiterik.

Lenbiziko urte pare batean egurrarekin bakarrik egiten nituen. Baiña andik aurrera arriarekin asi nintzan. Naikoa poliki asi, gaiñera, eta aurrera. Aski zaletua nengoen. Egurrean baiño lan obeak egiteko itxaropena ere izan nuen; baiña etzan garatu itxaropen au, gaixotasunak aurea artu zidalako. Egurrarekin, bai, ondo asmatzen nuen, batez ere aitonak txapelarekin eta amonak buruko pañueloarekin. Oiek egiten zan nere berezitasuna. Bestelakoak ere bai, baiña oiekin aritzen nintzan ondoena, nere iritziz, naiz irudi bat ondoena egiña bestelakoa izan. Erriko alkateak an dauka bikote bat bere gelan.

Egurra, berriz, nere ustez onena lanerako altza izango zan errezeloarekin gelditu nintzan. Garaian bota ta azala kendu ezkerero, egur ona kargari eutsi bearrik ez duen tokian. Gubia erabiltzeko oso ona, gaiñera. Beta gutxi duenez, edozein aldetara artuta ere lan egin diteke. Bestea, berriz, palmera da oso ona, gezurra badirudi ere. Ez du betarik batere; ez-eta muiñik edo biotzik ere. Kolore illun samarra izatea. Gaiñera-koan, iñoren inbiri gabeko egurra izaten da palmera. Nik probatu al izan nuen. Gure baratzen bazan luxe-luxe bat, eta gau batez aizeak bota zuen, ain zuzen. Baratzatik kentzeko asmo-

an asi nintzan eta orduan konturatu nintzan etzuela ez erdiko muiñik, ez betarik eta ez-eta adarbegirik. Orregatik pentsatu nuen probatu bear nuela nolakoa zan irudigintzarako.

Aritz amerikarra ere ona da; baiña aukeran beta aunditoxa dauka, batez ere adornu txikiak egiteko. Nik bein batean dantzari bat egin nuen enkarguz, ogei ta bost bat zentimetrokoa. Eskerrak garaiz konturatu nintzanari; baiña beatzak eta kris-kitiñak jotzeko eran jartzeak baditu bere lanak, eta *lolitte* tantoren bat edo bestek iges egiña izan bear zidan. Ala ere, pozik ainbestean atera zitzaizkidanean.

Zur-zuria edo makala (*chopo*) ere egur ona da. Ez nuke esango altza ainbestekoa danik, baiña ona da. Erreminta zorrotza erabilli bear; orixe. Bestela, illauna baleuka bezela ateratzen zaio. Biguna da eta errez ebakitzen du gubiak. Ez ain ondo garbitu, ordea, ta or dago arazoa, bear bezain zorrotzak ez daudela erremintak adierazten duena.

Alkazi zuztar bat aspaldi botea eta zakarpean zegoenarekin egin nuen *Venus de Milo*-ren kopia bat, euneko ogei inguruko neurrietan. Oso egur ona iruditu zitzaidan eta, aurrera jarraitzeko ainbeste modu izan banu, osasunez alegia, geiago ere egiteko asmoa banuen. Baiña inpernuko demonioak eramane zizkidan indarrak eta kitto!

Beste gauza bat da arria lantzea. Oso era ezberdiñean egin bear izaten da lana, eta suerte ona bear du aurrenetik gauzak ondo irtetzeko. Ni Lasarteko Pako Astua egingo nuelakoan asi nintzan, eta asmoa nuen berrogeitik batera gutxienez jetxi zitzaidan neri, alperrik ari nintzala antzeman nionerako. Itxura sudur motzagoko zerbait egin bearko nuela eta mai gaiñeko paperak zapaltzeko oietakoa atera zitzaidan. Alemaniko kanziller izanduriko Adenauer zarraren itxura omen zuen, eta andik aurrera, bai, saiatu nintzan Adenauerren al nuen itxura geiena ematen nere mai gaiñeko bustotxoari.

Azkenean, Bukarest aldera joan zala uste dut. Errumaniar pintore bat, Nikolae Barb, emen Lasarten erakusketa bat baiño geiagotan izan zana eta aietako batean gustatu ta eraman zuen. Bere koadro bat eman zidan eta kito. Etzuten parre gutxi egingo, noski, berak eta bere lagunak, gizonaren neurri alik eta normalenean, eta gizon aundi sudur luze egiten asi eta uraxe atera zitzaidana esanda!

Esan nionean nola gizon aundi baten bustoa egiten asi nintzan eta beti pusketaren bat erori egiten zitzaiola, eta ura berdintzen nuenerako beste bat, eta ortan-ortan etorri zala tamaiña ortaraiño, arek egiten zituen parrak! Bere lagunei kontatu bear ziela esaten zuen, aruntz joaten zanean: nola gizon aundi ta sudur luze baten irudia egin nairik asi puska botatzen, bein eta berriz asita ere berdin, eta azkenean gelditu zitzaidanarekin. Adenauer beraren itxurako maai gaiñeko paperak zapaltzeko uraxe atera zitzaidala, eta bere koadro kaxkar baten-gatik trukatu niola. Gezur itxurako egia!

Bellas Artesetako profesorea izan bear zuen Bukaresten, eta an eduki bear zuela esaten zuen maai gaiñean paperak zapaltzen, eta ori neretzat oore aundia zan. Nun eta Rumanian nere *obra* bat edukitzea! Nikolae Barb deitzen zitzaion eta il berria da gizarajoa. Goian bego.

–Nolaz etorri ziteken Errumaniatik Arte Ederretako zuzendari bat Lasarteko erakusketara? –galde lezake batek. Arritzekoa da, izan ere, alde ortatik begiratu ezker. Baiña kontutan izan an ere luzaroan egon zirala gu emen gerra ondorenean egon giñan bezela, goseak amorratzen. Laguna zuen Rafael Domecq, emengo erakusketaren zuzendari egiten zuena, eta onekin nolabait moldatu ta al zituen koadro guztiak salduz, txanpon batzuk ateratzen zituen, eta dana janaritan eramaten zuen. Bearko, gaiñera, gosea kenduko bazan. Bertan saltzen etzitzenak, Domecq orri utzi ta orrek gero jana bialtzen zion, saltzen zituenean.

Gizon aren lagun aundia zan Rafael Domecq donostiar pintorea. Lasarten bizi izana ta emen zegoela asi zan pintura erakusten. Pintura ta eskultura erakusketa-sarietako zuzendarri ere bera izan zan, urte askoan gaiñera. Andre-gizonak biak ibiltzen ziran, eta nik baneukan arrantzalearen busto bat, bere lepo altuarekiko jerse batekin egiñiko giza-irudi bat. Ura gus-tatu zitzaion gure Rafael oni eta berari eman nion, Onek ere beste koadro bat eman zidan eta kitto gelditu giñan. Ala bearez il berria da au ere. Goian bego!

Bi gizon auek izan ziran Lasarten pinturako erakusketa ain goraiño jaso zutenak. Aurrezki Kutxa, Bankuetxe eta gaiñera-koetan atepak jo ondoren, eta sari politak jarriz, mailla oneko esposizioak egitera iritxi ziran. Nikolae Barb errumaniar au pintatzaille polita zan. Rafael, berriz, eratzaille nekaeziña; eta biak alkarrekin zebiltzan bitartean, Nikolae urteoro zeto-rren bitartean alegia, onek berak zekarren mordoxka polita, eta sariketakoetatik aldamenara jartzen zituen bereak eta jan-tzi aundia ematen zioten alako pintatzaille baten lanak, eta Rafaelenak ere bai, neurri apalxeagoan.

Bertakoak ere bazeuden poliki margotzen zutenak: Oskar Barrera, Matarranz andereñoa eta abar. Geiago ere bai eta atera-ko ziranak, gaiñera, artan jarraitu izan bazuten urte batzue-tan. Ikusiz etortzen baida zaletasuna, eta zaletasuna dan toki-tik atera bear balio duten artistak.

Ez dakit nundik jakin zuten nereia ere. Baiña esan zidaten eta urteoro eramaten nituen egur puska batzuk, eta gero arriak ere bai. Nolabait denbora pasa bear izaten da gazterik jubila-tu ezkeru, eta orrela joan zan nereia.

Gizon ark kontatzen zuenez, gorriak ikusiak izan bear zu-ten an, eta urte askoan gaiñera, batez ere janarekin. Iñundik eta iñora ezin billatu izaten zuten janaririk, eta emendik era-maten zuen al zuen guztia. Emen saltzen zituen koadroakin

artzen zituen xoxak, danak gastatzen zituen gauza batzuk eramatearren, al zuen bezela ezkutatuta: lentejak, babarruna, garbantzu ta abar. Arentzat etzan txarrik ezer, jatekoa izan ezke-ro; eta, zerbait irauten zuena baldin bazan, obe eramateko. Urdaiazpiko apur bat ere bai...

Geroago esan zidaten erabilli nuen arria granito oietakoa zala, eta etzala arritzeko gauza aurreneko aldian ezin izatea. Urrengo asi nintzanerako, arri kozkor bat baiño geiago moka erabillita asi nintzan; baiña izan ziran naiko lanak. Pako gizarajoaren sudurrak, besteak beste sail aundia atera bear eta ortan izan ziran komeriak. Eskerrak etzan granito oietakoa, eta bukatu nuen beintzat eta or dago orain.

Au Lasarteko gizon xelebreenetako bat zan. Gaztetan indarra asko izan bear zuen, esaten zutenez, eta ez naiz arritzen ala izatearekin. Zutik zuzen jarri ezke-ro, bi metro urrean izango zan. Nik ezagutzerako, okertu ta erabat argaldua zan, baiña aundienetakoa zan bere izatez. Emen Lasarten bazuen marka aundi samarra egiña gaztetan: bizkarrean berak pixatzen zuen ainbesteko karga zaku batean artu ta utzi gabe egin bear omen zuen, eta aitak noizean bein ardoa ematen omen zion, eta bai pozik edan ere berak, ala esaten zutenez beintzat.

–Zein egokiagoa astoa baiño karga bizkarrean artuta ibiltzeko? –esan lezake nork edo nork; eta alaxe da, izan ere. Baiña izen ori etzetorkion ortik. Ori lendik zekarren, aurrekoai ere ala deitzen baizitzaien. Kale garbitzen ibiltzen zan. Lenagotik errizain ere ibillia zan; eta gero, zartu zanean, ezeren alderdi aundirik gabe arkitu zan gizarajoa, eta eskerrak Joanito Erreroa eta bere emazte Pilar arduratu ziranari. Bestela, ez jakin nola bearko zuen erri guztiari laguntzen ibillitako gizona (g. b.).

Igeldoko arriarekin egiten nuen geiena gero, eta alde izugarria dago besteetatik orrera. Nola nai ere, gu bezela beran-

du asitakoak ezin dezake gauza zaillak egiten luzitu, eta obeto dala derizkiot egin lezakenarekin aritzea, lenbizitik ni aritu nintzan bezela, artz bat egingo nuelakoan asi ta xagu bat egin eziñik ibiltzea baiño.

Naiz egurrez eta naiz arriz ere, asi aurretik bearrezkoa da gutxi gora-bera zer neurritakoa ateratzea nai litzaken jakitea. Bein neurrietara inguratu ezker, kontuz ibilli bear da; eta arriarekin beintzat maillua kontuz erabilli. Bestela, andik edo emendik pusken bat eroriko zaio, eta berriro asi bear neurri berrien billa.

Pinturaz batekoz bestera egin bear izaten da. Nun dagoen utsunea, antxe ikutu bat edo beste emanegiten da. Baiña eskulturan ez dago ori egiterik; eskulturan kendua falta izaten da beti, eta geienetan danetik kendu bear izaten da, itxuraz utzi nai bada, eta orrek doblatzen du lana. Irukoiztu ere bai; ta alaz eta guztiz ere, asitako elburua lortzen bada, or nunbait.

Zerbaitetan beti ari bear izaten dut: eta ni ere, lenbizikoa gaizki irten zan arren, ezin eskarmentatu, eta bereala eraso nion berriro beste arri zakar batekin, lengoa ondo gogoan nuela. «Kolpe txiki, jauna!». Baiña okerrago eta bildurrago an aritu nintzan zerbait egingo nuelakoan; eta, ainbestean atera zanean, laister utzi nion, naiz-ta oraindik sudur aundiak eta masail ezur zarrak kolpe askoren bearrean egon. Zerrarekin karraskaka-karraskaka kendu nezaizkiokela eta alaxe egin nuen. Lengoarekin eskarmentaturik nengoen, eta ez da orrelakorik izaten, berri artan beintzat. Orregatik ez balitz, geran baiño astoagoak izango giñake, ez da errez baiña.

Lenbizitik asieran gauzak ez dira nolana irtetzen, naiz asi aurretik *jandako ogia* bezela izan. Naiz egur eder askoa izan, berdin gertatu zitzaidan asieran zurezkoetan ere. Iru aldiz proportzioko neurriak aldatu nizkion lenbiziko zurez egindakoari ere. Pozik artan gelditu zanean, bere bruxa beltz ta txapelarekin, nere aita, aitona eta inguruko beste zarrak ibiltzen ziran bezela.

Urteak aurrera egiten duten ainbestean, gaixotasunak ere aurrera egiten du. Nere indarrak atzeraka dijoaz; eta, egin bear dugun ibillaldirako txartelik ateratzerik ez daukagunez, pa-txaran itxoitea baiño oberik ezer nola ez dakigun, orixe egin bearko dugu: itxaron; eta, bitartean zerbait egin baliteke, zerbaiti eldu. Etxean edo kanpoan beti badago zerbait egin bearra eta eldu egin bear.

Gauza guztiak txarrak ez izatearren izango da, noski; baiña bat badaukat ona: iñungo miñik ez dut sentitzen nere barranean, eta ori eskertzekoa da Jaunari.

Zerbaitetan denbora igaro bear eta, goizeroko ibillaldia egin ezkeru, beste zer egiñik ez dutanez, neure maaitxoaren aurrean jarririk ementxe aritzen naiz, batzuetan irakurtzen eta beste batzuetan idazten, gogoak ematen didana egiten.

2004-garren urteko ekaiñera artea jarraitu nion erriko zarren egoitzera joateari. Astean bein pozik joaten giñan, eta us-te dut pozik artzen giñuztela. Baiña ortarako ere motelegi egin gera, eta ez gauza aundirik egiten genduelako. Baiña ezer ez egitekotan. an ere ez dute iñoren bearrik; eta, ez joateko esan baiño lenagotik, utzi egin genion joateari. Obea baida garaiz erretiratzea, ez joateko esanez aurretik bialtzea baiño.

Esan dezagun gaixoak ikustera joate au *Nagusilan* deritzaion erakundearen barranean egiten genduela. Ortan ere fundatzaillietakoa bainintzan. Zartzaroak dakarren bakardadea gutxitzea da gure elburua, eta ortarako joaten giñan. Zarren egoitzetan dauden ezinduai batez ere zerbait itzegin, kurpildun aulkitxoetan daudenak erabat erabilli, eta beren biziera latza arintzen alegindu. Orrelako gauzak egiten giñun. Batzuek oso ondo artzen zituzten gure alegintxoak; beste zenbaitek, berriz, ez ainbeste. Olaxe ibiltzen giñan. Eguraldi ona zanean, kampo-ko jardiñera eramaten giñun txandaka, eta orain ere berdintsu egiten dute. Zuk ere, irakurle, adiñezkoa bazera ta gogozko bal-

din bazaizkizu zarrak eta elbarriak, zure errian egongo da erakunde ortakoren bat, eta bestela deitu 943-475021 zenbakira, eta andik lagunduko dizute nundik nora asi edo zer egin.

Gizona zerbaitetarako gai dan arte gauza polita da benetan. Errian ondo zenbiltzala ezagutu dituzunak, denbora gutxiren buruan ikusten dituzu nola erori diran. Kurpildun aulkitxoan jarri eta, bestek bultzatzen ez badio, bertan egon bearrean daudenak artu ta, an inguruan zerbait erabilliz, lengo kontu zarrak esan. Illunabarrean berriz ere joateko esanez agurtzen zaituztenean, pentsatzen duzu: «Zer egin nezake gauza ederragorik emendik aurrera?». Askotan etorri izan giñan alkarri orixe esanez nere laguna ta biok, orain biok naiko lanetan bagaude ere. Ez al da ala, Sabina?

Aurtengo urtea, 2004-garrena, gogorra izan da neretzat osasun aldetik. Urtea asi ta laister asi nintzan beeraka. Gero, ekainean, berriz, joaldi gaiztoa izan nuen, nere biotz aulduriko ontatik, bederatzi urtean ezerean joaldirik nabaitu gabe, tronbosis pasata. Baiña amargarrenean sartu ta laister izan nuen eroraldia. Ekaineko illaren batean eraman bear izan ninduten ospitalera, eta bigarrean egin zizkidaten zekizkiten alegin guztiak: bateko eskaner, besteko kateterismo, besteko gastrokopia eta nik al dakit zer etzizkidaten egin neri. Azkeneko au batez ere gogorra izan zan. Aiek estuasunak pasa arazi zizkidaten eztarriko zulotik beera mangera sartu ta barrenak ikusi zizkidatenean!

Gauza bat esan nai nuke benetan garrantzitsua: ez ote legoke zerbait-zerbait umanizatzerik lan ori egiteko era, minutu pare batean-edo ezaguera galdu araziz izango bada ere, gizona ala eduki gabe? Eztarrian beera sartu bitarteko ura *suplicio* ikaragarria da, eta pentsatze utsarekin ere ikaraz illeak tente jartzen zaizkit.

Orain beste zerbait ere badaukat zueri kontatu bearrekoa. Nere bizitzan gutxien uste nuena izan zan. 2004-garrengo

ekaiñaren 29-an, San Pedro eguna, gure erriko festak zirala-ta, erriak omenalditxo bat eskeintzen zidan, erriaren alde egindako lanakatik edo egindako lanen ezaguera bezela. Urteoro bati egiten zaio eta urte ortan neuri ematea erabaki zuten sari ori. Baiña ez nuen jasotzerik izan, biotzekoa joaldiarekin ospilalean arkitzen nintzalako, eta seme-alabak ordezkatu nindutela esan zidaten, emaztea ere nerekin baizan, eta eskerrik asko guztiei.

Etzait aztuko, ezaguera dutan arte, eguerdi artan izan nuen ikustaldi edo bixita: erriko alkatea eta kulturako ziñegotzia joan zitzaizkidan, erriko udaletxean egin zidaten festa bukatu ondoren, besteak amaitetakoan zeuden bitartean, ni ikustera ospitalean nengoen tokira. Ezin dezakete pentsatu zenbaite-raiñoko poza eman zidaten.

Biotzez nere esker ona bientzat. eta jaialditxoa aurrera eramana al izan zuten guztientzat ere berdin. Eskerrik asko guztioi, bereziki Ramon eta Anton, Ana, Arantxa, Mertxe eta gaiñerakoei. Baita nere lagun zar Patxi Etxeberriari ere. Bejondeizuela guztioi. Portatu zerate nik merezi ainbestean! Eta, azkenik, nere tokia bete zuten seme-alabai ere bai.

Abenduaren bigarren egunerako deitu zidaten berriro *DV Multimedia* deritzaion erakundetik: ni izan nintzala proposatua euskeraren aldeko joanari (*trayectoria*) onena zeukanarentzat saria jasotzeko eta Astigarragara joateko. An, *Rosario-enea* deritzan ostatuan beste plaka zoragarri bat eman zidaten. Eskertzen diet biotzez erriko udaletxekoai, nerekin berriro ere oroitzearren; neri eman zidatenai eta bereziki alkate-ordeari eta Tito Irazusta kazetariari. Eman zidatena zer dan baiño zergatikakoa dan geiago estimatzen det. Nere bizitzako ilusio guztiak bat eginda baiño aundigotzat daukat, emozionalak aparte, euskeraren alde nere bizitzan egin dutana aintzakotzat artzea esan nai duelako, “*Por toda la trayectoria en apoyo a nuestra lengua vasca*” erderazko *parrafada* orrek dion bezela.

Gertatu zana gertatu ez balitz, egun ortako erriaren portaera izan ez balitz, nik ez nuen adorerik izango jendearen aurrera nere lanak azaltzeko. Baiña orain zorretan bezela agertzen naizela iruditzen zait, eta orra agerian jarri nik erriaren alde egindako apurra.

Batek eta bestek esan izan zidaten ainbeste paper zar jasopak ikusten:

–Ik liburu bat idatzi bear ukek, oinbeste paper jasota. Oinbeste bertso ere or dauzkak, eta zertarako dituk bestela oiek?

–Bazeukeat aurreragoko lanik eta utzi akidak pakean!
–esaten nien eta aurrera.

Baiña uste nuen bukatu zirala nere kanpoko lanak, eta denbora pasa ortantxe astea erabaki nuen eta emen nator, Uztapide aundiak bere liburu bati izena jarri zion bezela, “sasoia joan da gero”. Baiña bada esaera bat: “obe da berandu, iñoiz ez baiño”, eta emen nator daukadan apurrarekin.

“Bazeukeat aurreragoko lanik” esaera aundia da gure artean, eta egia izan da orain arte, neri dagokidanez. Naiz aspaldi utzi nion nik ogia irabazteko ainbeste eratako borrokari, egin bear izan nuen bezela, gero beste era bateko lanai atxikia egon nintzan luzaro. Baiña orain ez nago bearturik, egunaren zatirik aundienean libre nagoenez, eta alegintzea erabaki nuen eta or dijoaz, diran-diran bezela edo nere ustez diran bezela.

Ustez ondoak jo nituen, baiña oraindik ez nunbait bukatu emengo lanak; eta berriro ere eraso diot, baiña “etxe xokotik”, Iparraldeko Mattin txiki aundiak esan zuen bezela. Paper zarrai begiratu bat eman ondoren, ordenadorean sartu. Andik atera zitekela zerbait eta egiten alegintzea erabaki nuen, eta ara emen nik neukana.

Norbaiti atsegin ez bazaio nik jarri dutan zerbait, barkatuko du, noski, ez dut uste ala ez dan gauzarik ezer jarri dute-nik-eta. Zerbaitetan gogorregi egon naizela? Neurekin gogor

egon ziranekin uste dut egon naizela gogorrena; baiña nere ustez ez dut esan dan ainbeste ere, eta ez daukat kargu artzera etorriko dan bildurrik, Eta, etorriko balitz, berari esango nizkioke diranak diran bezela.

Sasoia jun zan eta
arekin indarra,
lan asko egiteko
garai kaxkarra.
Asitzerako nintzan
bildurtu samarra,
baiña egingo bada
saiatu bearra.
Nun da lengo garra?
Pausoa baldarra,
eztarri lakarra,
eztula azkarra;
luzaro bizitzeko
itxura txarra.

Larogei urte bete
lengo egunean,
asi naiz larogei ta
batgarrenean.
Gauza auek pentsatzen
jartzen naizenean,
naiko illuntasuna
badut barrenean,
Asmo onenean
ari naiz lanean,
eta azkenean
iltzen naizenean
izan nadin betiko
atsedenean.



Pello eta Josefa familia osoarekin

Bertso idatziak

Zaletasuna

Bertsoak idazteko zaletasun ori oso gaztetatik ekarri nuela esan dut len ere; baiña aiekin zer egin ez dut iñoiz aintzat artu. Ori bai; beti ere pillatu beintzat, eta badirudi noizbait iritxi zaiotela garaia zirt edo zart egitekoa, eta or dijoaz geienak, arkitu ditudan bezela, zuriak zuri eta beltzak beltz.

Egia esan mordoska dexentea bota dut bazterrera, etzaidalako bidezkoa iruditzen orain azaltzea, guztiz garaiz kanpoko daudelako. *Goiz-Argi*, *Príncipe de Viana*, aren barrenerako sortu zan *Bertsolaria* euskal orrian, *La Voz de España*, *El Diario Vasco*, *Lasarte-Oria*, beste idazlanen jarraian geienak beintzat azalduak dira, eta baziran ondotoxoz geiego ere batean eta bestean azaldu ziranak. Baiña antzekoak izango ziran aiek ere eta daudela dauden tokian.

Argitaratu gabeko saillean azaltzen diranak, berriz, geientxoena gaztea nintzan garaikoak dira. «Orrek merezi likek bertsoak jartzea» esaera aundia zan Urdanetan, eta alaxe asitako oitura zan edozer gauzari bertsoak jartze ori; eta, txantxetan edo benetan, mordoska azaltzen da beintzat oraindik ere, kenduak kendu.

Aurren-aurrena azaltzen diran auek, badute alako desapio itxura apur bat, eztabaida baten ondoren plazaratuak izan baziran. Bi bertso dira, bi eratako rimarekin idatziak eta puntu bakoitza lerro batean ipiñiz egiñak, ogeitalauna puntukoak esan dutan bezela. Eztabaida baten ondoren, Euskal Erriko Pentsiodunen Federakuntzan lendakariorde nintzala egin zan leiaketa, eta ortan genbiltzala izan genduen eztabaida. Idazkariak esaten zuen etzuela iñork azalduko euskerazko lanik eta

ea zertarako nai nuen jarri leiaketa. Nik, berriz, baietz; izango zirala eta egin bear zala.

Zirkularra bialdu genduen erri guztietara epea jarritz. Etor-tzen ziran ipuiak, bai saiakerak ere, baiña olerki bat besterik ez, eta bera plajioa zirudien, itzulpenean asko aldatzen zan baiña. Ala ere, nabarmen zegoen. Bi egun bazuen artean epea bukatzera eta nere buruari esan nion:

–Auek baiño obeak bazeuzkat sail bat baiño geiago ere.

Etxera joan orduko asi nintzan zein artuko ote nuen eta auxe aukeratu nuen. Egun artan bertan beste bi etorri ziran ain zuzen.

Eraman eta bota nuen buzoian. Oitura bezela, ni baiño beranduago joan zan bestea, eta or etorri zan amarterdiak aldean, nerekin eztabai aritu zan ori, eskuetan kartak zituela. Arritu zan euskerazko olerkiakin zetozela ikusi zuenean. Ez baizuen uste iñork idatziko zuenik. Geroago, jakin zuenean zeñena zan, «*¡Bien llamado lo tenías!*» esan zidan.

Nori emango ote zitzaizkion gero epaitzeko eta Euskadiko Kutxari ematea erabaki genduen; eta onek bere itzulpen saillekoak-eta bazeuzkala lan oietan ulertzen zutenak eta orrela egin genduen lenengo urtea, eta neuri eman zidaten lenengo saria.

Beste munduko gauzarik etzan. Bi bertso ogeitalauna puntukoak dira, eta puntu bakoitza lerro banetan jarriak daramatzatela. Gaiñontzean, Pello Mari Otaño maixu aundiaren *Aitona Gizagaixoa* eta beste olerki batzuen itxuran tolestuak daude; neure maillan, jakiña. Bijoaz bere ooretan, ondo mereziak ditu iñork izatekotan-eta.

Maitagarri maitatua

Itxas-mendiko arkaitz gain artan zegoen giro alai;
etzaidala iñoiz aztuko neri egon zindezke lasaia.
Ai batez ere illunabarra inguratu zan garaia!
Ura zan geldu egon eziña, ura zan dantzatu naia!
Nere buruan auxe zebillen, jo bea eta jo goia:
«Urteak joanda alperrikan duk, gazte aizen arte saia.
Luzaro baiño lenago ditek ire belaunak erdoia.
Ori gertatu baiño lenago erakutsi zak sasoia!».
Pil-pil zebillen aize garbia, ta ango garo usaia!
Zer diran iñork jakin nai badu emango diot epaia:
alaitasunan itxasoa ta maitasunaren ibaia,
osasunaren iturburua, gaitz guztien sendakaia!
Mendi-etxola apal batean Salbatzaillean jargoia,
gogoan daukat an egindako arena edo otoia:
lagun zeidala menderatutzen griña txar guztien deia,
ta batez ere neugan zebillen aragikerizko leia.
Nola baidugun geure burua beti lenengo etsaia,
une batean larri nenbillen, erori nintzan ia-ia.
Baiña ez nuen nai izaterik griña txar oien morroia,
nere maitea etzedin izan erreka-zuloko loaia.
Irailleko Gurutz Deunaren ondoren datorren jaia,
bai al dakizu nolakoa eman didazun emazte gaia?
Edertasunan ganbara eta maitasunaren sapaia!
Birtute danen gordelekua, ai biotzeko Amaia!

* * *

Itxas-mendiko arkaitz tartetik loretxo bat dut ostua,
gutziz liraiña eta polita, usai gozoz ornitua.
Lurrean diran kolorerikan ederrenez margotua,
gaurtik aurrera nere begiak badute nun gozatua!
Mirari baten antzekoa da egun neri gertatua:
izar eder bat begietara bidean zait agertua.
Ortzean diran apaingarririk bikaiñenez apaindua,
beraganako maitetasunez dut biotza gaiñeztua.
Aitortuko dut billa asita ez dutela arkitua,
baizik gutxien uste nuela aurrean egokitua.
Ikusi nuen une berean maitasun-sua piztua,
neu aren diña ez ote naizen nago orain larritua.
Zuk ez bildurrik izan, Amaia, ez nago zutzaz aztua;
ez uste izan nere biotza dagoenikan ustua.
Ain gutxi berriz zureganako maitetasuna oztua.
Geroz geiago maitatzen zaitut, orrekin nago poztua.
Bildurgarrizko garretan daukat nere biotza sutua,
Zureganako nabaitzen dutan maitetasunak sortua.
Maita nazazu, bestela laister nuke biotza lertua,
edo malkoen bidez legortu eta arri biurtua.
Nola baizauden begietatik biotzeraño sartua,
Arkitutzen naiz zure maitale izatera beartua.
Eman didazun maitasun itza bazendu ziñez artua,
zu bai izango ziñakeala **maitagarri maitatua!**

Eiztari kaxkarrak

Bi mutil gazte arroxko oietakoak dira auek. Eizean astea bururatu zaie nunbait eta erosi dituzte eskopetak, eta kartutxerak ere bai, eiztaria orrekin egiten zalako. Kartutxoz ondo ornitu ondoren, erbitan ibiltzen zan talde batengana jo zuten. Aien baimenarekin asi ziran, baiña ez luzaroko, zakur bat il baizuten, eta ori sakratua da.

Doiñua: Onuntz etorri nintzan utzirikan ama...

Teotxo eta Kike
ai zer bikotea!
Erabaki digute
eizean astea.
Mendizale kaxkarrak
bat eta bestea.
asieratik arro
ta azken tristeia.

Zaletasuna sortu
zaie eizerako,
eskopetak erosi
dituzte ortarako,
eiztaria orrekin
egiten zalako.
Gaur badabil eizean
amaika olako.

Erbi bat botatzea
zeukaten buruan
bildu ziraden talde
baten inguruan..
Teotxo jarri zaigu
toki seguruan,
laister ikusiko da
zer egiten duan.

Euri bisutsak eta
tartean elurra,
biak juntatu ziran:
otza ta bildurra.
Dardarka egoteko
etzan arren aurra,
erbiari tira ta
bota du zakurra.

Taldetik bialduta
biak alkarrekin,
erbi *itsas luzeak*
arrapatzen ekin.
Ondo atera arren
bat edo birekin,
ordaindu dituzte gaur
goizeko orrekin.

Segika asi dira
gure katuari,
ezin arrapatu ta:
«*Xaxa!*» zakurrari.
Laister zan zuaitz puntan
katu gaixo ori,
bai eiztariak ere
tiroka berari.

Saio bat egin dute
kargatu ta tira,
katu gaixoa larri
goitikan begira.
Noizbait erori zaie
alboko sasira,
jasotzera jun eta
salta arpegira.

Katuak *marramiau*,
mutillak karraxi,
ez dute erabilli
zalaparta gutxi.
Odola ta bildurrak
begi biak itxi,
nai orduko ez dira
errira iritxi.

Errira iritxi ta
lenbiziko lana:
zuzenean joan ziran
medikuagana.
Begiraturik ondo
egindako lana,
erabaki polita
eman dizutena.

Sendagilleak ondo
antz eman dizute,
entzun duten bezela
esan badizute:
«Nik sendatzeko gaitzik
ez dadukazute,
muturra garbitu ta
aldegin zazute».

Txoriak

Gauza arrigarriak dira txoriak, ondo pentsatzen jarri ezke-ro. Oiek diran bezain gauza txikirik, oiek dituzten bezelako almenak dituenik, batez ere oien abestiak eta oien doiñuak arrigarriak dira.

Nik, Jaunari eskerrak, ez nuen gaztetan luzaroan oean egon bearrik izan; baiña entzun bai, askotan gaiñera, atariko intxaur eta gerezietan kantari, eta nik oso pozik entzuten nituen, baiña etorri bezela joaten zitzaizkidan.

Egun batez, Aprikan soldadu nengoela, ezagutu nuen lagun bat. Erori ta min artu ondoren oso gaizki zegoela jakiniñik, joan nintzaion ikustera; eta an zegoen oean ogei ta bi urterekin geiago jaikitzeo itxaropenik gabe, alako mutil puska.

Berak ala esan zidan:

–Eskerrak txoriiri –errezildarra zan–. Oriitxek zeuzkat nere lagunik onenak. Gozian goiz asko etorrita, kantatze zettie kanta politt askook. Oriin bearra bazeukat biziko banaiz –esan zidan, begiak malkoz bete-bete egiñak zeuzkala, eta neuri ere bete arazi zizkidan ederki. Oetik geiago jaiki gabe il zan. (g. b.)

Biotzeraiño sartu zitzaizkidan mutil aren itzak, Bai oroitu ere mutiko nintzala entzuten nituenak; eta orain urte batzuetan kasorik egiten ez nien arren, arrezkero aztutzen etzaizkidan gauzak dira. Amaika goiz alaitu didate, zorionez, batez ere mendian nabillela entzun ditudanetan. Bijoaz sei bertso auek txoritxoan omenez.

Doiñua: Solferinoko itxua.

Ni baiño zori txarragorik
ez izan arren lurrean,
pozgarritxo bat arkituzten dut
zelako leio aurrean.
Txori politik dabiltz kantari
atariko intxaurrean,
txiriluru ta txorrotxioka
gozotasun ederrean.

Illundu arte kanta ta kanta,
goizean egunsentitik,
naigabez dagon biotz illun au
zerbait alaitzeagatik.
Egun guztian pentsatzen nago
ezin kenduaz burutik
Jaunak bialtzen ote dizkidan
aingerutxoak zerutik.

Iñun ikasten ibilli gabe
alako doiñu politik,
ez dakit nola irtetzen duten
zuen papartxo txikitik.
Ez dakit bizi ote niteken
entzun gabe zuen txintik,
eskerrik asko, txori gaixoak,
biotzan erdi-erditik.

Erori txar bat egin nuen ta
gelditu nintzan elbarri,
eta geroztik anken gaiñean
iñolaz ezin naiz jarri.
Zenbat gau luze, zenbat ordu txar,
zenbat burutapen larri!
Txori gaixoak, etzerate gaur
nik nai orduko etorri.

Zori gaiztoko erori txarra
egiña nuen gazterik,
eta geroztik ez da nerretzat
sendatuzeko biderik.
Ogei urtekin ain errukarri
nago tristuraz beterik,
alaituzeko etzait gelditzen
txorien kantak besterik.

Zuek zerate bakardadean
nere laguntza bakarra,
zuek gozatzen baididazute
ain egoera zakarra.
Zuek aldentzen duzute nere
begietatik negarra,
txori maiteak, biziko banaiz
badaukat zuen bearra.

Sorgiñak

Garai batean, bertsolariak plazetan kantatzen zutenean, sari erabilli oi ziran onen antzeko gaiak: bateko olakori sorgiñak atera zitzaizkiola bidera eta olako xelebrequeriak.

Orain ez du ortan kasik inork itzegiten. Baiña gure gazte garaian esan oi zuten izena duen gauzarik ez danik ez dala esan bear, eta badala esateko ainbesteko ziurtasunarekin bein ere ez dut sinistu izan; baiña gu orrekin ixildu arazi izan giñuzten.

Alamoduzko jardunaldiren baten ondoren jarriak dirala uste dut urrengo sei bertso aukeratuak, eta bikoiztuak daudenetan.

–Oraingo ontan jarri digute
gai bat benetan apaiña,
erabaki bat artu nai eta
ez da errez alajaiña.
Batzuek baietz, besteak ezetz,
ixkanbilla asko baiña,
probatu arte ez daki inork
nolakoa dan sorgiña.

–Bildurrik gabe asi gaitezen
lotan daudenak esnatzen,
nere lagun au asia baita
astakeriak esaten.
Ez dakit nola ausartu zeran
lengo bertsoa kantatzen,
ez al dakizu ez dan gauzarik
ez dala inoiz probatzen?

–Itxura danez, ez dakizkizu
zer diran zenbaiten griñak.
Zaude apur bat, esango dizut,
ez du kalterik jakiñak.
Deabruari anima saldu,
egin bere alde ziñak,
geroztik aren mende dabiltzan
oietxek dira sorgiñak.

–Garai batean sinisten gendun,
mutil koskorrak giñala;
baiña uste dut une artako
kontuak joan zirala.
Sinista zazu, adiskidea,
orrelakorik ez dala,
or kontatutzen dituzten oiek
danak gezurrak dirala.

–Sorgin tartean ain errukarri
ibillia naiz gaztetan,
orregatikan nabil geroztik
bildurrez eta kezketan.
Orrelakorik ez dala gogor
esanagatik itzetan,
bildur naiz nere lagun au ere
sorgin zarren bat ote dan.

–Bildurtzearren txikitan guri
esan aitak eta amak,
erdi leloa izan zu eta
sinistu zenitun danak.
Aztu ditzagun sorgin kontuak,
aztu umetan entzunak,
ume kontuak utzita ere
badauzkagu naiko lanak.

Alkar agurtzen

Beste gai bat garai batean erabili izan zana au zan: moja di-joan neskatxa bere senargaia agurtzen; edo praille dijoan muti-lla, au gutxiagotan, emaztegaia agurtzen. Gu gai jartzen asi gi-ñanerako galdua zan, baiña ezagutu genduen. Txapelketaren batean ere entzundako susmoa badaukat, ziur ez nago baiña.

Nik lenengo aldiz gai ori jartzen ezagutu nuenean, naiko pattal aritu ziran bi bertsolari aundi. Guk eztabaida izan gen-duen, gaizki jardun zirala ikusita. Batek esaten zuen gaia etza-la ori bertsoak egiteko gauza dana; eta nik esan nion bertsola-ri onak ere aldarte txarrak izan zezazketela, eta olakoren bat izango zutela. Eta ala esan zidan:

–Egin zak prueba ea nola moldatzen aizen.

Baita egin ere. Gau artan lotaratu baiño len jarri nituen sei bertso auek.

–Zerbait esan nai ta ezin esan,
au estuasun larria!
Baiña gaur esan bearra daukat,
iritxi baida garaia.
Arren etzaitetz asarretu zu,
ar zazu pazientzia:
al dan azkarren moja joateko
artu dut erabakia.

–Ain alkar-maite izan geranak
orain sakabanatuta,
gure asmo ta amets gozoak
gelditzen dira austuta.
Zalantzatxo bat daukat nerekin
iñola ezin kenduta:
zeure gogotik ote zoazen
edo amak bialduta.

–Nai izan arren ez dira gauzak
zuzentzen egun batean,
lengo asmo ta amets gozoak
aztutzen saia gaitean,
Banatu bear badugu mundu
ontan geran bitartean,
zeru-lurren Jaun eta Jabeak
bildu gaitzala bestean.

–Ondo pentsatzen jarri ezkeru
au bizimodu tristea!
Zu bakarrikan ziñan, maitetxo,
munduko nere ustea.
Ni utzirikan orain pentsatu
baduzu moja joatea,
zer egingo da? Bete dedilla
Jaunaren borondatea!

–Eskerrik asko, senargai maite,
ontzat artutzen didazu,
bearra ere baneukan eta
asko kontsolatzen nazu.
Pena bakarra damakidala,
arren, sinista zaidazu:
ainbesteraíño maite izanik
emen utzi bearra zu.

–Egunen batez an gertatuko
baziñake asperturik,
etzaitzela luzaro egon
aruntz joana damaturik.
Etorri zaitetz dotea eta
beste kontuak azturik,
maitasun biziz artuko zaitut
bi besoak zabaldurik.

Guraso elkarteak

Urte xelebreak igaro bearra gertatu zitzaigun guri ere, ta luzaroan egon giñan *Asociación de Padres de Familia* edo *Guraso elkarteak* euskeraz deritzaion oiek beste elkartzeko bide egokirik gabe.

Lasarten ere bazegoen eta bein batean erabaki zuen *Boletín* edo orrelako zerbaiten izenean aldizkari lege bat sortu be- ar zala. Ta bai sortu ere; baiña, jakiña, gaztelera utsean, La- sarteko oiturari jarraituz.

Betiko oiturari jarraituz, gure asarrea azaldu genien urren- go billeran eta orduan esan zidaten idazteko eta argitaratuko zidatela. Esan eta egin, bolaratxo batean idatzi nuen or ere, ta bertsoak idazlantxoaren ondoren bukaera bezela jarriak dira, eziketari dagokion zerbait idatzi ondoren.

Gurasoentzat aurrak aztea
bakarrik aski ez danez,
ezitzea ere or gelditzen da,
guztioak dakizutenez.
Etxetik asi gaitezen ortan
kontseju onak emanez,
eta banaka ezin duguna
lortuaz alkartasunez,

Bat egitea indarra dala
erreza da esatea,
baiña sarritan gertatzen dana
da banaka joatea
Alkarri esku emanez danok
egin dezagun katea,
ortarakoxe sortutakoa
da Guraso elkarteak.

Danok ikusten degun gauza da
batasunaren bearra,
esan bezela batasunean
dagoalako indarra.
Gogora zaitez gauza onekin,
guraso lasartearra,
gaurkoz elkarte ontan dagola
ortako bide bakarra.

Gero damutu ez dedin iñor
gauza au gogoan artu:
gure eskutan degun aukera
ez dezagula baztertu.
Billeretara zintzo azaldu,
ordezkoak aukeratu,
errian alde lan egin dezan
elkarte ori indartu.

Pernando Tripaki

Izenak eta beste zenbait olako aldaturik, garai batean aotan zebillen onen antzeko gertakizun bat, eta begira *Txilibistro* txikitan itz-motela izandakoak zer nolako ordaiña ematen dion, txikitan egindako iraiñengatik, kotxeko ezbearra izandako mutilzar arroxkoa izan eta orduan elbarri zegoenari.

Txilibistro au, *Fraisorokoa*, txikitan itz-motela, gero bertsolaria, imajinatiboa, nere aldundian aurkeztu nuen saiakeran pertsonaia izan baizan, mutilzar orren sekretoen jakituna izan eta batere bildurrik gabe bota zizkion bertso auek, gutxien us-te zuenean.

Olakoari errez egiten zaio iseka, ta parre ere ez gutxitan, gero zer gerta dezaiguen asko konturatu gabe; eta, olakoetan geiago begiratuko bagendu, obe izango genduke, gero Pernandok eraman zuen eraso jasotzea baiño.

Ara nundikan agertu zaigun gure Pernando Tripaki: anketik erren, eskutik txangu, nola itzegin ez daki. Ixtripu txar bat izan ondoren egona da oso gaizki, belar gaiztoa galtzen gaitza ta au ere ala izaki.

Txikitatikan nola bainuen oso lotua mingaiña, nere izketa baldarragatik amaika parre egiña. Orain berari etorri zaio naiko itzegin eziña, ederki asko domatu zaigu arro galanta zan baiña.

Nere jatorri illunagatik
zenbat min eman didazu?
Baiña zerorrek ere alako
gora-bera bat baduzu.
Gaixo zaudela neskaitilla bat
ikusten izana duzu,
testamentuan ari dotea
utzia omen diozu.

Amaika aldiz egin didazu
nere aitaren galdera,
bere aurkako itz txarrenakin
belarriaren ertzero.
Zuk beragatik esaten ziñun,
itz danen jabe zeu zera,
alabatxo bat izanagatik
azteko kapaz etzero.

Entzuterikan nai ez baduzu
ikasi zazu ixiltzen,
eta ez ari zeure akatsak
beste iñori jaurtitzen.
Teresatxori zer egin ziñon
ez al zerade oroitzen?
Gizon txar baten dollorkeria
ez du diruak ordaintzen.

Itz legunekin engaiñatuta
artu zendun zeuregana,
lendabiziko mirabe eta
gero nai zenduen dana.
Gaixoa penaz illa omen da
kendu ziñolako fama,
zu baiño kristau fiñagoa zan
zure alabaren ama.

Portugalen gertatua

Urte batzuk badira, jubilatuta ondorenean zan eta, Portugal aldera egin genduen bidai bat Mitxelin lantokian ibillitako langille sail batek geure emazteekin. Donostiko *Barcelo* izeneko ajentzi batekin giñun gure tratua egiñak. Baiña kale egin zigun, egin diteken erarik lotsagarrienean. Lenengo gauean, ez aparta ta ez lotarako tokirik, an egon giñan bi ordu inguruan, maletak kanpoan eta geu kafeteritik aurrera igartzeko baimenik gabe. Eztabaida gogorren ondoren, gaueko amaikak aldean eman ziguten erabakia era ontan izan zan: Mangualde deritzaion errira joateko, eta an emango zizkigutela aparta ta oia; an zeudela guretzat jarriak eta barkatzeko. Celorico gu geunden errira Portugaldik zetozen beste batzuk zeudela emendik joanak, eta ala aldegin genduen.

Asperten geranean
egoten etxean,
irtenaldi bat on da
noizik bakoitzean,
naiz okerrago ibilli
andik irtetzean.
Portugala joan giñan
aurreko batean,
ez nago lasai dana
kontatu artean.

Iritxi giñanean
ango lurraldera,
Celorico deritzan
erri koskorrera,
autobusetik jetxi
eta otelera,
gure ustez apaldu
ta lo egitera,
baiña laister izan zan
andik irteera.

Sinistutzen gaitza da
esanagatikan
nolaz atera giñan
ain azkar andikan.
Guretzat bear zuna
besteak janikan,
etzuten esateko
batere lotsikan:
etzegola ez apari
ta ez oerikan.

Gau artaz oroitzean
datorkit negarra,
besteren errua guk
ordaindu bearra.
Nagusitu zitzaigun
gosean indarra,
gogoratu zitzaidan
esaera zarra:
danbolin ordainduak
beti soiñu txarra.

Barcelo ajentzia
Donostian dago,
errudun nagusia
bera zala nago.
Aurrerantzean artu
arreta geiago,
umeak baiño ere
askoz okerrago,
zarrak erabiltzeko
legerik ez dago.

Ez dut uste naizenik
berriz eroriko,
zuengan konfiantzik
ez baidut jarriko.
Uste dut bukatua
dutala betiko,
auxen pentsatutzen dut
orain nerekiko:
agur *Barcelo* eta
agur Celorico.

Eiztari txarrak eta onak

Gure artean iñor baldin bada aotan erabillirik, auek eiztariak dira, zalantzarik gabe gaiñera. Ez dut ukatzen geuk ere iñoiz errez samar ez ote ditugun aotan artzen. Beraz, barka dezaigutela eiztariak, iñoiz geitxo kritikatu baditugu.

Gaurko ontan gure bi lagun joan ziran eizera, berebizikoak egin bear balituzte bezela. Ala ere, eguraldi txarra aitzaki, utsik etorri ziran. Aspaldiko kontuak dira, baiña orain ere olako modukoak izango dira, noski. Orain, ordea, jendea ez dator utsik. Seiñale norbaitek iltzen dituela, eta saltzen dituela ere bai. Bestela, nola diteke emen urte guztian ere oillo bat ainbeste iltzeo kapaz ez diranak, aruntz joan eta eperrez kargatuta etorri?

Oraingo ontan bietakoak dakarzkigu; txarrak eta onak, sail berean.

Gure artean bolara ontan bada eizerako griña, nunbait etxetik ateratzeko ain da aitzaki apaiña. Eskopeta ta munizioak ez daude merkeak baiña geienak sortzen dute oraintxe ortarako bear aiña.

Batzuek bertan saiatzen dira osatu nairikan pilla, ta beste zenbait berriz emendik urrutiraiño eiz billa. Egun batzuek igarotzera arturikan berebilla, andikan zerbait dakarkiena ez da izaten umilla.

Nere lagun bi ere joan ziran
Kastilla aldera emendik,
baiña apenas ezer askorik
ekarri diguten andik.
Zenbaitentzako alperrik dira
egazti txiki ta aundik,
eiztari txarrak ez baidu iñoiz
ekartzen eizik iñundik.

Tamaña artan preparatuta
joanak bide luzian,
berebiziko egazti pillak
ekarritzeko pozian.
Eperra asko ibilli arren
Palentzian da Sorian,
gure lagunai apenas asko
galdu zaioten birian.

Pentsa zazute ez dagoala
zuentzat ezer eizetik,
obe duzute lan ortarako
ez kastatzea pezetik.
Erosi arren izkillu onak
eta kartutxo garestik,
zuengatikan lasai biziko
dira Kastillan egaztik.

Aitor dezagun eiztari danak
ez diradela berdiñak,
bestelakoa ugari baiña
tarteetan badaude fiñak.
Erbesteraiño aldegin gabe
emen ingurun egiñak
ikusitzea gertatu zaigu
pizti mordoska bikaiñak.

“Mea culpa”

Ontan ez dago besteri errua botatzerik, geure-geurea baita. Etxez etxe ta erriz erri geuri gertatu zitzaiguna da au. Kastilla aldean *revolución del campo* edo dalako artan, jendea barra-barra etorri zan andik. Emen lana bazegoenez, danak onera. Bearrezkoa zan aiek ondo artzea ta alaxe egin zan. Baiña izkuntzarekin ezin esan zabar jokatu ez genduenik. Ustekabean ondo jo arazi genion geure euskera gaixoari, eta etzegoen ori egin bearrik lan billa zetoztenei gure ondoan lekua uzteko. Baiña egin zan eta... Arazo oni buruz jarriak ondorengo lau bertso auek.

Agur, Txintxarri biotzekoa,
eskatzen dizut baimena,
azaldutzeko danen aurrean
lendik gordean nuena.
Lau bertso auen bitartez egin
nai dut nere aitortpena:
gure izkuntzak erri onetan
izan duen ondamena,
beste iñoren errurik ez da,
geurea izan da dena.

Egia da, bai, lendikan etsai
asko duela izana,
eskoletako gogorkeria
orren ezaugarri dana.
Ondoren berriz kanpotar asko
etorri zan guregana;
errespetao ongi dan arren
etorkin guztiengana,
garai artako zabarkeria
konpontzen badugu lana.

Arrera ona datorrenari
gutziz bidezko da baiña
etzegon zertan gertaturikan
emen gertatu zan aiña.
Gure izkuntza maitean alde
etzan egin alegiña.
etorritakok ikasi ez ta
geuri aztu alajaiña,
toki onean geunden gaur arte
akordatu ez bagiña.

Utsegite bat izan gendula
ezin gentzake ukatu,
uste gabeen gure izkuntza
zarraren aurka jokatu.
Baiña oraindik ere eskerrak
etzitzaigunai bukatu,
berandu baiña bizi zan arte
nunbait giñan akordatu,
saia gaitezen olakorikan
berriz ez dedin gertatu.

Jaso buruak, baserritarrak!

Cámara Sindical Agraria-n sarituak izan ziran lau bertso auek, baserritarrai ondo merezitako animoak eman nairik eta bere aldera berriz Aldundiari belarritik tira egiñez, bera bai-zan sariketa ori eratzten zuena.

Jaso burua, baserritarra,
etzaitz sartu lurpean,
asko gaude gaur urte txarrenak
igaro ziñun ustean.
Jan bear onek ez du barkatzen
bizi geranon artean,
gure lurrari al dana kentzen
arren saiatu gaitean.

Laguntza billa asita ere
iñundikan ezer gutxi,
lendikan ezer ez daukanari
askotan ateak itxi.
Zenbait tokitan ikusten dira
ainbat adornu ta pitxi,
ta gu dutxa bat jartzeko ere
askotan ezin iritxi.

Zer naigabea ematen duen
gauza auek ikusteak:
batzuek bizi eziñik eta
lujo aunditan besteak!
Pentsatuzten dut gure laneko
izerdi eta nekeak,
gauzai begira jarri ezkerro,
ez ote diran merkeak.

Bakarka ezin dugun lanetan
bildu gaitezen taldera,
eta saiatu toki askotan
koperatibak sortzera.
Besterik baiño alperrago ta
zabarragoak ez gera,
oraindik zerbait egingo dugu
danok alkartzen bagera.

Intza elkartea

Gure zorioneko *Intza* baiño garai batean leku politagorik izan zitekenik ere ez uste; eta orain, berriz, dana sobre da guretzat. Donostiar batzuei jarriak dira bertso auk.

Egun on, jaunak, ementxe gatoz
Intza txokotik kantari,
biotz-biotzez opa nairikan
Eguberri on danori.
Goxotasunez ospatuzeko
egun eder alai ori,
txoko ontara deitzen zaituztet
nai baduzute etorri.

Oso aitzaki egokia da
alkarregana biltzeko,
ain luze diran illunabarrak
pixka bat laburtuzeko.
Ardo pixka bat edanez lasai
gure barrenak pizteko,
lagunartean oi dan bezela
ipuiak kontatuzeko.

Kale otzetik etorri eta
emen biltzen geranean,
zer atsegiña nabaitzen dugun
lagunen aldamenean!
Nola zaleak geraden danok
janean da edanean,
etorri zaitetz probatuzera
tartetxo bat duzunean.

Jai egunetan txoko ontara
inguratutzen diranak,
oso pozikan joaten dira,
danak ez bada geienak.
Toki onetan biltzen baidira
sukaldaririk onenak,
probatutzea merezi dute
oiek jartzen dituztenak.

Pinto azkarrari

Lasarteko *Tiburtxio-enea* ostatuan bazan arratoi-txakur txiki bat oso azkarra, goardizibillik ikusi orduko zaunkaz asi ta etzana ixilduko taberna artatik aldegin arte.

Gure Etxea-ko Manuel zanak esaten zuen ori ikusita:

–Ez ote da iñor izango txakur orri bertsoak jarriko dizkionik? Merezi likek ba orretzek!

Jarri nituen eta il zan baiño egun batzuk lenago eman nizkion. Ez dakit irakurriak izango zituen.

Doiñua: Ai gure antziñako guraso nobleak...

Txakur txiki bat gure
lagun jatorrena,
Pinto du izena,
goardiazbillen
etsairik txarrena,
eta oien joerak
salatzen onena.
Ez al da arritzeko
egiten duena?
Itzegiten ez daki,
orixen da pena!

Bere bizilekua
ostatu batean,
ez gure kaltean:
lagun bat an daukagu
aruntza joatean.
Naiz gau-egun ibilli
jendean artean,
sartzen bada goardi-
zibillik atean,
zaunkaz ez da ixiltzen
atera artean.

Naiz diximulatzeko
asmo onak artu:
jantziak aldatu;
alare ezin dute
Pinto engañatu.
Paisanoz jantzi arren
danak ezagutu,
aldamenen jarrita
gogotik zaunkatu,
maltzurkeriz ez dezan
iñor despistatu.

Ori ikusitzean
jendearen parrak
ez dirade txarrak,
eragiten ditunak
gure *Pinto* xarrak.
Entzutekoak dira
aien birao tzarrak,
begiratu gaizto ta
aopeko marmarrak.
Zer geiago lezake
txakur bat bakarrak?

Ama samindu bat

Francoren garaiko azken erailketaren ondorenean, Otaegiren amari ikustaldi bat egitera joan giñanean, ikusi genduen baiño ikusgarri beltzgorik ez dut ikusi ta ez dut uste, gaiñera, ikus ditekenik ere lur onen gaiñean. Otaegi arek ama alargunaren seme bakarra izan bear zuen; eta, ura erail zutenean, bakar-bakarrik gelditu zan munduan. Lur jota zegoen eta inguratzen ziran guztiak ala jartzen zituen. Urrengo astean argitaratzeko asmoan egiñak ziran bertso auek; baiña, suari egur geiago ez botatzearren, etxean gelditu ziran.

Gauza alairik ezin arkitu
erailketaren ostean,
baiña tristura zer zan ez nekin
nik igandera artean.
Otaegiren ama zegoen
ain egoera tristean,
ikara latza nabaitu nuen
ura ala ikustean.

Ama gaixoa bakar-bakarrik,
erail diote semea,
esan dutena egia bada
erru aundirik gabea.
Gure bizitzai neurri artzeko
or dago danon Jabea,
eman digunak bakarrikan du
kentzeko eskubidea.

Bakardaderik aundienean
bere buruaz etsita,
esan ziteken arkitzen zala
burutik nasten asita.
Seme bat izan ta bera orain
illotzik tiroz josita,
arriak negar egin zezaken
ama ala ikusita.

Etxe artako illuntasuna
neurtutzen ezta ain errez,
ingurukoak naigabez illun,
ama zotinka negarrez.
Seme bikain bat len bazuena,
orain munduan iñor ez,
«Erail didate! Erail didate!»
zion berak deadarrez.

Umezurtza

–Zure biziera nolakoa izan dan esan bear diguzu lau bertsoetan.

Doiñua: Ai gure antziñako guraso nobleak...

Kontatutzeroa noa
nere biziera
gutxi gora-bera,
ezaguera dutan
garaitik onera.
Ume errukarria
sortu gizartera,
gurasoak utzia
neretzat kaltera,
azitzeko jaso
besteren etxera.

Oitura xelebrea
zan gure artean
denbora batean:
besteren aurrak artu
azteko etxean.
Asmo onez gaiñera
geienak artzean,
gero aldatzen dira
garaia eltzean;
probatuta dadukat
neure gorputzean.

Sei urte ezkeroztik
ez dut ezaguna
zer dan maitasuna,
baiña bai gorostizko
makil koskorduna.
Egurra ta nekea,
arrazoi lizuna,
nere gaztearoa
ez da izan leguna;
eskerrak ez dudala
osasun biguna.

“Sasikume zikiña”
itzetik ortzera
belarri ertzera;
bide orretatikan
nijoan galtzera.
Amasei urterekin
etxetik atera,
soiñean neramazkin
zarpakin kalera;
geroztik emen nabil
batetik bestera.

Bi bertso zeure buruari

Len zure biziera zer izan dan bezela, orain zeure buruaz daukazun iritzia eman bear diguzu.

Zazpi oin luze ortxe nunbait naiz,
ez det askorik faltako,
sei arroa ta erdi pixuan
emezortzi urterako.
Jaunak emanda gorputz ederra
daukadan adiñerako,
baiña guztiok badegu beti
zerbait gure kalterako,
burua daukat arin samarra
gauzak ondo pentsatzeko.

Bertsotarako gogoia badut
baiña tajurik gabea,
dantzan or nunbait moldatutzen naiz,
pelotan zerbait ohea.
Sagardozele purrukatua
izanagatik gaztea,
jenioz oso alai baiña
biurria ta trastea.
alderdi on bat bakarra daukat:
lanean esku trebea.

Oiartzunen kantatuak

Oraindik urte asko ez dirala, Oiartzungo erri politera maiz joaten giñan. Euskal Erriko jubilatuen federazioan geundenean, edozer jaialdi zutenean deitzen zuten eta an joan izan giñan beren artera.

Beti esku utsik ez joatearren, batean arrizko aiton-burua eraman nien eta onela zion emakume batek besteari:

–Attona politta ekarri din, biño amonik ez din ekarri onek ere.

Bereala konturatu nintzan berebiziko ankasartzea egin nuela, ta era ontan kantatutako bertsoak dira onoko auek, nere okerra zerbait diximulatzeke, amona bukatzeke astirik izan ez banu bezela. Urrengoan eraman nuen.

Doiñu: Iparragirre abilla dala...

Oiartzuarrak, gu ere noizbait
zuekin oroitu gera,
aitonatxo bat ekarri dugu
Donostitikan onera.
Ez da gauza bikaiña,
ezta ere apaiña,
borondatea du baiña:
arri kozkor bat pillatik artu
ta neure eskuz egiña.

Ikusten dunak galde dezake:
«Nolaz dago au bakarrik?».
Laguna ere izango du ta
ez izan orren bildurrik.
Saiatu naiz lanean,
garaia joanean,
bukatu ez azkenean:
amonatxo bat ekarriko dut
urrena natorrenean.

Agur, Xalbador!

Pernando Aire *Xalbador* zanaren il-berria jakitean, urrengo astean atera bear zuen *Goiz-Argi* astekarirako bidalitako lantxoia da onoko au, itz-lauz, olerkiz eta bertsoak, irurak saillean.

Xiberutik Karrantzara eta Kantauri itxas ertzetik Errioxako maastietara tartean, au da, Euskadi osoan, berri illun ta tamala zabaldu digute, naiz mendietako aize garbiak eta naiz uri aundien inguruko egurats kirestuak lendik naiko zaurituta genduzkan belarriak iñoiz baiño geiago minberatuz.

Au idaztean, esan diteke aurtengo azaroaren 7-an Euskadirentzat azkeneko eguna izan zala, eta geroztik gau beltzean bizi gerala euskaldunok, eta batez ere eleder eta bertsoen zale geranok.

Bukatu ziran asierako malko mardulak eta negar ezkoak. Orain malko gabeko zotin legorrak datoz gure barrendik, eta kolkoa dar-dar, begiak gorri, aurpegia zurbil, burua illun, eta eskuak trakets, ezertarako kemenik gabe...

Errukarriak gu, euskerazko bertsoak idatzi nairik, zurian beltza egiñez, zirriborroak egiten zaleak geranok atzo arte maixu genduen galdurik, orain nora ezean...

Baiña jarraitu dezagun lanean oker edo zuzen. Xalbadorrek etzituen egonda egin utzi dizkigun lanak, neke ta gaixotasun guztiak gaindituz baizik.

Bai dala berri latza eta mingarria
lengo egun batez Urepeldik etorria!
Bere omenaldi egunez, maitaleen inguruan,

antxe zegon Xalbador, zintzo mai-buruan.
 Gutxien uste zan garaian ezbearra sortu:
 pozaren pozez nunbait biotza lertu.
 Lertu? Lertu, bai, bere biotz zabala.
 Ziur gaude orregatik il dala.
 Il? Il da, bai, Xalbador urepeldarra,
 Euskadiko urretxindor azkarra.
 Egigun negar umezurtzen antzera.
 Izan ere, bertso-zaleok umezurtz baigera,
 ikusirik Euskal Erriak izan duen galera.
 Baiña ez, arren, negarra bakarrik,
 zotin utsak ez duelako indarrik.
 Oroitu ditzagun Xalbador beraren itzak;
 malkoekin batera, Jaunari otoitzak.
 Goiko Jauna aipatzen zigun ainbeste aldiz,
 baita maitatu ere, nere ustez egiz.
 Agur, Xalbador, berriz etzaitugu ikusiko emen.
 Goiko Jaunaren babesean bezazu etzedel!

Ain maitekiro aipatzen zendun
 Goiko Jaunaren izena,
 ez duzu orain kalterik noski
 kristau zintzoa izana.
 Eginkizun bat txit berezia
 zedukan zuri emana,
 ta ori bete duzun garaian
 deitu dizu beregana.

Erri langille bat geran aren
 idazten oso alperrak,
 orrek ekarri izan dizkigu
 berebiziko okerrak.
 Baiña idatzi dizkiguzu zuk
 bertso ta olerki ederrak,
 euskal liburu on bat badugu,
 Xalbador, zuri eskerrak.

Bat-baterako bertsolaria
 iñori zorrik gabea,
 azken aldera ikusten danez
 idazten berriz ohea.
 Laister genduen edozer gaitan
 oso idazle trebea,
 eta batik-bat olerkigintzan
 doai onenen jabea.

Ogeitazortzi urte inguru,
 ez banaiz deskuidatutzen,
 lenengo aldiz Xalbador zana
 ikusi gendun Zarautzen.
 Ordura arte inguru ontan
 ez genduen ezagutzen,
 egun artako aren itxura
 geroztik etzait aztutzen.

Gaia emanda bera bakarrik
asi zanean kantari,
alakoxe gauz aparteko bat
arkitu nion berari,
beti bezela lenengo otoi
egiñez Goiko Jaunari,
ain sakon, zuzen eta egoki
eldu baizion lanari.

Geroztik zenbat une atsegin
igaro dugun zurekin,
nik beintzat ezin nezake esan,
Jainkoak bakarrik jakin.
Alde ontara etortzeari
ekin bazenion ekin,
besterik inor gutxi bezela
portatu zera gurekin.

Besteak beste, nere iritiz,
gizon alargunarenak
bat-baterako bertso danetan
dirade onentxoena.
Nola eskeiñi zintzotasuna,
nolatan azaldu penak!
Lendikan ona baziñan ere
antxe jo ziñun goienak.

Zure antzeko bat ez ote da
an edo emen sortuko?
Bitartean zuk merezi ainbat
fama ez duzu jasoko.
Mundua mundu dan arte nola
euskera ez dan galduko,
egin dituzun lanengatikan
etzera inoiz aztuko.

Lasarteko gora-berak

Lasarte etxegune aundi bat besterik etzan: ez alkaterik, ez udaletxerik, ez sendagillerik eta ez ezer. Ogei milla bizi-lagunetik gora izango giñan, eta loi tarteetan igari ibilli bearrean geunden garai artan. Arritzekoa zan emengo *desbarajustea*. Etxeak egin eta etxeak egin ari ziran *a troche y moche*, esaten dan bezela, eta urbanizazio konturik aipatu ere ez, jendea zutik ibiltzeko giñan arte beintzat. Gero izan ziran komeriak, iñor ibilli eziñik gelditzen asi giñanean. Orduan asi ziran kontu xelebreak azaltzen.

Erri baten neurrian
azi danagatik,
gobernatzan gaituzte
aldamenetatik.
Askatasunan eske
gatoz Lasartetik,
aspertu geralako
auzoen katetik.

Jakin dezagun zer dan
gure jatorria,
aurreko zarretatik
gugana etorria.
Ezagutu dezagun
gure sorterrria,
nolakoa zan eta
nola dan berria.

Aldaketa ugari
badugu izana,
orain aunditu zaigu
len txikia zana.
Ez dakit onerako
izango zan dana,
orain ere bizitzen
bada naiko lana.

Iñoiz atertzen baldin
badu euririkan,
seguru ez dugula
etxean urikan.
Ala ere apenas
duten asmorikan
etxeak egiteai
utzitezkorikan.

Antziñako Lasarte,
pentsatzen jarrita,
txikia izan arren
zer txoko polita!
Bateko amarrera
daukagu azita,
lengo antzik ez dauka
orain ikusita.

Ipurdiz gora bota
lengo baserriak
egiteko lantoki
ta etxe berriak.
Aiekin joan ziran
sagardotegiak,
bertsolarien kabi
txit maitagarriak.

Polita zan benetan
emengo euskera,
ederrenaren pare
gutxi gora-bera.
Baiña noizbait jo gendun
bide okerrera,
eta gallendu zaigu
erabat erdera.

Lenago ain txukuna
genduen ibaiak
ez dakazki antziñan
bezela arraiak.
Barbo, loiña, angira
eta amorraiak
il zizkion aparra
ta zikin usaiak.

Oraindaiñoakoakin
ez al da ezagun
Lasarten zenbat akats
aundi daduzkagun?
Nola gobernatzen dan
ikusi dezagun,
zuzentzeko bideak
aurkitu ditzagun.

Ernani ta Urnieta
eta Donostiak,
berdin Andoain eta
Usurbilek biak,
bostak alkate bana
daukaten erriak,
partea dute emen
agintzen guztiak.

Ernanik, Urnietak
pedaneo bana
emen alkatetzako
digute emana.
Guztiak kontatzean
gertatutzen dana:
zazpi alkaten mende
erri bat ez dana.

Auzoen mende zauden
Lasarte maitea,
lo-zorro ortatikan
esnatu zaitea.
Lortu zeure buruan
jabe egitea,
orrekin esan nai dut:
erri izatea.

Oarra: beste zortzi urtean iraun genduen len bezela, okerrago ez esatearren. Baiña noizbait bear eta 1986-garren urtearen aurrenean eman zuten erabakia Gipuzkoako Batzar Nagusiak, mugak guk nai baiño murrizagoakin, baiña utsik baiño geiago da beintzat.

Sagarzazu-tar Josebari agur

Ikastolen sorreratik asita beti lagun izan giñan, eta uste ga-bean joan zan bat-batean. Izan ere, kolpe gogorra izan zan Jo-xerena. Osasuna saltzen zebillela zirudien garaian, *zapla!* jo-an zitzaigun gure artetik alako lagun jatorra. Bertso auek ere *Goiz-Argi*-n argitaratu ziran.

Joan dan urrillan amabia zan,
Pillareko Ama Birjiña,
illunabarrez jakin genduen
berri latz eta samiña:
Sagarzazu-tar Joseba gure
lagun zintzo eta fiña,
mundu ontako lanak egiñik
genduela alegiña.

Lendabiziko zuzendu nion
zeru ta lurren Jaunari,
betiko atsedeen eman zezaion
Josebaren animari.
Kristau zintzo ta jatorra zala
entzuten zaie danari,
aitagure bat eskatzen diet
irakurtzen dutenari.

Sasoi bikaiña zendun oraindik,
etziñan batere zarra,
baiña zeurekin eduki nonbait
lendikan ere gaitz txarra.
Euskeran alde lan egiteko
beti zenduen indarra,
oraindik ere gure artean
bazegon zure bearra.

Euskeran alde zuk egiñari
nola artu nik neurriak?
Baiña or daude utzi dituzun
idazlan arrigarriak,
egi mardulak tolestatuaz
txukun ta garbi jarriak.
Idazle txukun eta jator bat
galdu du Euskal Erriak.

Zure idazlan oiei begira
egon izan naiz sarritan,
“au dek euskeraz idatzitza”
pentsatuaz nere baitan.
Agur deritzan aldizkaria
artutzen nuen guztitan,
nere biotza jartzen zidazun
gozotasunan ez titan.

Euskera maite dugunontzako
zuk zendun gozotasuna,
edozer gaitan idatzi arren
beti euskera txukuna.
Gai sakonetan idatzi arren
danok ulertzen genduna,
bide ortatik sortu ziteken
egiazko batasuna.

Nere iritziz gutxi bezela
maite zenduen euskera,
orregatikan zan ain txukuna
zebilkizun idazkera.
Loraz beterik dagoen euskal
zuaitz bat izandu zera,
zure ondoan txotx igar batzuk
besterik ezer ez gera.

Aspalditxoan lan egin dugu
guk alkarren inguruan,
gizalege ta jatortasunez
beti jokutzen zenduan.
Baldin zeruan bazaude orain,
nik uste dutan moduan,
guretzat ere toki apur bat
gorde or zeure onduan.

Agur, Joxe Mari!

Urte askotan alkarrekin ibilli ondoren, betirako azia ez izan nunbait eta egun batean «Aio, jaunak, ni baniak!» esan eta or joan zitzaigun gure Bereziartua zarra. Ondoren artan, beste agurrik eta ezer etzuela nai eta bertso batzuk jartzea pentsatu nuen *Goiz-Argi*-n eta ala egin nituen.

Bera enkargatua zala asi nintzan ni Mitxelin lantokian lanean. Gero, biok ekipo banatan, alkarri txanda emanez ibilli giñan eta ondo kopondu izan giñan, alkarri zintzo kontatuz nola gelditzen zan martxa; eta ezeren ordenarik bazan ere bai, batez ere gauean sartzen zanari.

Lengo batean iritxia zait
naiko albiste zakarra:
lantokitikan erretiratu
dala Joxe Mari zarra.
Lagun askori atera zaio
begietara negarra,
gure lantokin oraindik ere
bazegon zure bearra.

Lantoki baten agindutzea
ez da beti atsegiña,
utsegiteak beti badaude
egin arren alegiña.
Menpeko danak maite zaituzte,
arritzekoa da baiña,
ez zenbait bezain maltzurra eta
zitala izan baziña.

Jaio, azi ta bizitzen zera
Aginagako partean,
irurogei ta lau urte laister
ez dituzu apartean.
Nola Mitxelin ondo serbitu
duzun berrogei urtean,
lasai ibilli zindezke orain
bizi zeraden artean.

Bukatu duzu emengo lana,
uzten gaituzu betiko,
ez diran gauzak esaten emen
ez naiz iñolaz asiko.
Bizibidea seguru duzu
zeure denbora guziko,
nere iritziz ontaz aurrera
etzera gaizki biziko.

Bi seme eta alabatxo bat
emazte jator batekin,
etxe polit bat zeurea duzu
lur zati ederrarekin.
Erretiroak ematen dizu
bizitzeko ainbat etekin,
suerte apur batekin ondo
bizi zindezke oiekin.

Gizalegean jokatu duzu
beti gauez ta egunez,
ez duzu inor engaiñaturik
gezurrezko itz legunez.
Irabazia nola daukazu
guk pentsatutzen dugunez,
zartzaro on bat opa dizugu
pake eta osasunez.

Sasoi betean ziñan garaian
lantoki ontan sartua,
urteak joanez buru zuritu
eta pixka bat zartua.
Berrogei urte pasata gero
erretiroa artua,
gure artetik bazoaz eta
agur, Bereziartua.

Banatzen gera lantokiz baiña
ez gera azten zurekin,
eta zu ere sarri oroitu
emengo lagun zarrekin.
Luzaro bizi baldin bazera
osasun eder orrekin,
oraindik ere bilduko gera
noizean bein alkarrekin.

Txapel zanari agurra

Azpeitiko Txapel bertsolaria il ondorenean, *Goiz-Argi* al-dizkarian argitaratu nituen bertso auk. Egun batzuk lenago, illabete geienez, Landetan alkarrekin apaldu genduen, Loiolan bertso-saio batean izan ondoren; eta nork esango zuen egun batetik bestera bazijoala? Baiña alaxe joan zan eta ezin ezer egin.

Udaberriko lore tartean
alaiki bizi giñala,
uste gabean iritxi zaigu
berri bat guztiz tamala:
bertsozaleok ainbeste maite
genduen Txapel il dala.
Zeru ta lurren Jaun da Jabeak
berekin euki dezala.

Egun batean sortu zitzaizun
diteken gaitzik txarrena,
bein barrenean sartu ezker
eriotza dakarrena,
sendagille ta sendagairikan
aintzat artzen ez duena;
zoritxarreko gaitz gaizto orrek
minbizia du izena.

Gaitz gaizto orrek eraman zaitu
mundu ontatik bestera,
baiña oraindik lengo lagunak
zurekin oroitzen gera,
Kristau zintzoei dagokienez
zeruan izango zera,
eta or ere mintzatu lasai
ain maite zendun euskera.

Gazte sasoiari izandua zan
txit bertsolari apaiña,
garai batean erririk erri
amaika saio egiña.
Aterik ate zebillenean
oso koplari bikaiña,
zirikatzaile egokia zan
eta ondo itzegiña.

Oraindik ere begiratuta
etzegon gizon baldarra,
gazte itxuran agertutzen zan
urtez egon arren zarra.
Gorputza tente, kolore gorri
eta ibiltzen azkarra,
alkarrizketa gozokoa ta
aingeruen irriparra.

Gizon bezela bere bizitzan
izan zan berdin gabea,
familiarako guraso zintzo
eta langille trebea.
Euskerazale purrukatua,
neurri gabeko fedea,
osasuntsua eta alaia,
birtute danen jabea.

Arrokeririk etzuen iñoiz
ain baizan gizon apala,
bertsolari ta euskeran alde
beti langille leiala.
Omenaldi bat merezi zendun
gure artean ziñala,
Jaunak zeruan ordain deizula
guk zor dizugun jornala.

Txapel joan zan emendik eta
gu noiz goazen ez jakin,
saia gaitezen beti irauten
kristau sinismenarekin,
egunen batez Jaunak zeruan
bildu gaitzan alkarrekin.
Agur, lagun zar biotzekoa,
laister gaituzu zurekin.

Aitonaren gogoetak

Gizona ilusioz geiago bizi dala esaten dute errealidadez baiño, eta ez da gezur aundia izango. Oraingo au neuri gertatua da, eta gertatu bezela kontatzen alegindu nintzan, eta orain diran bezela azaltzea besterik ez dut egingo. Alakoxe gauza berezi bat nabaitu nuen aitona izatera iritxi nintzan garaian, eta jakin nuen une berean idatzi ta bialduak ziran *Goiz-Argi* aldizkarira. Seaskako abestien doiñuan ondo datoz Adibidez: “Loa, loa, ttuttulun berde...”.

Lengo batean iritxia zait
gutziz berri atsegiña:
alabatxo bat izan dutela
seme batek otsegiña.
Malko bat baiño geiagok badit
geroztikan aldegiña,
oroituztean une artatik
naizela aitona egiña.

Billobatxoa ikusitzera
eramanik jakin-miñak,
arkitu ere zeru-sapaia
dan bezain begi urdiñak.
Urre-arizko ille-izpiak
eta aingeru ezpaiñak,
aren ondoan itsusi ziran
larrosa ta krabeliñak.

Txoriño baten abestiek
esnatutzen da goizero,
estalki garbi bigun tartean
lo egiñik bero-bero.
Amaren bular gozoz aseaz
bizi da jaio ezkeru,
ez daki asko nolako mundu
latza datorkion gero.

Orain artean zuretzat dana
poza eta onginaia,
aingerutxoen munduan bizi
zera oraindik, Amaia.
Egin zuk amets gozoak eta
egin zazu lo lasaia,
zai egon gabe etorriko da
kezkatutzeko garaia.

Zu izan zera ezkonberrien
lendabiziko frutua,
bata-besteaganako duten
maitasunetik sortua.
Maitasun ori izan ez dedin
oztu edo zapuztua,
zu izan zaitez bien lokarri,
aingeru bedeinkatua,

Ikusten ote dituzu egan
enara eltxo-jaleak?
Eta loreak milixkatzera
etortzen diran erleak?
Osto tartean azaldu dira
usai gozodun loreak,
zu bezelaxe ezkututikan
udaberriz atereak.

Udaberrian sartuta laister
iritxi ziñan mundura,
ixil-ixilik baratzen lore
bat azaltzen dan modura.
Aita ta amak daukaten arren
zu azitzeko ardura,
noizik-bein atoz aitona eta
amonaren ingurura.

Jaio berria nola zeraden
oraindik ezin itzegin,
ez dakigu gaur nere bertsoak
zaizkizunikan atsegin.
Jatorriaren jarrai-bideak
ez digulako utsegin,
orain aitona pozik bizi da
naiz amonakin lo egin.

Zorionak, Mattin!

1978-an egin zioten Mattin txikia baiña bertsolari aundia-ri, Ahetze bere errian, omenaldia. Bolara artan naiko ondoe-zik nenbillen, eta eznuen izan joaterik bertara. Baiña *Goiz-Ar-gi* aldizkarian bertso aukeratu bialdu nizkion egun ortan bertan. Bai eskertu ere egin zizkidan benetan, urrena ikustean.

Baldin egiak badira beintzat
entzun ditugun berriak,
Mattin Trekuri badatozkio
ordu gogoangarriak.
Danen aurrean azaldu nairik
maitasun ezaugarriak,
omenaldi bat eskeintzen dio
Ahetze bere erriak.

Erria zutaz oroitzeakin
etziñan gutzi poztuko,
ta poz geiegik zure bizia
ez al du beintzat moztuko.
Zureganako maitasunikan
etzaigu iñoiz oztuko,
euskera bizi dan arte zure
izenik ez da aztuko.

Maitasunaren ezaugarri dan
betiko irri-parrean,
azaldutzen da gizon au beti
gozotasun ederrean,
gorrotoaren kabi beltza dan
gizarte onen aurrean.
Ez ote gaude onen antzeko
geiagoren bearrean?

Euskaldunontzat atsegin dira,
Mattin, zure umorea
eta biotzak alaitutzeko
dadukazun adorea.
Iparraldeko euskaldunentzat
aintza eta ohorea,
Egoaldetik gaudenontzako
orko enbajadorea.

Zorionean azaldu ziñan
egun batean Zarautzen,
bitartean nik entzutez baizik
etzintudan ezagutzen.
Zer arratsalde zorionsua,
etzait beñere aztutzen,
geroztik emen zabilta gure
biotzak bertsoz poztutzen.

Nori etzaio gogoko, Mattin,
zu bezelako laguna?
Zein atsegin dan zure ondoan
igarotzea eguna!
Zirikalari egokia ta
kantuz eztarri leguna,
negu ta udara zimeltzen ez dan
lore usai gozoduna.

Bolara ontan gaixo antzean
arkitzen naiz osasunez,
orregatikan nere agurra
ez dizut emango itzez.
Neronek ala nai izan arren
ezin egon or gorputzez,
baiña sinistu zure ondoan
nadukazula biotzez.

Egun eder bat igarotzea
opa dizut nik batetik,
luzaro orain arte bezela
jarraitutzea bestetik.
Maitasunikan jatorrenean
bialduak Lasartetik,
artu itzazu milla zorion
Urdanetaren partetik.

Gauzak beren tokian

Loiolan egiten ziran ikastoletako billerak igande goizetik, eta batean eguerdian an agertu zan Teodoro Hernandorena: Iruñako *Príncipe de Viana* aldizkarian lekua agindu ziotela, eta nai genduenean idazteko esanez bertsolari eta bertsozale batzuen artean; bakoitzak bere idazkeran idazteko bakoitzari zerizkiona eta bere artan argitaratuko zirala; guk aita Onaindiari Larreara bialtzeko. Andik aurrerakoa egintzat ematen zuen.

Bialdu giñun, ba, eta or azaldu ziran burutik oiñetara dana atxez josita, batetik; dana aldatuta ere bai, beste aldetik, lengo itxurarik gabe, dana zipiztuta. Aita Onaindiari idatzi nion nik naiko zakar, erru gutzia jaurtiz; eta onek erantzun ere bai, berak etzuela errurik esanez. Gero Diaz de Ulzurrun jaunak ere bai, bera zala errudun eta arren berriz ere idazteko esanez, eta gero jarraitu nuen berriro ere idazten. Loiolako akordioaren ondorengo bertso auek, berak ezagun duten bezela, nere beroaldi batean jarriak dira, egin zuten joko zikiña salatzeke asmoz, eta bai gauzak argitu besteko ez bazan ere.

Euskeraz zerbait idatzitzeko
ez dut ibiltzen atxerik,
nere ustetan ez duelako
ekartzen kalte besterik.
Nik idatzirik ez nuen uste
era ortan ikusterik,
txiroa baiña garbia zana
zikin ta zorritz beterik.

Gaur egunean ezer egiten
atsegin danik ez uste,
zerbait egin nai dugun garaian
bada naiko buruauste.
Etsaiak beren adar luzeak
laister agertzen dituzte,
gogor egiten ez badiegu
laister itoko gaituzte.

Beren eskutan izan ezker
eskubide txikiena,
erruki gabe zapaltzen dute
arrazoirik aundiena.
Beren saillera danak eraman
orixen da nai dutena,
ta neri ere egin didate
joerik biurriena.

Idazlan ori etzan izango
zenbaitena aiñakoa,
baiña zergatik ez da azaldu
berez dan bezelakoa?
Alaxen baizan erabakia
Loiolan artutakoa:
bakoitzak duen idazkerakin
argitaratutzekoa.

Bertsolaria izenarekin
azaldu zaigun orrian,
nere lantxo bat agertua da
txit era parregarrian.
Orregatikan arkitutzen naiz
ain estuasun larrian,
gauzak argitzen alegindu naiz
merezi duten neurrian.

Bakoitzak bere iritzia du,
ezin diteke ukatu,
baiña pakean bizi nai bada
besteak errespetatu.
Gertatu zaidan trakeskeria
berriz ez dedin gertatu,
garaia joan baiño lenago
obe da neurriak artu.

Askatasun eskea

Franco il ondorengo Gabonetako inguruan, zorionak eta eskua alkarri ematea baiño zerbait geixeago ere eskatzen asi bearrak geundela esan zigun zuzendariak; eta, itz-lauz zerbait idatzi ondoren, bertso auetxek jarri nituen *Goiz-Argi* aldizkarian.

Lotsagabekeri aundiegian ere kolpetik ezin asiko giñala, eta ez gustatzen etzitzaigulako olako saltsetan sartzea; baiña era ontan izan zan gure orduko *erreibindikazioen* asiera.

Poztu gaitezen, zar eta gazte,
poztu, etxe ta erriak,
eldu baidira egun ederrak
eta gau zoragarriak.
Bekaizkeri ta gorrotoari
artuaz ondo neurriak,
zorionean pasa ditzagun
Gabon ta Urte Berriak.

Gauza onikan ez du egiten
gizonak bere kontura,
orregatikan etorri giñan
kondenatzeko puntura.
Baiña guztion jabe dan Jaunak
izanik bere ardura,
bere Semea aurtxo egiñik
bialdu zigun mundura.

Aingeruendik jakin genduen
bere jaiotzaren berri:
gizadiaren Salbatzaillea
nola zitzaigun etorri.
Gogo oneko gizonentzako
pakea zigun ekarri,
batak bestea maita dezagun
esku eman ez alkarri.

Seaskatxoan agertzen zaigu
ikusgarri bat bikaiña:
zeru ta lurren Jaun ta Jabea,
aurtxo bat dirudi baiña.
Bere esanak ongi betetzen
saiatuaz alegiña,
gurtu dezagun biotz-biotzez
Jaungoiko gizon egiña.

Urte berri bat aстера goaz
emendik egun gutxira,
eta oraindik euskaldun asko
etsaien katean dira.
Benetan urte zoriontsuak
aurten elduko balira,
atzerriratu eta presoak
bakoitza bere kabira.

Ez uste ori bakarrik danik
eskatu nai dizuguna,
baiña orixe dala uste dut
lenengo eginkizuna.
Bearrezkoak ditugu baita
lanarekin osasuna,
eta odolik ixuri gabe
Euskadin askatasuna.

Lagunarteko berriketak

Lagunarteko aparitxo baten ondoren berriketan ari giñala, atera zuten gora-bera bat gizon bati buruz. Ain zuzen egun artan urdailletik operatu zutela eta sortu zan berriкета. An zegoen batekin oso gaizki konpontzen zan.

–Alper-alperrik! Ark burutik operatu bear zian; ez urdailletik! –zion onek. Ondoren onela esan zuen batek:

–Bertso batzuen gaia bazegok emen.

Urrengo *Goiz-Argi* aldizkarian atera giñun sei bertso auek.

Batere uste ez genduela
berri bat jakin genduen,
urdailletikan operatuta
Kalaxka nola daguen.
Albotik batek au entzutean
azkar asko esan zuen:
«Gaixo zegola banekin baiño
burutikan uste nuen».

Arriturikan utzitzen nauzu
esan dituzun itzakin,
ni zirikatzen asiko ziñan
gaixotasunan aitzakin.
Naiz aurrerapen aundiak egon
klase guztiko gaitzakin,
aren burua sendatzerikan
ez dago ebakuntzakin.

Ez ditzazula benetan artu
nere txantxetako itzak,
ondo baidakit mindu zaitula
aren joera bakoitzak.
Nere ustetan izan zitezken
gaixotasunan emaitzak,
umore txarra berekin baidu
beti urdailleko gaitzak.

Nik ez nuke nai utsera bota
sendagilleen lanikan,
baiña ez uste jaun oiek ere
dana dezaketenikan.
Zuk ez al dezu bein ere entzun
aiton zarren esanikan:
ez dagoela zuzentzerikan
berez okerra danikan?

Oinbesteraíño ez etsi arren
izan zazu esperantza,
kendu barrendik auzo zitalak
ematen dizun zalantza.
Ondo atera baldin bazaio
egindako ebakuntza,
txarkeri danak bertan utzita
eldu liteke onuntza.

Ezagutzen dut nik gizon ori
joan dan zenbait urtean,
zitalago bat ez da izango
Euskal Erriko partean.
Pake ederra daukagu orain
bera an dan bitartean,
sendatu edo sendatu gabe
dagoela apartean.

Artzaien eriotza

Etxarri-Aranatz alde ortan gertatua zan sarraski au. Militarrak maniobrak egiten ibilli nunbait eta, oiei inork nola ez dioten kargurik artzen, gauzak nolana izan ziran, eta gero an bost gizon galdu. *Goiz-Argi* aldizkarian agertu ziran sei bertso auek.

Doiñua: Ai gure antziñako gutaso nobleak...

Etxarri-Aranatzen
gertatu zaiguna
txit berri illuna,
atsekabez biotza
lertutzen diguna.
Ekaiñak emezortzi
zituen eguna,
askori bereala
aztuko etzaiguna:
bonba batek bost gizon
erail dizkiguna.

Gerrarako prestatzen
beti alegiña
oien zer egiña:
nola artu asmatzen
etsaiari gaiña.
Militarren jokoa
orixe da baiña
artu bearke zaio
gauzari tamaiña,
berriz gerta ez dedin
gertatu dan aiña.

Errespetoa jarri
bear lutekenak
sarri okerrenak
dirala antzemanik
gabiltza geienak.
Ainbeste tresna zar or
utzi zigutenak;
ez esan diranikan
gizon zuzenenak,
naiz ala izan fama
daramakitenak.

Maniobrak egiten
izan militarrak,
zikindu baztarrak,
nun-nai utzia z bonbak
eta burni zarrak.
Mendian alakoak
diralako txarrak,
ardi-larreak zeuden
garbitu bearrak,
ortantxe asi eta
orra zer negarrak.

Ikusirik ainbeste
burni zar lurrean
itxura txarrean,
artzaiak asi ziran
biltzen indarrean,
bildu alan jarriaz
bide baztarrean.
«Txanpon asko gatxeudek
artu bearrean»
pentsatzen zuten, baiña
toki ederrean!

Burni zarren tartean
ainbeste lerkari
utxi duteneri,
kargu artzeko bada
arrazoi ugari.
Eskaera bat orra
agintarieri:
errespeto pixka bat
gure mendieri
eta mendi oietan
bizi diraneri.

Maite minduen larrialdiak

Gai orrekin izan ziran bertso idatzien sariketak, eta ara bialtzeko asmoan jarri nituen bertso auk. Baiña etziran bialdu, eta ondoren artan beste zerbaiten aitzekian bialdu nituen *Goiz-Argi* aldizkarira, eta an agertu ziran.

Zugana nator, maite kutuna,
berri txar bat ematera:
nola ekarri nauten loturik
gaizkille baten antzera.
Mutil gazte bat eldu zitzaidan
gau illun batez etxera,
ari ostatu ematearren
sartu naute espexera.

Ezkondutzeko itzak emanda
geunden alkarren artean,
kabi batean lo egin nairik
giñan urrengo urtean.
Ezbear onek banatu gaitu
gorputzez aldi batean,
nik emen egon bearra baidut
burni zar auen tartean.

Urruti egon arren sinistu
etzaitudala aztuko,
une guztitan ikusten zaitut
begiak itxi orduko.
Ziur bainago maitetasun au
etzaidala inoiz oztuko,
zutaz jabetu artean ez da
nere biotzik poztuko.

Udaberriko egunsentian
eguzkiaren dizdira,
mendi, zelai ta baratzetako
loreai jarri begira,
Birigarro ta txorien kantak
alaitzen dute lurbira,
oiek guztiak zure ondoan
neretzat gauz utsak dira.

Zer burutapen sortzen dizkidan
zure soin eder bikaiñak,
begien argitasunak eta
buruko ille apaiñak!
Noiz laztanduko ote ditut nik
zure eztizko ezpaiñak?
Iñoiz berotu ote nezazke
zure aingeruzko oiñak?

Zorioneko giñaden biok
libre giñaden artean,
batak bestea maitatzen gendun
biotza bete-betean.
Orain ni emen loturik nago
espexxe illun batean,
zu or bakarrik bildotx otxana
otso gaiztoen tartean.

Eskumuin eta goraintzi asko
maiz dizkidazu igorri,
egin zenidan ikustaldia
milla esker gaixo orri.
Ikusterako gure begiak
ziran lau malko iturri,
ainbeste gauza esan nai eta
itzikan ezin etorri.

Zer begiratu xamur biguñak
burni zar aien tartetik!
Ikusten eta ezin laztandu
biok nai izanagatik.
Biotza irten nairik zebillen
nere petxu barrenetik,
beste inola ezin da malko
biurtuz begietatik.

Nere biotzak ezin dezake
maitatu inoiz besterik,
daukadalako zureganako
zaletasunez beterik.
Une guztitan zugana doa,
ez dago galerazterik,
ez baida sortu maitetasuna
lotu lezaken katerik.

Laister or nauzu, uxo kuttuna,
badator askatasuna,
bukatuko da gau illun au ta
argituko du eguna,
maitasun biziz gu biok alkar
besarkatuko duguna.
Nork neurtuko du orduko gure
laztanen goxotasuna?

Euskera munduan zear

Amaika olako egiteko jaioa zan izan ere ura, eta ori ere egin zigun egun batez: Erromako eliz nagusitik lau aizeetara astindu zuen euskera, irrati bidez Gure Aita esanez, aita Onaindia karmeldarrak, gure gozamenerako. Gu ez geunden alako gauzak entzuten oituak eta asko arritu giñan egin zue-narekin. Zorionak bialdu ondoren, *Goiz-Argi* aldizkarian jarri nizkion sei bertso auk.

Erri batentzat ezaugarririk
berezieta izkera,
beste askoren eran gu ere
uste ortakoak gera.
Bakoitzak maita beza berea,
gauz orren aurka ezkera,
baiña gurea dugun ezkeru
maita zagon guk euskera.

Mundu guztira zabalduzko
Etxepareren esana,
baiña ortako aukera gutxi
orain artean izana.
Atsegin aundiz irakurri dut
Erroman gertatu dana,
orain badakit lau aizetara
andik duzula emana.

Praille guztiak orma batean
gordetzekoak ez dira.
Larreatikan iritxi da bat
Erromako irratira.
Euskera zarrak berari esker
emana digu lurbira,
Vatikanoko eliz aunditik
jalgiatz mundu guztira.

Orma tarteko lanak utzita
mundua arakatzera,
zeuk diozunez, oraindik orain
irtenda ibilli zera.
Beste izkuntzak mintzatu arren
gureaz aztu etzera,
zuri eskerrak dantzatu da
munduan zear euskera.

Jaungoikoari aintza emanaz
eliza nagusitikan,
gure euskera mintzatu zendun
atsegiñez poz-pozikan,
egokiera gertatutzean
galdu gabe astirikan.
Ez duzu noski gaur edukiko
egiñaren damurikan.

Erromes-meza mundu guztira
zabaldu irratitikan,
nola pentsatu euskera zarra
entzuterikan andikan?
Maite duenak agertutzen du
edozein tokitatikan,
eskerrik asko, aita Onaindia,
egin duzunagatikan.

Zorionak, Joxe Agirre!

Urtean bertsolari bat omentzeko oitura zanez, 1979-an Joxe Agirre *Oranda*-ren txanda izan zan. Aspaldiko adiskidea izanik, ezin genezaken utzi bertsorik jarri gabe. Sei bertso auek atera nizkion *Goiz-Argi* aldizkarian. Omenaldia egiñagatik ez erretiratzeko eskatzen nion. Etzegoen olako bearrik. Omenaldia egin zitzaionetik ogei ta bost urte beteak dira, eta oraindik noiznai azaltzen zaigu gure zorionerako. Olaxe jarrai dezala, gaiñera. Gazteen tartean ikusita poz ematen du gure garaitsuko gizonak.

Oranda antxe dago Izarraitz
maldaren sortaldetikan,
urrutixora baiña bixtan da
nere jaiotetxetikan.
Ango seme bat omentzen dala
ta gaude oso pozikan,
milla zorion, Joxe Agirre,
Artetxeren partetikan.

Gazte-gazterik asia ziñan
bertsoak jator botatzen,
orain ogei ta bi urterako
etziñan gaizki moldatzen.
Eta geroztik esan gentzake
etzeradela ixiltzen,
jakin nai nuke zenbat erritan
iritxi zeran kantatzen.

Edozein doiñu erabiltzeko
irixten zera eztarriz,
nere ustetan beste edozein
berdintzen dezu etorritz.
Zuzenagoa izaten oso
zailla da rimaz ta neurritz,
itz bitan dana aitortutzeko:
bertsolaria jatorritz.

Biotz illunak alaitu nairik
erririk erri zabilta,
ai zure esku baldin balego
alaitasun orren giltza!
Baiña pake ta alaitasuna
naiko urruti dabilta,
zure ingurun egun goxo bat
igaro nairik gabiltza.

Badakigu guk egun batekin
ordaintzen etzaitugula,
baiña zuk ere ondo dakizu
geiago ezin dugula.
Sinistu omenaldi au gogoz
eskeiñi nai dizugula,
maitasunezko giro goxo bat
Jaunak opa dezaigula.

Eta azkenik biotz-biotzez
auxe nai dizut eskatu:
zure bertsoak gaurko onekin
ez ditezela bukatu.
Euskadi danen bearrean da,
ezin gentzake ukatu;
omenaldia egin zaizula
eta ez erretiratu.

Negua

Urdanetan negua igarotzen zuen artzai bat ezagutu nuen. *Martin Beltza* deitzen genion, eta bertsoan ere jarduten zan. Gerra baiño ondotoz ere lenagoko kontuekin ari naiz, eta oso antziñakoak, umea nintzan garaikoak.

Bederatzi puntuko bertsoak ez dira ikasten errezenak ere, eta ez nizekion ikasi puntu bakar batzuk besterik, eta berrogei urte inguru gerora, arritzekoa ez danez, bi bertsoatik ez nintzan askorik oroitzen.

Bi bertso aiek konpondu nairik ari nintzala, oroitu zitzaidan asmo au: «Zergatik ez dituk berriak egiten, beren zergatiakin puntu oiek gordeaz?»

Alaxe, aurreneko biak eta besteak, berriz, launa osatu nizkien beste iru urte-aroei, eta neguarentzat ere beste lau osatzeko, bi zarberri eta bi berrirekin, kitto.

Agertzen zaigunean
mendian elurra,
neguak azaldu du
bere muturra.
Aurtengoan guretzat
ez da ain samurra:
dendan janaria ta
basoan egurra.
Buruak makurra,
gorria sudurra,
sabela zimurra,
ai nere bildurra!
Larri nago. Zertako
esan gezurra?

Aurten uste baiño len
negua da eldu,
kanpoan zeuden gauzak
danak usteldu.
Iñork barruti mutur
bat ez du nai saldu,
artzaiak oraintxen bai
geradela galdu.
Ajeak ugaldu,
pausoa moteldu,
indarretan auldu,
ezurrak azaldu.
Guretzat errukirik
iñork ez al du?

Eguna argitu arren
ez da eguzkirik;
laño beltzak ez dute
uzten tarterik.
Ez da iñun agertzen
enara talderik,
ain gutxi atariko
baratzan erlerik.
Ez dago lorerik,
ez osto berderik,
ez txori kantarik,
tristura besterik.
Negua da; ez dago
ukatutzerik.

Ori ala izanik
zer bildurgarria
negu beltzak dakarren
oroigarria!
Guztiori sortzen digu
kezka ta larria,
batez ere zarrentzat
ikaragarria.
Sortu janaria
ta berogarria,
artuaz neurria,
gure pozgarria
ondoren datorkigun
udaberria.

Udaberria

Lau bertso auek Goiz-Argi aldizkarian atera ziran, eta ne-re betiko udaberriarekiko zaletasunak betiko arira eramaten nau emen ere. Gero *Erri-Egutegia* zeritzana atera zan, eta an ere azaldu ziran.

Doiñua: Iparragirre abilla dala...

Urteak duen garai onena
oraintxe zaigu etorri,
negu beltzaren ondorenean
triste geundenon pozgarri.
Abeslari txoriak,
berdin bertsolariak,
or dabilta erriz erri.
Guk nai orduko etzera iritxi,
biotzeko udaberri.

Zer edertasun dagoen nun-nai
jarri zaitezte begira,
Euskal Erriko mendi ta baso,
baratza edo zelaira.
Zugaitz danak loretan
edozein baztarretan
apain-apain janzten dira;
enarak ere badatozkigu
lengo urteko kabira.

Gauz eder eta doiñu politen
zalea baldin bazera,
atera zaitez illunabarrez
mendi baten sartaldera.
Birigarro, xoxoak,
kuku ta txoritxoak
kantari danak batera
ari dirala, ikusi zazu
eguzkiaren sarrera.

Udaberriko eguzkiaren
dizdirarekin batean,
euskera maite dugun guztiok
arren esnatu gaitean.
Kaletarra bazera
irten mendi aldera,
ez egon beti kalean,
eta itzegin euskeraz lasai
baserritarren tartean.

Udara

Kontatzera noan au ni mutikoa nintzan garaikoa da. Beraz, urte mordo galanta: irurogei ta amar bai gutxienaz. Zarauzko ondartzan mutur batean sartu ta bestean atera eta itz bat euskeraz entzun gabe egin nuen ibillaldia. Eta ez uste Zarautzen euskera galdua zanik eta danik. Jaunari eskerrak, euskera barra-barra itzegiten da. Erri aundien artean nagusi jarriko nuke nik ortan. Baiña ondartzan ez da orrelakorik gertatzen. Bizi guztirako markatu nindula esan bear dut gaiñera. Arrezkeroko guztian izan dut alakoxe nazka edo zerbait, tiratzen ez didan gauza, eta ori beti inguruan bizi naizelarik.

Bertso auek ere *Goiz-Argi*-n eta *Erri-Egutegia*-n azaldu ziran.

Udara eldu zaigu,
eguzkia bero;
erbestetik jendea
dator egunero.
Baztar guztiak ondo
miatuta gero,
gure lurralde ontan
bein izan ezkeru,
danak edo geienak
badatoz urtero.

Ain ditugu politikak
itxaso bazterrak,
eta zenbat tokitan
ondartza ederrak.
Orregatikan datoz
nundik-nai maizterrak,
baiña ortikan ere
badatoz okerrak,
asko baidira bildotx
itxuran akerrak.

Iñoiz egon izan naiz
itxas baztarrean,
nere biotza penaz
lertu bearrean.
Itz bat etzan entzuten
euskera zarrean,
erderaz jakin ez ta
erdi negarrean,
atzerritar bezela
neronen lurrean.

Dei bat egiten diet
euskaldun danari,
batez ere ondartzara
dijoaztenari:
izkuntza bat ikasi
genion amari;
toki emanagatik
datozkigunari,
bizi geran artean
eutsi gureari.

Udazkena

Au ere, urtearen beste aroen antzera, *Goiz-Argi* aldizkarian eta *Erri-Egutegia* bietan agertu ziran lau bertso auek.

Askorentzat urte-arorik ederrena eta mistikoena izango da; baiña neretzat ez da udaberriarekin konparatzen ezertarako ere gaur egunean. Len, garai batean, urtearen arorik opa-roena izana da. Gauza guztietatik ugari izaten zan garaia. Esaera zarrak baziran: “Orain udazkenaz azten dana, gogoratuko duk gero”; eta: ”Etorriko duk aurten ere San Markos larru zalea”. Ez dut esaten esaera oiek balio etzutenik; baiña gaur daukagun bizieran betor udaberria. Ez dago, ordea, beti udaberrian egoterik eta goazen aurrera.

Bukatu dira bero zakarrak,
laburtu dira egunak,
ondartzak ere ustu zaizkigu
len ain beteak giñunak.
Joan zaizkigu baratza eta
zelaiko edertasunak,
lurrak beregan tiratzen ditu
berak eman zizkigunak,
gu ere laister deituko gaitu
danon egille dan Jaunak.

Urtero garai ontan bezela
aurten ere eldu gera
buru auste ta kezkek ekartzen
dizkigun udazkenera.
Zugaitzetako osto mardulak
erortzen dira lurrera;
zar eta gazte, aundi ta txiki,
egunetik egunera,
gu ere konturatu gaitezen
bagoazela lurpera.

Nere esanengatikan iñork
ez al duzute etsiko!
Alakorikan balitz geiago
ez naiz kantari asiko.
Ez dut esan nai aurtengoari
ez diogula eutsiko,
baiña or dago gure azkena
biariko edo etziko,
gogoan izan dezagun danok
ez geradela betiko.

Gure euskera maitea ere
ez al da udazkenean?
Eta iñundik laguntza gutxi
gaixoak zartu danean.
Bere etsaiak ito nairikan
or dauzka aldamenean,
artzai itxuran otso ugari
berriz etxe barrenean,
oietatikan askatu arte
jarrai dezagun lanean.

Gaixozai bati

1978-garren urteko udaberrian, aspalditxotik neugan zebillen gaitz bat kendu nairik joanik Donostiko Residentzian arkitzen nintzala, neskatxa gazte leial bat oso naigabeturik agertzen zan goiz batez; eta, zer gertatzen zan galdetzean, ala esan zigun: Urrengo egunez azterketak zeuzkala ta, beragatik oroitzen bagiñan, errezatzeko Lurdesko Amari; bere zaindaria zuela, Lurdes zeritzaion eta.

Lurdesko Ama biotz biguña,
otoitz dagizut aurrena;
nere iritiz bidezkoa dan
eskaritxo bat urrena.
Gaur azterketak dirala eta
ez daukat lasai barrena;
onez atera zazu emengo
gaixozairik jatorrena.

Eskua ain du egokia ta
ez digu ematen miñik;
maitetasunez gaixoak zaitzen
ez dauka iñor berdiñik.
Ainbat mirari egin dituzu,
zuretzat ez da eziñik:
ez bedi izan Lurdes atzera
botatzeko esamiñik.

Lagun zaiozu ongi egiten
gaurko bere esamiña,
gaixoontzako balio baidu
aingerutxo batek aiña.
Zerutar irriparre goxoa
eta ain gorputz liraiña,
zure ordeko au dugu emen,
Lurdesko Ama Birjiña.

Gugandikan ez urrutiratu
esamin gaizto oiekin,
lenbailen ondo bukatu eta
berriro lanari ekin.
Gaiñerakoan goibel geundenak
poztutzen gera zurekin,
naigabe danak kentzen dituzu
irripar goxo orrekin.

Euskera gaixoa

Bi bertso auek, euskal alorrean lanean ari zanari maiz gertatzen zitzaizkion zigor oietako batean agertu ziran *Goiz-Argi* aldizkarian.

Belaunez belaun gureganaiño
iritxi zaigun euskera,
noiztik sortu dan aztarrenikan
iñork ez duen izkera.
Etsai gaiztoaz inguraturik
gaur egun arkitzen zera,
gogor egiten ez badiegu
izenan jabe ez gera.

Orain artean ez da izandu
zu ondatzeko indarrik,
ez moro eta ez godorikan,
ain gutxi erromatarrik.
Bolara ontan ez izan arren
iñoiz aiñako indarrik,
oraindik maite zaitugu eta
ez izan arren bildurrik.

Itzak ez dira naikoa

Bertsolari gazteekin lanean alegintzen giñan garaian, sari-
keten alde zerbait idatzi ondoren, onela genion:

“Idatzia egongo da, eta ondo idatzia gaiñera, bertsolaria
berez jaio egin bear duela; baiña ori bezain egi astuna dala de-
rizkiot, berez dakarzkina doai berezi oiek azi ta landu egin be-
ar dutela, alperrik galdu ez ditezen”.

Itzak aizeak daramazki ta
eldu deiogun lanari,
orretarako dei bat egiten
dizutet lagun danori:
egokierak eman al bada
gogoa daukatenari,
ez dezaiozun biarko utzi
gaur egin ditekenari.

Bertsolaririk ezin dezake
sortu gaur dagon giroak,
jarri gaitzen begira eta
antzematen du eroak.
Zerbait egiten asi gaitzen
arturik asmo beroak,
bertsolariak izan zirala
ez dezan esan geroak.

Arratsalde pozgarri bat

Pedro Maria Otaño bertsolarien maixu izandakoaren semea eta billobak etorri bear zutela eta aieri ongi-etorri itxurazko bat egitea erabaki zuen jai-arratsalde batez len ere maiz aipatu izan dugun Manuel Sagardia jaunak. Baiña gizonaren erabakia beti baldintzatua izaten danez, borondate aundiko gizon au ere egun artan ondoezik gertatu zan. Beraren seme Sabín etorri zitzaidan esanez laguntzera joango ote nintzan eta ala joan nintzan. Dana ezin obeto atera zan, eta Manuel bera oetik irten eta jetxi zan bera; eta aldegin zuten arte egon zan, gaixo egonagatik. Jose Inazio, Pedro Maria Otañoren semea, emen jaioa omen zan. Ala zion berak. Arratsalde bikaiña igarogenduen benetan.

Urrengo *Goiz-Argi* aldizkarian argitaratu ziran bi bertso auek.

Ai Pedro Mari biotzekoa,
ez gera gutxi poztutzen
zure semea eta billobak
beso tartean estutzen.
Ongi-etorri goxo batekin
saiatu gera artutzen,
aleginduaz zure garaiko
oiturak gogoratutzen,
jakin dezaten oraindik ere
etzaitugula aztutzen.

Jose Inazio besarkatzean,
gaitz dan arren sinistea,
nere ustetan igaro nuen
beste munduko atea,
izan bainuen zure aitakin
bildutzen nintzan ustea.
Pedro Mariren oiñordekoa,
luzaro bizi zaitea,
eta ez aztu Arjentinatik
zure sorterri maitea.

Omenaldi bat

Manuel Sagardia, *Gure Etxea*-ko Manuel erriarentzat, maiz aipatu dugu, eta aipatzen jarrai genezakela esango nuke nik.

Errian ezer berezirik egin nai bazan, aren babesa bear zuela esan ziteken, beti edo geienean aren on-iritzia jaso nai izaten zalako, batetik; eta, bestetik, geienak berak babesten zitu elako.

Guk ere izan genduen aren bearra. Ikastola sortzeko bilerak egiteko tokia berak uzten zigun. Ainbeste lekutan ibilli ta gero danetatik bialdu giñuztenean, antxe izan genduen babesa. Garai batean esaten zan bezela, il bear ez luken gizon oietakoa zan.

Gutxiago merezitakoai ere omenaldia egiten zitzaielda eta berari egitea erabaki zan. Gaztedia izan zan, gaiñera, aurreko puntan, egin zitzaizkion jaialdietan parte artu zuena.

Eskura eman zitzaion, geroago *Goiz-Argi* aldizkarian aterra zan bertso auxe.

Sagardiatar Manuel jauna
Lasartera zan agertu,
eta geroztik errian alde
lanean ez da aspertu.
Euskal ekintzak babestu eta
oitura zarrak zuzpertu,
orrenbeste lan egin diguna
nola aztu ta baztertu?
Ordaindu ezin genezakena
nai genizuke eskertu.

Udaberri illun bat

Urtero bezelakoa izango zalakoan giñan, baiña kukuak oker jo zigun urte artan. Pake ta askatasuna izango genituela-koan eta orra dana batekoz bestera.

Usteak erdi ustela da esaera, baiña neri beintzat erdia ez-ezik osoa ere oker atera zitzaitela esan bear, *mea culpa* esaten zaleak ez izan arren.

“Epaiketak, erailketak zapalketak, lan uzteak eta abar izan ditugu aurtengo udaberrian” genion udaberri illun artan; eta urtero-urtero udaberriari kantatzen zaleak bagera ere, urte artan legea betetzeko bat besterik ez nuen jarri *Goiz-Argi* aldizkarian.

Ikusten ditut egun luzeak
gauak oso laburtuta,
ikusten ditut lore politak
noranai begiratuta.
Entzuten ditut doiñu apaiñak
txoritxoak abestuta,
baiña mendiak odolez eta
errautsez gorri-belztuta,
orregatikan daukat biotza
iñola ezin poztuta.

Adibide bat

Urte batzuk badira Plorentiño Goiburuk Idiazabalen kantatu zuela bertso bat iru puntu berdiñekin. Esan-nai ezberdiñekoak zirala ta etzirala, izan zan berriketa ugari. Nik ere, adibide bezela, egin nuen bat, *Goiz-Argi* aldizkarian aterea au ere.

Euri asko eginda
lurra oso bera,
loi tartean jetxi naiz
menditikan bera.
Erririkan urrena
Bidasoko Bera,
nai ordurako ez dut
arrapatu bera.

Aita Onaindiari barkapen eske

Iruñako *Príncipe de Viana* aldizkariaren barrenean, *Bertsolaria* izenarekin orri bat sartzeko baimena lortu zuela eta bakoitzak bere idazkera erabili zezakela esanez etorri zitzaigun igande batez Loiolara Teodoro Hernandorena jauna, ikastolen billera bukatu genduen garaian. Baiezkoa eman genion eta bialdu ere bai, aita Onaindiari Larreara. Baiña oso antzaldatuta azaldu zan orri ortan gure idazlana. Nere asarrea azalduz, nik naiko gogor, idatzi nion berari. Berak bueltan gozogozi idatzi zidan, bera etzala erruduna izan eta zuzendariari idatziko ziola esanez. Gero Pedro Diaz de Ulzurrun berak idatzi zidan, bera zala errudun aitortuz: *berdintzeagatik* egin zuela ta berriz ere idazteko arren. Urrengoan bertso aukeratu bialdu nituen, aita Santiri barkapena eskatuz; eta geroztik oso lagun izan giñan.

Ai aita Santi biotzekoa,
au da naigabe larria,
errurik gabe eman baidizut
eraso izugarria!
Nere kasketei bear bezela
ez nien artu neurria,
ala ere zuk maite nauzula
ziur nago igarria,
gaurko mundura begiratuta
naiko gauz arrigarria.

Egun batean idatzi nizun
nik ain era zakarrear,
eta zuk berriz neri erantzun
gozotasun ederrean.
Au ikusirik nere biotza
daukat lertu bearrean,
gizontasunez jokatu nai dut
euskal oitura zarrean,
damaturikan barkapen eske
naukazu zure aurrean.

Aitortzen dizut biotz barrendik
txit gaizki egin nizula:
erru guztien zigorra jaurti,
errurikan etzendula.
Bide gabeko zitalkeria
etzait aztuko sekula,
alaz ta guztiz ikusirikan
zuk barkatzen didazula,
sinista zazu gaurtik aurrera
zure menpeko nauzula.

Nola duzun ain biotz zabala
gorrotorik ezin gaindu,
gure arteko pake bidea
orrek bakarrik egin du.
Aurrerantzean etzinduket nai
iñolaz ere samindu.
Zerbait geiago esan nai nizun
baiña biotzak ezin du,
agurtzen zaitut oraingo eta
nai duzunean agindu.

Mattiñi omenaldia

Len ere esan bezela, aspalditxotik dute oitura, edo zuten, urtean bertsolari bat omentzekoa Donostin. Egun ortan, Ahetzeko Mattin Treku, gorputzez txikia baiña bertsolari aundia omendu zuten. Ordukoak dira nere lau bertso auek. *Bertsolaria* aldizkarian argitara eman zituzten. Egun artan ere Mattiñek egin zuen berea: doiñu berri bat eta lau bertso bikain, erregaliak artu ondoren.

Doiñua: Iparragirre abila dala...

Aurten ilbeltzan amaseia bai
gendula zoragarria,
esan ziteken loraz jantzita
zegola Euskal Erria.
Egun ortan Donostin
zure omenez, Mattin,
jaialdi bat zan jarria,
zuri tokatzen zaizun bezela
benetan arrigarria.

Jaunak emanda baduzu, Mattin,
bestek ez duen almena:
ingurun biltzen diran guztiai
alaitutzeko barrena.
Lendik ere banekin
nola zendun zurekin
irriparrik goxoena,
naigabez dauden biotzak ere
pozez jartzen dituen.

Oparitxoak jaso ondoren
asi ziñaden kantari,
biotza lertzen jarri zenigun
ango entzule danari.
Aiek negar malkoak,
pozaren pozezkoak,
irten zitzaizkigun guri!
An emandako une goxoa
guk nola ordaindu zuri?

Zer alaitasun ote zegoen,
Mattin, zure barrenean,
ikusirikan ainbeste lagun
bildurik aldamenean?
Bostekoak batetik,
besaradak bestetik,
maitasun ederrenean.
Urte askoan jarrai olaxe
pake ta zorionean.

Agur betiko, Pantxo!

Nik banuen lagun bat, soldadu egon nintzan garaian, Luzaidekoa, amaika aztarrika ta borroka saio egiña. Beraren aipamenak len ere egin ditut. Oeak ere alkarren ondoan edukitzen giñun biok denbora guztian; eta, beste zer egiñik ez genduenean, alkarri adar jotzen aritzen giñan, batean Luzaideko esaldiakgatik, bestean Urdanetakoakgatik. Bietan ere baziran xebreak eta, alakoekin gero pixka bat erantsiz eta abar, berebizikoak armatzen giñun aldizka.

Bein batean egin zuena ere gogoan dut: bere arrebak eta biak dantzari sail batean *–bolantak* deitzen zioten– ibiltzen ziranak, eta arekin izaten zituen berebiziko kontuak. Baiña neska orrek gero ta gutxiago bialtzen zizkiola ango berriak esaten zuen.

Alako batean, karta-paperaren alde batean bakarrik idatzi ta beste aldean zuria zuela bialdu zion neska orrek; eta Pantxok beste aldetik idatzirik erantzun zion. Bai min eman ere, eta urrena bi aldeetatik ongi beteta bialdu zion. Berak esaten zuenez, erriko txisme guztiak kontatzen zizkion.

Andik ogei ta amar bat urtera, kamioilari zebilela Prantzitik, apeaz, piñu tantaiaz alegia, kargatuta zetorrela, Bearnoko Sauveterre erria aldapan omen dago eta ara sartu baiño len nabaitu arrastak eltzen etzietela. Bozina joaz bati ta besteari ixkintxu igaro ondoren, erriko irteeran mutiko batzuk ibilli nunbait errepidean kaniketan jostatzen; eta, aiek ez zapaltzearren, azpikaldeko *terraplen* izugarrira irten eta ango pago aundi baten buruan jo ta txirtxillatuta il zan gizarajoa. Juan Iroz Etxamendi zituen bere izen-abizenak. (g. b.)

Gogoan zendun Salbatzailleak
ori agindu zuela:
biotzetikan guztiok alkar
maite bear genduela.
Azken agindu ori ederki
zuk bai bete zenduela:
besterengatik bizia eman
Kristok gugatik bezela.

Oraintxen dator nere burura
gauz bat sarritan entzuna:
itz utsakin ez dala azaltzen
benetako maitasuna.
Zeure bizia emateraiño
izanaz biotz biguna,
zuk erakutsi diguzu guri
nola dan kristautasuna.

Naparroako Diputazio
prestua bezin zuzenak
ezin lezazke aztuta utzi
bere seme leialenak.
Lagun urkoa salbatzearren
bizia galdu duenak,
ez ote ditu irabaziak
ospe eta gorespenak?

Aurtxo batzuen biziagatik
etzan egondu zalantzan:
aiek bizirik jarrai zezaten
amildegira joan zan.
Bere aurrean egin dezaten
erritarrak *bolant* dantzan,
oroitarri bat merezi luke
Luzaideko enparantzan.

Txoriak kartzelan

Egoera kaskarrean geunden garaian, bertso batzuk eskatu zizkidaten *Bertsolaria* zeritzan *Príncipe de Viana* orritik; eta gaita aundirik gabe, lan-uzteak, baiketak eta dana olakoa zan bolara artan, eta baituen omenez auek bialdu nituen.

Txori txiki polit bat
kaiola batean,
noizbait andik irtengo
ote dun ustean.
Ez du inoiz etsitzen
naiz egon katean,
sartu zuten tokitik
atera artean.

Naiz kalte aundirikan
ez egin inori,
burni sare tartean
sartu dute ori.
Era orren antzera
beste zenbait txori,
libre utziaz ainbat
zomorro gaiztori.

Zergatikan gizonak
orrelako griña?
Txori txikiak libre
ikusi eziña.
Gizonak alaitzea
zuen alegiña,
ortan ere guk ez nai
utzi alajaiña.

Kartzelan ez duzute
gose-egarririk,
eta ain gutxi neke
ikaragarririk.
Alare ezin aztu
lengo ibillerik,
inork ez baidegu nai
lotuta egoterik.

Gau illun bat

Pedro Ortuzar *Iturri* bizkaitar bertsolaria oraindik gizon gaztea zala, kamioi gaiñetik erori ta bizkarrean jo zuen, elbarri utzirik. Berari zerbait laguntzearren, edo Donostiko bertsolarien omenaldirako bera aukeratzearren, bertsolari gazteekin egin genion omenaldi bat.

Gau artan oso jende gutxi urreratu zan *Zarauzko Zinema* pelotalekua zan artara. Bertsolariak ondo portatu ziran; baiña bigarren saiorako neuzkan gaiak danak atzera bota zizkidaten eta, esaera dan bezela, *sobre la marcha* berriak asmatu bear izan nituen, al zan bezela. Xanti Zabala adiskideak garbi asko esaten zuen, jarri zituen bertsoetan, ango gabezien berri; baiña gauzak ez dira beti irtetzen batek nai bezela, eta alegiñak egin eta aurrera jarraitu bear.

Dana dala, lortu zan beintzat urrengo urterako omenaldian sartzea; baiña guztiak ain ados ez ote zeuden pentsatuz jarriak ziran sei bertso auk *Bertsolaria* orrian, gertatu zana garbi jarritz.

Gogoan daukat oraindik ere gau aren illuntasuna, egiztatzen dut zure bertsoaz adierazten duzuna.

Bertsolariak beteagatik daraman eginkizuna, entzule gutxi dagon tokian gaitza da alaitasuna.

Bertsolariak gazteak danok eta bigunak junturaz, baiña bertsoak bota zituzten errespeto ta arduraz.

Jende gutxikin frontoi aundiak ematen zuen itxuraz, biotzetikan gaixo zegon bat il zitekeen tristuraz.

Alare, Xanti, etzazu izan
egindakoan damurik,
ez baidiogu iñortxori zor
egun artako konturik.
Amabi bertsolari gazte ta
beste zenbait alkaturik,
irabazia gutxi zan baiña
ez gendun ezer galdurik.

Berreun ta ogei entzule ziran
sarrera ordaindu zutenak,
zuen saioa entzunez pozik
atera ziran geienak.
Bat edo beste beti badaude
zerbait laguntzen dutenak,
Iturrik biotz-biotzetikan
eskertutzen ditu denak.

Sobratu ziran txanpon aleak
–etzan aundia dirutza–
bere eskutan ipintzearren
joan nintzaion aruntza.
Atsegin aundiz eskertu zidan
egin genion laguntza.
lengo tristura danak utzita
etorri nintzan onuntza.

Ondo dakizu mundu koxkor au
Paradisoa ez dala,
askotan gauzak ez dira irtetzen
guk nai genduken bezela.
Ezagutzen dut gau artan ere
akats aundiak zeudela,
baiña sinistu *Iturrin* alde
asko egin zendutela.

Ongi-etorri berriro

Príncipe de Viana aldizkariak azaldu gabe egonalditxo bat pasa ondoren berriz azaldu zanean, sei bertso auek jarri nizkion, *Bertsolaria* zeritzan orrian.

Prensatik jakin genduenez, izan ere, baziran alako poz-jarioak azaldu zituen zenbait kazetarik. Guk, azaldu zanean, artu genduen poza, ta bertso auek jarri nizkion, Iruñatik ainbeste urtean agertu zan aldizkaria itxitakoan poztutzea baiño bidezkoagoa iruditzen zitzaigulako.

Iruña batean aldizkari euskaldun bat geiegi ote da? Neri etzait iruditzen; baiña baziran uste ori agertzen etzutenak ere garai artan. Neri, berriz, gaizki iruditu zitzaidan alako kritikak egitea aldizkari euskaldun bategatik. Baiña badakizu: “dane-tik dago Jaunaren mastian”.

Doñua: Aizak i, mutil mañontzi...

Uste genduen il zala,
ai zer naigabe itzala,
ikusirikan aspalditxoan
agertzen etzala!
Poztu gera bereala
ikusirik bizi dala,
gure Jainkoak luzaro gorde
ta zaitu zaitzala.

Piztuaz illen artetik
bazoaz zure bidetik;
milla zorion gaur *Urdaneta*
zarraren partetik.
Laguntza bat Lasartetik
torizu gaur biotzetik;
euskal arnasa zabaldu zazu
Iruña zarretik.

Atsegin eta samiñak
danak guretzat egiñak
uste ez dala gertatzen dira
neke ta eziñak.
Luzatu ditzagun zaiñak
artu bitartean gaiñak;
aldizkari bat euskerazkoa
bear du Iruñak.

Bertsolarien orria
zuregana igorria,
ez al da eman ziñon babesa
estimagarria?
Gure bertso egarria
asetzeko iturria,
nai dugun ainbat edan dezagun
daukazu jarria.

Iñora ezin joanean
billutsik genbiltzanean,
zure babesa eman zenigun
biotz barrenean.
Neketan zenbiltzanean
gu lasai aldamenean,
zer esker txarra orain laguntza
eman ezenean!

Estutasuna ugari
sarri zaizkio nabari,
euskal arloan zerbait egiten
saiatzen danari.
Eta zenbait kazetari
il-kanpaiak jotzen ari;
samin-agurra bialtzen diet
pozik zeudenari.

Nere zorion agurra

Aita Santi Onaindia karmeldarrari omenaldi bat eskeiñi ziztaion 1975 urteko Uztailaren 9-an Larrean

Nik ere, berak nerekin jokatu zuen bezela jokaturako gizon bati zor zaion errespetoarekin, ezin utzi ezer idatzi gabe, eta urrengo zortzi bertso auek jarri nizkion Iruñako *Príncipe de Viana* aldizkarian, *Bertsolaria* izeneko orrian.

Doiñua: Iparragirre abilla dela...

Omenaldi bat egiten zaio
aita Santiri Larrean,
ta oni buruz zerbait idatzi
nai det nere baldarrean.
Olerki ta bertsoak
dituzu gogozkoak,
eta aien alorrean
orrenbeste lan eginda gero
nola utzi baztarrean?

Bertsolari ta olerkariak
nola dituzun kontuan,
ikusi zendun liburu baten
bearra nola genduan.
Milla euskal olerki
moldatzen ain ederki
zenbat lan egin zenduan!
Orren pareko libururikan
ez da neretzat munduan.

Zenbat olerki irakurri ta
zenbat liburu aztertu?
Eta zalantzak ziñun garaian
zenbat tokitan galdetu?
Mendez mende saillean
banaka ta taldean
danak ain ondo agertu.
Amaika aldiz irakurri dut
baiña ezin naiz aspertu.

Beste liburu polit bat ere
badu guretzat egiña,
bertsolari ta bertsozaleok
iñola aztu eziña.
Gure bertsolariak
edo euskal txoriak
aztertuaz alegiña,
euskal kultura ezagutzeko
egindako lan bikaiña.

Bi gauz berezi nunbait gogoan:
Jaungoikoa ta euskera:
orregatikan alor oietan
ainbeste saiatzen zera.
Gau ta egun lanean
gelaren barrenean
txingurri baten antzera,
iritxi zera euskal idazle
guztien lanak biltzera.

Euskal literatura deritza
egiten ari dan lanak,
or biltzen dira lengo ta oraingo
euskaldun idazle danak,
Nungo eta noizkoak,
zer lan egindakoak
ote ditugun izanak,
mundu ontatik joanak eta
oraindik bizi diranak.

Gorputz txikia izanagatik
neurri gabeko indarra,
Euskal Erriko literaturak
bazeukan zure bearra.
Amoroton jaioa
ain idazle iaioa,
Bizkaiko euskal izarra
esan dezagun degula aita
Onaindia karmeldarra.

Ara nik ere nere apurra
naiz gauz aundirik izan ez;
baiña geiago ezin nezake
txit ezjakiña naizenez.
Pozez daukat biotza
joan nairik aruntza
omenaldiko egunez,
aita Onaindia agurtutzeko
besarkada bat emanez.

Emakumea nagusi

Filipinas ugarteetan izan ziran auteskunde batzuek jende asko aztoratu zuten. Asko itzegin eta idatzi zan beraiei buruz. Guk ere, zerbait idatzi ondoren, sei bertso auek bialdu giñun *El Diario Vasco* egunkarira.

Beti-betiko izango zalakoan ibillia izan bear zuen Marcos jauna gogorkeririk izugarrienean, danak jan eta irentsi bear balitu bezela. Baiña aurretik atera zan Aquino lendakariaren emaztea aurka zuen auteskundeetan; eta berak uste ez arren nagusitu egin zitzaion emakume ori.

Ez noski berez ala bear lukelako; baiña garai artan asko arritu zan jendea emakume batek irabaztearekin, eta alaxe jarririk ziran bertso auek.

Doñua: Juana Bixenta Olabe.

Gaurko berriak
arrigarriak,
Filipinas-etatik etorriak.
Askorentzako zer zoriona!
Markos agintari ezaguna
naiz gogor saia,
ez izan betirako artzaia,
eta galdu du bere jargoia.

Ainbeste urtean
an agintean,
erri osoa bere menpean.
Ez da izandu oso leguna,
aurkako ere zerbait zuna,
agur betiko!
Etzuten geiago ikusiko,
ez baizioten libre utziko.

Bai, Markos jaunak,
berdin lagunak,
bukatu dituzte eginkizunak.
Ez dago inor utsik ez dunik,
probaturikan daukat ori nik,
baiña ain gogor
jokatuz gauza onik ez dator.
Obe portatu balitza jator.

Izan du deia,
ez ain alaia,
esanez dala bere amaia.
Gogorkeririk gogorreanean
oitua zegon bere lanean,
eta azkenik
ez du arkitu bide zuzenik,
baiña ez uste saiatu ez danik.

Asmo lizunak
izan ditunak
auteskundetan egin nai zitunak.
Kori Akino aurretik jarri,
ta berak ere noizbait igarri.
Galtzaille txarra!
Tranpak egiten ez ain azkarra,
gogotsua bai, baiña baldarra.

Bere utsegiñak
ez ain ariñak
ogei urtean zear egiñak.
Ainbeste eriotz alde batetik,
erria zorrez bete bestetik,
nola erori?
Arrokeriak galdu du ori,
bere tokian or dago Kori.

Eutsi goiari, Patxi!

Patxi Etxeberria bertsolaria, Orioko semea izanik, antxe ezagutu nuen, mutil gaztea zala. Urte batzuk geroago ezkondu eta Lasarten jarri zan bizitzen arraindegi batekin. Ni ere andik laister etorri ta bere auzo-auzoan jartzea egokitu zitzaidan. Geroztik auzo eta lagun izaten jarraitzen dugu.

Gizon leiala gutxi bezelakoa izanik, amaika tokitan iritxi giñan biok, ni gai jartzen eta jaialdiak antolatzen ibiltzen nintzan garaian. Batik-bat bertsolari bezela ibiltzen zan, baiña epai-maian ere bai. Batez ere Zarauzko *Lizardi-saria* eratzen zan garaian, an izaten zan zintzo asko.

1986 urteko Urtarrillaren 19-an omendu zuten bertsolariak, urtean bati egiten zioten omenaldian, eta egun artako *El Diario Vasco* egunkariaren euskal orrian argitaratuak izan ziran ondorengo nere sei bertso auek.

Etxeberria Zubiriatar
Patxi da bere izena,
Orion jaio eta azia.
Lasarten bizitzen dana.
Gazte denboran bere errian
arrantzalea izana,
gaur egunean arraia saltzen
dendan egiten du lana.

Gazte-gazterik bertsoarako
tajua ekarri zendun,
noizean beinka entzunagatik
askok antzematzen gendun.
Orretarako ogibidea
ain egokia etzendun,
etzan izandu zure errua
nekez azaldu bazendun.

Bein igo ziñan zauden maillara,
geiago etzera jetxi,
bide ortatik jarraitutzea
ez uste danikan gutxi.
Gazteagorik asita ere
danak ez dira iritxi,
gure iritiz orain artean
oso ondo zoaz, Patxi.

Gaur bertsolari izango bada
bearrezko da zentzuna,
gai-jartzailleak eskatuari
emateko erantzuna.
Gorrotokoak dituzu beti
–askotan dizut entzuna–
neurri gabeko arrokeria
eta izketa lizuna.

Aspalditxoko urte auetan
sarritan joaten zera
deitzen dizuten tokietara
bertsoak kantatutzero.
Erririk erri nola zabiltzan
nun-nai duzu ezaguera,
orregatikan omenaldi bat
doazkitzu egitera.

Bertsolari bat omentzen dute
beste guztien tartetik,
aurten zurea dala jakiñik
gaude joan dan urtetik.
Artu itzazu milla zorion
bialduak biotzetik,
Intza txokoan bildutzen gera
zure lagunaren partetik.

Geure buruaren jabe

Egin gera, bai, azkenean ere “geure buruaren jabe”, Don Manuel Lekuona oiartzuar apaiz jakintsuak esan zuen bezela, urtetan eta bear bada mendetan zear ainbeste buruauste eman zigun geure erri izan nai ortara. 1986-ko otsailla ezkerotik, Lasartekoak gera, Jaunari eskerrak; eta ez, len bezela, Lasarte-Ernanikoak edo Lasarte-Urrietakoak eta abar. Lasartekoak eta kitto!

Ori izan zan, nere ustez, erabilli giñun borroka guztietatik garrantzirik geienekoa, eta irabaztea gertatu zan. Lenago genduzkan gabezi bildurgarriengatik jarrita neuzkan bertsoak, triste askoak gaiñera; eta orain, buru-jabetza ospatzeko ere, jarri egin bear zerbait, eta *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ziran.

Milla bederatzireun
larogei ta seian,
eta urte berria
asi dan garaian,
Gipuzkoako Batzar
nagusien maian,
erabaki sendo bat
dabiltz artu naian,
ain bean zan Lasarte
jarri nairik goian.

Batzar oien joera
gutziz egokia,
Lasarte erri dala
da erabakia.
Emezortzi bat milla
biztanlen tokia,
orain arte besteren
mende edukia,
eskerrak izan duten
noizbait errukia.

Ernani ta Urnieta
len jabe izanak,
oienak ziralako
lurralde geienak.
Erri onen sorreran
lagunik onenak,
derrior gutxinakin
utzi digutenak,
zuentzat dira gure
esker beroenak.

Andoain or daukagu
onuntz agertua,
etxe multzo polit bat
mugan zutitua,
Oria auzokoen
tardean sartua.
Etzaitugu izango
bein ere aztua,
izandu zeralako
ongi portatua.

Donosti ta Usurbil
etsai gogorrenak,
gutxikin asko lagun
zezaiguketenak.
Errian bertaraño
sartuta daudenak,
ezin ukatu izan
dirala zekenak,
eskatu arren ezer
eman ez dutenak.

Gauza atsegiña da
aske izatea,
ez baidegu gogozko
lotuta egotea.
Etzaigu iñoiz aztuko
aurtengo urtea,
gaur badugu Udala,
berdin alkatea,
zorionak biotzez,
Lasarte maitea!

Amonatxoen negarrak

Nork ez ditu ezagutzen gaurko egunean ainbeste tokitan nola dabilzan amonatxo asko seme edo alabaren baten aurra zaitzen, eta azitzen ere ez oso gutxi? Baiña errez artzen dira lan oiek, ezertarako gauza ez dala gelditzen danetik, geienetan sobre ikusten dira asko eta. Alamoduzko kasoak ikusita jarri nituen sei bertso auek, *El Diario Vasco* egunerokoan argitaratuak izan ziran.

Arrigarria dugu benetan
gizakion izakera:
jaiotzaz aulak eta makalak
guztiok izaten gera;
ainbat urtean laguntza bear
aziko baldin bagera,
azi ta gero ezitzen lanak
irtengo bada aurrera.

Azi ta ezi diran garaian
lana arkitzen dutenak,
danak ez nuke esango baiña
ezkontzen dira geienak.
Eta obeto ikustearren
oiengandik datozenak,
ez dira gutxi amonak artu
eta azten dituztenak.

Umetxoentzat zer itz politikak:
aitona eta amona!
Ta batez ere azkeneko au
umetxoen zoriona.
Baiña ez al da arrigarria
onen ondoren dagona,
amona askori gaurko egunez
gertatzen ari zaiona?

Seme-alabengatik lenengo,
gero billobengatikan,
gauza dan bitartean amonak
ez dauka atsedenan.
Baiña gelditzen dan egunetik
lanik ezin egiñikan,
aitzaki danak egoki datoz
bialtzeko etxetikan.

Lengo kontuak aztutzen dira
egun batetik bestera,
laguntza bear dugun garaian
traste zar biurtzen gera.
Ezertarako gauza etzerala
gelditzen baldin bazera,
laister or zoaz ospitalera
edo asilon batera.

Tristura latza sortzen dan arren
gauza auek ikusita,
ez dugu ezer aurreratutzen
aldez aurretik etsita.
Itxaropenan ate guztiak
ez daudelako itxita,
saia gaitezen geure aurtxoei
maitatzen erakutsita.

Eskerrak emanetz

Urte batzuk izan nituen, jubilatutik ondorenean, arraldera maiz joaten nintzanak, lanperna usaian beste ezer baiño geiago, baiña beste gauzei muzin egin gabe. Arraldean arrapatu zitezkeen guztia ona izaten zan, lanpernik ezin zanean.

Lanpernetarako oso itxaso ona ta itxas-berako puntta uraxe bear izaten du; eta, bein joan ezkererantz zerbait ekarri egin nai izaten denez, askotan edo beti eldu egin bear zerbaiti: bateko muskulluak dirala eta, besteko, ixkirak, arrai-txikiak edo lapak, besterik ezin zanean.

Lagun bat banuen ortan asko zekiena: Juan Peña, *Joanito Saabe* esaten geniona (g. b.). Aipatzera noan egun artan ere arekin nintzan.

Beste bi lagun ere bagiñun eta, oso arrantza polita egin genduenean, oso pozik etxeraka asi giñan arte. Baiña laister izan ziran kontuak.

Eskerrak emateko jarritako bertsoak ziran auek, eta *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ziran.

Milla bederatzireunerekin
larogei eta zazpian,
eguna berriz urte ontako
Maiatzan ogei ta seian,
erori txar bat badut egiña
eta ez oso zelaian.
Itxas-ertzerantz joanak giñan
zerbait arrapatu naian,
ta ezbearra sortu zitzaigun
pozikan geunden garaian.

Lau lagun bildu ta joan giñan
goizean garaiz antzean,
«Au duk giroa!» giñon alkarri
bertaraiño irixtean.
Saiatu giñan jo ta ke laurok
lanean itxas-ertzean,
arrai koxkorrak azkar jasoaz
bein amuari eltzean,
alakoetan iñork ez baitu
nai gelditzerik atzean.

Pozikan geunden, egin genduen
berebiziko arrantza,
geure ustetan artu baigendun
arrantzale onen antza.
Baiña luzaro baño lenago
sortu zitzaigun arantza:
etxe aldera abiatzean
egin dut nunbait balantza,
an joan nintzan zilipurdika
arrokan goitik berantza.

Erori eta arri tartean
sartu naiz ez dakit nola,
nere almenez andikan iñoiz
ezin atera iñola.
Aitortutzen det lagun jatorrez
inguratuta negola,
gaur bizirikan baldin banago
aueri esker nagola:
Joanito Peña, Justo Jauregi
ta Joxe Mari Artola.

Auen orduko estutasuna
nik nola adierazi?
«Buru-ezurra autsi ta il duk!»
pentsatu zuten lenbizi.
Belar gaiztoa galtzen gaitza ta
ni ere oraindik bizi,
ainbat alegin egiñaz neure
onera ekar arazi,
zuentzat nere biotz barrendik
milla esker eta grazi.

Andik atera eta eraman
ninduten toki onera,
Gurutx Gorria deitzen diogun
klinika ezagunera.
Sendagille ta gaixozai danak
mojatxoekin batera,
eskertzen diet neregana
izan duten portaera,
azkenik dana sendatu eta
etorri naiz Lasartera.

Agur bati eta ongi-etorri besteari

Lasarteko Zumaburun erretore egon zan gure mendiko lagun izandako don Bartolome Auzmendi, guretzat Bartolo; eta Donostiko Amaran dagoen eliz batera, *Sagrada Familia* deritzanera, ain zuzen, joan zan emendik. Orain Artzai Onaren katedraleko erretore dago. Ari agurra egiñez bezela jarri nituen bertso auk; eta, bide batez, aren lekura zetorren don Ramon Uribe Etxeberria jaunari ongi-etorria eman ere bai.

Bartolok bi eliza eraiki zituen: bata Zizurkilgo Elbarrena auzoan, eta bestea emen, Zumaburun, biak Arantzazuko Amari zuzenduak. Bietan jende etorkin asko eta lan aundia egin bearra egokitu zitzaion, jende ezberdiñak alkartzen.

Arantzazuko Ama Birjiña
maitatzen nunbait benetan,
berarengana joko zenduen
zeure estuasunetan.

Bere izenez jaso dituzu
elizak toki bietan,
nola Zizurkilgo Elbarrenan
ala Zumaburun bertan,
eta zurekin izan dedilla
zoazen toki danetan.

Oitura duzu aspalditxotik
lanik txarrenai eltzeko,
apaiz jatorren jokabidea
nola dan azaldutzeko.
Galderatxo bat badaukat orain
denboraz erantzuteko,
bitara ezkeru iru seguru
dirala egiztatzeko;
bai al dezu or elizaren bat
berria eraikitzeko?

Gauza guztiak berekin dakar
beti bere ondorena,
guretzat ez da gozoa izan
aldaketak dakarrena:
orrekin galtzen baidugu orain
mendiko lagun onena,
nundik nora jun bear genduen
erabakitzen zuena.
Agur, Bartolo, eta ondo izan,
bete Jaunak nai duena.

Bazoaz orain eta badator
zure tokira berria,
biotzetikan eskeintzen diot
nere ongi-etorria.
Itxaropena oso-osorik
daukagu zugan jarria,
denborarekin artuaz lasai
gauzari bere neurria,
izanez bertan jaiotako ta
etorkiñen lokarria.

Agur, Iturbe

Erriko jaietan guttiz bearrezko elementoa zan garai batean Iturbe. Batetik txaranga edo orrelako zerbaitetan oso par-taide izan oi zan, eta bestetik erria egin baiño lenagotik gauza gutxi izaten zan errietatik.

Ezer egin nai baldin bazan, emen bertan bildu bear izaten zan, eta ortan iñor ez Iturberen antzekorik. Andik eta emendik trofeoak sortzen zituen arek.

Baiña ari ere etorri zitzaion beste gutzioi egunen batean etorri bear zaiguna: guztion jabea dan Jaunak deitu zion eta joan zan gizarajoa (g. b.).

Urrengo erriko jaietan, bere omenaldikoan, *El Diario Vasco* egunkarian jarriak dira lau bertso auek.

Erriko festak etorri dituk
udararekin batean,
aurten i gabe moldatu bear
lendabiziko urtean.
Saia gaitezen gauzak itxuraz
ateratzeko ustean,
iretzat ere oroipentxo bat
izango al duk tartean.

Ez uste gero egun batetik
bestera aztuko aizenik,
gure artean ibilliko aiz
danon gogotan izanik.
Ez gaizki artu ire lagunak
ondo bearrez esanik:
gure artean ez duk aztutzen
i bezelako gizonik.

Mundu ontako egun laburrak
bukatzen zaizkigunean,
joan bearra zeukagu danok
oker edo zuzenean.
Emen iñori kalte aundirik
egin ez diokenean,
nere iritziz or egongo aiz
betiko atsedenean.

I joateaz samindutako
etxeko eta lagunak,
egun auetan ire oroipena
gogora etortzen zaigunak.
Ez dek erreza danak aitortzen
ik egin ituken lanak,
baiña guztia ordainduko dik
zeru eta lurren Jaunak.

Negu ta udara luzeak

Lur-buru edo poloetako antza artzen ari ote geran itxura artzen diot, legor-urte demonio auetan artzen ari dan bezela, udaratik negura eta negutik udarara, tartean beste ezer gabe.

Gu ez dakit ortaraiño iritxiko geran; baiña ez dit batere grazirik egiten daramakien bideak. Bildur naiz joan dan urteko joera bera eraman bear ote duen aurtengoak ere. Itxurak ala dira beintzat.

Joan dan urtean, udara guztian ezer atera ez, eta udazkenean belardi guztiak barrengorri edo txanpiñoiz bete ziran, euria asi zuenean. Gogoan daukat, azaroaren amabia zan, San Martin bigarrena, goiz batean Añorga aldera joan nintzan eta, Unanue-zarreko beiak larrean zebiltzan tokietan, txanpiñoi multzo polita jaso nuen garaian, euria asi zidanean, etxerako bidea artu nuen; eta belardian gora nijoala, nabaitu nuen tartean zerbait txuria ere bazala. Laister zan elurra mara-mara

Andik goraxeago, baratza bateko esi-ondo batean, berebiziko txanpiñoi mordoak billatu nuen; eta, aiek artzen ari nintzan bitartean, elurra zuritu zidan une batetik bestera. Uraxe bai zala kolpean udaratik negura pasatzea. Udarako gauzak, txanpiñoiak, ain mardul eta ugari zeuden arren, momentu batean elurrak dana zuritu zuen alajaiña.

Era ontako idazlan baten ondoren jarriak ziran bi bertso auek, eta *El Diario Vasco* egunkarian atera ziran.

Sei illabete negu,
beste sei udara,
bildur gera ez ote
goazen ortara.
Len urrutian zana
badator bertara,
pentsatze utsarekin
datorkit ikara

Zenbaitentzat izango
da lilluragarri,
baiña neretzat ez da
batere pozgarri,
Agur, udazkena, ta
agur, udaberri!
Len lau arotan zana
orra bitan jarri.

Urteak aurrera

Mutrikutik asi ta Ondarrabira tarteko erri guztietako kintoak biltzen giñan. Urtean toki batean egiten zan billera. Oso pozik giñan, baiña urte batetik bestera berebiziko jetxiera egin genduen, Mutrikun bildu giñan batean.

Jendeak gogo gutxi du nunbait
joateko urrutira,
eta taldea gutxitu zaigu
lengo irutatik bira.
Urrengo urtean Pasaian gera
kasikan erdi bidera,
aurten etxean geldituk ere
geienak joango dira.

Gogoan izan ainbeste urtean
lagun maiteak izanik,
orain zartzera setan asita
ez datorkigu gauz onik.
Bildu gaitezen berriro ere
ez bada eragozpenik,
gugatik iñork ez dezan esan
zartu ta txartu geranik.

Lazkao-Txikiri

Lazkao-Txiki bertsolari aundiari Donostin omenaldia egin zioten egun berean argitaratu ziran zortzi bertso auk. *La Voz de España* egunkariaren barrenean ateratzen zan igandeetako euskal orrian.

Ezbairik gabe ondo merezitako omenaldia, nere ustez. Alakoxe gauza berezi bat baizuen Lazkao-Txikik berekin, beste ñori nabaitzen etzitzaiona; eta ori berekin eraman zuen, gaiñera. Nik esan izan nion berari:

–Ik bertsoak idatzi egin bear itukek, Joxe Miel.

Eta beraren erantzuna:

–Bai; pentsatsen diat neuk ere. Baiña berandu joaten nauk etxera; ta ori zeukeat utzi bearra eta ezin utzi.

Joxe Migel du izena eta
Iztueta abizena,
Lazkao-Txiki izenordekoz
ezagutzen da geiena.
Urtean zear ainbeste bertso
eder kantatzen duena,
euskal baratzen gaur daukagunik
lorerik usaintsuena.

Bilintx urtean egokitu da
zu omentzeko eguna,
bertsolari ta bertsozaleok
pozik ospatzen duguna.
Ai, Joxe Migel, nola daukazu
gaur zure biotz biguna,
ikusirikan Euskal Erriak
zugan duen maitasuna?

Egi guztiak ez dira beti
eztia bezelakoak,
aitortutzero nijoia orain
neuri gertatutakoak.
Amaika aldiz atera zaizkit,
entzunez zure bertsoak,
ezpaiñetara irriparra ta
begietara malakoak.

Lengo batean ipiñi nizun
gai xelebrea nik zuri:
bi bertso bota bear zenizkan
neskatx baten muxuari.
Ederragorik ez diot entzun
nere bizitzan iñori,
orregatikan bereizten zaitut
maitasunaren koplari.

Buru argi ta azkarra duzu
eta etorri bikaiña,
entzumen edo belarri ona,
erdoi gabeko mingaiña.
Arrokeririk ez duzu berriz
arkumetxo batek aiña,
Euskal Errian iñoiz aztuko
etzeran lore apaiña.

Zenbat umore eder zabaldu
diguzun gure artean
nai izan arren ezin esan nik
iñolaz bertso batean.
Erririk erri ortan zabiltza
joan dan zenbat urtean,
eta lan orri ez utzi arren
bizi zeran bitartean.

Bakoitzak bere iritzia du
gizarteari begira,
baiña iritzi ori ukatzen
dutenak ere badira.
Beren aldeko ziranentzako
bakarrik zuten kupira,
zuretzat ere urte gozoak
ez diranak izan dira.

Negu gaiztoak beren ondoren
dakarki udaberria,
badirudi gaur ekaitz artatik
atera dala erria.
Urte askoan eraman duzu
eraso izugarria,
gaurko au izan dedilla egun
latz aien gozagarria,

Udaberriari

Lasarte-Oria aldizkaria 1984-an agertu zan lenbiziko aldiz. Nik ez nuen parterik artu aurrenetik. Nere asmoa zan jubilatutik ondoren ezertan ez sartzea aldi batean beintzat, eta ala jakin arazi nien esan zidatenean. Baiña laister nintzan berriz ere lengo bidetik zear, edozein tokitan muturra sartzen nuela; eta 1989-an, berriz esan zidatenean, artu nuen azken orria betetzeko eginkizuna, eta or nunbait ari naiz betetzen orain artekoa, nere neurrian, baiña zerbaitekin bete.

Amabigarren aletik asi nintzan, eta berrogei ta amargarren alea bete genduen, eta aurrera jarraitzeko ustean orain ere. Zer nai duzu? Ekiñaren eragiña ikusten dala uste dut eta zorionak bere eragillerei. Zuek etxerako! Lan bikaiña egiten dutena, ango ta emengo berriak eta batez ere emen Lasartekoak, nola agirian dabilzanak eta lenago gertatutakoak, danetik dakar aldizkari onek erriaren gozamenerako, eta jarrai dezala luzaro ortan. Aldizkari ortan argitaratu ziran udaberriari jarritako sei bertso aukeratuak.

Kantari natorkio
udaberriari,
nun-nai edertasuna
baidigu ekarri.
Zorra badiogula
ain dago nabari,
esker ona azaldu
nai diot berari.

Ainbeste gauza daude
lilluragarriak,
eldu dan udaberri
onek ekarriak.
Ainbeste txori moten
abesti nasaiak,
loretxoek kolore
ta beren usaiak.

Beren edertasunak
dira ugariak,
ekarriz aldaketa
ikaragarriak.
Emen dabiltz kantari
onuntz etorriak,
enara, kuku eta
antzeko txoriak.

Mendian gozatzeko
gure ikusmena,
osto ta lorez jantzi
soillik zegoena.
Kolore eta usai
ori gozamina,
antzeman eziñikan
zein dan ederrena.

Loreak milixkatzen
baratzan erleak,
lotatik esnatuta
or dabiltz taldeak.
Pozturik eguzkia
ta osto berdeak
orain agertzen dira,
neguan gordeak.

Emakume gazteei
jar zaitez begira,
lengo galtza luzeak
ezkutatu dira.
Gona motxak iritxiz
iztarren erdira,
monumentu ederrak
ikusitzen dira.

Golfoko gerra

Ainbat zalaparta atera zuen gerra onek uste genduen azkena bear ote zuen, ta sei bertso jarri nizekion *Lasarte-Oria* al-dizkarian:

Gutziz berri zakar bat
dakarkit gaurkoan,
nola dabillen orain
guztion gogoan.
Sinistu egin dugu
ikusitakoan
gerra sortu zaigula
Persiko kolkoan;
azkar bukatzekotan
zan asitakoan.

Bateko Bush dala ta
Hussein besteko,
presaka ziran biak
gerra au asteko.
Onezkero badute
gogoan uzteko,
baiña itxura gutxi
dago bukatzeko,
ez baidaduka iñork
gogorik galtzeko.

Tranpa guztiak onak
dituzte berentzat,
kalte badator beintzat
beste iñorentzat.
Gordelekuak arma
ta militarrentzat,
edozein zulo ona
andre ta aurrentzat,
geien iltzen diranak
oiek dira beintzat.

Ori ikusitzeak
ematen du pena,
amaika errugabek
an dauka azkena.
Misillak bota arren
militarregana,
berdin joaten dira
andre ta aurrengana,
olako zerbait bada
Bagdad-en izana.

Hussein-ek Kuwait artu
indarrez aurrena,
amerikarrak oiei
eraso urrena.
Geroztik ari dira
purrukatzen dena;
egazkiñak bezela
misillen izena
da gure mingaiñetan
dantzan dabillena.

Hussein au zigortzeko
misillak bialdu,
Irak bear dutela
suntsitu ta auldu.
Sadam Hussein-ek ere
bide orri eldu;
gerra onetan ere
gertatu bear du
iñork irabazi ez
eta danak galdu.

Ondo igaro

Lasarte-Oria aldizkari onek ere, beste askoren antzera, bolara batzuk oparagoak eta besteak murrizagoak izan ditu. Adibidez, urtean lau ale atereaz ibilli zan; iru ere bai; baiña eutsi egin diote urtean biko orri, eta ez da gutxi.

Egunak luzatuaz,
gauak laburtutzen,
mendi eta basoak
danak edertutzen.
Zugaitzak ostoz jantzi
eta loratutzen,
udaberria dala
dugu nabaitutzen.

Jarraituaz negu txar
eta zitalari,
beti bere garaian
dator udaberri.
Bizia demaiola
bazar guztieri.
Oraintxen emango dut
gauza oien berri.

Neguakin borrokan
ari giñan larri,
ta zuk pixka bateko
lasaiturik jarri,
Nola zar ala gazte
danon alaiagarri,
poza ta itxaropena
dituzu ekarri.

Gozatzen gera orain
lore usaiakin,
erleak ere aien
autsak biltzen ekin.
Txoriak ere berdin
beren kabiekin,
izadiak zenbat zor
ote du zurekin?

Birigarroak ere
saiatutzen dira,
beren kantu ederrez
alaitzen lurbira.
Enarak datoz lengo
urteko kabira,
iñor ez da aspertzen
gauz oiei begira.

Mendizaleontzako
garai ederrena,
zalantzarikan gabe,
orain datorrena.
Ondo igaro danok
lendik zai geundena,
udaran etorriko
gerade urrena.

Ongi etorriak

Erriko jai nagusiak etortzean ezagun izaten da orain Lasarten: batetik, len jartzen etziran gauza asko jartzen dira; eta, bestetik, garai bateko koordinaziorik-ez ura ez da nabaritzen. Izan ere, orain toki danak ordaintzen dira, eta orrek badu bere alde. Bestetik, berriz, orain erria danez, diru geiago izaten da. Langabezia sortu zan, eta latza gaiñera zoritxarrez, bertso auetan adierazten danez. Alaz ta guztiz, jaiak bukatu arte aztutzeko eskatzen genien erritarrei.

Doiñua: Juana Bixenta Olabe.

Erriko jaiak,
egun alaiak
gainditu bitza gure onginaiak.
Alkarturikan zar eta gazte,
eziñezkoa danik ez uste.

Atoz etxera
erriko jaiak igarotzera,
zeure etxeokak ikustera.

Danen gustoko
ez da izango,
baiña bada zerbait danentzako.
Beste nunbaiten bizi bazera,
atoz zeureak bisitatzera.

Atsegin aundiz
artuko zaitugu emen berriz,
aldatu izanagatik erriz.

Garai batean,
gure artean
naikoa lana zan bitartean,
jendea onuntz aldi guztitik.
Gaur badijoaz asko etxetik
ogian billa,
naiz neska eta naiz mutilla.
Ortikan dator gure naspilla.

Lan arazoa
naiko gaiztoa
dago gure artean sortua.
Zerbait lantegi itxi zaizkigu,
beste batzuk erdizka ditugu.
Etorkizuna
ez da oraintxe oso leguna,
Lasarte ontan gaur daukaguna.

Gaur Lasarteko
gazteentzako
lantoki bat bakarrik ez dago.
Sasoiratzean nun lana egin?
Nai izan arren inork ez jakin.
Au egoera!
Lan egin nai ta falta aukera,
toki onera erori gera!

Egun auetan
erri onetan
arkitzen gera bertako jaitan.
Egun batzutan aztu ditzagun,
geienaz iru edo lau egun,
langabeziak
eta onen ondoren tristiak,
igaro arte festa guztiak.

Bosnia errukarriena

Balkanesetako gerra izenarekin ezagutzen zan gerra, luzaroan irauteaz gaiñera, sarraski gogorrak ere izanak izan bear zuten bertan, eta ospetsu egin zan. Gure artean etzan beste gauzarik, orrek ainbeste toki artzen zuenik. Batez ere Serbia ta Kroaziaren gogorkeriak asko aipatzen ziran; baiña Bosnia ez ainbeste.

Gero, berriz, ez bat eta ez bi, orra or nun gelditzen zaigun berau bakarrik: Kroazia ta Serbiaren aurka gerran jo ta su. Iraun gaiñera bere ortan, bata bestearen aurka sarraskiak egi-ten.

Guk, batez ere ango zar, emakume ta aurrengatik errukitu-rik, sei bertso auek jarri genizkion *Lasarte-Oria* aldizkarian.

Bosnia aldetikan
dauzkagun berriak,
guretzako ez dira
oso pozgarriak.
Egunero badatoz
albiste larriak:
illak mordoka eta
asko elbarriak.
Erri xume batentzat
zer zuzpergarriak!

Neguan toki otza
izanikan berez,
etxeak puskatuak,
berogarririk ez.
Nai ta ez egon bear
aulduak adorez,
asperturik bizitzen
betiko dolorez,
eriotzan aurrean
ikararikan ez.

Asi baziran ere
setan alkarrekin,
etzioten denbora
gutxirako ekin.
Lendik ere naiko lan
zutenak berekin
ango langabezia
eta krisisekin,
orain geiegi berriz
gerra txar orrekin.

Yugoeslabia zan
len garai batean,
alkarri gerran ekin
zioten artean.
Uste dut izan dala
danentzat kaltean,
akordatuko dira
egunen batean
ola baiño obeto
zirala pakean.

Kroazia batetik,
Serbia bestetik,
Bosnia or atera
da bien tartetik.
Besteak ixilduta
jarraituakgatik,
berririk illunenak
datozte bertatik,
errukarrien bera
da iruretatik.

Orrenbeste denboran
gerran jo ta kean,
len juxtu zebiltzanak
sartuaz oinpean,
dana purrukatu ta
kixkali artean.
Moztu lezaketenak
dabiltz apartean,
ez da petroleorik
bertako lurpean.

Zartzaroaren ajeak

Geuri zer zetorkigun pentsatu gabe jarri nituen bertso auek. *Lasarte-Oria* aldizkarian agertu ziran. Eta gero zapla! Neuri etorri, ajalaiña! Lagun batek kontatu zizkidan gertakizunak dira, bere bizimoduari buruz, ain zuzen, geitxo esaten ote zuen pentsatuz. Baiña orain konturatzen naiz etzuela geiegirik esan. Batekoz bestera: arek ziona baiño askoz gogorra goa egin bearrean asko gaude.

Doiñua: Aizak i, mutil mañontzi.

Joaten zaigunen urtea
badatorkigu bestea.
Ortan gero ta zarrago goaz,
au gauza tristea!
Badugu naiko nekea
urte asko izatea,
eta ederki probatzen dugu
zer gaitz dan zartzea.

Guztiok nai dugu zartu,
ezin gentzake ukatu,
gazte general ez baidegu nai
mundu au bukatu.
Urtez bizkarra kargatu
eta gerriak makurtu;
gaitz onentzako sendagairikan
ezin da asmatu.

Zenbat jende errukarri
ikusten dan erriz erri,
zutik ibilli eziñik ortxe
dabiltzanak larri.
Begira daudenak orri,
kiñu egiñez alkarri,
esaten dute: «Gizarajoa!
Zartu zaiguk ori!».

Egiten badu negurik
zarrak daude ondaturik,
ez baida sortu gure gorputzak
berotzeko surik.
Ikusi arren aulduarik,
indar guztiak galdurik,
iñork ez dugu beste mundura
joateko konturik.

Luzaro jardun lanean
sasoia genduanean;
erretiroa iritxi zaigu
auldu geranean.
Medikuen esanean,
kontuz jan ta edanean.
Komenentziak alperrik dira
zartzen geranean.

Kontuz ibilli gatzakin,
kontuz txerriarekin,
baitare kontuz ibilli bear
da alkolarekin.
Kontuz gozodun gauzeekin,
aragi eta saltsekin;
zartuta bizi nai badu kontuz
gauza guztiekin.

Maratoia

Lasarten oitura bazan lenagotik ere eta, *Ttakun* elkartea sortu zanetik, nik ere parte artu nuen *Euskeraren Maratoia* deitzen dan jaialdian. Berrogei ordu euskeraz itzegitea zan elburu plazan. Bat edo bestea, zerbait esaten ari bear izaten da. Tartean kirolak ere izaten dira; baiña aiek ere euskeraz komentatu bear, eta olaxe orduak bete bear. Tartean bertsolariak ere kantatzen dute.

Gauza izugarria danik ez nuke esango. Baiña, Lasarten euskera nola zegoen ikusiz, zerbait zan. Ta gaua pasa ta beste eguna ere or gelditzen da. Naiko lanak ematen zituen, daretarako gaiak sortzen. Zortzi laguneko ekipoa zegoen esatarri bezela izendatua, eta jator bete zuen bere egitekoa, jendearen ustez.

Lasarte-Oria aldizkarian atereak dira sei bertso auk.

Doiñua: Iparragirre abilla dala.

Azaroaren zazpi ta zortzi
zer egun zoragarriak!
Berrogei ordu euskera utsez
genduzkan mugak jarriak.
Egun artan Lasarten
zerua ziruditen,
ain ziraden pozgarriak:
danak euskeraz bertako eta
kanpotikan etorriak.

Gutziz egoki antolatuak
zeuden jaialdi guztiak,
bai gaiñetikan lagundu ere
ederki eguraldiak.
Jendean alegiñak,
ain gogotsu egiñak,
jaso zituzten graziak,
talde bikaiña osatuaren
merituz irabaziak.

Berriro ere orrelako bat
egin gentzake illero,
egun oietan lortu genduen
emaitza lortze ezkeror.
Zenbat entzuten ziran
euskeraz gure jiran
mintzatutzen bero-bero!
Egun oietan orrela eta
zergatik ez egunero?

Egun batean sortu zitzaigun
emen *Ttakun* elkartea,
bere lenengo urteurrena
oraintxen digu betea.
Artu digun joera
zabaltzea euskera
nola jai ala astea;
dakienari itzegiñazi,
besteai erakustea.

Lanaren bidez orra nolatan
lortu emaitza bikaiña;
erria ere portatua da
guk uste ez gendun aiña.
Itzegin dakitenak,
ikasi beste denak
gure euskera apaiña,
Lasarten ere izan gaitezen
beste nun-naikoak aiña.

Aurrera ere egun politik
dauzkagu iragarriak,
nola datozen egun gutxira
Gabon ta Eguberriak.
Trago batzuek artu
eta ondo pasatu
ditzala gure erriak,
eta maitasun onenez artu
Urte Zar eta Berriak.

Ni naizen bezela

“Jaio nintzan, bizi gera, ez duzu ezer eskatzen” dio kantu ospetsu batek, eta guk ere orixe esan genezake gutxi gora-berra- Gauza batzuk aldatzen dira egun batetik bestera, baiña besteak or daude lenean. Gu jaio giñan bezela edo alatsu jaio ziran gure ondorengoak, eta berdintsu datoz aien ondorengoak ere. Ori izadiarekin konparatuta ere berdin-berdin gertatzen da. Lore batzuk egun batekoak izaten dira; eta or daude arkaitzak, mundua mundu danetik dirautenak. Olaxe dijoa gure mundualdia. Gauza ikusgarriak egiten ari geralakoan eta utsa. Emen gerorako ezerk ez digu balio.

Baiña egiten ari geran aldaketak aipatu ditzagun. Batez ere eziketa aldetik uste dut nik alderik aundiena egiten ari dirala gure egunetan; eta gero orrek ekartzen dituen aurrerapen ikusgarri oiek. Ikasketa eta araketa (*investigación*) dirala bide, datoz aurrerapenak.

Nik beti izan dut miña eskolan ikasi ezarena, ta aundia gaiñera. Orregatik jarri nituen sei bertso auek *Lasarte-Oria* aldizkarian.

Bere garaia iritxitzean
agertu nintzan mundura,
billutsik edo larrugorritan
ez lotsa ta ez ardura.
Jaio orduko negarrez asi
beste guztien modura,
urteak joan arren oraindik
aldatzen ez dan oitura.

Jaiotzen danak bizi-naia're
ekarritzen du berekin,
orixe adierazitzen du
aurtxoak negarreakin.
Orregatikan azi ninduten
amaren bularrarekin;
ala esaten zidaten beintzat,
bestela ezer ez nekin.

Gure eskolarako garaia
izan zan naiko laburra,
bolara artan sortua baizan
emengo gerra maltzurra.
Berak ekarri zizkigun guri
gosea eta bildurra,
ori orrela etzala izan
esango banu: gezurra.

Artean oso gazte giñala
beartu lanen astera,
eskolarako etzegon baiña
ortako bazan aukera.
Geroztik gure bizimodua
lan batetikan bestera,
larre motxean bizia lortzen
ederki oituak gera.

Ai zeñen gauza zoragarria
zan gure gazetetasuna!
Orduan baida jolastu naia,
poza ta alaitasuna.
Begiak argi, ankak ariñak,
indarra ta osasuna,
pasatzen asi artean iñork
ezagutzen ez duguna.

Gazte sasoiari igaro giñun
guztiz une pozgarriak,
gauz ori ondo ezagutzen du
gure zartzaro larriak.
Zorionean igaro danok
Gabon ta Eguberriak,
ondo bukatuz obeto asi
Urte Zar eta berriak.

Ongi-etorri

Illunpetako jaiak gure gogozkoak ez izan arren, aurrera egiten dute; ta, gauza berriak ez diranez, onartu egin bear, nai ta nai ez.

Garai bateko gizon zarrentzat etziteken egokia izan; baiña, oraingoai ala baderitzaie, oraingoentzat bear dutenez, egin di-tezela berak nai dutenean.

Beste berri bat ere badakarkigu gaur zorionez: *Ttakun* el-kartearen etorrera, ain zuzen. Euskeraren alde lan egiteko asmoan sortua izan da eta badauka lana. Gure Lasarte ontan, ka-lean barra-barra euskeraz itzegiten dala jartzea eziñezkoa ez, baiña oso zailla da gure egunetan beintzat.

Zer egingo da? Guztiz lan zailla dauka; baiña jaio zanera-ko ere, eta bildurtu ez geranez, ekiñaren eragiñak zer egiten duen denborarekin ikusiko dugu.

Zer burutapen etortzen diran
erriko jaiak elduta!
Gazte denboraz oroitutzen naiz
egonagatik zartuta.
Andik onuntza gauza guztiak
daduzkagu aldatuta,
gauezko festak jarri dituzte
egunekoak kenduta.

Arrigarria izan ziteken
lengo aitona zarrentzat,
baiña urtero gertatzen da ta
ez da berria guretzat.
Gaiñera erori zaigun guztia
artu egin bear aintzat,
obea edo txarrago izan
oitzen ari gera beintzat.

Illunpetako jaialdi oiek
ospatutzen diranean,
erderazkoak izaten dira
beti edo geienean.
Pozgarritxo bat badugu aurten
Jainkoaren izenean:
talde berri bat asi zaigula
euskeran alde lanean.

Ama Euskera nola daukagun
Lasarte ontan aulduta,
etorkiñak ez dute ikasi,
bertako asko aztuta.
Elkartetxo bat bada sortua
orrekin konturatuta,
zaindu nairikan gure izkuntza
bere altzoan artuta.

Zar eta gazte bildu ondoren
osatuaz elkartea,
txuri ta gorri ta *kikirriki*
ai zer nolako nastea!
Elburu batek lotutzen gaitu
eta or konpon bestea!
Danon artean salba dezagun
gure euskera maitea.

Ikusirikan nola zegon ain
egoera makalean,
naigabeturik *Ttakun* taldeak
artu digu magalean.
Ikustaldi bat egin deiogun
damagunak odolean,
Jaietarako txokoa or da
Sagardotegi kalean.

Gorrotoa lege

Urte gogorrak igaro ziran, eta dira oraindik. Baiña tiro-otsak ixildu ziran eta bakoitza bere lanean ari dira. “Pake txarrrena obeago da gerlarik onena baino” esan zuen Iparraldeko bertsolari batek.

Lasarte-Oria aldizkarian argitaratu ziran lau bertso auek.

Asi gaitezen gain-begiratzen
nola dabilzan Afrikan:
alkar suntsitzen ez duten arte
ez dute atsedenikan.

Naiz ez eduki bear ainbeste
janik eta edanikan,
gorrotoakin eusten diote
gorputzari bizirikan.

Alde batetik *hutuak* daude,
bestetik berriz *tutsiak*,
bien tartean gertatzen dira
naikoa gauza bitxiak.
Gizonak gerran jarri zituzten
beren alegin guztiak,
emakume ta beren umeak
zeuzkaten Zairen utziak.

Buruan artu dituzten tresnak
eta oin utsetan denak,
emakumeak erakutsitzen
dituzte beren kemenak.

Ume artean agertzen dira
besomoz eta errenak,
telebistatik ikusi eta
pena ematen dutenak.

Milloi bat lagun Ruandatikan
Zairera igesi joanak,
urte pare bat gutxieneko
an dituzte iraganak.
Ruandan lendik zeudenak ere
mantentzen naikoa lanak,
arrera latza izango dute
orain iristen diranak.

Errukia noizko?

Errukia esan egiten da; baiña ez da iñundik ere erreza begien bistara agertzen. Batzuekin era batera egiten bada, besteekin beti norbaitekin utsegin bearra dago.

Baiña pakerik izango badegu, nai ta nai ez asi bearra daukagu norbaitek biotzez biguntzen.

Lasarte bezelako erri koskor baterako arri pisu ta gogorra da orrenbeste preso edukitzea; baiña gutxitzeko itxurarik ez da iñondik ikusten.

Lau bertso aukeratuak, bederatzi puntukoak, *Lasarte-Oria* aldizkarian atereak dira.

Udazkena joanik
neguan sartua,
Jesus Belenen jai
zan gau santua.
Eguna labur eta
gau luzatua,
ortzea goibel dago
lurra izoztua.
Gizona poztua,
gogoz onartua,
gau bedeinkatua
gutziz paketsua,
gure Salbatzailleak
aukeratua.

Ondo pasa ditzagun
aurtengo Gabonak,
lagundu dezaigula
guztion Jaunak,
asko ez dira noski
olako egunak,
munduan pasatzeko
guk daduzkagunak.
Maite ditugunak
senditar kuttunak.
orobat lagunak
eta ezagunak,
gutziori pakea
ta zorionak.

Pasatutzean Gabon
eta Eguberri,
ondoren datoz Urte
zar eta berri.
Dei bat egiten diot
urte berri orri;
guziok bizi gera
zorion egarri.
Baiña nork ekarri?
Ontan gabiltz larri,
zuri eta gorri,
guztion pozgarri;
aurtengoan etzaitez
utsik etorri.

Gogoratzen zaizkigu
falta diradenak:
gaixo, atzerrin eta
preso daudenak.
Ez ditu aztu bear
gure oroimenak
maite ditugun eta
maite gaituztenak.
Arreman zuzenak
izan ginduzenak;
aietan geienak
pasatutzen penak...
Lenbailen eldu bitez
etxera denak.

Beloki

Sasoi gogorrarekin irten zan eta pozik jarri genizkion lau bertso auk, geure apurtxo adierazteko pelotari gazte bikaiña dan Belokiri. Urte artan nagusitasun osoa agertu baizuen eskularien artean, eta batez ere buruz-buruko jokoa.

Iruñan bertan egokitu nintzan Eugiren aurka jokatu zuen egunean, eta ala nien inguruan nitueneri:

–Aurtengo txapela seguratu dik orrek.

Esan eta izan, alaxe egin zuen urte artan ogei urteko mutiko onek: danak zapalduz, aurrera joan zan txapela jantzi arte.

Bertso auk ere *Lasarte-Oria* aldizkarian argitaratu ziran.

Gure pelotak izandu dezan
aldizkari ontan toki,
eskuz-eskuko txapelketa bat
izan liteke egoki.
Aurtengo ontan azaldu zaigu
preparatua ederki,
ogei urteko mutil gazte bat
deitzen zaiona Beloki.

Bere lenengo agerraldia
Eugiren aurka izan zan,
Iruñan bertan jokatu zuten
Labrit deritzaion plazan.
Aren jo bear bildugarriak
etzuen neurririk izan,
nola botean ala aidera
danetan nagusi baizan.

Bigarrengoan Arretxerekin
neurtu zituen indarrak,
bi atzelari jotzaille gogor,
biak gaiñera naparrak.
Askoren ustez lanak emango
zizkion luzaidearrak,
baiña azkenik egin zizkion
amabi tanto bakarrak.

Errandonea zuen aurkako
irugarren ta azkena,
zalantzik gabe bera izan zan
etsairikan gogorrena,
amabi eta amabost arte
aurretik izan zuena;
etzion beste tantorik egin
ortan bukatu zan dena.

Neure buruari

1994-ko maiatzaren lenengotik bigarrena bitarteko gauez izan nuen perlesi edo tronbosis dalakoaren joaldia. Arrezkeroztik nere bizitza mugatua gelditu zan; orduan uste nuen baiño askoz obekiago, baiña mugatua ala ere.

Etziran artean urte asko *Lasarte-Oria* aldizkari ontan bertan jarri nituela sei bertso, *Zartzaroaren ajeak* izenarekin doiñu berean moldatuak. Orduan ez nuen asko pentsatzen laister neuri zetorkidanik.

Doiñua: Aizak i, mutil mañontzi.

Nere bizitza-modua,
orain arte izandua,
lotan nagola uste gabean
dana aldatua.
Gaitz txar madarikatua
nedukan nunbait sortua,
tentsioaren indarrarekin
zaiñen bat lertua.

Zer etorkizun bikaiña
dadukagun alajaiña:
anketik erren, eskutik txangu,
lotua mingaiña!
Orain gure alegiña:
zerbait nai arren eziña
Utsa litzake geure buruan
jabeak bagiña.

Orain gorputza indartzeko
eta saltoka jartzeko
gatzik gabeko jana bakarrik,
ura edateko.
Ai zer poza bizitzeko
balitz denbora gutxiko!
Baiña esaten dutenez beintzat
bizitza guztiko.

Zerbaitetik utsera
gizonak aldatzen gera,
eguraldia bezela berdin
gauetik goizera.
Baiña onetik txarrera,
ez da gertatzen bestera;
saiatu arren ezin itzuli
txarretik onera.

Legor eta bero

Iru-lau bat urte inguru jarraian eraman giñun legorte bildurgarriarekin, eta bazirudien Monegros oien antzera jartzen ari zala gure Euskal Erria guztia. Baiña, igaroak igaro, berriz ere itzuli zan eguraldia bere onera, eta dan bezelakoa izaten jarraitzen du, Jaunari eskerrak.

Gu mendira joaten giñanean, iturri asko agorturik aurkitzen genituelako, kexu izaten giñan; eta pentsatu baserritarrak nola egongo ziran. Ainbeste kostatako ura etxean jarri eta uraxe ere agortu toki askotan, eta abereak goseak eta egarriak iltzear. Etzan berriketako kontua!

Len ere esan dutan bezela, lau arotan daukagun urtea bitan jarri bear ote zuen bildurtu giñan. Beste egal batean dioten bezela, sei illabete udara eta beste sei negu. Etzan izango oso egokia, baiña ortara gindoazen.

Emengo *Lasarte-Oria* aldizkarian atereak dira urrengo lau bertso auk.

Doiñua: Ai gure antziñako guraso nobleak.

Agur, irakurleak,
berriz emen gera
zerbait esatera:
nola gabiltzan emen
gutxi gora-bera.
Legorte baten egin
genduen sarrera,
eta iñolaz ezin
ortikan atera.
Ez da errez asmatzen
nundik jo aurrera.

Urte bat bukatu ta
asi da bestea,
ederra trastea!
Badakar mixeria
ta buruaustea.
Aize kolpe galantak
baiña legortea;
ala dijoa beintzat
lenengo partea,
Urtarilletik asi
ta orain artea.

Asi dugun urtea
bide okerrera,
gutziz legorrera;
alako da beintzat
daraman joera.
Iturriak agortu,
urtegiak bera;
bide orretatikan
goaz ondatzera.
Arro bagiñan ere
umilduko gera.

Ezin gindezke bizi
denbora luzean
urikan ezean;
kiratsa ta zikiña
nagusi etxean.
Laiñorik dan begira
eguna argitzean,
tanto batzuk jasoaz
noizik bakoitzean.
Etorkizun illuna
daukagu atzean.

Au dek ustel usaia!

Orain dozena bat urte inguru asi ta amar bat arte edo olakoren bat izango dira, izan zan bolara bat lapurretak emen eta lapurretak an, besterik apenas entzuten zan Espaiñi osoan zear. Bateko bankeroak, besteko politikoak, danak bata bezain bestea jo ta autsi lapurretan. Zeiñek baiño zeïñek milloi pilla aundiagoak ostuko zebiltzan. Txapelketa jokutzen zebiltzala zirudien nor zan lapurrik aundiena.

Lapurra ugari azaldu zan, baiña dirurik apenas agerturik izan bear zuen. Guk ez genduen beintzat jakin.

Lasarte-Oria aldizkarian argitaratuak izan ziran bertso auek.

Doiñua: Iparragirre abilla dala.

Gaurko berriak irakurtzean
datorren ustel usaia,
garai batean irakurtzeko
izango zan geiegia.
Bankeroen sasoia,
dana berentzat naia,
arrigarria da, baiña
politikoak ere badira
gutxienez berak aiña.

Mundua mundu dan ezkeroztik
beste oinbeste komeri
gure artean izango zanik
etzait iruditzen neri.
Lapurreta ugari
danok dugu nabari,
nun-nai ixuri odola;
bide ortatik ezin gentzake
pakerik lortu iñola.

Begira jarri nun-naira eta
dirua dabil tartean,
ez dute beste atsegiñikan
ori pillatu artean.
Ta alako batean
naikoa egitean
izan liteke eguna,
aspalditxoan gure artean
iñork ikusten ez duna.

Goren maillatik asita daude
zikinkerian nastuak,
iñor ez baidu ikaratutzen
gaur egunez pekatuak.
Orain dira kontuak
bistara agertuak,
baiña nai dunai apustu:
lapur ugari billatu arren
dirurik ezetz agertu.

Berriro ere Bangla-desh

Urteak dira aurreko puntan darabilkigula gure Bangla-desh au. Len bazanik ere etzekianak, ugari darabilki aotan lurralde errukarri ori oraintxe.

“Oraintxe” esan dut; baiña orain, berriz, zoritxar guztientzat toki berezia izan bear balu bezela, ugolde bildurgarriak eta aize-erauntsi krudelaz gaiñera, ondorengo izurri ta pestearekin osatu dute beren sortatxoa.

Errrukarriak benetan bertako biztanleak. Lengo gerra ta liskar guztien gaiñean au jasan bearra. Baiña olaxe dira gauzak eta datozen bezela artu bear.

Lasarte-Oria aldizkarian argitaratuak izan ziran bertso auek.

Doiñu illuna. Adibidez, “Aita ta ama Bizkaian daude...”. Balentin Berriotxoarena, alegia.

Bangla-desh-tikan etorri diran
azken aldeko berriak,
esaten dute nola dituzten
arazo bildurgarriak:
izan dituzten ugolde edo
eurite izugarriak,
eta ondoren sortu zaizkien
peste edo izurriak.

Lendik arlote bizi baziran
orra orain zer galera:
etxe-bizitzak urak eraman,
larru-gorritan kalera.
Gauza tristea da ori baiña
auxe da nere galdera:
ez ote dute okerragoa
sortu zaieten kolera?

Sarraski ortan berreun bat milla
gertatu bada galtzea,
bizi diranei tokatu zaie
kolera supritutzea.
Sendagai eta babesik gabe
gaitza danez sendatzea,
ez da izango arritzekoa
geiago ere iltzea.

Aize biurri ta euri jasak
egiten dituzten lanak
ez dirade an, itxura danez,
oso gozoak izanak.
Nere burura datoz oraintxe
aurreko zarren esanak:
zakur argalak mantendu bear
emen arkakoso danak.

Erri izatearen bentajak

Aurten udara kaskar samarra izan ondoren, udazkena izan genduen oso ona egualdiaren aldetik; eta, gure poza agertze-ko, lau bertso aukeratu jarri nituen. “Len lautan zegoena / orra bitan jarri” genion urte erdia udara ta beste erdia negua izateko itxurak artzen ari zan artan. Baiña beste aldera asitakoan ere oroitzea bidezkoa izango zalakoan, argitaratuak izan ziran *La-sarte-Oria* aldizkarian.

Baita gure erri izatea bere ezaugarriak ematen ari zala ikusteko ere. Asko baziran etzala batere ezagun esaten zutenak. Dana batera ezin konpondu eta legortean ura osatu ezin zalako berriketan ari ziranak ere bai-baziran, eta jakin zeza-ten ez giñala alperrik alegindu adierazteko ere bai.

Aurtengo ontan zoragarria
izan dugu udazkena,
zar eta gazte guztiontzako
benetako gozamena,
ta batez ere mendizaleak
urtero naiko lukena.
Gu orain ezin asko ibilli,
orrek ematen du pena,
baiña aspaldikorik onena
uka ezin ditekena.

Orain negua badatorkigu
ta ez jakin nolakoa,
itxu-itxuan artuko nuke
lengoa bezelakoa,
ez baizan izan negu biurri
ta zital oietakoa.
Egin dezala elurra zerbait
eta euria naikoa,
izotz askorik ez bada ere
egiña gurekikoa.

Egualdi onak beti berekin
ekartzen du legortea,
eta askori tokatu zaio
urik gabe egotea.
Esan dezagun orixe ere
badala naiko tristea,
guri etzaigu urik faltatu,
bada naiko suertea,
zorionean lortu baigendun
buru-jabe izatea.

Urtero beti oi dan bezela
badatoz Eguberriak,
oiek pasata ondoren berriz
urte zar eta berriak.
Kristau sentitzen geranontzako
benetako pozgarriak,
baiña kristau ta bestelakoak
danetik dauka erriak,
guztiei opa dizkiet aurten
egun txit zoragarriak.

Himalaian ere euskeraz

Oraindik urte gutxi berebiziko joera izan zuten euskal mendizaleak. Iru talde ezberdin izan ziran Himalaiako mendi lerroan; eta, au nola ez dan egunero gertatzen dana, lau bertso jarri nizkien, danak gaiñak artu ondoren iritxi ziranean. Gei-ago ere izango dira kirol zaillak. Baiña zaillentxoena derizkiot orixe. Batetik, or galtzen diran ainbat mutil, eta ibillera bildurgarri asko egin bear. Euskal Erritik iru talde egun gutxiren tartean munduko gaillurrik altuenak zapaltzen ibiltzea ez uste izan berriketako kontua danik. Ez-ta ametsetakoa ere. Bertso auek, biotzetik zorionduz jarriak, *Lasarte-Oria* aldizkarian agertu ziran.

Doiñua: Ai gure antziñako guraso nobleak.

Aurtengo Maiatzean
mendiko berriak,
gutziz pozgarriak,
Himalaia aldetik
onuntz etorriak.
Asko geunden aruntza
begira jarriak,
pasa dituztelako
bolara larriak.
Azaldu dira eta
ongi-etorriak!

Alberto Iñurrategik
amalaugarrena:
Anapurna izena,
zortzi milla metrotik
gora dagoena.
Egia bada beintzat
esaten dutena,
oraindaiñokoetan
bera okerrrena,
autatu zutelako
biderik txarrena.

Emakume bat ere,
ezaguna dana,
an dugu izana:
Edurne Pasaban da
beraren izena,
lenagotik Everest
igota zuena,
oraingoan Makalu
gainditu duena.
Ospatu zazu lasai
zure garaipena.

Artua dutelako
mendirako griña,
asko alajaiña
egiten ari dira
zenbait alegiña.
Ipar Euskal Erritik
bikote bikaiña,
Larrondaburuk eta
Laffitek egiña:
zapaldua digute
Everesten gaiña.

Urteko berri nagusia

Ez dakit laurak aldea edo zer izango zan, 2002 urteko Irailaren 11-n, asi ziran zalapartaka emengo irrati eta telebista guztiak, beste ezer munduan gertatu ez balitz bezela edo oke-rrago, Estatu Batuetan gertatu zanaren berri ematen.

Bereala esan nuen urteko berri nagusia izango zala, eta or nunbait ibillia izango nintzan.

Gero etorri zan etorri bear zuena, eta Afganistan guztia jo ta auts egin arteko onik etzuten izan. Bin Laden edo dalakoa topatu bear zutela ta etzutela, arrotu zituzten autsak bolara batean. Baiña uts egin zuten: ainbesteko txikiketak egin arren, aztarrenik ere ezin atera.

Lasarte-Oria aldizkariari bialduak izan ziran bederatzi puntuko lau bertso auek.

Gizaldia asi ta
lenengo urtean,
Irailak amaika
zitun goizean,
Ipar-Amerikako
iri aundinean,
egazkiñak ez dabiltz
bide zuzenean.
Beren barrenean
satorrak lanean,
ez asmo onean,
baizik txarrean.
Begira zer gertatu
zan azkenean.

Zein asmo biurriak
zeuzkaten barruan
eguna iristean
jakin genduan.
Torreak suntsitzea
zeukaten buruan.
Pentagono ere bai
al zuten graduana.
Oien inguruan
negarra zeguan,
arritu ginduan
eta esan nuan
egun garratza izan
zala munduan.

Asmorikan txarrenak
zeuzkaten berekin:
kamikazean lanak
egiten ekin.
Zeiñekin izango ta
Torre Biskiekin,
munduan ziradenik
ospetsuenekin.
Joera oiekin
ta antzekoekin
gauza onik ezin
iñola ere egin.
Pakea ezin egin
odolarekin.

Orain amerikarrak
ez dira gelditzen
Afganistan guztia
jo ta txikitzen.
Etsaia ortik dala
zaie iruditzen.
Orregatik dabilta
misillak jaurtitzen.
Ez dira aspertzen
Bin Laden billatzen,
baiña ez arkitzen.
Gu berriz pentsatzen
emen ote dabillen
alfonbrak saltzen.

Nora goaz?

Beste gauza askotan aurrera egin dan bezela, aurrak izateko kontu ortan beste inun baiño geiago egin dugu atzera gure Euskal Erri maite ontan; eta gero eta aurrerago joango geran itxurarik ez, gaiñera.

Alderantziz, gero ta jaiotza gutxiago iragartzen dute, azitzeko zailtasunagatik.

Alde ortatik arrazoi apurtxo bat ere badutela uste dut emakumeak. Zigortuak nabaitzen baidira bein irugarren aurra izaten dutenetik. Alako iseka apur bat ere bai anbat alkarren artean, eta ortan erori baiño len artzen dituzte beren neurriak eta kitto! Ortan dago gauza.

Ekonomi aldetik, gutxienez, berdin bear lukete bat izan, bi izan edo iru izan. Gauzak ondo kalkulatu eta dana jornaletik neurtu ta regulatu bearko luke gauza orrek.

Baiña nor asten da lan ortan? Oraindik inor ez; baiña asi bearko dute norbaitzuk. Bestela, euskal arraza, txinoekin eta ekuatorianoekin naastuta, laister da “txuri ta gorri ta kikirriki”. Orduantxe izango da naaste-borraste polita.

Beste egal batean ere idatzi dut ontaz. Lau bertso auek ere *Lasarte-Oria* aldizkarian argitaratu ziran.

Umeak gauza polita dira,
ez diot ezetzik orri,
baiña azteko nekeagatik
iñork ez du nai ekarri.
Zer ondorenak datozten ortik
arren pentsatuzten jarri:
aitona eta amona ugari,
neska-mutikoak urri,
momenturako lasaitasuna
gerorako negargarri.

Lasaitasuna atsegiña da,
ez dut ukatzen ori nik,
baiña ez uste bide ortatik
dana egiña dagonik.
Aspalditxotik antzeman nion
etzetorrela gauz onik,
ez gendulako gogoan artu
aurreko zarren esanik:
gaur umerikan ez baldin bada
biar ez dala gizonik.

Aurrak ugari ikusterikan
jostatzen aldamenean,
dauden bezela gauzak daudela,
gaitz da gaurko egunean.
Orretarako aurretik asi
bearra dago lanean,
aurtzaindegiak eroso jarri
ta gaiñera doaiñean,
amak ez dezan kezkarik izan
lanera dijoanean.

Aurrak izan da ondorenean
dauzkaten jaiak luzatu,
ama ta umeak jaio berritan
biak dezaten gozatu.
Iruditzen zait ongo eginda
dagoen plan bat osatu,
gobernu eta sindikatuek
lege jator bat garatu,
gaurko jaiotzen murriztasun au
lenbailen dedin bukatu.

Gezurra nagusi

Gezurra ta injustizia nagusi dabiltzan ontan, jarri zaitetz begira munduko edozein aldetara, eta ikusiko duzu zer-nolako koskak dauden nazio batetik bestera; bein ere izan diran aundienak, esate baterako.

Legeak egiten dituzte, itxura ederrekoak bai, baiña bete? Ortan daude kontuak, nai duenak nai duen bezela betetzen ditzutela, lege oiek ez baleude bezela, paper bustiaren antzeko gauza balira bezela, ezertarako balio ez dutela utziz.

Begira euneko 0'7-rekin ezagutzen dan lege ezagun-ospetsuari. Mundu ontako aberastasunak oso gaizki banatuak zeudela ta aiek berdintzeko edo arintzeko jarria izan zan arren, iñork ez du betetzen. Obeto esanda, Eusko Jaurlaritzak beste iñork ez omen du betetzen lege ori.

Ala esan zuen Jorje Reyes Planas Bartzelonako periodista eta *3^a edat per 3er Mont*-eko lendakariak, 2003-garren urteko kongreso ospetsu batean. Eskerrik asko zuri, Jordi jauna, guretzat ain onragarri dan azalpen orrengatik.

Emengo *Lasarte-Oria* aldizkarian argitaratuak izan ziran lau bertso auek ere.

Doiñua: Lagundurikan denoi.

Gaurko aurrerapenak
zertarako dira,
ez badira irixten
munduan erdira?
Orain Irak aldera
jar zaitez begira,
mixeri beltzanean
erori baidira;
ez daude igorikan
len zeuden tokira.

Jendea errukarri
dabil orain bertan,
ez dute janaririk
bertako dendetan,
ain gutxi botikarik
beren tokietan.
Zaurituak pillaka
gaixotegietan,
gosea ta negarra
toki guztietan.

Gerra bear bazuten
orra gerra piztu,
ori iraktareri
zaie egokitu.
Arma galeraziak
eduki balitu,
etsaiak gertu asko
ortxe izan ditu,
usatu gabe ezin
ziteken gelditu.

Petroleo usaia
urrutitik artu,
arma galerazien
kontua asmatu.
Itxura danez ezer
ez dute arkitu,
orain orren aitzakin
guztia suntsitu,
zitalak olakoak
egin izan ditu.

Txinpartak

Udaberriko eguzkia asi ezker, beti izaten da zerbaiten txuperraldia, eta bertsoak jarri nizkion neure buruari, eta ni bezelako askori ondo etorriko zaizkion ustean, eta beti gerran ez ibiltzearren ere bai beste zerbait.

Neure ibillerak batetik eta Lasarteko jubilatutako askorena da ori. Batzuk Oria aldetik eta besteak Santuanera, gure ibiltokiak oiek ziran lenago. Orain badaude geiago, baiña jendeak oietara jotzen du geiena. Naiz Plazaolako Trenbidea ta Elespe Parkea (Urbarte) ere poliki jarriak dauden arren, berezko ibiltoki jatorrak beste oiek izaten jarraitzen dute jendearentzat.

Lasarte-Oria aldizkarian argitaratuak dira lau bertso auk.

Doñua: Ikusten duzu goizean.

Asi gaitzen lanean
al dan modu onenean
guztion zorionean.
Len ere ala aritzen gera
okerrikan ezenean:
legearen barrenean
eta bide zuzenean,
beti edo geienean.

Goizean jaiki oietik
eta atera etxetik
zerbait ibiltzeagatik.
Eguneroko itzultitxo
geienen Santuanetik
edo Oria aldetik,
nola ez didan inportik
batetik edo bestetik.

Udaberria eltzean
ezin egona etxean
eguna argituztean.
Txorien kantak entzunez lasai
aruntz eta onuntzean;
eta bidean ertzean
loretxoak ikustean
poz artzen dut biotzean.

Aurten urte bat geiago
eraman bearra dago,
mundu onetan banago.
Alegiñean banabil baiña
geroz eta makalago,
urteaz kargatuago
eta indarrez aulago,
etsi bearrean nago.

Agur samiña benetan

Inazio Eizmendi Manterola, *Basarri* izenez ezagunagoa, ez uste toki erosoan eta argian jaioa zanik, Errezilko partean dagoen Beama baillarako *Granada* baserrian baizik. *Garnaa* deitzen diote an ingurukoak.

Orain inguruko basoak kenduta dauzka, baiña garai batean inguru guztia basoz estalia zuen, mutikoa zala Zarautz ederrera etorri bazan ere.

Alde ederra dago leku batetik bestera. Bat, izan ditekunik traketsenetakoa; eta bestea, berriz, politagorik iñun arkitzen ez dan oietakoa.

Baiña ez gatoz ortara, berri illun eta tamala ematera baizik. Lengo egun batez jakin baigenduen aspalditxoan gaixo antzean zebillen Basarri il zala, eta goian dezala atsedan.

Ez dut uste ezertxo esan bearrik dagoenik Basarri jauna zer izan dan Euskal Errian; baiña 1946-47 urteetatik asi ta ia berrogei ta amar urtean jarraitu zion egunkarietan idazteari. Bai irratiz itzegiteari ere, berrogei urtez ta geiago. Euskeraz, ez urte gutxian, naiz egunkarietan eta naiz irratian, bera bakarrik gaiñera, urte mordo galantean.

Esan genezake baserritarren kronista bakarra edo bakar samarra izan zala ainbeste urtean. Bertsolaria, berriz, ez dago esan bearrik zer izan zan eta zer erakutsi eman zituen. Goian bego Basarri aundia, pixuz eta gizonez.

Auek ere *Lasarte-Oria* aldizkarian argitaratuak izan ziran.

Euskal Erriaren iparraldetik egoaldera,
eta sortaldetik asi sartaldera,
toki guztietan oso ezaguna zera.

Nola izparringiz eta ala irratiz,
beti euskera txukun eta garbiz,
gau illunez bezela berdin egun argiz.

Urte askoan zure jarraitzaille izan gera,
eman diguzulako alako aukera,
irakurri ta entzuteko erriko euskera.

Zu izan zera gure baserritarren pozgarri,
nola kazetari, ala esatari eta berdin bertsolari.
Danetan izan zera gerra osteko aitzindari.
Agur, Basarri, egun aundira arte.
Gu ere or gaituzu laister.

Luzaro iñork idatzi gabe
galdutzen ari zanean,
salbatutzera agertu ziñan
euskeran zorionean.
Basarri maite, zu izan ziñan
gerraren ondorenean
irratiz eta berdin izketan
grazirik ederrenean,
zu izan zera aitzindaria
euskeran alde lanean.

Gauza onikan ezin ekarri
garai artako giroak,
euskera galtzen ari zitzaigun,
txepeltzen gure gogoak.
Zuri eskerrak berpiztu ziran
barrenen zeuden asmoak.
Aitortzen dizut: euskeran alde
egin ziñun lan sendoak.
Zenbateraiño izandu zeran
esan dezala geroak.

Oraindik gerran?

Bai, jauna, bai. Oraindik ere gerran eta bukatzeko egundaiño izan duen itxurarik gutxienarekin, gaiñera. Ala zeuden gauzak bertso auk idaztean, eta ala daude gaur. Eta biar ere ala izateko arrixkua, gauzak erabat aldatzen ez badira beintzat.

Gerra edo gerra izenekoa bereala bukatu zan. Etsairik etzutelakoan ziran amerikarrak. Ez dakit zer arma oso arrixkutsuak zeuzkala Sadam Hussein-ek, eta Estatu Batuetatik zeuden gizonik adituenak bialdu zituzten Irak arakatzera. Ezer billatu etzutenean, nuklearrik beintzat, zeuzkaten aundienak suntsitu zituzten, lotsagabekeri galanta bera ere. Baiña ori baiña aundiagoa: gerra eman zioten, ez bat eta ez bi. Zergatik? Petroleoa zegoelako? Zergatik, bestela?

Baldin egiak badira beintzat andik datozen berriak, Irak aldean gertatzen dira naiko ixtillu larriak. Amerikarrak jaun eta jabe nola zeuden an jarriak, itxura danez orrelakorik ez du onartzen erriak.

Berebiziko ikustaldia eman ez ziran ekiñak, nola bomba ta ala misillak, tanke eta egazkiñak. Begiratuta esan ziteken ango lanikan aundiñak udaberria amaitzerako zeudela danak egiñak.

Amerikarrak seguru zeuden: irabazi zuten gerra. Egun gutxiren barruan orra egindako lan ederra. Orrela ziran usteak baiña sortu zitzairen okerra: gerran ixuri etzan odola gero ixuri bearra.

Orregatikan dauzkate orain naikoa ixtillu txarrak, gorrotoz bete-bete egiñak baidauzkate angotarrak. Ez al da garbi ikusten orain zer diran amerikarrak? Gerran garaile indartsu baiña pake egille kaxkarrak.

Itzez nai, baiña bestela?

Itzez alkarri ematen diogun ainbeste bestela emango bagenio, ez litzake, ez, O. N. U. ta ez beste ezeren bearrik izango, danok lasai bizitzeko.

Baiña itzezkoa ta egizkoa guztiz ezberdiñak izan, ordea; eta or dago kokka edo, obeto esateko, koska. Mundua zilipurdika jartzeraiño okertu dan arren, berdin jarraitzen diogu geure bideari. Zorion ugari itzez, eta ostiko latzak diximuluan alkarri emanaz.

Urte bat joaten danean bestea etortzen da, eta aurten ere eldu zaizkigu emen egunak, kalean bein ere baiño zorion geiago opa oi dizkiogunak itzez alkarri; baiña alde aundirik ez da izango gaiñerakoan.

Beste zenbait gauzetan ez dago zalantzarik asko aurreratu dugula; baiña alkarrenganako maitasunean ez dut uste aurrerakorik egin dugunik. Ortan batekoz bestera, ziur aski.

Gauak luzatu zaizkigu eta laburtu berriz egunak, izotza eta elurra noiz-nai, jun ziran egualdi onak. Danak ez nuke esango baiña orrela dira geienak, udaberria etorri arte jasan bear ditugunak.

“Pakea eta anaitasuna” danok itzetik ortzera, alkar ikusten dugun garaian esanez aritzen gera. Ikusi nai baldin baditugu gauzak batekoz bestera, naikoa dugu itzez esana ematen asten bagera.

Bi milla urte inguru dira
Jesus Aurra jaio zala,
eta oraindik oroitutzen da
gauza berri bat bezala.
Ikusirikan gaur oraindikan
ere ospatutzen dala,
aurrera era urte askotan
ospatzen jarrai dezala.

Alkarri ondo opa izanez
itzez esan ditugunak,
al baldin bada ongi igaro
Eguberri ta Gabonak.
Eta ondoren betoz Urte Zar
eta Urte Berri onak,
nere aldetik guztientzako
pakea ta zorionak.

Gau-festak

Egunak ordu pilla galanta izaten duen arren San Pedro inguru ortan, ez du nunbait grazirik egunezko festak eta orain gauetz jartzen dituzte.

Aurreneko asi ziranean arritu egiten giñan; baiña denborak zauri guztiak sendatzen dituela esaten dute, eta gu ere oitu egiten ari gera, trakeskeria da baiña, gauetzko jaietara.

Lizardi olerkariak pentsatzen zuen bezela pentsatu ezkerok, ez lukete egingo orrelakorik. Baiña ura aspaldi il zan, eta orain gauetzko festen zale diran oiek ez dituzte, berriz, nik ainbeste ordu gauetz lanean igaro. Bestela, jakingo zuten gaua oerako dala gauza ederra, eta ez beste ezertarako.

Erriko jaiak eldu dira ta
astera noa kantari,
orretarako badatorkigu
gaur zer esana ugari.
Jan eta edan ondo egiñez
eutsi umore onari.
jaiak etzaizko gaizki joango
orrela dabilenari.

Oartzarako igaro zaigu
oraintxe ere urtea,
legor samarra izan da baiña
ez dugu gaizki pasea.
Izandu ditun akats guztiak
obe lenbailen aztea,
oinbesteko bat gure Jainkoak
eman deigula bestea.

Gazten oiturak aldatu dira
gure garaitik onera,
ta festak ere joan zaizkigu
egunetikan gauera.
Goizera arte parrandan eta
gero egunez oera,
gaur gaztedia orrela dabil
labe zomorron antzera.

Gauetz ditugu musika eta
beste jaialdi geienak,
naiz gure ustez ez izan oiek
jokabide zuzenenak.
Gaua nolabait igaro eta
goizaldean nai zezenak,
arratsaldean lo egiteko
gauetz egin ez dutenak.

Berrogeitamargarrena

Erreza da esaten baiña atera egin bear dute berrogei ta amar ale, utsik egin gabe urtean bi atereaz, erri koxkor batean, bertako jende xearekin bakarrik.

Egia da, bai, urtean lau ateratzen asi zirala, baiña azkar konturatu ziran geitxo zirala. Urrena, iru. Aiek ere geiegi eta bereala pasa ziran urtean bira; eta orain aspaldian urtean bi ateratzen dituzte, eta zorionik beroenak, ondo irabaziak dituzute-ta, egiten ari zeraten lan bikaiñagatik.

Zer esanik ez *Lasarte-Oria* aldizkariagatik ari naizela, bertan ikusi baizuten argia ondorengo lau bertso auek.

Sortzen ari zan erri onentzat
ziteken gauzik onena,
errian bertan errikoentzat
lana egin zezakena,
aldizkari bat ateratzea
izango zala lenena.
Bedeinkatua zuen artean
izandu zan gogamena,
utsikan gabe atera baida
berrogeitamargarrena.

Une batean bildurtu giñan,
bazirudin ondamena,
urtean irutara jetxi zan
lendik lautan zegoena.
Andikan laister bitara berriz,
ai ura jendean pena!
Oraingo ontan asmatu nunbait
neurririk egokiena,
bide ortatik etorri zaigu
berrogeitamargarrena.

Erriko berri zabaltzen duzu
gazteena ta zarrena,
bertan gertatzen ari dana ta
kanpotikan datorrena,
oraintxe bertan gertatu dana
eta lendik zetorrena.
Lagun koadrilla alkartu eta
bildurikan alkarrena,
begira nola ateratzen dan
berrogeitamargarrena.

Zerbait egin nai dugun garaian
asitzea da aurrena,
asitakoai jarraitutzea
or datorkigu urrena.
Askotan diru kontua dugu
arazorikan txarrena,
urrena berriz orrenbeste lan
egiteak dakarrena,
danengatikan emen daukagu
berrogeitamargarrena.

Mitch izeneko aize-erauntsia

Ertamerika alde ortan gertatzen diranak arriturik uzten gaituzte. Aspaldi ontan, beintzat, ez dira batere berri pozgariak. Pentsatzen jarri ezker, tamala da benetan urteak joan eta urteak etorri ta geroz ta pobreago dijoaztela ikustea. Baiña ortan dijoa Ertamerika.

Izan ere, etzan eta lo edozein urte garaitan egiten dan toki guztietan, berdintsu gertatzen dala uste dut. *Klima tropikala* dan tokietan, gizon alperrak eta emakumeak umeekin arrastaka antxe, bizi eziñik.

Orain, berriz, dalako *Mitch* izeneko aize-erauntsi bildurgarria eman dieten palizarekin arrunt ondatuta geldituak dira.

Ertamerikan bada
naiko komeria,
izana dute ekaitz
gutziz galgarria.
Beti badu berekin
aulak aulgarria,
izan dan sarraskia
zan bildurgarria,
Mitch gaiztoan ondoren
ikaragarria.

Bizitz errukarria
an daramatena,
pentsatzeak bakarrik
ematen du pena.
Lendikan ezer asko
etzedukatena,
aize-erauntsiekin
galdu dute dena:
etxeak, jantzi eta
jateko zutena.

Kosobotarrak

Kosobo aldean ere naiko saltsa badute oraintxe berekin. Yugoeslabiarekin luzaro egona izan bear du, *región autónoma* bezela, eta orain gerran jo ta autsi. Bertako bizilagunen erdiak aldegin bear izan omen dute. Ume asko, berriz, gurasoak ilda edo nun dituzten aztarrenik gabe arkitzen dira. Onera ere asiak dira etortzen, eta artu ditzagun merezi bezela.

Kosobotarrak asi zaizkigu
irixten Euskal Errira,
norabait bear gaixoak eta
daramazkiten tokira.
Gerra gaizto bat sartu dalako
len bizi ziran errira,
beren gustora ez datoz noski,
beartuak izan dira.

Maite zaituzten ainbeste gauza
an bertan-bera utzirik,
etorri diran geienak daude
beren buruaz etsirik,
Biotz onakin artu ditzagun,
ezin gentzake besterik,
erakutsiaz gurea baiño
ez dala erri oberik.

Orduak murriztu

Lan eskasia zebillen bolara artan, beti nere iritzia izan zan lan-orduak murriztea; eta oraingoan ere orrekin nator.

Lan eskasia danerako erremedio bakarrenetakoa orixe da, zalantzarik gabe gaiñera. Lana normal dabillenerako ordutegi bat jarri ta, lanik ez dan bolara danean, murriztu apur bat. Jendea kalera bota aurretik alegiñak egin bearreko gauza litzake. Baiña beti gertatzen dana: gizona beti gizonarentzat otsorik txarrena; eta, solidaridadea itz ederra aitzakia artuz, beti bere burua salbatzera, naiz lagun urkoaren aurka izan. Eta orretzek ekartzen du konpondu eziña.

Doiñua: Aizak i, mutil mañontzi.

Izango badugu jana
egin bear dugu lana,
eta ori da nai izan arren
askok ez daukana,
Bilduaz alkarrengana
banatzeko dagoana,
orixe da gaur nai eta nai ez
egin bear dana.

Gazte jendeai galdetu.
lanik arkitutzen eztu.
Ez al da ori bera naikoa
egoteko estu?
Badugu zerekin poztu:
laneko orduk murriztu,
guztiok lana egiñez gero
guztiok partitu.

Parlamentariak eta gaupaseroak

Eusko Lege Biltzarrean izan zan bolara bat, eta bat ere beti naikoa, alkarri gaizki itzegitekoa, edozein taberna baztarri zorrik etziona. Diran itzik zakar eta itxusienak, *zapla!*, botazen zizkioten edozeini; eta, ori eziñezkoa iruditurik, jarri nuen bertso au eta *Lasarte-Oria* aldizkarian argitaratu; eta urrengo bertsoa ere, “Gaupaseroena” ere alaxe da.

Zerbait garrantzi aundiko gauza
eskuetan dutenean,
liskarrarekin bukatzen dute
beti edo geienean,
erri guztia telebistatik
begira dagoenean.
Gizatasunan apur bat izan
Jainkoaren izenean!

Itxuraz ondo ibilli arren
bakoitza bere langintzan,
asteburutan ikusi bear
kalean nola dabilzan.
Aurrera asko egin dugula
zientzi eta jakintzan,
etzaigu asko nabarmendutzen
kalean nola gabiltzan.

Binaka jarriak

Itz-lauz idatzi ondoren bertso batekin edo birekin bukatzeko oitura izan dut denbora luzean, eta olako bakar batzuk emen agertu nai ditut.

Agur bero batekin
nator zuengana,
aldizkari onetan
egin nairik lana.
Biltzen baldin bagera
danok alkargana,
etorkizun ohea
dator guregana.

Urtetikan urtera
zenbat gauza berri
gure buru-jabetzak
dizkigun ekarri!
Baiña ikasi ezik
barkatzen alkarri,
ez gerade izango
bear ainbat erri.

Urte erdi bat igaro zaigu
lengo irten alditikan,
ixilik egon bagera ere
bizi gera oraindikan.
Tarte ontako legorte eta
beroak gairiditurikan,
orain otzean sartu gera ta
badugu zer esanikan.

Aize otza ta kazkabarrakin
noiz-nai elurra dijoa,
lengo urtetan ain gutxi eta
ez al da geiegizkoa?
Naiz eta gure ustez aurtengo
egiña dagon naikoa,
nai eta nai ez artu bear da
goitik etorritakoa.

Azken agurra

Lagun batek eskatu zizkidan, bere lengusu apaiz baten aldeko mezetan kantatzeko bertso batzuk, eta nik onoko auek jarri nizkion.

Bukaturikan itxura danez
mundu ontako denbora,
lengo batean aldegin zendun
emen betikan or gora.
Zure izaeraz konturatuta
auxe datorkit gogora:
bere garaietan deitu dizula
Jainkoak bere ondora.

Ez nioke nai miñikan eman
iñori emen, al dala;
baiña aitortu nai ditut gauzak
diranak diran bezala.
Lagun artean bildutakoan
bai atsegiña ziñala,
zeru ta lurren Jaun ta Jabeak
berekín euki zaitzala.

Nere iritziz apaiz jatorra
zu beti izandu zera,
euskaldun izan jatorriz eta
maite zenduen euskera.
Zeruan nola izanduko dan
ezagun gure izkera,
esku-soiñua joaz kantatu
ainguruakin batera.

Zenbateraiño mingarria dan
zuri agur esatea!
Baiña ez dut nai izaterikan
au despedida tristea.
Atsegiña zan zure ingurun
bildurikan egotea,
toki apur bat gorde guretzat,
agur, lagun zar maitea!

Errenteriko aitona Patxori

Zugana nator pozez kantari,
aitona Patxo maitea,
bete baiduzu irurogei ta
amargarrengo urtea.
Lau alaba ta lau billobakin
suiak eta emaztea,
danon artean zoriontsu ta
luzaro bizi zaitea.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Nere bizi	13
Nere bidea	15
Nere ametsen kabia	24
Erromeriak	34
Nere sorlekua	39
Pertsonaiak	46
Ipui eta kontakizunak	57
Azokak eta periak	67
Gurdiak eta lerak	70
Urdanetako abizenak	76
Gazte sasoiak	80
Bertsoak idazten	86
Aprikara soldadu	95
Lagun jator bat	111
Katu baltza	119
Noizbait bukatu bear	123
Egoera larria	125
Izena eta izana	129
Bertsoak eta bertsolariak	150
Gai jartzen	166
Seme-alabak eskoletan eta abar	183
Lasartera bizitzera	189
Barria	213
Mixelin fabrika	220
Errigintzan	228
Jubilazioa	241
Mendiko ibillaldiak	243
Federazioan	246
Azken urteak	264
Bertso idatziak	279
Zaletasuna	281
Maitagarri maitatua	283

Eiztari kaxkarrak	285
Txoriak	287
Sorgiñak	289
Alkar agurtzen	291
Guraso elkarte	293
Pernando Tripaki	295
Portugalen gertatua	297
Eiztari txarrak eta onak	299
“Mea culpa”	301
Jaso buruak, baserritarrak	303
<i>Intza</i> elkarte	304
<i>Pinto</i> azkarrari	305
Ama samindu bat	307
Umezurtza	308
Bi bertso zeure buruari	309
Oiartzunen kantatuak	310
Agur, Xalbador!	311
Lasarteko gora-berak	314
Sagarzazu-tar Josebari agur	317
Agur, Joxe Mari!	319
Txapel zanari agurra	321
Aitonaren gogoetak	323
Zorionak, Mattin!	325
Gauzak beren tokian	327
Askatasun eskea	329
Lagunarteko berriketak	331
Artzaien eriotza	333
Maite minduen larrialdiak	335
Euskera munduan zear	337
Zorionak, Joxe Agirre!	339
Negua	341
Udaberria	343
Udara	344
Udazkena	346
Gaixozai bati	348
Euskera gaixoa	349
Itzak ez dira naikoa	350

Arratsalde pozgarri bat	351
Omenaldi bat	352
Udaberri illun bat	353
Adibide bat	354
Aita Onaindiari barkapen eske	355
Mattiñi omenaldia	357
Agur betiko, Pantxo!	358
Txoriak kartzelan	360
Gau illun bat	361
Ongi-etorri berriro	363
Nere zorion agurra	365
Emakumea nagusi	367
Eutsi goiari, Patxi!	369
Geure buruaren jabe	371
Amonatxoen negarrak	373
Eskerrak emanez	375
Agur bati eta ongi-etorri besteari	377
Agur, Iturbe	379
Negu ta udara luzeak	380
Urteak aurrera	382
Lazkao-Txikiri	383
Udaberriari	385
Golfoko gerra	387
Ondo igaro	389
Ongi-etorriak	390
Bosnia errukarriena	392
Zartzaroaren ajeak	394
Maratoia	396
Ni naizen bezela	398
Ongi-etorri	400
Gorrotoa lege	402
Errukia noizko?	403
Beloki	405
Neure buruari	406
Legor eta bero	407
Au dek ustel usaia!	409
Berriro ere Bangla-desh	411

Erri izatearen bentajak	413
Himalaian ere euskeraz	415
Urteko berri nagusia	417
Nora goaz?	419
Gezurra nagusi	421
Txinpartak	423
Agur samiña benetan	425
Oraindik gerran?	427
Itzez nai, baiña bestela?	428
Gau-festak	430
Berrogeitamargarrena	431
Mitch izeneko aize-erauntsia	433
Kosobotarrak	434
Orduak murriztu	435
Parlamentariak eta gaupaseroak	436
Binaka jarriak	437
Azken agurra	438
Errenteriko aitona Patxori	439

